

Datiboa hiztegia

Datiboa hiztegia

Beatriz Fernández Fernández
Jon Ortiz de Urbina



Debekatuta dago liburu hau osorik edo zatika kopiazea, bai eta berorri tratamendu informatikoa ematea edo liburua ezein modutan transmititzea, dela bide elektronikoz, mekanikoz, fotokopiaz, erregistroz edo beste edozein eratarata, baldin eta *copyright*aren jabeek ez badute horretarako baimena aurretik eta idatziz eman.

Azaleko irudia: Pablo Monedero Arribe

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

ISBN: 978-84-9860-433-7

Lege gordailua: BI - 2.502-2010

Fotokonposizioa: Ipar, S. Coop.
Zurbaran, 2-4-48007 Bilbao

Inprimatzea: Itxaropena, S.A.
Araba Kalea, 45-20800 Zarautz (Gipuzkoa)

Maria Carmen Fernández
Edelmiro Fernández

Eulalia Arruabarrena
Juan Felix Ortiz de Urbina

gure gurasoei

eta

(h)i-ri

Aurkibidea

Hitzaurrea	11
1. Oinarrizko argumentu konfigurazioak	15
1.1. Konfigurazio datibodunak eta datibogabeak	15
1.2. Theta-rolak	19
1.2.1. Helburua eta iturburua	23
1.2.2. Esperimentatzailea	24
1.2.3. Jabe datiboa eta interes datiboa	24
1.2.4. Igoera datiboak: onuradunak eta beste	26
1.2.5. Aspektu/ekintza datiboak	28
1.2.6. Ohar bat araziez	29
2. Inakusatibo datibodunak I	31
2.1. Inakusatiboetako datiboen theta-rolak	32
2.1.1. Inakusatiboetako datibo gaiak	32
2.1.2. Inakusatiboetako jabe/interes datiboak	35
2.1.3. Inakusatiboetako datibo helburuak	38
2.2. Beharrezko datiboen aztarnak adizki inakusatibo trinkoetan	42
2.3. Alternantziak inakusatibo datibodunetan	54
2.3.1. Datibo alternantzia	55
2.3.2. Datibo eta postposizio alternantziadun predikatuak: aspektu/ekin- tza predikatuak eta aspektu/ekintza datiboak	59
2.3.3. Datibo eta postposizio alternantziadun predikatuak eta datibo- postposizioak	62
2.3.4. Datibo osagarrien kidekoak	70
3. Inakusatibo datibodunak II: predikatu psikologikoak	75
3.1. Datibo esperimentatzaileak eta predikatu psikologikoak	75
3.2. Beharrezko datiboak predikatu psikologikoetan	77
	9

3.3. Alternantziak predikatu psikologikoetan	84
3.3.1. Inakusatibo datiboduna eta datibogabea	84
3.3.2. Inakusatibo datiboduna: ohar bat datibo/postposizio konfigurazioaz	94
3.3.3. Konfigurazio iragankorrak: esperimentatzaile ergatibo eta absolutiboak.	97
3.3.4. <i>Axola</i> eta <i>inporta</i>	102
3.3.5. Taula bat, laburpen gisa	106
4. Inergatibo datibodunak	109
4.1. Beharrezko datiboak inergatibo datibodunetan.	109
4.1.1. Aspektu/ekintza aditzak: <i>ekin</i> , <i>eman</i> , <i>eragin</i> eta <i>eragon</i>	111
4.1.2. Beste inergatibo datibodun batzuk: absolutibo/datibo alternantzia zantzuak	121
4.1.3. Taula bat, laburpen gisa	128
4.2. Absolutibo/datibo alternantzia erakusten duten aditzak	129
4.2.1. Hizkeren araberako alternantziak, adieren araberakoak eta alternantzia osoak	129
4.2.2. Hizkeren araberako alternantziak	133
4.2.3. Adieren araberako alternantziak	144
4.2.4. <i>Begiratu</i> eta abarren kasuaz ohar bat	155
4.2.5. Alternantzia osoak	157
4.2.6. Taula bat, absolutibo/datibo alternantziadun aditzak biltzen.	170
5. Iragankor datibodunak	173
5.1. Beharrezko datiboen aztarnak adizki iragankor trinkoetan.	173
5.2. Theta-rolak	176
5.2.1. Iragaitea: helburuak, iturburuak eta onuradunak	177
5.2.2. Jabe datiboak eta interes datiboak	179
5.2.3. Igoera datiboak.	182
5.3. Alternantziak.	184
5.3.1. Datibo alternantzia: alderdi orokorrak	185
5.3.2. Datiboak iturburu.	188
6. Beste kategoria batzuen datibo osagarriak.	199
6.1. Adjektiboak	199
6.2. Izenak	210
6.3. Postposizioak	213
7. Ondorioak	223
Aipamenak	225
Aurkibideak	231
Hitzen aurkibidea	233
Egileen aurkibidea.	235

Hitzaurrea*

Lan hau egitasmo handi baten lehen urratsa da. Hasieran, liburu bakaurrean, euskal datiboa, eta bere bidetik, oro har, datiboa gramatikan zehar atalez atal aztertzeke asmoa genuen. Denboraz, baina, konturatu ginen ia ezinezkoa zela ale bakarrean biltzea datiboaren inguruko azterketa osoa, hau da, hiztegitik hasi eta sintaxia zeharkatuz morfologiara heltzen dena. Horregatik, gramatikaren atal bakarrean lan egitea erabaki genuen, hiztegian alegia. Hala, datiboa hiztegian bereziki arakatu nahi du liburu honek.

Hiztegia diogunean gizakiok garunean ezarririk dugun jakintza sistemaren hiztegiari ari gara, eta hori ez da hitzaren ohiko adiera irakurle askorentzat, ezta iniziatuak direnentzat ere. Berez, gramatika sortzailean lanean dihardugun gramatikarion ikuspegia da gurea, eta testuan zehar theta-rolen hitz egingo dugu, iturburu edota jabeez, onuradun edota helburuez, gogoaren hiztegian bilduta dauden aleen ezaugarri tematikoez alegia. Baita predikatuen oinarritzko konfigurazioez —adibidez, *niri hori ahaztu zait* bezalakoak predikatu psikologikoez ari garela— edota konfigurazioen arteko alternantziez —esaterako, *ahaztu* psikologiko berak lehengoarekin batera *nik hori ahaztu dut* konfigurazioa ere badu, eta biek alternantzia osatzen dute—. Dena den, alternantzia hitza berez modu deskribatzaile batez darabilgu, predikatuen askotariko argumentu konfigurazioak adierazteko. Horrek ez digu eragotzi tarteka alternantzien azterketa teorikoaren eremuan paradigmatikoa den Levinen (1993) lanera jotzea, edota egile berak elkarlanean egindako lan berriagotara (Levin & Rappaport 2005), gure lanerako interesgarriak diren al-

* Liburu honetan jasotako hitz asko eta askotaz eman digun hainbat argibiderengatik eta egin dizkigun iruzkinengatik, bihotzez eskerrak eman nahi dizkiogu Ibon Sarasolari. Liburu hau bost ikerketa proiekturen babesean prestatu dugu: UPV/EHUren EHU06/20; Ministerio de Ciencia e Innovación-en FFI2008-00240/FILO; Agence Nationale de la Recherche-ren ANR-07-CORP-033, eta Eusko Jaurlaritzaren (HM-2009-1-25) eta (IT414-10).

derdian sakontzeko. Izatez, gure lehen helburua deskribatzailea izan arren, askotan auzi teoriak gidatzen dute gure azterketaren norabidea, batzuetan itzalean eta besteetan agerian.

Alabaina, gure ikuspegia lantzeko, ez dugu nahitaez teoria sortzailetik —bere adiera teknikoan— edan. Liburu honek ezin utzizko datu-iturri eta are hizkuntza altxor izan du *Orotariko Euskal Hiztegia (OEH)* (Mixelena & Sarasola 1989-2005), eta irakurlea berehala ohartuko denez, hiztegi horrekin zordun gara. Ez dira hitzak eta euren adierak bakarrik hiztegi honek eman dizkigunak; hiztegi hau ez da testigantza klasikoak jasotzeko datu-iturri hutsa izan guretzat. OEH hitzen benetako konfigurazioen eta konfigurazio alternantzien gordailua bihurtu da gure jardunean zehar. Orobat, konfigurazioen euskalki edota hizkera banaketa zein den ere ikasi dugu bertatik, eta horrek berebiziko garrantzia du hizkera aldakortasuna iparra duen edozein hizkuntzalarientzat, gu tartean. Hitzaurre hau idazten ari garela jakin dugu OEH sareratu duela Euskaltzaindiak. Hamaika lan aurreratuko genukeen lehenago izan balitz. Nolanahi ere den, zorioneko berria da edozein euskalari eta euskaldunentzat halako altxorrik guztion eskura izatea eta erraztasunez erabili ahal izatea, gainera. Testigantza klasikoetarako, bestalde, *Klasikoen Gordailua* (KG) corpusaz ere baliatu gara, baina neurri txikiagoan, eta bestela adierazi ezean, adibide klasiko guztiak OEHtik jaso ditugula ikusiko du irakurleak.

Hala ere, ez dugu testigantza klasikoetara mugatu nahi izan gure lana, eta gaurko euskara biziaren berri jasotzeko, *Ereduzko Prosa Gaur (EPG)* corpus ederraz baliatu gara batez ere. Idatzizko testigantzak bakarrik pentsatuko du irakurleak, eta hala da hein handi batean, baina idatzizkoak izan arren, gure lanerako beharrezkoa zen datutegi aberatsa osatzeko aukera eman digute, denboraz idatzizko testuez baliatuz egin dugun deskribapen zehatz eta osoa, ahozko euskararen ere aztertuko delakoan, eta beharrezkoak diren ñabardurak gaineratuko zaizkiolakoan hizkera formaletatik ikasitakoari. Azkenik, EPGekin lan egiteko behin eta berriro baliatu dugun tresna bat aipatu nahi dugu. *Cor-sintax* (Landa 2008) corpus arakatzailleaz ari gara. Corpus arakatzaille honek, intuitiboki genituen usteak euskarri objektibo batez neurtu eta berresteko bidea eman digu, eta gure lana xehetasun handiz garatzen lagundu digu.

Corpusek, hala ere, badute kontuan hartu beharreko ezaugarri bat: ez dute biltzen hiztun bakar baten (idatzizko) hizkuntza ekoizpena, hiztun askorena baizik. Horregatik, hizkuntza sistema batez hortik atera daitekeen ikuspegia zabalegia izan daiteke, ziur aski bertan jasotzen den aldakortasuna eta biltzen diren ezaugarri guztiak ez baitira hiztun beraren baitan aurkitzen. Euskal hiztun batek ere ez ditu bere gaitasunaren barruan izango hemen aipatuko ditugun datiboen inguruko datu hauek guztiak. Corpusek ematen dituten argazkia *langue* delakoaren meta-sistemarena da, hizkuntzalari askok jomuga dugun *competence*, alegia, gaitasunarena baino areago. Azken hau hiztunaren sistemari dagokio, ez hiztun taldearen sistemari. Hiztun baten hizkuntza sistema eta beste batena ez dira beti bateragarriak, ez eta hizkera

bitako sistemak ere, bien artean ezberdintasun gramatikalak egon daitezkeelako hain zuzen ere. ‘Hizkera’ hiztunaren eta hiztunngoaren arteko entitatea bera ere, abstrakzio bat da, denetariko azpisistemak biltzen dituena. Horrezaz gain, OEHz baliatzeak areagotu egiten du arazo hau, gure datuak iraganeko sistemetatik ere badatozelako, eta ez dutelako zertan bat egin behar gaurko sistemarekin. Aldez aurretik aitortzen dugu gurea bezalako oinarrizko hurbilketa batean, askotarikoa den datu iturriak distortsioa sor dezakeela, eta ziur aski, aurrerantzean konfigurazio eta alternantziak askoz zehaztasun gehiagorekin arakatu beharko direla euren hizkera eremua zein den hobeto jakin eta, beraz, fenomenoak egokiro ulertzearren. Hala ere, gure hasierako ikuspegi hau zabal samarra izan arren, saiatu gara orokorrak diruditen konfigurazioen mugak nolabait zehazten. Bestalde, alternantziak askotariko ertzak erakusten dituen kasuetan —4. kapituluko inergatibo datibodunen alternantzien kasuan, esaterako—, hizkera banaketa duten alternantziak, adieren araberakoak eta, azkenik, hizkera sistema beraren barruko alternantzia osoak ezberdintzen saiatu gara. Hemen jorratuko ditugun fenomeno gehienak orokorrak dira, baina orokorrak ez direla uste izan dugunean, eremu diakroniko edota sinkronikoa mugatzen ahalegindu gara, ahal izan dugun neurrian behintzat. Ez da beti lan erraza izan: EPG corpusean islatzen dena, euskararen beste garai eta euskalkietako ereduak inoiz baino hobeto ezagutu (eta erabil) ditzaketan idazleen izkribuek osatzen dute, batzuetan argazki nahasia sortuz. Lehengo garaietako hizkerak beharbada interferentzia gutxiago jasango zuten, baina, aldi berean, haien argazkia partziala da sarri eta bereizmen txikiagokoa. Guztiarekin ere, espero dugu gure lan honetan argazki orokorraren lerro nagusiak bereizi ahal izatea.

Hauxe da, bada, gure lanaren fruitua. Dagoeneko gurea ez den liburua, gure irakurlearena eta, oro har, euskalariena baino.

1

Oinarrizko argumentu konfigurazioak

Has gaitzen gure eginkizunean liburuan zehar erabiliko dugun terminologia aurkezten, datibo argumentuak ager daitezkeen konfigurazioak ahalik eta gehien zehaztearren. Ikusiko dugunez, honek badu bere garrantzia, euskalaritzaren ohiko deiturek, sarri askotan ilunak izateaz gain, ezberdinak diren konfigurazioak deitura beraren barruan biltzen dituztelako.

1.1. Konfigurazio datibodunak eta datibogabeak

Aditzek izan ditzaketen oinarrizko argumentuen arabera, denboraz nolabait klasikoa bihurtu den sailkapena egiten dute euskalariak. Euskaltzaindiak (1987b: 47-59), esate batera, *nor*, *nor-nori*, *nor-nork* eta *nor-nori-nork* motako aditz oinak bereizten ditu, eta horretarako aditz oinak *nor* argumentua ote duen bakarrik ala *nor* argumentuaz gain, *nork* ere beharrezkoa ote zaion eta abar begiratzen du. Esate batera, *etorri* aditzak *nor* (etorri) adierazi beharra du; *gustatu* bezalako aditzek, berriz, *zer* edo *nor* eta *nori* (gustatu) adierazi behar dute. Sailkapen honek, gure ustez, arazo nabarmenak ditu, batzuk besteak baino larriagoak.

Lehenik, kontzeptualki, ez da berez aditz oinen sailkapena, aditzen konfigurazio posibleen zerrendatzea baizik. Hau da, adierazi nahi dena ez da izatez *etorri* predikatua *nor* predikatua dela, *nor-nori* konfigurazioan ere ager daiteke-eta (*etorri zaigu*). Beharbada, sailkapenaren azpian dagoen intuizioa da konfigurazio bi hauetako bat oinarrizkoagoa dela bestea baino, eta guretzat intuizio hori interesgarria bada ere, geroago aztertuko ditugun alternantzien hausnarketa sakon batetik etorri beharko litzateke, ez ezerezetik. Guk, hemen, neutralagoa den sailkapena egin nahi genuke, ez horrenbeste aditzena euren, ez bada argumentu konfigurazioena. Balizko konfigurazioen arteko harremanak ere orokorrak dira sarri askotan, harreman tematiko eta sintaktikoen arteko prozesuen

ondorioz. Esate baterako, *irakurri* konfigurazio askotan iragankorra (*zer-nork*) den arren, egitura inpersonalean adibidez (*gutxi irakurtzen da*) iragangaitza da (*nor*): egitura iragankorrean *zer-nork* argumentuak izatea eta iragangain-tzean *nor*, eta bi egituren arteko erlazioa horrelakoa izatea, ez da berez *irakurri* aditzaren ezaugarri idiosinkrasikoa. Idiosinkrasikoa da aditz bat konfigurazio alternantzia batzuetan agertu ahal izatea —*itsasoari/itsasoa begiratu*— edota ezin agertzea —*hori bururatu zait/*ni bururatu naiz horretaz*—, nahiz eta ha-lakoetan ere, ikusiko dugunez, orokorpen sintaktiko edota semantikoak ere ba-dauden. Hortaz, guri orain interesatzen zaigun sailkapena, euskarak eskaintzen dituen argumentu konfigurazio posibleena da, ez predikatuen eurena.

Bigarrenik, euskalarien artean *nor-nori*, *nor-nork* bezalako labelak oso orokortuta dauden arren, guztiz opakoak dira, kasuari berari —absolutibo, da-tibo, ergatibo...— aipamena egin beharrean, kasu horren formari — \emptyset , $-(r)i$, $-k$ — begiratzeko baitiote. Euskalaria ez denak ez du zertan jakin behar euska-raz, datiboa, oinarriari $-(r)i$ morfema ezarriz osatzen dela, eta gainera, ez da hori bereziki garrantzia duen informazioa. Garrantzizkoa dena da forma hori *datiboa* izatea, hain zuzen, ez datiboa zein morfemaren bitartez azaltzen den. Egia da hizkuntzalaritzan, oro har, *datibo* izenak nahaste terminologiko nahi-koa sor dezakeela; *nor* deiturak, berriz, ez du bat ere sortzen, baina ez bere-ziki deitura argia delako, guztiz ulergaitza delako baino. *Datibo* hitza hizkun-tzalaritza hiztegietan sartzeko moduko alea da; *nori*, aldiz, ez.

Hirugarrenik, *nor-nori-nork* deitura euskararen aditz komunztaduraren egiturak kutsatuta dago. Aditz laguntzaile bakoitzak bi konfigurazio onar-tzen ditu, datiboduna bata eta datibogabea bestea, *naiz-natzaio/dut-diot*, *daiteke-dakioke/dezaket-diezaioket*. Iragangaitz bi gehi iragankor bi, oina-rrizko lau sailak lortu arte. Baina ezkerreko *d-* morfema edota $z-/l-/b-/ \emptyset$ mor-femak hirugarren pertsonako absolutibo komunztadura markak izan beha-rrean (Hualde 2003), denbora markak direlako ebidentzia argia dago. Beraz, hirugarren pertsonako ergatibo komunztadura marka bezalaxe, absolutibo komunztadura euskaraz \emptyset marka dela pentsa daiteke (Trask 1977, Euskal-tzaindia 1987, Laka 1988). Horrek esan nahi du, batzuetan, *dut* forman hiru-garren pertsonako absolutibo komunztadura marka egon daitekeela..., baina ez nahitaez. *Dut* adizkian *d-* absolutibo komunztadura dagoela onesten duen analisisian, nahitaez bi argumenturen komunztadura markak topatzen ditugu: bata absolutiboarena, *d-*, eta ergatiboarena bestea, $-t$. Baina *d-* hori argu-mentuekin zerikusirik ez duen denbora marka bada, *dut* forma anbigua da. Ergatibo bat dagoela ezin daiteke ukatu, $-t$ komunztadura atzizkiak hala era-kusten duelako, baina hirugarren pertsonako absolutibo komunztadurari da-gokionez, baliteke marka bat izatea, \emptyset alegia, ala ezer ez izatea —ez eduki fonetikorik ez duen marka morfologiko bat, \emptyset den bezala, baizik eta marka morfologiko bat ere ez egotea—. Beraz, *dut* adizki bera agertzen zaigu bai *er-gatibo-absolutibo* argumentu biko konfigurazioan, bai *ergatibo* argumentu ba-karreko konfigurazioan ere: *ikusit dut* eta *dimititu dut* formetan, *dut* laguntzaile bera izan arren, biak ezberdinak dira, bigarrenak ez baitu absolutiboaz ager

litekeen argumenturik —eta lehenak bai, noski—. Laguntzailearen morfologiari eta argumentuei begiratuz, ez gara, beraz, ondorio berberetara heltzen.

Hala, gure sailkapenak *argumentuen kopuruaren* eta *kasuaren* arabera-koa izan beharko du. Nolanahi ere, ohiko *nor*, *nor-nori* sailkapenaren eraketaren ezaugarri bat hartuko dugu kontuan, simetrikotasuna alegia. Aditz laguntzaileak iragankorrak eta iragangaitzak dira, eta mota ‘soil’ edo datibogabeari datiboduna kontrajartzen zaio. *Dut*, *dezaket* eta horrelako formen anbiguetatea kontuan harturik, iragankor mota bi berezi beharko ditugu, baina, funtsean, gure sailkapenean forma datibogabeak izango ditugu alde batetik, eta, simetrikoki, hauei datiboa gaineratzearen ondorioz sortutako beste konfigurazio konplexuagoak, alegia, datibodunak:

1. taula

datibogabeak	datibodunak
abs <i>etorri da</i>	abs-dat <i>etorri zaio</i>
erg <i>etsi du</i>	erg-dat <i>ekin dio</i>
erg-abs <i>ireki du</i>	erg-dat-abs <i>ireki dio</i>

Hala ere, konfigurazio bakoitzaren argumentuak zerrendatzea zehatza bai, baina astuna ere izan daiteke. Horregatik, izen erabilgarriagoak bilatuko ditugu, batez ere —baina ez bakarrik— liburu honen ardatz izango diren konfigurazio datibodunetarako. Ezkerraldeko hiru motek badituzte berez nahikoa hedaturik dauden deiturak: *erg-abs* mota ohiko egitura iragankorra da, eta *abs*, iragangaitza. Perlmutterren (1978) oinarritzko lanetik aurrera, hala ere, iragangaitz —edo, behintzat argumentu bakarreko— mota orokorraren barruan bi azpisail ezberdin izan dira: *inakusatiboak* —*abs*— eta *inergatiboak* —*erg*—. ¹ Guretzat garrantzitsuagoak diren eskumako zutabeko

¹ Ingeleseko deiturak *unaccusative* eta *unergative* dira. Euskaratzerakoan *ez-akusatiboa* eta *ez-ergatiboa* erabili izan dituzte —guk tartean— eta badarabiltzate askok, baina, terminologiaren bazterrak gehiago nahasteko arriskua izanagatik ere, *inakusatiboa* eta *inergatiboa* hobetsiko ditugu hemen. Perlmutterren aurkikuntza distiratsua izan bazen ere, erabili zituen izenak nahasgarri izan ziren, horretarako beharrik ez bazegoen ere. Euskarazko *ez-akusatiboa* edo *ez-ergatiboa* erabiltzean deitura horien esanahia konposizionala dela iradokitzen da, baina nekez etorriko zaio argirik irakurleari izen horietatik. *Ez+izen* hitz eraketa nahikoa bazterrekoa izateaz gain, euskararen barruan *ez-ergatibo* horiek dira, hain zuzen ere, ergatibo baten bidez markatzen diren iragangaitzak; eta euskaraz akusatiborik ez dagoenez zer izan daiteke *ez-akusatibo* izatea? Guztiz deitura ilun eta desegokiak dira hauek. *Inakusatibo/inergatibo* deiturak ere ilunak dira, baina behintzat ez diote inori ilusiozko argitasunik sortzen, eta jatorrizko izenekiko lotura, bederen, gordetzen dute.

moten artean *erg-abs-dat* motari *ditrantsitiboa* deitu izan zaio sarrien, baina beste biek ez dute berez euren izenik. Hiru azpisailei deitura sistematikoa emateagatik, ‘datibodun’ gaineratuko diegu, ezkerraldeko deitura ezaguna gordez. Hala, beheko deiturak dira erabiliko ditugunak:

2. taula

	datibogabeak	datibodunak	
inakusatibo	abs <i>jaiki da</i>	abs-dat <i>etorri zaio</i>	dat-abs <i>gustatu zaio</i>
inergatibo	erg <i>etsi du</i>	erg-dat <i>ekin dio</i>	
iragankor	erg-abs <i>ireki du</i>	erg-dat-abs <i>ireki dio</i>	

Berriro ere diogu hauek konfigurazio motak direla —ez predikatu motak—, gehienetan aditz bera askotariko konfigurazioetan erabil daiteke-eta (*idatzi du, idatzi dio, idazten da, idazten zaio* etab.). Geroago, konfigurazio nagusiak banaka-banaka ikusi ondoren, euretariko batzuen arteko harremanez ere mintzatuko gara, hau da, argumentu konfigurazioen alternantziez.

Konfigurazio datibodunak aztertzen hasi baino lehenago, oinarriko mota hauei balizko beste bi gehi dakieeken aztertu behar dugu. Gogoratu, arestian esan berri dugunez, hirugarren pertsonako absolutibo komunztadura \emptyset denez, *dut* bezalako forma morfologikoa anbigua dela argumentuen araberan. Batzuetan, baliteke argumentu absolutiboa hor izatea, islapen fonetikorik gabe bada ere (*ireki dut* adibidez); beste batzuetan, berriz, litekeena da ezer ez egotea (*etsi dut*). Diferentziak honek, eta argumentu kopuru diferentiek konfigurazio inergatibo eta iragankorren artean bereiztera bagaramatza, orduan, baliteke *da* edo *zaio* formak ere anbiguoak izatea: kasu batzuetan benetan \emptyset morfemaz markatzen den argumentu absolutibo bat dagoela pentsa genezake, eta beste batzuetan, benetan horrelako argumenturik ez dagoela. Aldez aurretik begiratuta, benetan absolutibo argumenturik gabeko erabilera inakusatibo (iragangaitz) hauek nekezago aurkitu beharko liriteke, konfigurazio inergatibo eta iragankorretan ez bezala, inakusatiboan absolutiboa subjektua baita, eta normalean, subjektu argumentu bat behar dute perpaus guztiek. Ba al dago, beraz, subjekturik gabeko erabilera inakusatiborik, datiboduna —*zaio*— zein datibogabea —*da*— izan?

Halako konfiguraziorik inon bilatu nahi izanez gero, egitura inpertsonaletara jo beharko genuke, printzipioz mota honetakoak baitira absolutiborik gabeko inakusatibo zein inakusatibo datibodun hauek. Baina inpertsonal arruntak (*Dirudunei diru eske joaten zaie*) alternantziatzat jo beharko geni-

tuzke,² beti aditzaren beste erabilera ‘pertsonal’ batekin uztartzen baitira. Gure oraingo mintzagai nagusia ez bada ere, badaude arrazoiak hor ere benetako (nahiz eta isilpeko) absolutibo argumentua dagoela esateko. Ba al dago, beraz, absolutibo hutsezko inakusatiboen bestelako adibiderik? Litekeen beste kasu sorta bat, eguraldi predikatuen artean bila genezake, *tru-moika ari da/zaigu, bero dago, atertu da/zaigu*, edota Villasantek (1980: 166) Axularrengandik biltzen duen honetan:

(1) Arratsten eta ilhuntsen zaien lekhuak (Ax 14)³

Baina, hemen ere, semantikan eta sintaxian nahiko hipotesi estandarra da *quasi-arguments* edo *erdi-argumentuak* dauzkagula uste izatea, hau da, argumenturik ez dugula pentsatu beharrean, erreferentziarik gabeko argumentu bat dugula pentsatzea (Chomsky 1981: 325, Rizzi 1990: 86) —kasu honetan, *eguna, egurraldia*, edo antzeko argumentu baten isilpeko ordaina—. Hau horrela izaki, beraz, ez genuke izango absolutibo argumenturik gabeko konfigurazio inakusatibo soil zein datibodunik, batzuetan absolutibo horren izaeraz zalantzak sor litezkeen arren. Nahikoa dugu, beraz, 2. taulako sailkapen seikoitzarekin oinarritzko argumentu konfigurazio datibodunetan barrena abiatzeko. Lanean zehar, inakusatibo datibodunak —2. eta 3. kapituluak—, inergatibo datibodunak —4. kapituluak— eta iragankor datibodunak —5. kapituluak— aztertuko ditugu, baita aditz ez diren gainerako predikatuak ere —6. kapituluak—. Abiatu baino lehen, baina, datibo argumentuen theta-rolen inguruko eztabaida egingo dugu.

1.2. Theta-rolak

Azterketa honetan predikatuen argumentuak ager daitezkeen konfigurazioez arduratuko gara. Argumentuak eta gune sintaktikoak (edo, nahiago bada, funtzio sintaktikoak) lerratzeko modu asko egon daiteke, edo, bestela esanda, argumentu berberak funtzio sintaktiko (eta kasu morfologiko) ezberdinetan ager daitezke. Guri bereziki axola digun argumentua, datibo kasuaren bidez marka daitekeena da. ‘Marka daitekeena’ diogu, zeren gure helburuetako bat baita predikatu jakin bateko argumentu bera datiboaren eta balizko beste marka batzuen arteko loturak (‘alternantziak’) aztertzea. Predikatuen argumentu egituraz ari garenean, geroago argituko denez, ez gara bakarrik arituko hiztegiak, ezta gorago azaldu dugun zentzu teknikoan bada ere. Hiz-

² Dena den, inpersonalak bezalako alternantziak ez ditugu lan honetan aztertuko. Ezta argumentu kopuruari eragiten dioten bestelako alternantziak ere, hala nola, araziak. Argumentu kopuruari eragiten dioten alternantziatarako, eskura dauka irakurleak Aldezabalen (2004) doktorego tesia. Halaber, lan hori bera nahiz Aldezabal, Aranzabe, Atutxa & Lersundi (2002) balia ditzake irakurleak, Leinen (1993) proposamena alternantziak alternantzia aztertzeko.

³ Liburu honetan, OEHren laburdurak erabiliko ditugu klasikoan aipamena egiteko.

tegiro argumentu horien eta konfigurazio sintaktikoen arteko lotura izango da gure aztergaia. Izan ere, ‘datiboa’ ez da berez hiztegian erabil daitekeen nozioa: kasu marka da hau, funtzio sintaktiko/gune sintaktikoen ondorioa, ez predikatuen argumentu egiturari zor zaion nozioa.

Ondoko orrietan zehar, argumentu egitura eta konfigurazioen arteko lotura egiterakoan, hau da, konfigurazio gramatikaletan datiboz markatutako elementuak predikatuen argumentuekin lotzeko, theta-rolak erabiliko ditugu, ikuspegi gehienetan hauek baitira benetan hiztegian predikatuek dituzten argumentuen tasunak. Beraz, hiztegi eta gramatika egituraren arteko loturari gagozkionez, argumentuen theta-rolak aipatuko ditugu behin eta berriro, faktore nagusia direlakoan. Bestelako faktoreak ere zehaztuko dira; esate baterako, predikatuen aspektu egituraketa oso garrantzizkoa izan da lerratze horren alderdi batzuetan, batez ere Dowtyk (1979) Vendler filosofoaren aspektu sailkapen semantikoa eta gramatikala lotu zituenetik. Han-hemenka, predikatuen aspektu motak argumentuen burutzapen morfologiko edota sintaktikoan izan dezakeen eragina aipatuko dugu. Baina datiboaren azterketan eta, are, hiztegi eta sintaxiaren arteko loturaren azterketan ere, theta-rolak dute lehenetasuna. Horregatik, atal honetan, liburuan zehar erabiliko ditugun theta-rolak aurkeztuko ditugu. Argi gera bedi hasieratik, gure interesa ez dela argumentuen semantikan edo pragmatikan aritzea, eta, beraz, ez dela gure interesa, theta-rolen definizioak fintzea edo haien azterketan larregi sakontzea. Gure helburu nagusia konfigurazio sintaktikoekiko loturaren azterketa izanik, rolen semantika zabal eta sakonetik, lotura horretarako erabilgarriak diren alderdiak bakarrik arakatuko ditugu. Askotan, beraz, semantikaren aldetik erraztuegiak diren ‘makro-rolak’ erabiliko ditugu, konfigurazio sintaktikoekiko lotura aztertzeko askoz gehiago findu gabe aproposak direlakoan.

Sarri askotan azpimarratu izan da datiboen ‘tartekotasuna’ aditzen inguruan agertzen diren osagaien aldetik. Alde batetik, aditzen oinarrizko argumentuen artean koka daitezke, ergatibo eta absolutiboarekin. Komuntadurak, sintaxiarekin lotuta dagoen eremu morfologikoak, argiro biltzen ditu datiboak ergatibo eta absolutiboekin batera, postposizioez markatzen diren sintagmak ezin baitira inflexioarekiko harreman berezi horretan sartu. Beste aldetik, datiboak ez daude postposizioetatik oso urrun, eta oraindik ere komuntadurari bagagozkio, ipar-ekialdeko hizkeretan oso hedatua dago *datibo komuntadura galera* deritzana — ikus Etxepare & Oyharçabal (2008a,b,c) Fernández & Landa (2009) eta Fernández, Ortiz de Urbina & Landa (2009) —.

Semantikaren ikuspuntutik, ergatibo eta absolutiboaren theta-rolak ez dotoz berez kasu marketatik, aditzarekiko harremanetik baizik. Esate baterako, ondoko ergatibo sintagmek askotariko theta-rolak erakusten dituzte eta oso ezberdinak, gainera, bata besterarekin konparatzen hasiz gero: *Jonek* helburua ala egilea izan daiteke (a), eskutitza heldu zaion ala eskuz hartu duen. Bestalde, jasailea da (b) perpausean; egilea berriz ere (c)-n, baldin eta edalontziak bete baditu, baina gai neutroagoa 20 urte bete baditu; (e)-n, esperimenez zailzat har dezakegu. Azkenik, *eguzkiak* seguruenik iturburu antzeko theta-rola

dauka (d) adibidean, kontrolik eta borondaterik gabeko emisorea den neurrian. Bestalde, ez dirudi *Jon* eta *Jonek* argumentuek theta-rol diferentea dutenik, bati absolutiboa eta besteari ergatiboa ezarri arren (3) adibideetan:

- (2) a. *Jonek* eskutitza hartu du gaur goizean
- b. *Jonek* denetarikoak jasan ditu
- c. *Jonek* edalontziak/20 urte bete ditu
- d. Eguzkiak izpiak emititzen ditu
- e. *Jonek* gorrotoa dio horri

- (3) a. *Jon* irten da
- b. *Jonek* urten dau

Kasu guztietan ergatiboaren theta-rola aditzari zor zaio, predikatuak adierazten duen ekintza edo egoeraren argumentua izatetik, ez kasu markatik bertatik. Bestalde, postposizio markek badute normalean berezko eduki semantikoa: *Jonek* bakarrik esatean ez dago jakiterik aldez aurretik zein theta-rol daukan horrela deritzanak, baina *mendian* diogunean, inongo aditzik gabe bada ere, badakigu lekuaz ari garela.⁴ Gauzak hala, gure galdera da ea nola jokutzen duten datiboek theta-rolari dagokienez. Bada, atalaren hasieran aipatu dugun tartekotasuna nabaritzen da honi dagokionez ere. Alde batetik, oinarrizko argumentuekin duten lotura ezin ukatuzkoa da, aditzaren arabera alda baitaiteke datibo askoren eduki tematikoa. Ondoko adibideetan, predikatuaren semantikak —eta gure munduaren ezaguerak— diosku *Mikeli* datiboaren theta-rola zein den:

- (4) a. *Mikeli* eskaini diote erlojua
- b. *Mikeli* garagardoa erosi diote
- c. Batzuek etekina atera zioten sinplekeria horri (Zientzia Net, G. Roa, 2004-09-01)

Lehenengoan *helburua* da *Mikeli*, baina (b) adibidean, *Mikel* saltzailea bada, *iturburu* antzeko zerbait da —lagunartean errondan badabil, berriz, *helburua* edo *onuraduna* ere izan daiteke—. *Iturburu* rola nabariagoa da (c) adibidean, *sinplekeria horri* osagarriaren bizigabetasunak errazten duen inter-

⁴ Postposizioez markatutako sintagmak osagarriak izan daitezke, eta halakoetan ez da arraroa oinarrizko eduki semantiko hori galtzea, osagarriak, definizioz, aditzarekin erlazio estu batean sartzean, bertatik hartzen baitute theta-rola. Ezberdinak dira, beraz *Jonekin* sintagmak dituen theta-rolak *Jonekin etorri naiz* eta *Jonekin fidatu naiz* perpausetan, bigarrean osagarri soziatiibo horrek ez baitu konpainia-edo adierazten.

pretazioarekin. Predikatuen arabera aldatzen da theta-rola, beraz, predikatua zentzu zabalean hartuta, gainera —kontuan izan osagarriek ere predikatuaren esanahia zehazten duten heinean, datiboaren theta-rola ere zehazten dutela, zeharbidez bada ere—.

Ostean, aditz batzuen osagarriek absolutibo eta datibo alternantzia jasaten dute, sarri askotan —ez beti— aldaketa semantiko nabarmenik gabe:

- (5) Jon deitu dut / Joni deitu diot

Ez dirudi theta-rol ezberdinik daukagunik goiko *Jon eta Joni* absolutibo eta datibo argumentuetan, hurrenez hurren. Kasu hauetan, aditzarekin duten loturatik datorkie theta-rola bai datibo argumentuari bai absolutibo argumentuari. Halaber, egitura arazleetan —ondoko adibideetan— datiboaz markatzen dira araziak —aukeran mendeko aditz inakusatiboarekin (a) eta halabezarrez, iragankorrarekin (b)—. Hortaz, datiboak halakoetan argumentu absolutibo eta ergatiboa ordezkatzeko dituela dirudi:

- (6) a. Joni/Jon etxera joanarazi diot/dut
b. Joni garagardoa edanarazi diote

Joni datibo argumentuaren rola badu zerikusia bai *arazi* predikatu nagusia-rekin —arazia nor den— bai *joan/edan* mendeko predikatuekin. Jokoan dauden rola, guztiarekin ere, predikatuen argumentuen ohiko rola dira, alegia, predikatutik bertatik datozenak, eta ez datibotik.

Dena den, aipatu ditugun kasu hauek guztiak alde batera, batzuetan osagai datibodunen rola nahiko hurbil egoten dira ohiko beste zehar argumentuen roletatik. Hala, zenbait kasutan, datiboak erraz zehatz daitekeen berezko zentzua gaineratzen dio aditzari, zehar argumentuen postposizio marken antzera (a):

- (7) a. Jon Mikeli joan zaio
b. Joni jostailua apurto zaio

Lehenengo adibidean, lekuzko helburua adierazten du datiboak, eta mugimendu aditz batzuekin topa daitezke honelakoak —ikus 2.3.1—. Adlatibo postposizioaren antzekoa da datibo hau, eta *Mikelengana* adlatibo biziduna aurki daiteke bere ordez. Orobat, bigarren adibidean datiboak jabetzarekin edota interesarekin dauka zerikusia —ikus 1.2.3—, ez aditzaren beraren berezko zentzuarekin. Gertaerak zeini axola dion adierazten du datibo honek, eta rol hori datibotik datorkio, ez gertaera adierazten duen predikatutik. Duvoisinen hizkeran, adibidez, erraza da zehar argumentuetatik edo, nahiago bada, adjunktuetatik hurbil dauden datiboak aurkitzea, hala nola, ondokoak Fernández eta Landa (2009) lanetik jasoak:

- (8) a. Arbola zer haizeri baitzagoen xertatzean, gero ere haize berari egon behar da (Dv *Lab* 382)
- b. Ezen haren izenaren gatik abiatu dire bideari, paganoen ganik deusik ez hartuz (Dv 3 Io 1, 7 —KG—)

Nolanahi ere, datiboaren eduki semantikoa zenbaitetan berezkoa izateak ez digu argitzen datiboa duen osagaia benetan oinarritzko argumentua ala zehar argumentua den. Azken batean, arazoak ertz semantikoak dituela onarturik ere, muinean arazo sintaktikoa da. Sintaxia liburu honetan jorratuko dugun eremua ez den arren, esan dezagun datiboak nahiko argumentu bereziak direla haien jokabide sintaktikora begira eta han-hemen bete ditzaketen gune sintaktikoetara begira. Kontuan izan, zehar argumentuetatik ‘hurbilen’ dauden argumentuak direnez, hizkuntza askotan eta baita euskararen zenbait hizkerez ere — ikusi bestela eman ditugun azken adibideak — adjuntu periferikoak izaten diren postposizio sintagmen eremu sintaktikoan kokatzeko erabiltzen direla sarri askotan. Halaber, oinarritzko argumentuetatik periferikoenak direnez, oinarritzko argumentu horien ezaugarriak ere partekatzen dituzte —komunztadura tartean—. Hala, sintaxian aurkako bi itxura, jokabide eta gune dituzten argumentu eta adjunktuen ezaugarriak kasu beraren barruan, alegia, datiboaren barruan biltzen direla dirudi. Horrek dakartzkio datiboari bere konplexutasun eta xarma.

Izango dugu beste inoiz honetaz luzaro hausnartzeko abagunea. Bitartean, hauxe da gure oraingo auzia: datiboen theta-rolak askotarikoak badira ere, batzuk behin eta berriro topatuko ditugu oinarritzko argumentu konfigurazioetan eta konfigurazioen arteko alternantziatan. Gure jomuga horiexek aurkitzea izango da, hain zuzen. Bidean erabiliko dugun terminologia finkatuko dugu ondoren, azterketa semantiko finegietan sartu gabe.

1.2.1. *Helburua eta iturburua*

Lekuzko helburuak batez ere adlatiboaz markatzen badira ere, datiboak askotan *pertsona helburuetarako* erabiltzen dira. Pertsona helburuak batzuetan gauzen eta zerbitzuen hartzaileak dira (a,b) eta beste batzuetan mugimenduen ohiko helburuak (c):

- (9) a. Mezu bat bidali didate
- b. Fabore bat egingo didazu?
- c. Joni hurbildu zaio

Kasu prototipikoak dira hauek, eta liburu honen zereginetatik kanpo dauden ñabardura asko egin beharko lirateke eurak direla eta, baina honelako

argumentuak sarritan gaineratu daitezke oinarrizko argumentu konfigurazio batean (*idatzi du/dio, joan da/zaio*).

Helburu rolaekin batera, kontrako norabidean balitz bezala, iturburu ere aipa genezake, goiko (4b) adibidearen adieretako batean ikusi duguna: *Mikeli garagardoa erosi diote* hartan, baldin eta *Mikel* saltzailea bada, orduan iturburuaz hitz egiten dugu (ez helburuaz). Iturburu hauek arreta handiagoz aztertzen ditugunean bai predikatu inakusatibo bai iragankorretan, interes datiboekin —1.2.3 atala— elkartzea egokiagoa izan daitekeela aldarrikatuko dugu. Analisi sintaktiko/semantiko batzuetan (Pylkkänen 2008), hala ere, helburu eta iturburuak batera tratatzen dira.

1.2.2. *Esperimentatzailea*

Prozesu psikologikoetan gizaki baten buruan sentitzen dira gai batzuk, *estimulu* deitu izan direnak —ikus Levin (1993: 189)—, eta sentitzen dituen esperimentatzailea da:

- (10) a. Coca-Cola gustatzen zait, aitortu egiten dut
- b. Joni esandakoa damutzen zaio

Ikusiko dugunez, helburuak ez bezala, gutxiagotan izaten dira esperimentatzaileak aukerako argumentuak. Goiko adibideetan bi predikatuek ezinbestean dute datibo argumentua —nahiz eta (a) adibidean ezkutatu egin den—. Konfigurazioan datibo argumentua agertuz gero, ezinbestekoa ala aukerakoa den erabakitzea da garrantzia duena. Besterik da ea esperimentatzailea datiboan markatzen ez den beste konfiguraziorik badagoen. Esate batera, *damutu* aditzarekin, goiko (b) adibidearen ondoan, alternantzian, *Jon esandakoaz damutzen da* ere esan liteke. Geroago ikusiko dugunez, oso alternantzia eza-guna da hau predikatu psikologikoetan. Kasu honetan ere esperimentatzailea ezinbestekoa da, absolutiboaz markatzen den arren. Dena den, konfigurazio batzuetan esperimentatzailea absolutiboa eta ez datiboa izateak ez garamatza esatera datibo argumentua aukerakoa denik. Hau da, aukerakoa den ala ez erabaki ahal izateko, datibo argumentuak lehenik eta behin dena delako konfigurazioan agertu beharra dauka, jakina.

1.2.3. *Jabe datiboa eta interes datiboa*

Gertaeraren bat norbaiti bereziki interesatzen zaiola adierazteko, datiboaz baliatzen dira hizkuntza asko. Eta gehien interesatzen zaizkigun gauzen artean geure ondasunak edota gauzak daudenez —berez geure-geureak dire-

nak, gorputz atalak edo giza erlazioak barne—, *jabeak* dira askotan datiboaz markatzen direnak. *Jabe datiboak* deritzegu hauei:

- (11) a. Semea Ameriketara joan zitzaidan
- b. Autoa matxuratu egin zait

Jabetza axola digunaren ohiko gaia bada ere, *interes datiboaren*⁵ edo, nahiago bada, *datibo etikoaren* eremua zabalagoa da. Ondoko adibideetan ahazten denak ez du zertan nirea izan behar, baina bietan gertaerak zerikusi estua du nirekin. Esate baterako, (a) adibidean, giltza nirea izan daiteke edo nik ekarri beharrekoa; (b) adibidean ere, nik esan beharreko zerbait da ahaztutakoa:

- (12) a. Giltza ahaztu zait
- b. Esatea ahaztu zait

Jabea datiboaz adierazten denean *kanpoko jabetzaz* (*external possession* ingelesean) hitz egiten da, eta barruko jabetzari kontrajartzen zaio —ikus Payne & Barshi (1999)—. Azken honetan, jabea objektuaren modifikatzailea da: *nire semea Ameriketara joan da* esaterakoan, jabea (*ni*) *semea* izen sintagmaren ‘barruko’ modifikatzailea da; aldiz, *semea Ameriketara joan zait* perpausean erlazio bera, hots, jabea aditz nagusiaren datibo argumentu bezala agertzen da, *semea* sintagmatik kanpo. Jabetza erlazioa bietan antzekoa bada ere, ez dira guztiz berdinak semantikaren edo pragmatikaren aldetik. Esate baterako, jabe datiboetan jabetza hutsaz gain, interesa ere garrantzizkoa dela azpimarratzeko, Etxeparek (2003: 420-421) aipatzen dituen ondoko datuak oso argiak dira. Lehenengoan (a) ez bezala, bigarrean (b), Jon bizirik dagoelako ideia iradokitzen da:

- (13) a. Jonen ama hil da
- b. Joni ama hil zaio

Etxeparek dioenez, (b) esateko, gertaerak Jon ukitu behar du —horretatik Jonnek gertaeran izan dezakeen interesa—, eta hala izan dadin, Jonnek bizirik egon behar du. Hala ere, batzuetan ez da batere erraza jabetza edo interesa ezberdintzea, eta, horretaz gain, ez dago argi gramatikari begira bereiztea merezi duen. Beherago ikusiko dugunez, jabetza eta interesaren alderdi gramatikalak berdintsuak dira, eta ezberdintasunak gehienetan pragmatikaren eskutik datoz. Oro har, gertaera edo egoera bat norbaitentzat garrantzizkoa

⁵ Datibo etiko edota interes datiboa deiturak erabiliko ditugu testuan zehar bereizketarik gabe.

delat adierazten dute datibo hauek, garrantzia gertaera horretako argumentu baten jabeak garelako, edo gertaera, askotariko arrazoi pragmatikoengatik, nire interesekoa delako. Jabetza bera ‘interes’ zabal horren barruan sar deza-kegenez, beharbada azpikasu guztietarako label orokorra bilatzekotan ‘inter-
res datiboa’ erabiltzearekin nahikoa genuke.

1.2.4. Igoera datiboak: onuradunak eta beste

Datibo asko jabe datiboak edo, behintzat, interes datiboak izan daitez-keela ikusi berri dugu. Genitibo baten ordezkioak dira datibo hauetako asko, eta gorago esan dugunaren argitan, datiboen izaerarekin ondo lotzen den fenomeno da hau: batzuetan badirudi datibo argumentuen bidez, bestela zehar argumentuak izango liratekeenak oinarrizko argumentuen maila sin-
taktikora hurbiltzen direla. Beherago —5.3.1— honen zehaztasunak deskri-
batuko ditugu, baina hemen alderdi semantikoetara mugatuko dugu begi-
rada. Arregik (2003b) erakutsi duenez, gertaeraren argumentu batzuk zehar
argumentu zein datibo argumentu gisa ager daitezke perpausetan, honako
alternantziak sortuz:

- (14) a. Festa bat antolatu dizut
b. Festa bat antolatu dut zuretzat
- (15) a. Lapurrek poliziei ihes egin diete
b. Lapurrek poliziengandik ihes egin dute

Perpaus pare hauetan, (a) perpausak (b)-ren esanahia izan dezake. Eta ez hori bakarrik, (a) adibideko datibo argumentuak goian zehaztu ditugun bestelako theta-rolak ere izan baititzake. *Festa bat antolatu dizut* esatea egokia da, bal-
din eta zu antolatzaile batzordekoa izanda ere, niri antolaketaz arduratzeko
esan badidazu. Baita omenaldi baten helburua zeu bazara. Bigarren pareari
dagokionez, *poliziengandik ihes egin* badiogu, badirudi poliziek eskuen ar-
tean zeuzkatela lapurrak, eta hori bera adieraz daiteke *poliziei ihes egin* dio-
gunean, baina hori ez ezik, datibo sintagmak adieraz dezake baita poliziek
lapurrak atzemateko zeukaten interesa ere.

Beharbada datibo argumentuetatik hurbilen dauden zehar argumentuak
onuradunak dira, destinatiboaz *-(r)entzat* adierazten direnak, hain zuzen.
Gaztelaniazko gramatiketan askotan esan izan da zehar osagarriak *a* zein
para preposizioen bidez markatzen direla, *para* preposiziodun sintagmak
zehar osagarriak balira bezala tratatuz. Eta ingelesez onuradunak, normalean
for preposizioaz agertzen direnak, *to* zehar osagarrien antzera, *osagarri bi-
koitzeko egituretako* lehenengo osagarri modura ere ager daitezke, antzeko
jokabide sintaktikoa erakutsiz. Ondoko adibideetan lehenik zehar objektua

eta bigarrenik onuraduna dakartzagu, bata zein bestea osagarri bikoitzeko lehenengo osagarria bihur daitezkeela erakutsiz:

- (16) a. John sent a book *to Mary*
b. John sent *Mary* a book
- (17) a. John fixed a drink *for Mary*
b. John fixed *Mary* a drink

Euskaraz ere, datiboz markatzen diren sintagma askoren rola onuraduna da. Onuraduna helburu theta-roletik oso hurbil dago, eta askotan *azken hartzailea* besterik ez da (ingelesez *intended recipient* deituraz ezagutzen dena). Biak helburua eta onuraduna bereizi nahi ditugunean, datiboa eta destinatiboa batera erabil daitezke perpausean:

- (18) Jonek Mikeli liburu bat eman dio Mirenentzat

Dena den, beste kasu batzuetan ikusi dugun bezala, datiboaren interpretazio tematikoa zabalagoa da: destinatiboa onuraduna da, baina datiboa helburua zein onuraduna izan daiteke (Oyharçabal 2007):

- (19) a. Joni gutun bat idatzi diot
b. Jonentzat gutun bat idatzi dut

Lehen adibidean, *Joni* eskutitzaren helburu/hartzailea da edo niri eskutitza idazteko eskatu didana, onuraduna beraz. Bigarrenean, argi dago *Jonentzat* onuraduna dela eta onuradun izatearen ondorioz azken helburua ere izan daitezkeela: Jon atzerrian badago eta bisitan doakion lagun bat ezagutzen badut, gutun bat ematen ahal diot Joni eramateko. Badirudi objektuen *iragaitza* edota *transferentzia* zuzenagoa dela datiboa erabilita, destinatiboa erabilita baino. Alternantzia hauetaz guztiez beherago hitz egiteko aukera izango dugu. Utz dezagun momentuz gaia dagoen-dagoenean atariko honetan. Beherago, 5.3.1 atalean, datu eta arazo hauetara itzultzeko parada izango dugu. Gorago esan dugun bezala, gure helburua ez da ñabardura semantiko guztiak biltzea, joera esanguratsu nagusiak deskubritzea baino.

Berez, ‘igoera datiboa’ deitu duguna ez da, argi dago, inongo theta-rola, nahiz eta guk hemen rol nagusien zerrenda barruan kokatu. ‘Igoera’ izenarekin esan nahi duguna da datibo hauen rol semantikoa ez datorrela ez predikatutik bertatik (esperimentatzaile eta helburuekin bezala), ez eta, nolabait esatearren, datibotik bertatik.⁶ Azken hau interes datiboen kasua izan liteke,

⁶ Modu formalagoak daude hau zehazteko —Pylkkänenen buru aplikatiboak tartean—, baina, berriro, xehetasunok, hiztegi mugatu dugun eremutik aterako gintuzkete.

predikatuak adierazten duen egoera aditzaren argumentua ez den partaide berri bati interesatzen zaionean, berau datibo batez markatu eta perpausari gaineratzen baitiogu.

Alabaina ‘igoera’ datiboen kasuan, datiboaren rolaren sorburua perpausaren predikatu nagusia ez den beste nonbait dagoela esan liteke. Aurreko kasuetan edukia duten postposizioetatik etorriko litzaielako rola datibo argumentuei: *Joni* datibo argumentua onuraduna izan daiteke aurreko adibidean nolabait *Jonentzat* sintagma batekin lotura duelako. Nahiz ez izan guk kasu guztietarako onartuko dugun analisia, *datibo alternantziaren* tratamendu sintaktiko batzuek lotura hau formaltzea lortzen dute. Dena den, badira bestelako igoera kasuak ere: *Joni dei egin diot*, *Joni leiala natzaio* eta beheiago deskribatuko ditugun beste hainbat kasutan, predikatu nagusiak zeharkako erlazioa dauka datibo argumentuarekin, eta semantikoki berau beste nonbait sortzen dela esan nahi dugu, dela izen batetik (*dei*), dela adjektibo batetik (*leiala*) bi kasutan. ‘Igoera datiboak’ diogunean, beraz, predikatu nagusia ez den eta egitura tematikoa duen perpausaren beste osagai batetik datozen datiboez ari gara.

1.2.5. *Aspektu/ekintza datiboak*

Datibo sintagmetatik batzuek, nondik begiratzen zaien, ekintza edota aspektua adierazten dute. Ondokoek adibidez, aspektu inkoatiboa duen ekintza. *Aspektu/ekintza datiboak* deituko diegu testuan zehar. Datibo hauek *aspektu/ekintza predikatuei* zor zaizkiela dirudi —adibideetan *ekin* edota *eman* predikatuei—:

- (20) a. Lanari ekin dio
- b. Lanari eman dio

Aurreko eztabaidaren haritik, datibo argumentu hauen edukia predikatutik datorrela esan beharko genuke, eta *aspektu/ekintza* deituraren bidez horixe adierazi nahi dugu. Datibo hauek ez dute berezko edukirik; ez dira berez progresiboak ala inkoatiboak, adibidez. Alabaina, predikatu nagusiak bere eduki semantiko nagusia nolabait galtzen duenean —ikus (b)-ko *eman* aditza— edota aspektua adierazteko espezializatzen denean —*ekin* predikatuaren kasua—, normala da ekintzaren progresioa, hasiera, bukaera etab. den beste osagai bat izatea. Eta horrexegatik gordetzen dugu *ekintza datiboa* deitura bera ere, predikatuak adierazten duen aspektua datiboz markatutako izenaren ekintza zehazten duela azpimarratzeko. Aspektu/ekintza datibo hauek ezagunak dira hizkera guztietan, baina eurretatik batzuk, bereziki komunztadurarik eragiten ez dutenak, ipar-ekialdeko hizkeretara mugatzen dira. Kontuan izan bietarik lehenak aspektu progresiboa duela, eta bigarrenak, aldiz, goikoek bezala, aspektu inkoatiboa:

- (21) a. Lanari ari zen
b. Lanari lotu zen

Aspektu/ekintza datiboen sortak itxuraz irudi lezakeenak baino garrantzi handiagoa du datibo guztien artean. Lanean zehar erakutsiko dugunez, orokortuta daude euskaraz eta alternantzia esanguratsuak osatzen dituzte, nagusiki inesiboarekin:

- (22) a. Lanean ari zen
b. Lanean lotu zen

Izango dugu laster datibo hauek xehetasunez aztertzeke abagunea.

1.2.6. *Ohar bat araziez*

Honainokoa, lanean zehar hizpide izango ditugun datiboen theta-rol nagusien berri laburra eman dugu. Alabaina, ez ditugu aipatu perpaus arazietako *araziak*. Adibidez, ondoko perpausetan, *Jon* edota *Joni* dira araziak, alegia, mendeko *etorri* edota *egin* predikatuetako subjektuak. Halaber, isilpeko *nik* da arazlea:

- (23) a. Jon etorrarazi nuen / Joni etorrarazi nion
b. Joni etxeko lanak eginarazi nizkion

Araziak gure oraingo lan eremutik kanpo utziko ditugu, datibo hauek ez baitzaizkio zor predikatu jakin bati, esate batera, *gustatu* bezalako predikatu psikologiko bati datibo esperimenteratzailea zor zaion bezala. Datibo hauek perpaus egituran argumentu bat gaineratzeko edota kentzeko erabiltzen diren mekanismo unibertsalek baldintzatzen dituzte, eta ez dira oraingo honetan gure aztergaia izango.

2

Inakusatibo datibodunak I

Gure lanean aurrera egin ahala konturatuko da irakurlea, inakusatibo datibodunen artean bi kapitulu bereizi ditugula. Banaketa hori datiboen ezau-garri tematikoetatik dator, hein handi batean, datibo esperimantatzaileak gainerako theta-roletatik bereizi nahi izatetik, hain zuzen. Irakurleak ikusiko duenez, 3. kapitulu osoa predikatu psikologikoen azkerketari eskainiko diogu; 2 kapitulu honetan, aldiz, bestelako datiboak aztertuko ditugu. Kapituluaren bereizketa honek zerikusia du, hein batean, datiboen arteko bereizketa sintaktikoarekin. Itxuraketa sintaktikoak bi eratako datiboak bereiztera garatzen dira: *goi-datibo* eta *behe-datiboez* ari gara. Azterketa sintaktikotik datozen deitura hauek erabili ditugu inoiz —Fernández & Ortiz de Urbina (2009a)— neurri handi batean, McFadden (2004) ildoari jarraituz, beste egile batzuen ekarpena ahaztu gabe —Pylkkänen (2008)—. Jakina, guk ez daukagu orain azterketa sintaktikoa garatzeko asmorik, Fernández (2007) abiapuntu harturik horretan hasiak garen arren. Goi-datiboen artean, sintaxiaren eta alternantzien aldetik landuenak (nahiz eta ez bakarrak), predikatu psikologikoetako argumentu esperimantatzaileak dira, eta horregatik eskaini diegu kapitulu beregain bat, inakusatiboetako gainerako datiboetatik aparte: 3. kapituluaren aztertuko ditugu goi-datibo esperimantatzaileak. Dena den, hori baino lehenago behe-datiboak zein esperimantatzaileak ez diren goi-datiboak aztertuko ditugu —deitura hauek ez ditugu erabiliko, ez bada, hausnarketa teorikoaren gakoak argitzeko, baina irakurleak gogoan izan ditzake—. Biak bereizteko irizpide sintaktikoak baditugu, baina guztietarik bat bakarra aipatuko dugu irakurleari ulertzen eta gogoratzen erraza izango zaiolakoan. Goi-datiboetan hitz hurrenkera ez-markatua datibo/absolutibo izan ohi da (a); behe-datiboetan, berriz, kontrakoa —absolutibo/datiboa—. Ikusi bestela ondoko adibideak:

- (24) a. Mikeli artea gustatzen zaio
b. Mikel margolariari hurbildu zaio

Goi-datiboen artean, esperimantatzaileez gain, jabe-datibo edota interes datiboak daudela dirudi; gainerako guztiak, alegia, hemen testuan sortaz sorta aztertuko ditugun guztiak, behe-datiboak direlakoan gaude. Oinarrizko hitz hurrenkerari buruzko gogoetak egingo ditugu han-hemenka liburuan zehar, datibo mota lexikoak fenomeno sintaktikoekin daukan loturaren erakusgarri.

Itzul gaitezen, bada, gure lanaren ildo nagusira zertzelada hauek eman eta gero. Lehenengo eta behin 2.1, inakusatiboetako datiboen theta-roleraz arduratuko gara; hurrengo atalean 2.2, datibo hauen artean beharrezkoak izan daitezkeenak aztertuko ditugu. Azkenik 2.3, aztertutako konfigurazioetan datiboan markatzen den argumentuak har ditzakeen bestelako kasuak zeintzuk diren ikusiko dugu, bai eta zein predikatu motatan sortzen diren alternantzia horiek.

2.1. Inakusatiboetako datiboen theta-rolak

Inakusatiboetako datibo argumentuen rolak arakatuko ditugu hemen, eta, honen ondorioz, datibo argumentu hauek agertzen diren predikatu motak. Hasieran 2.1.1, gai rola duten datibo argumentuez arduratuko gara; konfigurazio arrunta izan ez arren, interesgarria da, eta inergatibo datibodunetan aurki daitezkeen adibide ugariarekin lotzen saiatuko gara. Bestelako roletara pasatuko gara gero. Predikatu psikologikoetako esperimantatzaileak aztertuko ditugu 3. kapituluaren, predikatu edota theta-rol mota garrantzitsuenetariko bat izateaz gain, alternantzia gehien biltzen dituzten predikatu mota ere badelako. Baina datibo psikologikoez gain, badaude inakusatiboen artean beste datibo interesgarri batzuk eta horietara hurbilduko gara orain. Jabetza/interes datibodun inakusatiboak —*etxea erre zait*, 2.1.2— aztertuko ditugu lehenik eta datibo helburudun inakusatiboak —*Joni joan zaiola*, 2.1.3— ondoren.

2.1.1. Inakusatiboetako datibo gaiak

Ez da askotan erraza predikatu batzuen argumentuen rola zehaztea, batez ere, kasuz kasuko eztabaidan sintaxiaren ikuspuntutik eragina izan dezaketen makro-rolen zerrenda txikia erabiltzen saiatzen bagara. Lerro hauetan inplizitua den bezala, theta-rolen inguruko gogoetak egiteko arrazoi nagusienerikoa bat da pentsatzea predikatu baten argumentuak, gramatika funtzioak eta kasu morfologikoak lerratzeko alderdi semantiko garrantzitsuenetariko bat dela. Noski, predikatuen bestelako gako semantikoek ere zeregina izaten dute sarri askotan lerratze hori zehazterakoan, aspektu motak esate baterako. Baina zeregin tematikoa besteak baino garrantzitsuagoa delakoan gaude; hortik ikerketa honetan zehar eman diogun arreta berezia. Hala ere, berriro diogun: theta-roleraz baliatzen bagara ere, ez dugu euren ikerketa semantiko formalik egiten, eta gehienetan identifikazio inpresionistak egin behar izan

ditugu. Datibo gaiak honen adibide dira. Intuitiboki, predikatu inergatibo eta iragankorretara joz gero, badirudi semantikoki gai den ohiko osagarri zuzen bat, espero den absolutiboan markatu beharrean, datiboan markatzen dela. Horrela, bada, sortzen zaizkigu datibo gaiak konfigurazio iragankorretan. Inakusatiboen kasuan ez dugu horrelako adibiderik aurkitzea espero, gai argumentua, printzipioz behintzat, subjektua delako, ez osagarria. Dena den, beti bezala, badira egin beharreko iruzkinak, honi dagokionez ere. Har dezagun oso erabilera mugatua duen *jarki* predikatua, hitz jaso gaur egun. Sarasolaren (2008/09) hiztegiaren arabera, inakusatiboki erabiltzen da datibo batez lagundurik. Gaur egun, EPG datutegian agertzen denaren arabera, horrela erabiltzen da, “resistirse a” edo “sobreponerse a” adieran. Ondoko adibidean bi konfigurazioak topa daitezke perpaus berean —datiboduna eta datiboga-bea—. Jatorrizko testua eta euskal itzulpena dakartzagu jarraian:

- (25) pentsamendu txar hura bera datorkidanean, eta ni jarkitzen natzaio, eta behin eta berriro itzultzen zait, eta ni beti jarkitzen naiz (“quando me viene aquel mismo mal pensamiento, y yo le resisto, y tórname a venir otra y otra vez, y yo siempre resisto”) (*Gogojardunak*, Inazio Loiolakoa / P. Altuna, 53)

Rolen aldetik, datibo argumentu horri gai irizteko arrazoiak daude, beharbada subjektua bera egiletzat har daitekeelako.⁷ Uste hau okerra ez balitz, beraz, datibo gai bat izango genuke hemen. Egia esan, egile/gai argumentuei gehiagotan dagokie konfigurazio iragankorra edo inergatiboa. *Erresistitu* hitzak (OEH VII: 186), adibidez, konfigurazio inergatiboa erakusten du, besteak beste Leizarragaren adibideetan; *jarki* bezalaxe, osagarria dagoenean datiboaren bidez markatzen da. Bi erabilerak biltzen dituzte ondoko adibideek:⁸

- (26) a. Halako potestateari resistitzen draukanak Iainkoaren ordenanzari resistitzen drauka; eta resistitzen dutenek bere buruen gainera damnazione erekarriren dute (Lç Rom 13, 2)
- b. Eta hala nola Ianesek eta Ianbresek resistitu baitraukate Moisesi: halaber hauk ere egiari resistitzen diraukoe (Lç S. Paul Timoth. Big. Epistola, III, 8)

Gaztelaniaren “resistir” adiera hori adierazteko beste predikatuetan, subjektu ergatiboak aurkitzen ditugu —Elhuyarren (1996) hiztegian, adibidez, *eutsi*, *kontra/aurka/buru egin*, *iraun*, *jasan* jasotzen dira “resistir” sarrera

⁷ Ez adibide guztietan, haatik: [Durex Extra Seguru preserbatiboak] 75 *Newtoneko trakzioa* *baizik* erresistitu ez zuenez (*Consumer*, 2007/05/01).

⁸ Nahiz eta adibide bakanetan benetan iragankorra izan:

- (i) Ez da posible inork aren majestadeari ezer eragozte eta ezer resistitzea (OA 22)

itzultzeko—. Elhuyarrek *resistir*pean dakarren adibideetako bat (*ezin izan nion barreari eutsi* “no me pude resistir las ganas de reír”) adierazgarria da horretan, predikatu inergatibo datibodun modura erabiltzen baita. Bestalde, gaztelaniaz behintzat *resistir/resistirse* bikotea existitzen da, eta ez da harritzekoa, beraz, haien ordezeko konfigurazio inergatibo zein inakusatiboa aurkitzea gaurko euskal testuetan:⁹

- (27) a. Castro gabe, Kubak erresistituko du? (*Berría* 2004-05-12)
b. horixe baita literatura onaren ezaugarri nagusia, erresistitu egiten dela (*Berría* 2004-2-8)

Ñabardurak daude bien artean, inergatiboan “iraun, bere hartan mantendu” adiera sumatzen baitugu; inakusatiboan, aldiz, “onartu nahi ez izatea, errebelatu” adieren antzeko kutsua sumatzen dugu, eta litekeena da, beharbada, *jarki* delako horrek ere inakusatibo aldera bultzatzen duen eduki semantikoa izatea. Mounolek (2010) eta Aldaik (2009) diotenez, mendebaldeko euskalkietan bereziki predikatu askoren berezko datibodun konfigurazio inakusatiboa (abs/dat), inergatibo (erg/dat) zein iragankor (erg/abs) bilakatu da aldaketa diakronikoaren bitartez. Konfigurazio hauetan, subjektua ergatiboz markatzen denez, beharbada markapen sistema aktibo batera igaro dira hizkera hauek. Beraz, beheago konfigurazio iragankor hauetan bereziki aztertuko ditugun predikatu batzuk, antzinako euskaran konfigurazio inakusatibo datibodunetan atontzen ziren, gaia datiboz markatuz: *eutsi* bera, *oratu*, *jarraiki*, *aditu*,¹⁰ *lagundu* edota *etxe*.¹¹ Geroago ikusiko dugunez, litekeena

⁹ Web-guneetan, monitorizatu gabeko erabileretan, gaitzat hartzen dugun bigarren argumentua era askotara ager daiteke, absolutiboan (i), adlatiboan (ii) eta datiboan (iii,iv), azken aurrekoa komunztadurarik gabea:

- (i) Gaztelako armadaren erasoak erresistitu zituzten
- (ii) Batez ere ongi daudenak erresistituko dira aldametara
- (iii) Eta galera horri erresistitu egingo dira
- (iv) Ez daukagu beste erremediorik ghettoa okupatu eta ghettoari *erresistitu* baino

¹⁰ OEHK *adi* predikatuaren sarreran dioenez, “atender, prestar atención (escuchando o mirando)” adieran: *Jauna, adi zakioz begi errukitsuaz bekatari andi oni* (Añ EL 150); bai eta “entender, saber” adierarekin: *Haraz geroz, esku onetan ziren, Iñaziori aditzen baitzitzaien gizonetan* (Laph 231). Beste aldetik, ikusmena edo entzumena adierazten duenean iragankorra da.

¹¹ Apur bat ezberdina da, batzuetan hauekin batera aipatzen den *eskatu* aditza, honen datibo argumentua helburua baita. Antzinako euskaran, azpimarratzekoak dira predikatu honetako argumentuek —eskaten duenak (egilea) eta eskaten denak (gaia)— erakusten dituzten kasuak. OEHK *eskatu*pean dioenaren arabera, gaia absolutiboan edo genitiboan ere ager daiteke. Baina gaia absolutiboan agertzen denean komunztadurak ez du gai absolutibo hori islatzen, eskaten duenari dagokion absolutibo argumentua baizik:

- (i) *ure probetxutako ezten gauzarik Iainkoari eskatu behar gaitzaitza?* (Lç Ins E 4r)
- (ii) *eskaten gaitzkitzu biziaren dohaña* (EZ Man II 150)

Azken honetan *dohaña* komunztaduran markatu gabe gelditzen da.

da hauetako batzuetan helburu antzeko datiboak izatea, atal honen hasieran esan dugun bezala, askotan ez baita erraza sailkapen tematiko erraztu honetan dauden ñabardura guztiak behar bezala jasotzea. Edozelan ere, predikatu talde txiki eta aldakorra da datibo gaia dutenena, beharbada gorago aipatutako konfigurazio tematiko bereziarengatik-edo.

Itzuliko gara beherako, 2.3.4 atalean, aztergaitzat hartuko ditugun datibo hauetara, hemen fenomenoaren gainbegirada bat bakarrik eman ondoren.

2.1.2. *Inakusatiboetako jabe/interes datiboak*

Konfigurazio inakusatiboetan sarrien aurkitzen diren datibo sintagmak jabetza/interes motakoak dira, eta eurekin jarraitzen dugu gure ibilbidean. Gure ikuspegitik, lehenago esan dugun bezala, datibo hauek proposizio bati gaineratutako argumentuak dira. Nahiz eta ekintza edo egoeraren berezko argumentuak ez izan, proposizioak adierazten duenarekin ‘lotu’ egiten dira, adierazita-koak eurentzat garrantzia duelako (euren interesekoa delako). Honen azpi-kasu batean, garrantzia gertaeraren argumentu batekiko ‘jabetza’ harremanean sortzen da. Halako datiboak oso ugariak izaten dira, edozein predikatuk adierazten duen egoera zein gertaerari gaineratu baitakioke halako argumentu bat.

Inakusatibo mota ohikoenetarikoen baten adibideak eman ditzagun orain jabe/interes datiboak irudikatzeko. Hasi gaitezten inakusatibo inkoatiboenkin. *Atea zabaldu da* gertaerak niretzat garrantzia duela nabarmendu daiteke (*atea zabaldu zait*) denetariko arrazoi pragmatikoengatik: zabaldu nahi eta ezin nuen atea bat-batean zabaldu delako; zabaldu nahi ez nuena zabaldu delako, eta honelako nahi beste egoera. Ate hori nirea izan liteke (jabetza datiboa), baina ez du zertan izan behar: justu aurretik pasatu zaidan auto batena izan liteke, baita komuna publiko batekoa ere. Halaber, *argia piztu zait* perpausa aproposa izan daiteke argia pizteak nirekin zerikusia izan dezaketean hamaika kasu pragmatikotan: neure adimenaz mintzatzeaz gain, taberna baten komunean sartutakoan gertatu zaidan zerbait ere izan liteke, beste kasu batzuen artean. *Uda amaitu da* perpausean gurekin zerikusirik ez duen argumentu bat ere ez dago, baina gertaera inporta bazaigu, edozein arrazoiarengatik, *guri* argumentu datiboa gaineratu dakioke (*uda amaitu zaigu*).

Jabetza oso zentzu zabalean ulertzen dugu, barruan jabetza ezinbesterenduzkoa ez ezik berezko erlazio batean sortzen diren harremanak ere sartzen ditugula. Esate baterako, arrunta da parte/osotasun erlazioa jabetza erlazioaren gainean eraikitzea, osagai bat osotasunaren parte baita. Mota honetako erlazioak izen bizidun zein bizigabeetan topa ditzakegu, eta ondorioz, normalean jabetza (eta zer esanik ez, interesa) izen bizidunetik predikatzen bada ere, erlazio hauek izen bizigabeei ere aplikatu dakizkieke. Esate baterako, ingelesez genitibo saxoia (‘s) errazen bizidunei gaineratzen zaie arren, bizigabe baten parteari ere ezar dakioke (*the table’s leg*). Euskaraz, datibo kasua izen bizidunei gaineratzen zaie nagusiki, baina ez dago eragozpenik *mahaiari estal-*

kia apurtu zaio edo *enberrari ezpalak erori zaizkio* esateko. Bestelako ‘interres’ erlazioetan, baina, pertsonifikazio kutsua hartzen dute datibo argumentu bizigabeek:

- (28) a. Euskal errietan mugimendua nagusitzen zaio kontzentrazioari; ekintza, hausnarketari (*Mentura dugun artean*, A. Lertxundi, 81)
- b. iluna nagusitzen zaio argiari (*Naturaren mintzoa*, P. Zabala, 428)

Nagusitu predikatuak berez erlaziozko edukia dauka (zerbaiten edo norbaiten gainean nagusitu behar baikara), eta harreman ezinbestetuzkoaren antzekoa den horretan, gaineratzen den bigarren argumentuari datibo kasua ezar dakioke. Antzekoa da, alde honetatik, *jarraitu* iragangaitzaren erabilera bat, denboran hurrenkera erlazio bat adierazten duena:

- (29) a. Umeen hasierako frustrazioari poza jarraitu zaio (*Konpainia noblean*, A. Lertxundi, 81)
- b. Euriari eguzkia jarraitu zitzaion (*Soinujolearen semea*, B. Atxaga, 125)

Mendebaldeko adibideak hartu ditugu, 4.2.5 atalean erakutsiko dugunez, predikatu honekin konfigurazio iragankorrak arruntagoak baitira eremu honetan. Beharbada, erlaziozko adiera honetan egilerik ez egoteak inakusatibitatearen alde jotzen duela pentsa genezake.¹² Antzeko edukia, eta konfigurazio datiboduna, erakusten du *egon* predikatuak “corresponder” adieran, eta OEhk goian aipaturiko *jarki* predikatuak “corresponder, caber a uno en suerte” adiera ere biltzen du.

Liburu honetan zehar erakutsiko dugunez, predikatuen konfigurazioak adierekin batera aldatzen dira, ‘adiera’ bakoitzaren esanahi osagaiek argumentuen lerratzea aldarazten dute-eta. Honek esan nahi du predikatu askoren adiera batzuek orain mintzagai ditugun ‘berezko erlazioak’ adieraz ditzaketela, eta beraz, jabetzaren antzera, datibo kasuaz marka daitekezkeela. Adibidez, har dezagun *gailendu* aditza. OEhk (VIII: 124) hiru aditz sarrera ematen dizkio. Lehenengo adierapean “Aventajar, vencer, sobrepasar; sobresalir, destacar, descollar. (Con aux. trans. e intrans.)” dio. Sarrera bakarra izan arren, azpi-adiera asko suma daitezke hemen, eta ez da harritzekoa konfigurazioak ere askotarikoak izatea. Hauetakoa batzuk erlazio hutsak dira, gai subjektua

¹² Litekeena da, hala ere, adiera honetan ere konfigurazio iragankorra erabiltzea: Sarasolaren (2007: 607) hiztegian *Zerrendan jarraitzen dionak* adibidea agertzen da. *3000 Hiztegiak* gaztelaniaren *suceder* aditzaren sarreran *ondozkatu* hitz berria dakar, *X-k Y ondozkatu zuen* konfigurazio iragankor datibogabea erakusten duena. Baina EPG corpusak biltzen dituen bi adibideetatik batek ez du iragankortasunaren seinalerik erakusten, eta bestea —*Perpausak ondozkaten dira*, (*Trapuan Pupua*, P. Perurena, 312)— elkarkari inakusatibo antzeko zerbait bezala interpreta liteke. Edozein modutan ere, datibogabea da.

dutenak, eta Dowtyren (1979) aspektuaren araberako sailkapenean, egoerak dira. Beste batzuk, baina, erdiespenak dira (Dowtyren *achievements*). Esanahi osagai hauen arabera, subjektua absolutiboa ala ergatiboa izan daiteke. Ondoko adibidean subjektuak egile kutsua hartzen du, eta gaia osagarri iragankor bezala agertzen zaigu:

(30) Guziak gallentzen dituzula (Lar *STomas* 2)

Beste konfigurazio iragangaitzetan, *gailenduk* erabilera inkoatiboa du —OEHko 2. eta 3. adierak “envalentonarse, engreírse” eta “proliferar”, hurrenez hurren, egoera aldaketak dira, esate batera, azken adierako *Ziza-larreak ositilika antza / euntzetan dira gailendu* (Or *Eus* 220s)—. Dena den, lehengo adibide iragankorra ez da konfigurazio inakusatibo honen bikote arazlea: *guziak* gaiak, beraz, ez du araziaren kutsurik. Bestalde, guri orain dagokigun aldetik interesgarriagoa dena, egoera adiera gorago aipatu ditugun ‘berezko erlazioen’ antzekoa da, hau da, beste *edonor/edozer baino* gorago egotea. Eta erlaziozko zentzu honetan, erlazioaren bigarren elementua datibo kasuaz marka daiteke. Ondoko (a) adibidean erlazioaren osagai bat besterik ez dugu aipatzen, baina (b)-n erlaziozko datibo argumentu horren adibide bat izango genuke:

- (31) a. Mendi gurenak [...] danen artean gallentzen diran lez, Zumarraga goragarria, gauza gustietan gallentzen zan (GMant *LEItz* 69)
b. Oraintxe herri txiki eta erdipurdikoetan bakarrik gailentzen zaio ardoa zerbezari (*Urregilearen orduak*, P. Aristi, 155)

Noski, aldaketa adierazten duen erabilera inkoatiboan, gailentzea noren gainean gertatu den zehaztu daiteke, eta hori ere datibo kasuaz markatuko da. Esate baterako, Corsintaxek emandako datuen arabera, konfigurazio datibodunen artean, 2 dira iragankorrek eta 183 inakusatiboak, eta hauen artean datibodun gehienak inkoatiboak dira:

- (32) a. senideenganako maitasuna gailendu zaio Trabukorenganako gorrotoari (*Mentura dugun artean*, A. Lertxundi, 18)
b. Virginiaren mintzoa amañiren otoitzari gailendu zitzaion (*Soinujo-
learen semea*, B. Atxaga, 444)

Datiboak ez du hemen zertan biziduna izan behar, ikusten denez. OEHk (VIII: 124) aipatzen duenez, Larramendiren hiztegian aukera bi jasotzen dira *adelantósele* itzultzeko, “gallendu du, gallendu zaio”, lerro hauetan aztertutako bidetik uler daitekeen alternantzia. Beherago, 6. kapituluan, erlaziozko beste datibo argumentu batzuek arduratuko gara berriro, aditzak ez diren bes-telako kategoriei lotzen zaizkien datibo argumentuez hain zuzen —*hari leial izan* adibidez—.

Adiera berezien eta kasuan kasuko adibideetatik aparte, ‘interes’ eta ‘jabetza’ erlazio orokor berberaren forma berezi bi dira. Semantikoki, gertaera bat argumentu batekin lotuta badago, erlazio hau interesa izan daiteke, jabetza arrunta (edo besterengarria), jabetza ezinbesterenduzkoa, etab. Interes datiboek bizidunak izateko joera dute, interes subjektiboak gizon eta emakumeez predikatzen direlako batez ere. *Komeni* predikatua- ren datibo gehienak bizidunak dira, baina bizigabea izatea ez da inola ere ezinezkoa:

- (33) testu bati, ona izan dadin, gutxieneko ezaugarri hauek edukitzea komeni zaio (*Filosofiako Gida*, Askoren artean, 364)

Jabetza datiboak ere bizidunak izaten dira, baina, lehengo erlaziozko datiboetan ikusi dugun bezala, ez nahitaez. Interesa eta jabetzaren arteko ezberdintasuna munduaren ezagutzaren gainean eraiki dezakegu, baina nekezago aurkituko dugu bien artean ezberdintasun linguistikorik. *Falta zaio* predikatua- ren datiboa interesekotzat har dezakegu *Mikeli zure ekarpena falta zaio* adibidean eta jabetza ezinbesterenduzkotzat *mahaiari gainaldea falta zaio* adibidean. Eta hala diogu, badakigulako *zure ekarpena* Mikelen jabetza edo partea ez dela, eta mahaiak gainaldea dutela. Baina *Mikeli gainaldea falta zaio* edo *Mahaiari zure ekarpena falta zaio* ere esan genezake, lehenengo kasuan jabetza erlazio bat eraikiz eta bigarrenean nolabait mahaiarentzat garrantzitsua den ‘interes’ erlazioa eraikiz (mahaia, beharbada, bi arotzen lana da, eta bigarrenak ez du bere lana amaitu). Askotan, egoera pragmatikoak sailkapen simple samar honen barruan nekez egokitzen direnez, zaila gerta daiteke zer nolako datibo argumentua dugun erabakitzea. Dena den, esan dugun bezala, arazo pragmatikoa da hau, ez linguistikoa: hizkuntzaren aldetik berdintsu jotzen dute biek: hitz hurrenkera ez-markatu bera da bietan —datiboa/absolutiboa— eta dirudienez, ipar-ekialdeko euskalkietan biek dute datibo komunztadura zaintzeko joera sendoa, ondoren aztertuko ditugun datibo helburuek ez bezala.

2.1.3. *Inakusatiboetako datibo helburuak*

Mugimendua adierazten duten inakusatiboak datibo helburuekin ager daitezke. Mota honetakoak dira *joan*, *etorri*, *hurbildu*, *hurreratu*, *heldu*, *iritsi*, *itzuli* bezalako predikatua. Mugimenduaren helburua biziduna denean, datiboaz marka daiteke. Datiboaren eta mugimenduaren helburuaren arteko loturaz jabetzeko, gogoan izan inguruko hizkuntzetan biak markatzen direla modu berean (*a Bilbao/a Pedro* gaztelaniaz, *à Paris/à Marie* frantsesez, *to London/to Peter* ingelesez, etab.). Euskaraz, baina, datiboak badu forma berezi bat, mugimenduaren helburu bizidunek predikatu hauekin hartzen dutena. Helburu hori hiztunaren aldean (*etorri*) ala hiztunarengandik aparte

(joan) egon daiteke, baina batean nahiz bestean datiboaz adieraz daiteke: *Mikeli joan/etorri zaio* perpausetan, Mikel da helburua, Mikel bera nolabait hiztunaren aldean egon (*etorri zaio*) zein ez (*joan zaio*). *Heldu, hurbildu* edota *iritsi* predikatuek, bestalde, ez dute hiztunarekiko leku harremanik adierazten. Nolanahi ere, datibo helburuak dituzte ondoko adibideek:

- (34) a. memorandum bat iristen zaio errektoreordearen bulegotik (*Lotsaizuna*, J.M. Coetzee / O. Arana, 52)
- b. Horietariko bat pianojoleari hurbildu zaio, ehun dolarreko diru papera eskuan (*Hollywood eta biok*, J. Cillero, 84)

Bestelako predikatuetan bezala, arrunta da helburuez gain, jabetza/interes datiboak topatzea, eta batzuetan zaila da erabakitzen zein motatakoak diren. Hala, *itzuli* bezalako predikatu baten datiboa helburua da (a,b)-n baina litekeena da (c)-n interesekoa izatea, jabetzakoa (d)-n eta beharbada, guztien osagaiak dituen rola (e)-n:

- (35) a. Langileei lapurtzen dien plusbalioaren zati bat herriari itzultzen zaio horrela (*Errautsen distira*, X. Mendiguren, 69)
- b. Sophie-ri itzultzen zaio, nahiko bortizki (*Anbroxio*, E. Bidegain, 147)
- c. Gaizkia egiten duenari bere kontra itzultzen zaio (*Elizen arteko Biblia*, Askoren artean, Si 27, 27)
- d. Baina irria itzuli zaio ezpainetara (*Anbroxio*, Eneko Bidegain, 27)
- e. gero alaitasuna itzultzen zaio berriro (*Elizen arteko Biblia*, Askoren artean, Si 1, 23)

Noski, (a)-k berak ere badu jabetza kutsua, itzultzen dena ‘herriarena’ den heinean, baina zentzu hertsi batean, *plusbalioaren zati bat* ez da *herri* osagaiaren jabetza. Helburu arruntagoa da (b)-ko datiboa, baina (c)-n, aldiz, *norberaren kontra itzuli* esaeraren helburu metaforikoa *X-ren kontra* sintagmak adierazten du, eta datiboak kutsu *malefaktiboa* edo *kaltedun* kutsua daukala esan liteke. Azkenik, jabetza arrunta dugu (d)-koa, baina ez guztiz (e)-koa, alaitasuna norberaren ezaugarri ezinbesterenduzkoa ez bada, behintzat.

Analisi arazoak sortzen dira aditz talde berezietan. Esate baterako, euskaraz adlatiboaren gaineko aditz eratorri asko eraiki daitezke (*urrutiratu*, *etxeratu*, *gureganatu*, *alboratu*, *gerturatu*, *inguratu*,¹³ *hurreratu* etab.), eta mugimenduzko predikatuak izanik, datibo helburuak hartzen ote dituzten galde genezake. Printzipioz, helburua aditzak berak markatzen duenez —adibidez, *etxera-tu*— ez dugu helburudun adibide asko agertzea espero, baina esan du-

¹³ Baldin eta *inguratu* **ingururaturen* haplologia bada.

gun bezala, analisi arazoak sortzen dira askotan, datiboaren izaera arakatzen hasita. Honelako adibide sorta dakargu jarraian:

- (36) a. zutitu eta gureganatu zitzaigun, kopa eta guzti (*Rock'n'roll*, A. Epaltza, 296)
- b. Txirrindua gidoinaren erditik heldu, eta alboratu egin natzaio (*Labartzari agur*, Txillardegi, 107)
- c. Vezin kapitaina itxura goibelez alboratzen zaigu guztioi (*Gerrako pilotu*, A. Saint-Exupéry / J. Zabaleta, 36)
- d. Egiazko zigorra gerturaten ari zaio (*Axenario*, J. Renard / I. Otegi)
- e. denbora hartan, ezin alegerago etxeratu zitzaigun (*Lur bat haratago*, J.M. Irigoien, 151)
- f. Etxeratu zaigun mutil hori ez ote den gazteegia etxe honetarako (*SPrako tranbia*, U. Elorriaga, 36)
- g. Bizikletaz etxeratu zitzaion postaria Miranderi (*Hollywood eta biok*, J. Cillero, 196)
- h. irribarre maltzur bat aurpegiratu zitzaion Josebari (*Soinujolearen semea*, B. Atxaga, 361)

Lehenengo adibidean (a), badirudi argi eta garbi datibo helburu arrunta daukagula, baina besteetan, jabetza datiboa daukagula esan genezake, dela jabetza besterengarria (aditz erroa *etxera* denean) dela ezinbesterenduzkoa (datiboak zerbait norbaiten *albora* —(c)— eta *aurpegira* —(h)— mugitzen dela adieraz baitezake). Alderdi semantikoarekin batera, ezberdintasun sintaktikoak bilatu beharko genituzke irizpide sendoagoak izateko. Ez da hau beti lan erraza izaten, baina benetan absolutibo eta datiboaren arteko hurrenkera datibo motaren arabera aldatzen bada —ikus 2. kapitulu honetako lehenengo paragrafoak—, irizpide bezala erabil genezake. Guk gure aldetik, *Mikel guri gureganatu zitzaigun* neutralagotzat jotzen dugu *Guri Mikel gureganatu zitzaigun* baino; bestalde ez-markatuagoak dirudite *Miranderi postaria etxeratu zitzaion* eta *Josebari irribarrea aurpegiratu zitzaion* perpausek, kontrako hurrenkeran dituzten aldaerek baino.

Norberaren intuizioetan oinarritzeak dituen arriskuak ezagututa, eta azterketa sakonagorik gabe, behin-behineko ondorioak baino ez dira hemen atara ditzakegunak. Baina oso oker ez bagabiltza, behintzat, ez litzateke horren arraroa izango datibo argumentuen rol banaketa hau aurkitzea. Datibo helburua erakusten duen adibidean giza helburua adierazten du *gureganatu* predikatuak; *etxeratu*, aldiz, leku helburua da. Datiboen eta izaki bizidunen arteko lotura ikusita, ulergarria izango litzateke aurkitutako datibo moten banaketa, errazagoa baita lehenengoari giza helburu argumentu bat gaineratzea. Izaki bizidun baten aurpegia, ahoa (*aurpegiratu*, *ahoratu*) eta albo (*alboratu*) ez dira berez

izakiak, eta euren erlaziozko izaerak edo gorputz atala adierazteak jabetza/interres datiboaren alde jokatuko lukete.¹⁴ *Gogoratu, bururatu*, bestalde, predikatu psikologikoak dira eta beherago, 3. kapituluan, aztertuko ditugu.

Hedapen metaforikoen ildotik abiatu uler daitezke datibo helburuen beste agerpenak. Esate baterako, geroago 5.2.1, konfigurazio iragankorretako datiboez ari garenean, adierazpen predikatuetan transferentzia edo iragaitea gertaera balitz bezala ulertzen dela adieraziko dugu, mezu bat egile batetik helburu batera iragaten baita. Ez da ohikoa adierazpen predikatu bat inakusatioa izatea, baina horrelakoa denean, subjektuaren kasua aldatzen bada ere, helburuak datiboa atxikitzen du. Hau da, noski, *mintzatu* bezalako aditz baten kasua, baina ez bakarra. Oso zaharra ez dirudien erabilera batean, *zuzenduk*, gaztelaniaren *dirigirse a* kasuan bezala, datibodun adierazpen interpretazioa hartzen duela dirudi. Ondoren, bi adibide kontrajarriko ditugu. Lehenengoan adierazpen zentzua dugu, bigarrean mugimendu arrunta:

- (37) a. “Esaidak egia, David” —zuzendu zitzaidan besoa bizkar gainetik pasatuz—. (*Soinujolearen semea*, B. Atxaga, 72)
- b. Orduan amonari zuzendu zaio, erakutsi nahi diola zer idatzi duen (*Mundu txikia*, A. Barandiaran, 55)

Giza helburuak ditugu hauek, ohi bezala. OEHk (XVI: 1073) biltzen dituen adieren artean, badago oso antzekoa den erabilera zahar bat, “*dirigirse; volverse, dirigirse (hacia una persona, hablando)*” bezala itzulia:

- (38) Gero, zuzendurik Ama birjiniagana, esan neutsan (JJMg *BasEsc* 241)

Baina ohar bedi helburua biziduna izan arren adlatiboan agertzen dela, *zuzendu* predikatuak mugimenduaren zentzu inkoatiboa gordetzen duelako -edo. Bestalde *atxeki, lotu* predikatuez ari garenean 2.3.2, argumentu bizi-gabe batzuk datibo kasuaz marka daitezkeela erakutsiko dugu, nolabaiteko helburuak balira bezala. Beharbada horrekin lotu genitzake ondoko *nahastu* predikatuaren bi adibideok (a,b) —bigarrena, itxuraz, inpersonala dena—, *lotu* predikatuaren azken adibidearen antzekoa (c):

- (39) a. Sagardotegiko mingotsari bero usaina nahastu zaio (*Sakabi, soinu txikiaren banditasuna*, I. Aranbarri, 7)
- b. Karea hila dagoenean, orduan morteroari nahastuko zaio (*Arkitekturaz hamar liburuak*, Vitruvio / S. Iruretagoiena 1050)
- c. Dabilen urari ez zaio horren erraz izenik lotzen (*Gaur ere ez du biltzeko eguraldirik egingo*, I. Segurola, 215)

¹⁴ *Hurbildu, hurreratu* bezalako predikatuetako erroak ere erlaziozkotzat hartzen diren aztertu beharko litzateke. Hitz hurrenkeraren aldetik badirudi ezetz.

Hemen, *atxekirekin* bezala, ez da bakarrik bi osagai nahasten direla (*usainarekin, morteroarekin* sozietiboak erabiliz gero, lortuko genituzkeen interpretazioetan bezala): horrezaz gain bata besteari gaineratzen zaio, norabide bateko mugimendua balitz bezala. Azpimarratzekoa da leku helburua izanagatik ere, datiboan markatzen dela. Horrek erakusten du datiboak ez duela nahitaezko lotura bizidunekin.

2.2. Beharrezko datiboen aztarnak adizki inakusatibo trinkoetan

Inakusatiboetako datiboak erabiltzen dituzten konfigurazioekin eta euren artean sortzen diren alternantziekin hasi baino lehenago, gure ustez, berebiziko garrantzia du jakiteak zein diren beharrezko datiboak inakusatibo datibodunetan. Gramatikaren ikuspuntutik, beharrezkoak diren argumentuak osagarriak izaten dira, predikatuarekin oso erlazio estu batean sartzen dira-eta. Atal honetako galdera da, beraz, ea badagoen datibo osagairirik hartu behar duen predikatu inakusatiborik.

Paradigma trinkoa duten aditzek abiapuntu ona eskaintzen digute datibo argumentua beharrezkoa den ala ez den erabakitzeko: printzipioz forma perifrastikoak baino ez dituzten aditzen konfigurazioa aldatzea erraza da, aditz laguntzaileek konfigurazio guztietarako beharrezkoak diren formak eskura jartzen dizkigutelako. Alabaina, aditz trinko baten paradigma aldatzea ez da bat ere erraza, bere emankortasuna neurri handi batean ahiturik baitago. Beraz, dena delako aditzerako, forma datiboduna bakarrik existitzen bada, datiboa derrigorrezkoa dela edo inoiz izan dela pentsa daiteke, eta guk, behintzat, beharrezko datiboen ebidentziatzat joko dugu. Dena den, forma trinkoen erabilera gutxituz eta hizkuntza aldatuz joan den heinean, formen berranalisiak ez dira gutxi izan, batez ere aditz hauek, forma trinkoaz gain, perifrastikoa ere eduki badaukatelako, eta esan dugun bezala, aldaketa forma perifrastiko hauetatik has daitekeelako.

Abiatu gaitezen *jarraiki, jario* eta *atxiki* predikatuetatik, de Rijk zenak (2008: 346) beharrezko datibo osagarrien adibidetzat hartzen zituenetatik. *Zerbaiti darraio, dario* eta *datxekio* bezalako forma trinkoak ditugu predikatu horiekin, gaur egun erabilera jaso bati badagozkio ere:

- (40) a. Inurriari arraio (*RS* 183)
- b. Baionako hirian hitz on zariola / begirik idorrenei nigar zaritela (*Hb Esk* 106)
- c. Ohontziari datxikola gezurra, gezurrari ohointza (*HU Zez* 155)
- d. Haatik, usteari ustegabea darraio noizbait (*Lur bat baratago*, J.M. Irigoien, 122)
- e. Haren irriari barrea dario (*Urregilearen orduak*, P. Aristi, 154)
- f. sinesmenari baino gehiago maitasunari datxekio fede mota hori (*De re publica edo politikaz*, P. Xarriton, 174)

Jarraiki, geroago 4.2.5, absolutibo/datibo alternantzia osoa duten aditzen artean ikusiko dugu xehetasun handiagoz, eta orain aditzari buruzko zertzelada nagusiak baino ez ditugu aipatuko. Horrezaz gain, datibodun konfigurazio inakusatiboa zein inergatiboa, biak dituen aditza da, eta gaur egun, konfigurazio inakusatiboa batez ere Iparraldeko hizkeretan aurkitzen dugu, nahiz eta historikoki mendebaldeko lehen testigantzetan ere inakusatiboa zen nagusi.

Bi adieratan erabiltzen da *jarraiki*. Batean datibo helburua da *jarraikik* erakusten duena; bestean aspektu/ekintza datiboa dugu, ekintza aurrera doala edo ekintzaren progresioa adierazten duena, ondoko adibidean bezala:

(41) Idoloak adoratzeari zerraizkion (Lard 60)

Adibidearen iturburua ipartarra izan ez arren, Iparraldeko hizkeretan ere sarri askotan aurkitzen diren bestelako aspektu/ekintza datiboetatik hurbil dago hau —*lanari lotu, ari etabar*—. Hauetan bezala, aspektu adiera predikatuarena da eta ekintza bera datiboan agertzen zaigu. Fernández eta Landak (2009) antzeko adibideak jaso dituzte euren lanean, lapurtar idazleenak biak:

(42) a. Zarraizko othoitzari, zarrizkote obra onei (He *Gudu* 125)

b. Edateko ohitzari darraiona luzesko / haren esklabo dagola (Gy 103)

Morfologikoki, *jarraiki* aditzaren forma denboragabeek¹⁵ —*jarraiki / jarraikitzen / jarraikiko*— badute datibo osagarriko predikatu zahar batzuetan ageri den *-ki-* morfema, diakronikoki *dakarkiot* forman, adibidez, aurre-datibotzat jotzen dugun morfemarekin lotuta dagoena. —*Ki* hori, jakina, ez da erabiltzen mendebaldeko *jarraitu* kidekoaren formetan —*jarraitu / jarraitzen / jarraituko*—. Baina *darraio* forma trinkoan ere, morfema hau ez da azaltzen, —*rrai-* baita *darraio*ren erroa. Hartara, *darraio* formari interpretazio morfologiko iragankor zein iragangaitza egokitzen zaizkionez,¹⁶ ez da harrizkoa konfigurazio iragankorrean ere erabiltzea:

(43) a. aro guztiz euritsuari, beste urtaro lehor batek darraio (*Naturaren mintzoa*, P. Zabala, 359)

b. Zakurrak atzetik darraio (*Lisboako Setioaren Historia*, J. Saramago / J. Alonso, 91)

Kontuan izan datibo argumentuaren rolaren aldetik, aspektu/ekintza datiboetatik bestelakoetara pasatu garela adibide bi hauetan. Lehenengoan,

¹⁵ Forma denboragabeak (*tenseless forms*, ingelesez) diogunean, gaztelaniaren gramatikan erabiliagoa den ‘formas no personales’ aurkituko du irakurleak OEHn.

¹⁶ Hirugarren pertsonako komunztadura marka \emptyset denez, erraza da pentsatzea *darraio* formaren eskuinetara halako ergatibo komunztadura dugula, *dio* forman bezalaxe.

2.1.2 atalean aipatutako hurrenkera erlazio estatiko bat dugu, eta nolabaiteko gaia; bigarrena, aldiz, hurbilago dago datibo helburuetatik: egile bat helbide jakin batera mugitzen da. Edonola ere, bietan subjektua ergatiboan agertzea, morfologiaren berranalisi batetik datorrela esan genezake. Seguruenik, hala ere, berranalisi hori indartu duen beste gako bat ere badago: mendebaldeko euskalkietan aditz horrek erabilera iragankorra garatu du. Gainera, gaur egungo Iparraldeko hizkeretara ere hedatu dela dirudi, bertako testuetan ere erabilera perifrastiko iragankorrak topa baititzakegu:

- (44) a. izilka jarraiki zeraukoten (*Janpierre Arbelbide*, X. Arbelbide, 193)
b. sasoin hastapenetik hasi ildo jarraikiko dute Baionako Ikastolako buraso eta adixkidek (*Herria*, 2002-11-21, 2)

Hala, mendebaldeko konfigurazio iragankor nagusiaren itxura hartu du hemen *jarraikik*: batean datiboduna da (a) eta bestean datibogabea (b). Lehen esan dugun bezala, ikusiko ditugu konfigurazio hauek aurrerago. Dena den, momentuz kontuan izan *bidea*, *ohitura*, *ildo* bezalakoetan ohikoa dela konfigurazio datibogabea erabiltzea. Bigarren honetan, *ildo* absolutibo kasuaz markatu da, eta nolabaiteko lekua adierazten duenez, lekuzko postposizio batez ere ager daiteke hau, datiborik gabeko konfigurazio inergatiboa sortuz:

- (45) a. ildo beretik jarraikiko du hemendik aintzina ere (*Herria*, 2003-07-3, 3)
b. Haimar Zubeldiaren bide beretik jarraiki du beraz (*Herria*, 2003-09-11, 3)

Baliteke, bestalde, absolutibo/datibo ‘alternantzia’ honek zerikusia izatea argumentuaren theta-rolarekin: (43b) eta (44a)-ko datibo argumentua benetako helburua da, metaforikoagoak diren *bidea*, *ohitura*, *ildo* ez bezala. Azkenik, oinarritzko konfigurazio inakusatiboan, ipar-ekialdeko hizkeretan datibo komunztadura gal daitekeenez, aditz laguntzailea datibogabea izan daiteke, nahiz eta argumentu datiboa oraindik ere gordetzen den:

- (46) Bide horri jarraiki, jarraikitzen eta jarraikiko direnetan, nola ez goretz ere, oroz gainetik beharbada, euskararen salbatzeari arizan, ari eta ariko direnak ? (*Herria*, 2003-09-18, 1)

Esan bezala, ez da harritzekoa hainbeste aldagai aurkitzea, *bide/ildo* osagarriak dituzten adibide hauek semantikoki bereziki konplexuak dira-eta. Pertsona bati jarraitzen diogunean ez bezala, ez dugu hemen benetako helbururik, baizik eta nolabaiteko ekintza metaforikoa: *bideari* / *bidetik* / *bidean jarraitzea* zerbaitetan jarraitzea da kasu askotan — adibide hauetan guztietan, adibidez—. Eta ‘nolabaiteko’ diogu *bide/ildo/ohitura* izen hauek ez direlako

inolaz ere ‘ekintza’ izen prototipikoak; horretatik, datiboa ez diren gainerako beste aukerak.

Jarrai dezagun orain datibo osagarriak hartu ohi dituzten beste aditzekin. De Rijken arabera (2008: 347), *atxiki* aditzaren osagarria absolutiboa da “to hold on to, to keep” adieran, alegia, konfigurazio iragankor arruntean, eta datiboa, berriz, “to take hold of, to grasp, to be fond of” adieran, konfigurazio inakusatibo datiboduna erakutsiz. De Rijkek dakarren bereizketa baieztatzen du OEHk (III: 247-52).¹⁷

Bigarrena, alegia, konfigurazio iragangaitza da guri orain interesatzen zaiguna, geroago, noski, iragankorrek ere alderatuko duguna. Forma trinakoarekin hasteko, de Rijkek berak dioenez, inakusatibo datiboduna da “to adhere, to be attached to” adierako konfigurazioa:

- (47) a. sinesmenari baino gehiago maitasunari datzekio fede mota hori (*De re publica edo politikaz*, P. Xarriton, 174)
- b. Inguruabar horri datzekio beren zentzua (*Euskal Herria krisian*, J. Azurmendi, 47)

Printzipioz ez genuke espero datibo osagarriak gabeko forma trinkoak aurkitzea. Hala izanez gero, diakronikoki behintzat, predikatu honek datibo osagarriak halabeharrez hautatzen zituela esan genezake. Eta neurri handi batean, hala dela erakusten digute testigantza klasikoek, behin xehetasunez arakatu ondoren, baina bada salbuespen txikiren bat edo beste han-hemen aurkitutako kasu urrietan:

- (48) a. Presuna batek gomendatzen darot sekretu bat; itxek azu gorderik, diotsa, nik erraten darotzudana, eta nik gauza hura sekretu datxekat eta estalitzat dadukadala (Ch III 45, 4)
- b. Datxikagun beti gora eta zut eta oso gure eskualduntasuna (HU Zez 80)
- c. Garbi atxik bihotza eta Jainkoak ontsa gerizaturen zaitu (Leon *Imit* II 2, 1)

Ez dira asko, goian esan dugun bezala. Begiratzea baino ez dago OEHk konfigurazio iragankorrean dakarren adibide sorta luzea, euren urritasunaz konturatzeko. Ez dugu, beraz, pentsatzen, hipotesia baliogabetzen dutenik

¹⁷ Hauexek dira, datibo osagarria erakusten duen konfigurazio inakusatiboan, OEHk (III: 247-52) ematen dituen esanahiak: *estar unido* (*junto, pegado*); *adherirse, aferrarse, coger, prender, dedicarse; referirse, imputar*. Absolutibo osagarri arrunta duen konfigurazio iragankorrean, aldiz: *mantener, guardar, retener, contener, tener, considerar, ocupar, sostener, aguantar, atrapar*. Eta halaxe dio, gainera: “(En buena parte de los contextos en los que se utiliza, es sinónimo de *eduki*).”

salbuespenok —hau da, *atxikiren* kasuan, datiboak beharrezkoak direlako hipotesia—. Kasu eta komuntaduraren arteko *mismatch* moduko bat erakusten dute (a,b) adibideek, bederen, adizki trinkoaren datibo komuntadura izanagatik ere, absolutiboaz markatzen baita osagarria (*datxekat / gauza hura; datxikagun / eskualduntasuna*).

Gainerakoan, osagarri absolutiboa alde batera, gorago aditz honetaz hitz egiten ari ginela esan dugun bezala, osagarri datiboak, theta-rolaren aldetik helburua den arren, egitura lexikoaren ikuspuntutik baditu argitu beharreko alderdi interesgarriak. Forma trinkoan, ikusi dugunez, konfigurazio iragan-gaitzak dira nagusi, nahiz salbuespen iragankorrek ere aurkitu ditugun. Bada, forma perifrastikoetan, bi konfigurazio nagusiak aurkitzen ditugu, osagarri absolutibodun iragankorra eta osagarri datibodun inakusatiboa:

- (49) a. Tomas aise ere lotsagabeago ari baitzen: haren eskuak mikrofonoa ageri-agerian atxikitzen zuen (*Mailuaren odola*, A. Epaltza, 71)
- b. Hark aske utzitako hari-muturrari atxiki nintzaion (*Mailuaren odola*, A. Epaltza, 137)

Bien arteko erlazioaz ari denean, de Rijkek (2008: 347-8) *inkoatibo/araz-le*¹⁸ alternantzia daudela iradokitzen du, eta hala izan liteke kasu batzuetan. Normalean, alternantzia honetan parte hartzen duten predikatuek egoera *al-daketa* adierazten dute, baina egia da batzuetan aldaketa gabe, egoera edo kokatzeko modu hutsa adieraz daitekeela:

- (50) a. John leaned the ladder on the wall
- b. The ladder leaned on the wall

Bigarren perpausean, iragangaitzean, ez da aldaketarik sumatzen, eskailera leku eta kokatzeko modu jakin batean dagoela adierazten da soilik. Honelakoak izan litezke de Rijkek ematen dituen perpausak:

- (51) a. Sua datxekonean auzoko etxeari, gogoia emak eureari (*O Pr* 672)
- b. Gure txabolak elizari datxezkio

Bada *sua atxiki* dela eta, bide batez egin nahi dugun ohar txikia. OEHk (III: 249) bereziki dakar *su* subjektudun *atxiki* predikatuko adibideen atala, hau da, ez dira gutxi bereziki *su* subjektu gunean erakusten duten *atxikiren* adibideak. Halakoa da baita, esate batera, Axularren ondoko adibidea:

¹⁸ De Rijkek darabilen ‘anticausative’ deitura gaur egun erabiliagoa den ‘inchoative’ delakoaren sinonimoa da. Ikusiko dugunez, askoz egokiagoa da *antikausatibo* deitura, iragangaitz estatikoez ari garela.

- (52) Egur hezeak egiten du gar, eta egiten du negar: sua datxeka eta ura dario (Ax 501)

Itzul gaitezen, baina, ildo nagusira. De Rijken adibideekin alderatuz gero, Epaltzaren adibideak bezalako kasuek nolabait ezberdinak dirudite. Semantikoki, predikatuek ekintza adierazten dute, ez aldaketa ezta egoera ere. Horren ondorioz, datibodun aldaerako subjektuaren theta-rola egilea da, ez gaia, eta hau guztiz aparteko kasua da subjektu inkoatiboen artean. Izan ere, antzekoa da bi aldaeretako —datibo eta absolutiboduneko— subjektuen rola, eta horregatik oso hurbil dago hau, de Rijkek (2003) alternantzia *antipasiboa* deritzanetik, euskararen barruan lexikoki predikatu talde txiki batek erakusten duena:

- (53) a. Jonek ez du zure izena gogoratzen
b. Jon ez da zure izenaz gogoratzen
- (54) a. Aziendek orobat hautatzen dute bazka hobeena
b. Aziendak orobat hautatzen dira bazka hobeenez (Dv *Lab* 264)

Iragankor zein iragangaitz, predikatuaren subjektua bera da, eta garrantzitsua da, orobat, gogoratzea theta-rola edozein delarik ere, bietan bat bera dela. Nolanahi ere, alternantzia hau emankorra den munduko hizkuntzetan oso ohikoa omen da subjektu iragangaitzaren inplikazio maila txikiagoa izatea aditzak adierazten duen horretan —ikus Hopper & Thompson (1980) lan klasikoa—.

Antipasibo klasikoen eta gure inakusatibo datibodunaren arteko alderik nabarmenena datiboaren agerpena da. Oro har, iragankorraren osagarriari antipasiboetan dagokion kasua adjuntu batena izaten da, instrumentala, lokatiboa edo antzeko bat, baina ez dirudi datiboa ezinezkoa denik funtzio hori markatzeko. De Rijkek gaur egungo antipasibotzat hartzen dituen beste adibideak bezalaxe (*zerbait/zerbaitetaz ahaztu, gogoratu, etab.*), azpimarratzekoa da gaztelaniak ere antzeko konfigurazio erlazioak erakusten dituela; antipasiboak hizkuntza ergatiboetan aurkitzen direnez, kointzidentzia sumagarria da hau. Gure oraingo kasua, esaterako, gaztelaniaz *agarrar* aditzak erakusten dituen konfigurazioen antzekoa da oso —*agarrar algo lagarrarse a algo*—. Hemen erabilera iragangaitza *a* preposizioaz baliatzen da helburu argumentua gauzatzeko.¹⁹

Oraindik ere *atxiki* aditzaren inguruan, aipagarria da zentzu bera edo antzekoekin, badagoela orain desagertu den *eutsi* aditzaren erabilera berezi

¹⁹ Ez dago hain garbi *a* hori datiboari dagokiona den ala lekuzko helburuarena: zilegi da datiboak bikoizten dituzten klitikoak erabiltzea, hori bai, normalean sintagma biziduna bada: *se (??le) agarró al micrófono / se (le) agarró a Pedro*.

bat, inakusatibo datiboduna dena eta paremiologian aurkitzen dena. Lafonek (1944: 176) aztertu zuen, (a,b) bezalako adibideak emanez, eta Oihenarten (c)-ko atsotitzarekin lotuaz:

- (55) a. ausho Perucho urdeorri eta neuc ies daguidan²⁰ (RG 26)
- b. Autxo, Txordon, arz orri ta nik iñes daida (RS 422)
- c. Eneko atxeka hi hartzari, nik demadan ihesari (O *PrASJU* 139)

Kontuan hartu behar dugu adibide hauetako konfigurazioak iragangaitzak direla baieztatzeko arrazoia aditzaren forman datzala. Aginterazko formak ditugunez, *Perucho*, *Txordon* horiek bokatioak dira, eta ezin ditugu zuzenean absolutiboarekin parekatu. Baina aditzaren itxura iragangaitza da: subjektu ergatiboari printzipioz dagokion *-k* ergatibo komunztadura atzizkiaren ordeztu, (*h-*) absolutibo komunztadura aurrizkia dugu. Konparatu forma hau *etsiren* aginterazko *etsok* arruntagoarekin. Adieran oso antzekoa da atsotitz hauetako aditza eta (c) adibideko *atxikirena*, eta joskera ere antzekoa dute. Lafonen ustez, *dautso* hirugarren pertsonako forma iragankorra bada ere, iragangaitza balitz bezala ere uler daiteke, eta hortik datibodun konfigurazio inakusatibo berria sortzen da. Dena den, apur bat zalantzarria da ideia hau. Atsotitzak gehiagotan izaten dira forma zaharkituen gordailuak berrikuntzen ispilua baino. Hirugarren pertsonako antzeko forma iragankor asko daude, inoiz ere iragangaitz bezala berrinterpretatu ez direnak, eta beharbada, ez da kointzidentzia, beste forma iragangaitz hau sortu izana, adiera bera duen aditz iragangaitz baten (*atxiki*) eredupean. Edozein modutan ere, forma hauek desagertu direnez, lekuko filologiko gisa utziko ditugu hemen, analisi sakonagorik egin gabe.

Forma trinkoa duten inakusatibo datibodunekin amaitzeko, hurbil gaitzen orain *jario/erion* aditzera. Berrito ere, nolabait ihartuta dauden forma trinko hauek halabeharrez dira datibodunak. EGLU II-k (19787: 256) *erion*pean sartzen ditu *darit*, *dario*, *darigu* bezalakoak, Lafonek (1944: 178) *jariatupean* sailkatzen dituenak. OEhk (VII: 35), bere aldetik, *erion* sarrerapean, forma denboragabeak baino ez ditu jasotzen, eta gainerako guztiak *jario* sarreran (OEh X: 99) dakartza.

Oso kontuan hartzekoak dira OEhk *jarioz* ematen dizkigun argibideak. Testigantzarik zaharrenak, dioenez, iragangaitz datibodunak dira bai Iparraldean bai Hegoaldean.²¹ Dena den, badira baita egitura iragankorraren testigantzak ere, baina kontuan izan beharra dago XIX. mendetik aurrerakoak direla. Iragangaitzak dira, beraz, goiztiarrenak eta jatorrizkoak. Jaso ditzagun

²⁰ “Tenta Perucho el puerco e yo huyere”.

²¹ OEh (X: 100). “En cuanto a su uso trans. o intrans., los testimonios más antiguos, tanto al Norte como al Sur, corresponden a construcciones intransitivas con complemento en dativo y es éste uso el más frecuente en ambas tradiciones. Hay testimonios de construcción transitiva desde principios del s. XIX.”

ondoren nagusi eta orokorra den konfigurazio iragangaitz horren adibideak, datiboa bera agerian dutelarik:

- (56) a. Andre Sakratuaren eskuei mirrha darie (SP *Pbil* 259)
b. Egiari argi dario (Hb *Egia* 151)

Erro eta oinarritzko partizipioaren gorabeherak alde batera utzita, (b) adibideko *-o* hori datiboari dagokiola dirudi, ez erroari, *darit*, *darigu*, *darie* eta abarrekin konparatuz gero, pentsa daitekeenez. Adibide hauek printzipioz ez digute zalantzarik sortzen eta ezin uka egitura nagusiaren ispilu direla. Dena den, gogoan izatekoa ere bada, *dario* adizkiaren *-o* morfema horri ez zaiola estatus bat bera aitortu euskalaritzan, ezta *jariori* paradigma bat bera egotzi ere, eta gramatikatik gramatikara diferentziak antzeman daitezkeela honi guztiari dagokionez. Esate batera, eta OEHri (X: 100)²² jarraituz oraindik ere, Urtek (1712) bere gramatikan *darit*, *darizu*, *dario* paradigma dakar, baina Lardizabalek (1856) bi paradigma aipatzen ditu: bata iragankorra *-o-* tematikoa duena, *dariot*, *dariozu*, *dario*, eta beste bat iragangaitza *-darit*, *darizu* eta abar—. Jakina, Urtek dakarren lehen paradigma —iragangaitza— testuetan forma iragankorrek zabaldu baino lehenagokoa da. Aldiz, Lardizabalen gramatika argitaratzen denerako, hasiak dira forma iragankor horiek idazle batzuetan azaltzen —ikus OEH egileen xehetasunetarako—. Konfigurazio iragankorra iragangaitzaren alboan agertzen denerako ikusten denez, *-o-* horrezaz dauden hipotesi bien eskutik dator ondoko komunztadurari ematen zaion izaera: lehen paradigmaman (*darit*, *darizu*...) *-o-* datibo komunztaduratzat hartzen da, baita *-t* edota *-gu* eta abarrak ere; bigarren paradigmaman, zenbait gramatikatan, iragankortzat hartzen den horretan (*dariot*, *dariozu*...), berriz, *-o-* ez da singularreko hirugarren pertsonako datibo komunztadura, ez bada erroaren morfema, eta *-t* edota *-gu* komunztadura atzizkiak ergatibo markatzat jotzen dira, ez datibo markatzat — \emptyset litzateke, jakina, singularreko hirugarren pertsonakoa—. Konfigurazio iragangaitzak dira baita ondokoak ere:

- (57) a. Baionako hirian hitz on zariola / begirik idorrenei negar zaritela (Hb *Esk* 106)
b. Idiari nigarra darionian [...] (Mong 592)

²² Aipamenak duen garrantziagatik osorik emango dugu jarraian. OEH (X: 100) “Las formas sintéticas son de uso general ya desde Dechepare. En lo que respecta a los paradigmas verbales que figuran en distintas gramáticas, Urte describe en la suya (350s) un paradigma del tipo *darit*, *darizu*, *dario*, *zaritan*, *zaritzun*, *zaion*... con complemento dativo. Lardizabal (*Gram* 52), da cuenta de dos paradigmas, uno transitivo, que incluye formas con *-o-* temática como las que presenta Larramendi (s.v. «manar»): «me mano o derramo en palabras, etc. *dariot*, *dariozu*, *dario*, *dariogu*, [...] *nerion*, *zeñirion*, *zerion*, *geñirion* [...]» y otro intransitivo: «Se me está cayendo, *darit*, *darizu* *dario*, *darigu* [...] *zeridan*, *zerizun*, *zerion*». Ithurry (332 y 333) y Lafitte (*Gram* 330s) describen paradigmas de formas transitivas del tipo *dariot*, *dariozu*, *dario*, *narion*, *zarion*, *harion*, *ginarion*, etc.”

Konfigurazio iragangaitzean, isurtzen dena sistematikoki absolutiboaz markatzen da, eta nondik isurtzen den, datiboaz. Hortaz, iturburu theta-rola da datibo argumentu hauetan daukaguna. Horretaz gain, isurtzen dena normalean iturburuaren ‘barrutik’ sortzen denez —odola, negarra, etab.— erraza da datibo hau intereseko datiboaren eremuan kokatzea, jabetza ezinbesterenduzkoarekin lotuz.

Eta bada azpimarra daitekeen beste ezaugarri bat: bi argumentuak agerian egonez gero, gehien-gehienetan datibo-absolutibo hurrenkera aurkitzen dugu, hau da, intereseko datiboari sarrien ematen zaion hurrenkera, ondoko adibideek ere erakusten dutena:

- (58) a. San Agustiñen biotzari sua eta garra darion artean (Lar *SAgust* 16)
- b. Guziei urgulu eta zorokeria dariote (Hb *Egia* 124)

Antzeko konfigurazio eta hurrenkerak espero ditugu baita forma perifrastikoetara jotzen dugunean ere (OEH X: 101):

- (59) a. Ni baithan sinesten duenari... ur bizizko flubioak iariaturen zaizka bere sabeletik (Lç Io 7, 38)
- b. Orari berari ahotiko odola iarieten baitzaika (Ax 510 (V 329))
- c. Orren eltziai esnia yariten ez (AN-erro)

Konfigurazio iragangaitzari dagokionez, OEHk (X: 101-2) datiborik gabeak ere aipatzen ditu sorta batean, halakoak adibidez:

- (60) a. Malko txit goxoak iarioten dira oarkabe (Gazt *MusIx*, 38)
- b. Yario ditezela aien ezpañetatik ahapaldi legunak (Or *Mi* 34)
- c. Ithurri bethi iariko den bat (HeH Io 4, 14)

Datiborik gabeko kasu argiotan, alegia, isilpeko datiborik ere ez duten horietan, gaia edo, nahiago bada, isurkaria da absolutiboaz markatzen dena (a,b), baina iturburu bera ere marka daiteke absolutiboan —sorta berez txiki batetik adibide batzuetan baino ez (c)—. Hala gerta daiteke baita forma trinkodun adibideren batean ere:

- (61) Garbienik darion / iturburuan ase bai gogoia (Gazt *MusIx* 115)

Jakina, iturburu bera bada dariona eta ez iturburuaren isurkaria, orduan *dario* forma honetan, ezin daiteke *-o* morfema datibo iturburuaren komuntadura hizkitzat hartu. Ostean, iturburu mendeko erlatibozko perpausetik perpaus nagusira igotzean, ez dugu ziurtasunez jakiterik mendean *ura garbienik dario* ala *urak garbienik dario* ote dugun. Printzipioz, absolutiboa iza-

tea espero dugu, jatorriz dagokion moduan —gogoratu OEhk ere datiborik gabeko iragangaitzen atalean duela adibidea aipagai—, geroago ikusiko ditugun egitura iragankorrek gora-behera. Hala izaki, argumentu bakarreko adizkitzat hartu beharko genuke *dario*, eta argumentu absolutiboak \emptyset absolutibo komunztadura marka duela pentsatu, hau da, *dago* edota *dabil* adizkietan azaltzen den komunztadura bera.

Aurpegi askotako irudia, ikusten denez. Eta ez dugu asmorik basoa ezkutatzeke, zuhaitzetan abarrez abar gabiltzala, baina arreta eman digute behin eta berriro, nahikoa sarri aurkitu ditugun halakoxe adibideek:

- (62) a. Odietatik darion ura edan dezaten (Ibiñ *Virgil* 101)
- b. Teilen artetik itaxura zarion nigarren gisan (Xa *Odol* 103)
- c. Horien ezpainetarik darion hizketaren gatza (MIH 168)

Irakurleak ikusten duenez, berriro dugu *dario* hizpide, eta (b) adibidean, *itaxura* absolutibo argumentua ageri zaigu *zarion* adizki trinkoa izanagatik ere —hau da, hemen ez dugu zalantzarik subjektuaren kasua absolutiboak dela—. Badago, beraz, \emptyset absolutibo komunztadura *zarion* adizkian. Auzia da oraindik ere zein ote den *-o* horren estatusa, datibo markari dagokion ala erroari dagokion (hau da, tematikoa den). Izatez, ez dago datibo iturburuaren argumenturik, hortaz, ezin dugu ebatsi datibo iturburuaren komunztadura denik. Iturburu hiru adibideetan, ablatibo batek adierazten du (*odietatik*, *teilen artetik*, *horien ezpainetarik*). Hortaz, guri burura datorkigun zalantza da, *-o* hori morfema badugu, nola lotzen den ablatiboarekin. Utziko dugu momentuz. Izango dira geroago, halako kasuen itxura bertsea hartzen duten adibideak.

Ildo nagusira itzul gaitezen, beraz, eta konfigurazio iragangaitz datibodun eta datibogabeak ikusi eta gero, ez dezagun konfigurazio iragankorra ahaztu. Iturburu kasu honetan ez da datiboaz adierazten, ergatiboaz baino. Forma trinko (a-d) eta perifrastikoak (e,f) ikus daitezke konfigurazio iragankorrean ere:

- (63) a. Odola dariote gaizok (JE *Bur* 31)
- b. Duenak dario, duenak dario! (Barb *Sup* 40)
- c. Erromesaren ele garratzak egi-egia zerion (Etxde *JJ* 245)
- d. Herioari so han nindagon, dolamena nariola (Xa *Odol* 329)
- e. Geruago ta odol gehiago jarijoten eban (Altuna 36)
- f. Etxeetako tximiniak darioten kea (Aitzol in Ldi *UO* 5)

Dena den, kontuan hartu beharra dago nagusitzen diren forma trinko ugarien orde, oso urriak direla, baina baita aldakorrek ere, historian zehar

jasotzen diren partizipioaren beraren agerpenak (OEH X: 99). Leizarragak dakarkigu testigantzarik zaharrena (*jariatu*).²³ Urritasun hori historian zehar ez ezik, gaur egungo euskararen ere antzematen da. EPG corpusean oso bakanak dira *jarion/jariatu/erion* aditzen lemek eskaintzen dizkiguten adibideak, eta oso erabilera aldakorra erakusten dute, gainera, beharbada berpiztutako formak izateagatik. *Erion* hartuz gero, esate baterako, 20 agerraldietatik²⁴ 19 Amurizaren itzulpen batean daude, eta guztietan iturburu datiboaz markatu beharrean, lekuzko postposizio batez markatzen denez, datibogabeko konfigurazio inakusatiboa da sortzen dena:

- (64) Zeren baliteke mundu guztiaren argi iturri bakarra hantxe irekitzea eta argitasun ugari zabaltzea, beroaren elementuak mundu guztitik hantxe batzen eta haraxe jotzen dutelako, beroa sorburu bakar hartatik erion dadin (*Gauzen izaeraz*, Lukrezio / X. Amuriza, 341)

Bestea, ondoko adibidean jaso dugu, eta hor argi dago *zerion erionen* forma dela:

- (65) ezta halako ustel usaina zeriolako ere, erion bazerion-eta (*Sukar ustelaren urtea*, E. Jimenez, 159)

Gehixeago dira *jariaturen* aipamenak, baina Leizarragaren eredutik urruntzen dira: gehienek lekuzko postposizio batez markatzen dute iturburu, eta ondorioz, *dira/da* iragangaitz soilak dira —ikus EEHn (Sarasola 2008/09), *jariatu* aditzaren 3 adiera “nonbaitetik isurkari bat irten”—. Iragangaitz datibodunetan, datibo etiko arruntak ditugula ematen du, alegia, ez sortzez ditugun datiboak, ez bada gaineratutakoak:

- (66) a. Zainetan barrena korronte elektrikoaren antzera jariatuko zaizu (*Mirarien kalezuloa*, N. Mahfuz / P. Zubizarreta 200)
- b. Sudurretik, kokotsetik eta ahotik isuri zitzaion odola; makillajearen hautsekin eta kremekin nahasirik, lepoan eta soinekoan behera jariatatu zitzaion (*Mirarien kalezuloa*, N. Mahfuz / P. Zubizarreta 359)

Azkenik, EEHra (Sarasola 2008/09) berriro joaz, “zerbaitek isurkari bat jaregin” adierapeko adibide guztiek konfigurazio iragankorra dute:

²³ Zulaikak (1999: 264) dioenez aditz izenak ere badaude, nahiz eta hitz elkartuetan beti: *odol iariatzea*, *odol iariatzez*). Dena den, EPGk aditz izenarekin biltzen dituen datuetan ez dago halabeharrez hitz elkarketarik, adibidez: *Jolas*, *kantu*, *bertso*, *hizketa* eta *abarrek kilika egiten diote*; *erritmoa eta jariora*, *izatearen jariatze bat dutelako*, *kilika eginez berekin eramaten eta suspertzen dute*. *Aurretik igarotako denboraren jariatzearen bitartez* (*Antropologo bat Marten*, O. Sacks / X. Olarra, 79).

²⁴ *Erion* eta *erioten* formen agerpenak —*eriongo* formarik ez da—.

- (67) a. mundu guztiak daki (eta neuk ere banekien) urarekiko kontaktuan ez bakarrik hidrogenoa jariatzen duela, baizik are su hartzen duela [potasioak] (*Sistema periodikoa*, P. Levi / J. Garzia 87)
- b. Pankreako zelulek intsulina jariatzen dute (*Berria*, 2004-10-01)

Jario bera ere oso gutxitan agertzen da forma denboragabeetan, eta horretan argigarria da berriro ere EPG arakatzea. Liburuetan, adibidez, *jario* hitzaren 261 agerraldietatik, 4 partizipio bakarrik topa ditzakegu:

- (68) a. Horrela, santuari irakaspen osasungarriko hitzak *jario* zitzaizkion (*Asisko Frantzisko, Asisko Klara*, Askoren artean, 818)
- b. kopa bat eskatu zion saihetsetik *jario* zitzaion odola jasotzeko (*Asisko Frantzisko, Asisko Klara*, Askoren artean, 840)
- c. eskutik ur-odol tantak *jario* zitzaizkion (*Gogojardunak*, I. Loiola-koa/ P. Altuna 175)

Laugarrena aparteko kasua da:

- (69) eta ikusi zuen suge buruhandi bat bere gainera zetorrela, begi biak, ahoa eta sudurra kea eta txinpartak *jario* zituela (*Patata soro bat*, J. Azkona, 26)

Konfigurazio iragankorra dugu hau. Lau adibide hauetatik kanpo, beste agerraldietan *jario* izena dugu, sarri askotan *hitz-jario*, *negar-jario* bezalako forma elkartuetan erabiltzen dena. Halaber, espero bezala ez da *jariotzen* formarik aurkitzen —de Rijckek (2008: 321) *preterito-present verbs* zeritzenetariko bat litzateke, hau da, orainaldi inperfektiboa adierazten duen forma perfektua, *falta da*, *balio du* kasuen antzera—. Eta, EPGen behintzat, *jarioko* adibide bi besterik ez dago, bata gorago ikusi dugun Leizarragaren (59) adibide bera, *jariaturen* ordez *jario* partizipioa dakarrena, eta bestea ondokoa, itzulpen batekoa:

- (70) Zauri horiei hazia *jarioko* zaie (*Goragalea*, J.P. Sartre / M. Etxebarria, 257)

Egoera bitxia, benetan. Ez da guztiz ezezaguna euskal morfologian *jario* bezalako aditz defektibo bat aurkitzea, forma denboragaberik ez duena, edo ia ez duena (hor dugu **io* aditz honen lekuko). Forma trinkoak datiboarekin eta inakusatiboki erabiltzen dira sistematikoki, eta ezin bestela izan, morfologia trinko hori nekez aldatzen da-eta. Baliteke hizkuntza maila jasoan ikasitako forma trinkoak izatea. Baina behin *jariorekin* loturiko beste aditzak erabiltzen hasi eta forma trinkoetatik aldentuz gero, laguntzaileek eskaintzen dituzten aukerez baliatzean, aldakortasuna nagusitu egiten da, eta, oro har, datibo osagarriak desagertu egiten dira.

Aditz iragangaitz trinkoek beharrezko datibo osagarriez irakasten digutenarekin amaitzeko, badago gutxienez aipatu behar dugun beste kasu bat,

egon aditzarena hain zuzen. *Ibili, joan*²⁵ edota *etorri* bezalako datiboak ez dira beharrezkoak, oinarrizko inakusatibo datibogabe bati gaineratzen zaizkion helburuak, interes datiboak eta bestelako bigarren mailako argumetuak baino. Baina *egon* aditzarekin zalantzak sor litezke: datibodun konfigurazioetarik batean, gaztelaniazko *corresponder* aditzaren antzekoa da, eta adiera horretan, datiboa behar-beharrezkoa da, bera gabe, ezin daiteke-eta interpretazio hori berreskuratu. Ostean, gaztelaniaz edota ingelesez *a* eta *to* preposiziodun osagarriak erabiltzea ezinbestekoa da pareko aditzekin. Dena den, hau guztiagatik ere, ez genuke esango *dagokio* bezalako formak *egoki* balizko aditz batenak direnik: hiztegiak begiratzea baino ez dago konturatzeko *egokik* dituen adiera eta kategoria askoren artean ez dagoela aditzarena,²⁶ lotura diakronikoa gardena izan arren.

2.3. Alternantziak inakusatibo datibodunetan

Orain arteko eztabaidak erakutsi digunez, begi-bistakoa da predikatuetako argumentu batzuk datiboan ager daitezkeela konfigurazio batzuetan, baina, aldi berean, sarri askotan beste kasu marka batez marka daitezkeela beste konfigurazio batzuetan —horrek funtzio sintaktikoan izan dezakeen ondorioekin—. Hauetako batzuk hain direnez nabariak, eskoletan ere irakatsi zizkiguten: denok izan dugu inoiz perpaus aktibo eta pasiboen berri, hau da predikatu iragankorretako bi argumentu nagusiak ager daitezkeen ohiko bi konfigurazioak. Baina *egon*, badaude beste asko. *Ahaztu* predikatuak argumentu nagusi bi baditu, esperimendatzailea (ahazten duena) eta estimulua (ahazten dena), eta biak konfigurazio iragankor batean aurki ditzakegu (*X-k Y ahaztu*). Ez dugu hemen eztabaidatuko euskaraz benetako konfigurazio pasiborik ba ote dagoen ala ez, ez da beharrezkoa. Konfigurazio hori alde batera, euskaraz bestelakoak ere aurki ditzakegu, eskolan irakatsi ez zizkiguten arren, denok erabiltzen ditugunak: *X Y-z ahaztu*, *X-i Y ahaztu*, etab. Normalean, esanahi bertsua duten predikatuen argumentuak antzeko konfigurazioetan aurki ditzakegu: *X-k Y gogoraturen* ondoan baditugu *X Y-z gogoratu* eta *X-i Y gogoratu*, baina *X-k Y kantaturen* parean nekez aurkituko dugu *X Y-z kantatu* edo *X-i Y kantatu* bezalakorik. Predikatu beraren argumentuak askotariko konfigurazioetan ager daitezkeen heinean, konfigurazioen arteko alternantziak topatuko ditugu. Hemen darabilgun ‘konfigurazio’ deitura neutralagoa eta estatikoagoa da ‘alternantzia’ baino, azken honek esanahi erlazionala baitauka: berez ‘alternantzia’ bat izateko konfigurazio bi behar ditugu. On-

²⁵ Leizarragak batzuetan *joan* aditzaren forma jokatuak “inporta” zentzuarekin erabiltzen ditu: *Cer dohacu guri?* (Mt, 27, 4). Baina gehienetan helburu gardena da datiboa, eta honelako adibide urrietan nahiko lotura metaforiko argia dago oinarrizko erabilerarekin. Horregatik ez dugu zerrendatzen beharrezko datibodun kasuen artean.

²⁶ Salbuespen da OEhk (VI: 444) jasotzen duena.

doko lerroetan, eta liburu osoan zehar argumentu konfigurazioak lotzen dituen alternantzia hauetaz arduratuko gara. Alternantzia bateko konfigurazioen artean ezberdintasun semantiko eta pragmatiko txikiak egon daitezke, gehienetan ñabardurak baino ez. Perpaus pasibo baten esanahia, aktiboaren esanahiaren oso antzekoa da (enfasiak eta erabilera gora behera), eta beharbada handiagoa da *Mikeli bulegora deitu diote* eta *Mikel bulegora deitu dute* perpausen arteko aldea (Etxepare 2003). Baina, oro har, ez dugu aldaketa drastikorik aurkitzen.

Nahiko era deskribatzaile batez hurbilduko gara gai honetara. Konfigurazio hauek lexikoan, syntaxian edo tarteko eremu batean sortzen diren ez da gure auzia orain, alternantzien berri ematea baizik. Ez guztiena, gainera: konfigurazioen batean gutxienez argumentu bat datiboan azaltzen duten alternantziak dira gure mintzagaia. Liburu honen hasierako lerroetan adierazi dugun bezala, oso ikuspegi zabala hartzen dugu, zabalegia beharbada, gure ikergaiaz. Espero dugu, hala ere, gure datuak hiztunen artekoak, hizkeren artekoak eta, are, garaien artekoak izan arren, sistema bakar batekoak balira bezala ez tratatzea. Hala ere, hemengo alternantzia gehienak sistema berari dagozkiola uste dugu, eta hizkera mugak edo muga diakronikoak daudenean, ahalik eta garbien azpimarratzen saiatu gara. Hasierako lana da hau, eta gerora begira hiztun berberaren baitan, hau da, psikologikoki erreala den sistema nagusian egon daitezkeen alternantziak eta egon ezin daitezkeenak zehaztu beharko dira.

2.3.1. *Datibo alternantzia*

Has gaitezen alternantzia klasiko batekin. Predikatu batzuekin, konfigurazio batean datiboan agertzen den argumentua postposizio sintagma gisara agertzen da beste konfigurazio batean. Honelako alternantziara berriro ere itzuliko gara 5.3.1. atalean *datibo alternantzia*z dihardugunean. Alternantzia hau sintagma adlatibo eta datiboen artean gertatzen denean aztertu izan da sarrien, eta batez ere predikatu iragankorretan (*harengana bidali dut/hari bidali diot*). Baina inakusatiboetan ere aurkitzen dira honelako txandakatzeak, aipatu berri ditugun adibideak ez baitira *harengana joan naiz/hari joan naitaio* bezalakoen aldean, hain ezberdinak. Konfigurazio iragankorretako datibo alternantzia ari garenean berriro ere adieraziko dugunez, gure hemengo auzia ez da alternantzia hauek prozesu sintaktikoen bidez sortzen diren ala ez erabakitzea, agertzen diren konfigurazioen berri ematea baizik, horretarako hiztegi eremura joz. Geroago ere azalduko dugunez, postposizio sintagma guztiei ez dagokie datibodun konfigurazio onargarri bat: *harengana mugitu zen* ez da *hari mugitu zitzaion* bezalakoa, azken honen datibo argumentua jabetza edo interesekoa dela baitirudi; orobat, iragankorren artean *harengana jo duren* orde ez dugu **hari jo dio* formarik aurkitzen. Ezta alderantziz ere, hau da, datibo guztiei ez dagokie postposizio sintagma bat: ez dago *hari mintzatu zai-*

ren ordezko **harengana mintzatu naiz, hari erakutsi diot* iragankorra, balizko **harengana erakutsi dut* formarekin txandakatzen ez den bezala.

Atal honetan, alternantzia honen emankortasunaz mintzatu gara, eremu mugatu batean bada ere: inakusatiboetako datibo iturburuen eta *norengandik* postposizio sintagmen arteko erlazioaz, hain zuzen. Gure helburua txandakatze hori mugatzerakoan, interesak edota jabetzak daukaten zeregina aztertzea da. Oro har, gure konfigurazio iragankorretako datibo helburuen antzeko emankortasun mugak beste hizkuntza batzuetan aztertzerakoan, faktore batzuen zeregina azpimarratu izan da: helburuaren biziduntasuna —euskaraz ere aipatu izan dena, adibidez *Bilbora*/**Bilbori bidali, joan*—, iragaite edota transferentzia burutu bat existitzea (ingelesaren *I taught Latin to 3rd year students/I taught 3rd year students Latin*, eta beharbada goiko *harengana/hari jo* etab.).^{27, 28}

Emankortasunaren aldetik, badirudi ezberdintasun nabarmena dagoela datibo helburuen eta adlatiboak ez diren bestelako postposizio sintagmekin txandakatzen diren datiboaren artean. Oro har, erraza da inakusatiboaren artean adlatibo bat datibo batez ordezkatzeta, eta maiztasun gehien duten aditzi gain-begirada bat emanez gero, badirudi gehienek onartzen dutela ordezkatzeta —**mugitu zitzaion* formari izartxo jarri diogu ez baita guztiz argia helburu interpretazioa duenik (interesekoa erraza da lortzen, noski)—. Baliteke hemen ere mugimendua helmugara heltzea ala ez (transferentzia gertatzearen parekoa) garrantzizkoa izatea: nire aldera mugitzen edo makurtzen denak ez nauka ni nahitaez jomuga; aldiz, niri datorkidanak, niregana heltzen denak bai, hortik **mugitu/makurtu zait* eta *heldu/etorri zait* perpausen arteko ezberdintasuna. Hau honela balitz, beste hizkuntza batzuetan datibo batzuek erakusten dituzten murriztapenen antzekoak izango lituzkete hemen aztergai ditugun datiboek ere.

Baina datiboaren eta bestelako postposizioen arteko txandakatzeak askoz mugatuagoak direla ematen du. Hemen datibo iturburuez arduratuko gara, printzipioz datibo helburuen antzekoak direlako: puntu batera joan zein puntu batetik etorri logikoki elkarren antzekoak dira datibo iturburu eta helburuak, eta modu berean tratatzen dira, adibidez, Pylkkänenen (2008) azterketa formalean. Nolanahi ere, argi dago datibo iturburuak mugatuagoak direla. Lehenengo eta behin, nahiz eta ablatibo bizidun sintagmak guztiz onargarriak izan *joan, etorri, heldu, hurbildu* bezalakoekin, datiboak ezin dute iturburua adierazi: *Mikeli etorri/joan/heldu/hurbildu* zaio forman datiboa helburu edo interesekoa da, ez iturburu motakoa. *Mikeli joan zitzaion* diogunean, *Mikeli* helburua izan daiteke, bai eta interes datiboa ere, doana bere semea delako, esate baterako.

²⁷ Baina badirudi *abiaturekin* bai *harengana* bai eta *hari* direla posible. Azkena benetan interesekoa ez bada, ez dago argi zergatik jokatzen duten ezberdin mugimenduaren hasiera azpimarratzen duten bi predikatuok.

²⁸ Iragankorretako datibo alternantzian ikusiko dugunez, ingelesaren adibide hauek gure auzian garrantzitsuak dira, baldin eta osagarri bikoitzeko egituraren lehenengo izen sintagma (*teach someone Latin*) euskararen datiboaren parekoa bada, eta bigarren adibidearen *to IS* sintagma, aldiz, gure postposizio sintagmen parekoa.

Berez iturburua lexikoki adierazten duten predikatueta igaroz gero, burura datorkigun lehenetarikoa *abiatu* izan liteke. Baina predikatu honek, hasierako puntua adierazten duenak, nekez onartzen du datibo helburua —gorago esan dugun bezala, beharbada indar-gunea abiapuntuan dagoelako, ez helmugan— eta nekez iturburua: *Joni abiatu zaio* diogunean *Joni Jonengandiken* ordezeko izan daiteke, baldin eta Jonekin zerikusia duen zerbait bada, hots, interes datiboa. Beraz, *Joni semea (gerlara) abiatu zaio* perpausean, *Joni* ez da iturburua —baliteke semea beste herrialde batean egotea—, semea abiatzea zeinen interesekoa den baino. Berrito ere, interesa/jabetza da ablatiboaren eta datiboaren arteko lotura araupetzen duen faktorea edo faktoretariko bat. Mugimenduaren hasiera markatzen duten beste predikatu batzuk *atera*, *irten* eta *eskapatu* dira. Iragakor datibodunetako kasuak aztertzean ikusiko dugun bezala, hemen ere datibo argumentuaren agerpenak interes/jabetza harremanaren existentziak baldintzatzen du. Faktore honen garrantzia jabetzeko, kontuan izan biziduna izateak ez izateak baino garrantzi handiagoa daukala. *Atera* edo *irten* aditzen datiboak, esate baterako, osotasunaren parte bat kentzen dela adieraz dezake, eta osotasun/atal harreman hori nahikoa da datibo argumentua zilegizatzeko:

- (71) a. Mahaiari tiradera atera zaio/*Geltokiari autobusa atera zaio
 b. Liburuari orri bat irten zaio/*Tabernari bezero bat irten zaio

Azken adibidean, noski, onargarria den bestelako interpretazioa ere badago, *agerturen* antzeko adiera batekin, interes/jabetza erlazio ohikoago bat daukana —datiboa bizigabea izan arren—. Aditz arrunt honek adiera asko ditu, eta jarraian, bere inguruko eztabaida apur bat borobiltzeko, haietara itzuliko gara. Baina orain dagokigun auzia berriro ere azpimarra dezagun: aurreko datuek erakusten dutenez, datibo iturburu hauek onargarriak dira baldin eta jabetza/interes harremana badago, zentzu zabal batean bada ere. Areago, harreman hau, eta ez horrenbeste ablatiboarekin duen harremana, oinarritzotzat jo daiteke datibo hauen agerpena ulertzeko: kasu gehienetan iturburu ablatibo baten bidez ordezkia badaiteke ere, batzuetan ez da hori kasua. Lehengo adibideetan nekez pentsa genezake *mahaiari tiradera atera* harremana *mahaitik tiradera atera* perpausean dagoen bera denik.²⁹ Adibide gehienak biltzen dituen faktorea, beraz, ablatibo batetik lotura baino areago, jabetza/interes erlazio zabalarekiko lotura dugu. *Irten* predikatuarekin amaitzeko, esan beharra dago, beti bezala, bestelako datibo tipikoagoak (eta ez hain tipikoak) ere topa ditzakegula berarekin. Gizakien ‘barruko’ guztiak, fisikoak izan zein ez, *irten* daitezke jabetza harremaneko datiboaz markatuta:

²⁹ Honetan, gaztelaniarekin konparatzea argigarria izan daiteke: *se le ha salido el cajón a la mesa* ez da *el cajón ha salido de la mesaren* parekoa; bai, beharbada, *el cajón se ha salido de la mesarena*.

- (72) a. Hitz horiek atera zitzaizkion Mikeli
 b. goragalea irten zitzaion ahotik (*Azkenaz beste*, A. Lertxundi, 27)
 c. Irriño bat irten zitzaion, zotina (*Sua nabi, Mr. Churchil?*, K. Izagirre, 217)

Eta gaztelaniaren *salir* aditzaren “resultar” adierarekin lotuz, beharbada interes aldera makurtzen diren datiboak aurkitzen ditugu:

- (73) Identifikazio hori garesti irtengo zitzaion nire belaunaldiari (*ETAren bautsa*, J. Zulaika, 102)

Ahozko hizkeran oso arruntak dira *ondo*, *gaizki irten zaio azterketa* bezalakoak, datibodunak gehienetan. Azkenik, datibo helburua ere izan daiteke *irtenena*: *txakurra irten zitzaidan* diogunean, ez gara nahitaez *nire* txakurraz ari, txakurra niregana etorri zela ere adieraz dezakegu.³⁰

Datibo iturburuekin amaitzeko, beharbada argigarria gerta liteke hemen *eskapatu* aditza gaineratik aztertzea, iragankorretako datibo iturburuak aztertzean, ikusiko dugun *ihes egin* predikatuaren antzekoa dena. Alternantzia sarrien ablatibo bizidunekin gertatzen bada ere, ez da ezinezkoa datiboa sintagma bizigabeetan ere topatzea:

- (74) a. Gosta ere zaio, hiltzaleak ukan baitzituen hurbil hurbila eta bera mirakuluz bezala eskapatu zitzaion irriskuari (*Herria*, 2004-07-08)
 b. izurriteari nola eskapatzen zaio (*Zeruetako erresuma*, I. Borda, 145)

Egia da, hala ere, pertsonalizazio kutsua dariola erabilera honi; horregatik, beharbada, interes antzeko zerbait suma daiteke hemen, datiboaren agerpena bideratuko lukeena. Bizidunekin arruntagoa da datibo iturburua:

- (75) xeila gaineratik jauzi eginez eskapatzen zaio (*Oilandoiko ermita*, M. Oronoz, 78)

Baina horrelakoetan interes kutsua da nagusi. *Atxilotua eskapatu zaio* esateko nolabaiteko interes erlazioa dagoela onartu behar dugu atxilotuaren eta eskapatzen zaionaren artean, interesdun hori kartzelaria edo barne ministroa delako, bere bila dabilelako etab. Halakorik izan ezean, zalantzazkoak dira datibo hauek. Noski, litekeena da bestelako datiboak ere izatea, hala nola *jabetza* —zentzu zabalean, aurreko predikatuetan bezala, sarrien jasotzen den zentzua— edo, bigarren adibidean, eta zentzu psikologiko metaforikoan, *esperimentatzailea*:

³⁰ Rol simple hauetaz baliatzen garenez, litekeena da datibo hori berezko erlazio batekin lotzea, ‘nire aldera, nire bidera, nire ondora’ etab. balitz bezala, alegia.

- (76) a. Ondoko pentzean dagoen gizon gazteari irriño bat eskapatu zaio (*Santiago oinez*, P. Aintziart, 218)
- b. Gabini ez zitzaion eskapatzen bien arteko aldeak (*Kuskue tanden*, I. Iñurrieta, 143)

Atal honetan, datibo iturburuek ‘jabetza/interes’ harreman zabalarekin duten lotura aztertu dugu, helburuekikoa baino agian sendoagoa. Sintaxiaren aldetik, gogoratu datibo helburuaren eta gaiaren arteko hurrenkera neutroena, bat izatekotan, *abs-dat* dela; bestelakoetan, aldiz, *dat-abs*. Eta badirudi, honelako juzkuek duten izaera irristakorra aitortuta ere, oro har datibo iturburuak azken hauekin ere bil ditzakegula hurrenkerari begiraturuz gero: markatuagoa ematen du *atxilotua poliziarri eskapatu zaio* hurrenkerako perpausak kontrako *poliziarri atxilotua eskapatu zaio* baino. Orobat, oraindik aztertu ez dugun gaia den arren, oso litekeena da datibo komunztadura galera iturburuekin nekezago gertatzea helburuekin baino, baina hori etorkizunerako lana dugu.

2.3.2. *Datibo eta postposizio alternantziadun predikatuak: aspektu/ekintza predikatuak eta aspektu/ekintza datiboak*

Inakusatibo datibodunetara jotzen dugunean, mugimenduzko aditzez gain, sorta beregaina osatzen dute, gure ustez, nagusiki inesibo eta datibo alternantzia erakusten duten zenbait predikatu. Predikatu hauek aspektu/ekintza predikatuak direla uste dugu eta eurek hautatutako datiboak aspektu datibotzat hartu izan dira batzuetan —Etxepare & Oyharçabal (2008a) eta Fernández & Landa (2009)— eta ekintza datibotzat beste batzuetan (Ortiz de Urbina 1995). Guk besterik gabe aspektu/ekintza datibotzat hartuko ditugu, azken batean, bi ikuspuntuetatik begira dakiekeelako datibo berberei: datibo hauek aspektu predikatuarekin agertzen dira, eta datiboan dagoen sintagmak modifikazio aspektual horren bidez modulutzen den ekintza adierazten du.

Datibo hauek aztergai izan diren lan hauetan guztietan, datibo komunztadura galera izan da aztergai nagusia, eta fenomeno hori, irakurleak ondo dakien moduan, printzipioz ipar-ekialdeko hizkeretara mugatzen da.³¹ Hortaz, inesiboa

³¹ Dena den, badira mendebaldeko hizkeretan ere aztertu beharreko erakusgarriak, nahiz eta hizkera hauexetan sarri askotan bi datiboen artean datibo komunztadura bakarra bereganatzeko sortzen den lehia irudikatzen dela dirudien. Esate batera, B. Lertxundiren aspaldiko *Txori ttikia* kanta ezagunak halaxe dio amaiera aldera: *baina luze gabe ohartu nintzen / hanka harkaitz bati / lotu zidatela / kate motz eta astun batez*. *Harkaitz bati* komunztadurarik eragin ezin dezakeen datiboa da, ziur aski datibo helburuak —*niri* isilak— komunztadura jasotzeko lehenetsuna duelako, bestearen kaltetan. Hala, helburuak datibo komunztadura jasoaz, bigarren datiboa komunztatu gabe uzten da. Esanguratsuak dira, halaber, datibo komunztadurak perpaus arazletan azaltzen dituen datuak, Deustuko Hizkuntzalaritza Mintegiak (1989), aspaldi ohar-tarazi gintuenez. Izango dugu beste lanen batean honetaz bereziki jarduteko abagunea.

txandakatzen duen datibo honen agerpena ezin daiteke hizkera guztietara orokortu, eta hori gogoan izan behar du alternantzia hau zedarriztatu nahi duenak.

Goian aipatu ditugun lanetara jotzea gomendatzen diogu irakurleari, hein batean, han esan ditugunak berretsi nahi ditugulako hemen. Lan haietatik jaso ditugun predikatuak hauexek dira: *ari (izan)*,³² *bermatu*, *eman*, *hasi*, *jo*, *jarraiki*³³ eta *lotu*. Aspektu progresiboa dute horietatik zenbaitek —*ari (izan)*, *bermatu*, *jarraiki*, *jo*— eta beste zenbaitek inkoatiboa —*eman*, *hasi*, *lotu*—. Hona hemen adibide bana:

- (77) a. Lanari ari zen suharki (Lafitte 1979: 422)
- b. Laborariak bere ahal guziaz bermatu behar du lanari (Dv *Lab* 389)
- c. Ihesari eman nahi dire, bainan nondik eskapa (Arb *Igand* 79)
- d. Plazan hazkarki jo dezala pilotari (Arb *Igand* 141)
- e. Agintzen darotzut bi urthe osoz zure eskolari jarraikiko naizela (Laph 71)
- f. Hortzez eta haginez hasi nintzen lan horri (Zerb *Babnar* 24. kap, *Eskualduna*, 1935-08-30, 4 —KG—)
- g. Biharamunetik erlea lanari lotzen da (Dv *Lab* 297)

Batzuek ez dituzte datibodun agerpen urriak baino, bai historian zehar bai gaur egungo testuetan —beherago aztertzen dugun *bermatu* adibidez—. Beste batzuk, berriz, ugariak dira testuetan —*lotu*, *eman* edota *jarraiki* aditzak adibidez—.

Gainerakoan, datiboa kasu gehienetan inesiboarekin txandakatzen dela esan dugu gorago. Hona hemen alternantzia horretako inesibodun erakusgarriak *ari (izan)*, *bermatu*, *jarraiki*, *jo*, *hasi* eta *lotu* aditzekin:

- (78) a. Lanean ari zen suharki
- b. Lurrarekin borroka dadien edo bertze zerbei ofiziotan berma (JE *Bur* 68)
- c. Zinki eta finki iarraiki orazionean (SP *Phil* 522)³⁴
- d. Eskualdun haur lagunak, jo bethi pilotan! (Ox 181)
- g. Eta ordütik hasi da haren maitathatzen eta laidatzen (Ip *Hil* 153)³⁵
- h. Lanean loth gaiten, gu gure partetik, Eta listorrak beretik (Gy 190)

³² *Ari (izan)* predikaturako, ikus baita Hualde eta Ortiz de Urbina (1987: 433).

³³ “Ocuparse de, dedicarse a” adierako *jarraiki* honetarako, ikus OEH (X: 111).

³⁴ Adibide gehiagotarako, ikus (OEH X: 112).

³⁵ *Hasi* “(Intrans.). Empezar, tener comienzo; empezar a, ponerse a. (Va acompañado normalmente de complemento con suf. inesivo (especialmente *-t(z)en*), instrumental o con el suf. *-ka*. Apenas aparece con el suf. *-(t)zera*, ni siquiera en textos orientales.” (OEH III: 23). Hona hemen adibide bat: ‘Bonbileen nago eta hasi zaiz edatera’ (Kanta herrikoia).

Bermatu aditzak baditu adiera ezberdin bi, orain aztertzen ari garen aspektu adiera eta hurrengo atalekoa, aditz lexiko arruntetatik hurbilago dagoena. Lehenengoari bagagozkio, OEHN agertzen den bigarren sarrera honela itzultzen da: “*Esforzarse en, intentar con fuerza algo.. "Agir avec vigueur" VocBN. "S'efforcer, agir avec vigueur, s'appliquer" Dv. "Essayer, s'appliquer, faire effort"*”. Haren datibodun agerpen urrietatik batzuk nominalizaziodunak dira, eta euren ordaina adibide adlatibodunek eskaintzen ditugela dirudi (b,c), ez inesibodunek —vs. goiko (b)—:

- (79) a. Euskal berezitasunaren beiratzeari bermatzen dela erran du bainan bortizkeria gaingainetik baztertuz (*Herria*, Jean Arotcarena, 2003-11-27, 4)³⁶
- b. Bainan gizona estraputan gerthatzen denean, egin-ahalaz bermatu behar da atheka txarretik ilkhitzera (Dv Lab 158)
- c. Zerbaiten egitera bermatu nahi zarenaz geroztik (Dv Lab 317)

Batzuek adlatiboarekin baino ez dute alternantzia, *eman*³⁷ (a,b) aditzak esate baterako:

- (80) a. Ian-edanera eta emaztetara emana (Ax 375)
- b. Gaizkirat eman ziren (Dh 125)

Laburbilduz, hemen bildu ditugun datibo eta postposizio alternantziadun predikatuek aspektu/ekintza adierazten dute, eta aspektu/ekintza datiboak hautatzen dituzte. Datibo hauek nagusiki inesiboarekin txandakatzen dira, nahiz eta badiren inesiboa gabe, adlatiboa hautatzen dutenak ere. Datu hauek erakusten digute zein hurbil egon daitezkeen datiboak postposizioetatik, txandakatzeak hizkera eremu nahikoa mugatua izan arren. Diakronikoki ezberdintasunak egon arren. datiboaren lehen lekukoei dagokienez, badirudi kasu gehienetan XIX. mendearen inguruko lapurteraren datiboaren ugaltze handian sortu edo hedatu zirela. Baliteke hasierako testuetatik datiboa erabili duten predikatuek horrela jokatzeko aspektuala ez zen beste adiera oinarritzokoago batean ere datiboa erabiltzen zelako. *Loturi* bagagozkio, esate baterako, erraza da sumatzea nondik sor daitekeen erabilera aspektuala beste erabilera datibodunetatik. OEHN biltzen duen bigarren adiera “Agarrar(se), asir(se), aferrar(se)” 2.3.2 atalean *atxekin* aurkitu dugunaren oso antzekoa da datiboaren rola aldetik, eta adiera fisiko batetik aspektual batera pasatzea

³⁶ Ikus baita Etxepare & Oiharçabal (2008a) eta Fernández & Landa (2009).

³⁷ *Eman* “Darse a, entregarse a, dedicarse a. (Con sintagma nominal o sust. vbal. en caso alativo). Tr. Documentado en autores de todos los dialectos (excepto en suletino), ya desde Leizarraga.” (OEH VI: 629).

erraza da. Beste horrenbeste esan daiteke *jarraiki* edota *emanen* oinarritzko erabilera datibodunaz.³⁸

2.3.3. *Datibo eta postposizio alternantziadun predikatuak eta datibo-postposizioak*

Alde batera utzirik goian aztertu berri ditugun aspektu/ekintza predikatuen saila, inakusatibo datibodunen artean, beste sorta nolabait beregaina bereiz daiteke. Sorta honetako predikatuak hautatzen dituzten datiboen berri jaso zuen lehenengoz Ortiz de Urbinak (1995) datibo komunztadura galera hizpide zuela —*zeharkako datiboak* zeritzen—, eta ondoren gai bera zera-biltelarik, Fernández eta Landak (2009). Bi egile hauek *datibo-postposizio* izena eman zieten datibo hauei, eta haiek aukeratzen dituzten predikatuak *datibo eta postposizio alternantziadun* predikatu izena.

Datibo-postposizio diogunean, nahikoa modu murriztailean darabilgu esapidea, zeren ez dugu sorta honetan jaso nahi printzipioz postposizioekin txandakatzen den edozein datibo. Esate batera, goian dagoeneko aztertu ditugun aspektu/ekintza predikatuak datiboak postposizioekin alternantzia agertzen dira, eta ez ditugu horregatik datibo-postposiziotzat hartu, aspektu/ekintza datibotzat baino: azken talde honek badu sailkapenaren aldetik nabarmena den nortasun semantikoa, nahiz eta orain sailkatu nahi dugun taldetik oso urrun egon ez. Izatez, nahikoa jokabide bereziko predikatu eta datiboez ari gara oraingoan. Lehenik, hizkera eremu oso mugatua dute, nagusiki Iparraldeko hizkeretan aurkitzen direlako; bigarrenik, alternantzia *arrotz* samarrak direlako eta historikoki berantiarrak, hau da, ez direlako hizkera hauetan mendetan zehar antzematen den ezaugarri bat, ustez frantsesaren eraginez nahikoa berriki jaso dena baino. Batzuetan, datiboaren erabilera bera da *arrotza*, eta alternantziaren beste muturreko kidea, hau da, postposizioa, historikoki eta jatorriz jasotzen den marka —*bermatu* edota *fidatu* aditzekin, adibidez—; beste batzuetan, berriz, datiboa da berezko marka eta postposizioa da *arrotza* dena —*ohartu* edota *urrikaldu*—. Hala diosku, behintzat, Pikabeak (1993) lapurtera idatziaren bilakaera historikoa aztertzen duen bere tesian.³⁹

Pikabeak bereziki frantsesaren eraginari egozten dio jatorriz postposiziodun osagarriek agertu beharko luketen lekuan, datibo sintagmak azaltzea, edo alderantziz. Egileak dio frantsesaren eraginez, eta bereziki à frantses preposizioaren ondorioz, lapurterak XVII eta XVIII. mendeetan, salbuespenak

³⁸ *Eman* aditzaren kasuan, ikusi OEHn 4. adiera, erabilera hauek biltzen dituena. Hemen ere oinarritzko *emanen* zentzua nabarmena da, eta antzeko itzuliak inguruko hizkuntzetan erraz aurkitzen dira.

³⁹ *Ohartu* edota *urrikaldu* aditzek den bezainbatean, geroago ikusiko dugunez, ez dirudi irudia Pikabeak (1993: 144-47) dakarren bezain laua denik.

salbuespen, berezkoak zituen inesibo eta inoiz-edo adlatibo osagarriak datiboaz markatzen hasi zirela XIX. mendeko idazle nafar-lapurarrak. Bilakaera hori *bermatu*, *erne egon*, *fidatu*, *kasu egin*, *pentsatu*⁴⁰ eta *trebatu* predikatuetan antzeman du Pikabeak. Aldiz, egile beraren hipotesiari segika, *de* frantses preposizioaren eraginak kontrako norabidean zehaztu du alternantzia: *ohartu* edota *urrikaldu* aditzek berezkoa zuten datiboa instrumentalaz ordezkatu dute berriki. Dena den, guri ez digu horrenbeste axola jakiteak zein ote den bilakabide historikoa edo zein bilakaeraren norabidea, guri bereziki axola diguna da ikusteak nola hurbil daitekeen datiboa postposizioetara, hainbesterraino non alternantzia sortzen den, eta batzuetan berezko postposizioa bazterrean ere utz daitekeen; edota alderantziz, hau da, nola ordezkari dezakeen postposizioak berezko datiboa edo alternantzia osatu, bederen. Hirugarren eta azkenik, datibo-postposizio hauek sorta beregaina osatzen dute, gure ustez, datibo komunztaduraz den bezainbatean, galtzeko joera sendoa erakusten duten horietakoak direlako, postposizioetara lerratzen diren heinean, espero izatekoa den bezala. Ez dira honetan asko bereiziko goiko aspektu/ekintza datiboetatik, ezaugarri berak bi datibo sortak besarkatzen dituelako. Datibo hauen izaera tematikoak zein postposizioekin erakusten duten jokabide bertsuak horretarako aukera eskaintzen duela dirudi, fenomenoak zilegi den hizkera eremuan, bederen. Ikusten denez, lehengo taldearekin ez bezala, nekez aurkituko dugu sail honetako predikatuak batzen dituen ezaugarri semantikorik. Izan ere, taldea zehazteko erabili ditugun irizpide gramatikalak neurri handi batean aspektu/ekintza datibo eta postposizio alternantzia erakusten duten predikatuak zehazteko ere erabil litezke. Benetan, badirudi sail honetan bildu ditugula, besterik gabe, aspektu/ekintza predikatuak ez diren gainerako guztiak.

Abia gaitezen jatorrizko postposizioa izanik, datibo berritzailea erakusten duten predikatuetatik. *Bermatu*, *fidatu* eta, neurri txikian bada ere, *trebatu* eta *ausartu* dira halakoak.

Bermatu predikatuaren erabilera ez-aspektual honi dagokionez, bi eratako testigantzak aurkitzen dira literaturan, batetik jatorrizko inesibodun osagarriak, eta bestetik datibodunak, OEhk (IV: 801) dioenez, goian esan dugunarekin bat eginik, berriak direnak eta Iparraldeko idazleengan bakarrik aurki daitezkeenak.⁴¹ OEhko adibideetan ikusi dugunez, alternantzia berri hau adiera bat baino gehiagotan ageri zaigu. Hala, adibidez, “zerbait edo norbait beste zerbaitek eusten diola jarri” (Sarasola 2007: 204) adieran alegia:⁴²

⁴⁰ Bertan jasotzen diren predikatu guztiak ez dira inakusatiboak. *Pentsatu* edota *kasu egin* iragankorrek dira, jakina.

⁴¹ *Bermatu* (BN-arb-lab, S) “*Tr.* Documentado exclusivamente en la tradición septentrional. [...] (Generalmente con complemento en inesivo; los ejemplos con dativo son modernos.)” (OEh IV: 801).

⁴² *Bermatu* hau, lehen aztertu dugun *bermatu* aspektu/ekintza aditzetik bereizi beharra dago.

- (81) a. Eta bermatuz zangoen eta besoen gainean, sartu zen elizan (Jnn *Sbi* 52)
- b. Segur zela bere hoñak leze haren zolan bermaturik (Tt *Olsa* 95)
- c. Makilari bermaturik / artzain gisa xutiturik (Ox 92)
- d. Pasaiatik etorri zaiku berria Josefa Izagirre [...] bere balkoinerat joanik, han bermatu dela barandari; baina barkalunek amor eman dute eta andre gaixoa erori da (Herria 1962-6-21, 3)

Sorta honetako predikatuez oro har esan dugunez, ohikoa da datibo komunztadura ez zaintzea, eta halaxe gertatzen da predikatu honekin ere, (d) adibideak erakusten duen bezala. “Fidatu, uste ona izan” adieraz ere, inesibo (a,b) eta datibo alternantzia bera antzeman daiteke, eta datiboa ageri den kasuetan ere datibo komunztadura galdu egiten da —ikus baita Fernández eta Landa (2009)—:

- (82) a. Ez fida eta ez perma kanabera haizetsuaren gainean (SP *Imit* II 7, 2)
- b. Beraz etzaitzela sobera perma zure sentimenduaren gainean (SP *Imit* I 9, 2)
- a. Erranez ordreari ginitezen berma, / bertzela etzaitzela zarurat arima (Xa *Odol* 133)
- b. [Dassance jauna] behin baino gehiagotan Etchepare adixkidiari bermatu dela, haren argiez, lumaz eta laguntzaz baliatuz (Lf *ELit* 281)

EPGera begira, *Herria* aldizkarian eta Iparraldeko idazleengan, ez dira asko *bermatu*ren adiera bi hauetako konfigurazio datibodunak (a). Touyarouren itzulpen batean baino ez ditugu aurkitu. Gainerakoan, inesiboa sarriago agertzen da. Adibidez, Bordaren adibide iragangaitzetatik gehienetan inesiboa da nagusi (b,c):⁴³

- (83) a. Puskauska baten buruan handik atera zen, eta ate ondoko paretari bermatu (*Hautsi da katea*, Toti Mtz. de Lecea / E. Touyarou, 38)⁴⁴
- b. Hobiaren bazterretan bermatu zen (*Zeruetako erresuma*, I. Borda, 152)

Ez dakigu esanguratsua den ala ez halako datiborik (a) ia ez agertzea gaur egungo testuetan. Egia da printzipioz *bermatu*ekin bateratsu azter dai-

⁴³ Bordak baditu konfigurazio inakusatibo datiboduneko beste zenbait adibide, hala nola, *irri gogoa bermatu zitzaidan* (% *Basque*, Susa, 74). Jakina, halako adibideetan jabe datiboa edo datibo etikoa dugu, ez testuko adibideetan aipagai dugun datibo bera.

⁴⁴ Adibide honetaz gain, lan beretik *murruari kontra bermatu* (38) eta *bere bi eskuak ateari bermatu zituen* (116) esaldiak ere jaso daitezke. Lehenengoan, *kontra* postposizioak hautatzen duen datiboa dugu —ikus baita 6.2—; bigarrean, *bermatu* konfigurazio iragankorrean *ateari* komunztadurarik gabeko adjuntu hutsarekin.

tekeen *fidatu* aditzak adibidez, askozaz ere agerpen gehiago eta argiagoak dituela gaur egun. Zalantzak ditugu ea ez ote den datibo *berrizalearen* zabal-kundea neurri batean gelditu *bermatu* aditzarekin, eta *fidaturekin* aldiz, finkatu edota egonkortu. Ikus dezagun, bada, *fidatu* ondoren, diferentzia haueztaz ohartzearren.

Datibo eta postposizio alternantzia berekoa dirudi *fidatuk*⁴⁵ ere, aditz inakusatibo⁴⁶ modura itxuratzen denean. Tradizioan,⁴⁷ osagarri inesiboduna erakutsi izan du (a,b) adibideek bezala. Horiezaz gain, osagarri datibodunak ere erakusten ditu (c,d)⁴⁸ (OEH VIII: 15):

- (84) a. Non fida, han gal (O Pr 337)
- b. Ez gaitezen behintzat gure indarretan fida (MEIG VII 132)
- c. Fida hakit arras niri (Gy 42)
- d. Etzietzela fida amodioari! (ChantP 198)

Kontuan izan goian esan dugun moduan, *fidatu* predikatuaren erabilera Iparraldeko hizkeretara mugatzen ez bada ere, predikatu honek hautatzen duen datiboaren hizkera eremua Iparraldea dela. Ostean, datibo komunztadurarik gabea da (d) adibidea, lehenago *bermatu* aditzarekin ikusitakoen modukoa, ipar-ekialdeko hizkeren ezaugarria hau ere.

Gaur egun EPGen ikusi dugunez, hizkera eremua zein den kontuan izanda, oso sarri aurki daitezke *fidatu* predikatuaren agerpen datibodunak —*Herria* aldizkarian adibidez datibodunak dira guztiak, inesiboaren kalte-tan—. Hona hemen zenbati erakusgarri:

- (85) a. Nori behar den fidatu, nori fidatzen ahal den, hori da aintzek duten arrangura guziz pisua (*Herria*, 2004-07-08, 8)
- b. Sozialixtak hasarre, gobernuburua goxoki mintzo dela bainan ez dela goxo horri fidatu behar, goxo horrek gordetzen duela politika idor eta dorpe bat, jende xeheak pekatuko duena (*Herria*, 2002-10-03, 8)

⁴⁵ *Fidatu* (gral.) “Tr. De uso general en todos los dialectos hasta el siglo XIX; en el s. XX disminuye considerablemente en los dialectos meridionales.” (OEH VIII:15).

⁴⁶ “Fiarse, confiar” adieraz. Besterik da “fiar, encomendar” esanahiarekin erakusten duen itxuraketa.

⁴⁷ Pikabeak (1993:139) dioskunez, XVIII. mendean du sorrera, nahiz eta XIX. mendean maiztasun handiagoz erabiltzen den.

⁴⁸ Nolanahi ere, bestelako postposiziodun osagarriak ere erakusten dituela esango genuke, hala nola, OEHk berak (VIII:15) dakarren sozietiboduna ondoko adibidean: *Ostatuko neskatx (a) ederrakin eta bide ondoko aritzekin, ez diteke fiatu* (AN, ulz) edota sozietiboa zein inesiboa, biak, biltzen dituen Anje Duhalderen *Betiko lelo* kantuaren zati batean: *gurekin fida zintazkete / gu gira zuen lagunak / lelo lelo betiko lelo / gutan fidatu ta lasai egin lo*.

- b. Banekielarik alta, eta ene gustuz ikasia, Arlesen eta hor gaindi, ez dela neska gazte bati, xarmanta kausitzen bada ere, hoin aise fidatu behar! (*Bibotzeko mina*, J. Dirassar, 133)
- d. Hola ari nintzen nihauri galde eta galde, ez gehiago ikusten-eta Magali baitan fidatu behar nuen ala ez (*Bibotzeko mina*, J. Dirassar, 139)

Oso oso gutxi dira, orobat, datiboa erakutsiaz batera, datibo komunztadura zaintzen dutenak, baina erakusgarriren bat edo beste aurkitu dugu han-hemenka:

- (86) a. Bestalde, sondaian arabera, eta nahiz etzaioten itsutuki fidatu behar, gehiengo ederra ba omen da bazter guzietan holako manifestaldiak muntatzen dituztenen alde (*Herria*, 2003-05-29, 8)
- b. 2003ko martxoaren san Josepen egun honetako adibidea hartze-ra ausartuko naiz eta ene aldetik galdutako dut lehengo uste oker horietan errebelaturik ez ote dabilzan, Irakeko diktadoreari amore emanarazi beharrez, beren populuen iritzia enganatuz, gerla-bideari fidatu zaizkion Ameriketako eta Europako zenbait estatuburu (*De re publica edo politikaz*, P. Xarriton, 153).

EPGeko datuok azaltzen dute itxuraz datiborako joera (historikoki) berrizalea finkatu egin dela aditz honi dagokionez, eta ia bazterrean utzi duela Iparaldeko erabileran, aditzak berez duen inesiboa. Dena den, berriro ere esan dezagun guretzat postposizioarekin alternantzia erakusteko gaitasun hori dela garrantzitsuen, izan hizkuntzaren bilakaeran sustraitzen den ezaugarria, izan ezaugarri berri eta iragankorra.

Oso bestelako joera izan du *trebatu* aditzak: inoiz izan ditu agerpen datibodunak, historian zehar ere oso kasu bakanak izan arren,⁴⁹ baina gaur egungo testuetatik, bederen, zeharo desagertu egin direla esan daiteke, eta *bermatuk* berak dituen erakusgarri datibodun urriak ere ez dituela *trebatuk* gaur egun. Ikus dezagun zein izan den *trebatu* aditzak inoiz erakutsi duen alternantziaren itxura. Inesiboa dugu lehenik (a,b) eta datiboa ondoko adibi-deetan (c,d):

- (87) a. Euskeran trebatzen ezpadira (Mb *IArg* I 54)
- b. Beraren terzioak etzeudela armetan ondo trebatuak (Izt *C* 381)
- c. Erdarari sobera trebatuz (Arb *Igand* 23)
- d. Gero kantuari trebatuz, kobla ederrik egin lezakeela (Lf *Elit* 96)

⁴⁹ Pikabeak (1993: 140) ohartarazten gaituenez, XIX. mendeko idazle nafar-lapurtarren artean, Arbelbide —(c) adibidea— izan da osagarria inesiboaz markatzeko joera nagusitik alden-duko den bakarra.

Gaur egungo testuetan, inesiboa da itxura batean gailendu dena, eta oker ez bagaude behintzat, forma bakarra:

- (88) a. Bide makurrean trebatu / Onerat ezin gibelatu (*Sanpierre Arbelbide*, X. Arbelbide, 180)
- b. Bainan hola zen eta Piarres Charritton-ekin aitzi trebatu niz euskaraz (*Ez da musik*, M. Oxandabaratz, 138)
- c. Badut herritar bat, Pilsen-eko deputatua, gizon gisakoa, frantsean trebatu nahi lukeena —gramatika ontsa badaki— (*Alemaniarra deportatua*, G. Joannateghy / M. Etxehandi, 64)

Beharbada, hemen ere koka genezake *ausartu/ausartatu* predikatua, datibo berritzaile hauen artean muturreko kasua. Adlatiboa da haren osagarriaren kasu ia unibertsala (a); baina badago Fernández & Landak (2009) hapax sintaktikotzat jotzen duten Duvoisinin adibide bakarra datibo osagarria erakusten duena (b):

- (89) a. Eta ni nor naiz ausartzeko zuri minzatzera (SP *Imit* III 3, 6)
- b. Ni ez naiz ausartatzen lan horri (Dv *Lab* 339)

Duvoisinek berak bestetan adlatiboa erabiltzen du *ausartaturekin*. Bestalde *happax* horren atzean datiboaren aldeko ohiko faktoreak daude jokoan, Duvoisinek berak Biblian *atrebitu* aditza erabiltzen duenean datiboaz markatzen baitu haren osagarria:

- (90) Zer! ni, lurreko harra, atrebitu natzaio Jainko handiari? (Dv *LEd* 112)

Ikusten denez, datibo berrizale guztiek ez dute etorkizun bat bera izan. Batzuk, finkatu egin dira —beti ere berritasuna sortu zen hizkera eremuan— eta beste batzuk desagertu.

Jo dezagun orain itxuraz kontrako norabidea hartu duten bi aditzetara: *ohartu* eta *urrikaldu*. Kontrako norabidea diogu, zeren Pikabearen (1993) iritziz behintzat, batean zein bestean instrumental berrizaleak jatorrizko datiboa ordezkatu du hein batean, edo gutxienez alternantzia sortu. Pikabearen hipotesia alde batera, *ohartu* aditza Ortiz de Urbinaren (1995) lanean dagoeneko aipatzen da postposizioetara lerratzen diren zeharkako datibo horiek hautatzen dituzten aditzen artean. Ikus dezagun, bada, ondoko adibideetan. *Ohartu*⁵⁰ adi-

⁵⁰ *Ohartu* (gral.) “Advertir, notar, observar, darse cuenta”. “Tr. Documentado desde Deche-
pare en textos septentrionales, alto-navarros y guipuzcoanos; a partir del s. XIX tbn. lo usan algu-
nos escritores vizcaínos” (OEH XIII: 8). Idazleen erabilera zehatza dakar ondoren OEHk ohikoa
duen bezala: “Con complemento en dativo lo emplean Deche-
pare, Leizarraga, Duvoisin, Laphitz (177), Elisamburu, Zalduby, Barbier, Oxobi, J. Etchepare, Zubiri (94), Zerbitzari (Azk 62),

tzak datiboa (a,b) eta instrumentala (c,d), biak ditu alternantzia osagarriaren markapenean:⁵¹

- (91) a. Ohartu zen munstro iduri bati (MarII 70)
- b. Michel-Angelen harrizko obrari ohartzen zaizkotenek (JE Ber 51)
- c. Eramaten bada eizera, eta oartzen bada arrastoaz (AA I 400)
- d. Kezkatan nengoen ez ote zitzaidan erantzunaren motelaz ohartuko (MEIG IX 99)⁵²

Aipatu ditugun aditzetako batzuk ez bezala, kontuan izan behar du irakurleak aditz honen erabilera ez dela mugatzen Iparraldera, eta Hegoaldeko idazleek ere alternantzia bera erakusten dutela —ikus 50 oin-oharra—. Hortaz, aditz honi dagokionez, alternantziaren hizkera mugak ez dira horren estuak, eta ikusi beharko litzateke zein izan ote den bilakaeraren norabidea baita Hegoaldeko idazleengan ere. Hala ere, ikusi dugunez, Iparraldera begira berriro ere, gaur egun nagusitzen den erabilera datiboarena da, instrumentalaren agerpen urrien aldean. *Herria* aldizkariko agerpenak ikusi besterik ez dago horretaz jabetzeko:

- (92) a. Horri ohartu dira su hilzaileak, ezezagunek deitu ondoan sartu diralarik erreserba kimiko horietara (*Herria*, 2003-07-24, 4)
- b. Jabea bera da suari ohartu, gauerdia aintzinttoan, ostatu batean afaldu ondoan etxerat heldzearekin (*Herria*, 2002-11-21, 2)
- c. Okerkerieri ohartu (*Herria*, 2002-12-19, 6)
- d. Igandearekin, “Xala” deitzen den Yves Sallaberry lekuindar pilotariaren forma haundiaz ohartu gira, Galarza VI-ekin, 22-20 irabazi baitu Patxi Eugi eta Elkoro-ri (*Herria*, 2005-07-28, 5)

Iparraldeko idazleen lanetara begira ere, datiboaren erabilera nagusitzen da batzuegan, Aintziarten lanean⁵³ adibidez *–bi gauzei ohartu naiz* (38);

J.B. Etchepare, Laffitte (*in Zait Plat XVIII*), Larzabal, Arradoy (*SFran* 274), y los meridionales Larramendi, Markiegi, F. Irigaray, Orixe, Txillardegui, Izeta (*DirG* 76), Gaztelu (*MusIx* 163) e Ibiñagabeitia (Virgil 108); con instrumental se encuentra en Haraneder, Monho, Duhalde (140), Goyhetche, Elizanburu, Joannateguy (*SBi* 85) y Mattin (127), y en los meridionales Aguirre de Asteasu, Lardizabal, Kortazar, Lizardi (*IL* 110) y Villasante. En ambas construcciones lo usan Arbelbide (*Igand* 94 y 46), Lizardi (*IL* 73 y 110), Etxaide (*JJ* 19 y 47), Mirande (*HaurB* 42 y *Pr* 311), Erkiaga (*BatB* 51 y *Arran* 170) y Xalbador (*Odol* 29 y 273). Se documenta con suf. *–ra* en Mendiburu y Larrasquet, con *–rat* en Duhalde y con inesivo en Izeta.”

⁵¹ Badira OEHK dakarren adibide sortan osagarria adlatiboaz *–Gu hetarat ez ohartua gaitik ere* (Dh 74)— zein inesiboaz *–etzen gauz oietan oartzen* (Izeta *DirG* 105)— markaturik dakarten adibideak. Nolanahi ere, salbuespenak dirudite.

⁵² *Zitzaidan* laguntzailean markatzen den datiboa ez da osagarriarena, noski, interes datiboari dagokiona baizik.

⁵³ Aintziart, Piarres (2000) *Santiago oinez*. Elkar.

etxe, karrika eta jendeei ohartu naiz (128); *Atapuercan sartu aitzin dagoen zedarriari ez naiz ohartu ere* (107); *San Pedro elizari ohartu natzaio* (129)⁵⁴. Beste batzuek instrumentala nahiago dutela dirudi. Hala, Bordaren⁵⁵ kasuan: *gizonaren tenpru txarraz ohartu ziren* (149); *ez zen Agustinen begitarte xifrituaz ohartu Pierra* (179); *bat-batean zerabilen adiztegiak ohartu* (224). Eta espero izatekoa den bezala, badira bietarik darabiltenak eta oso testuinguru bertsuan, gainera: *ene ondoan ez zen deuseri ohartu* (54) vs. *nehor ez zen deusetaz ohartu* (83) (*Alemaniarra deportatua*, G. Joannateguy / M. Etxehandi). Beraz, jatorrizko datiboa ez ezik, instrumentala bera ere jaso daitezke gaur egungo prosa lanetan.

Amai dezagun *urrikaldu* aditzarekin. Aditz honetarako, bi adiera jasozten ditu OEhk (XV: 859) hizkera eremu bera ez dutenak: bata “ser objeto de compasión, dar pena, producir compasión”.⁵⁶ Adiera honetan, inakusati-boak ditugu, datiboaz lagundurik kasu gehien-gehienetan,⁵⁷ hala nola, (a,b) adibideak:

- (93) a. Nori urrikalduko zaio sugeak ausiki duen inkantadorea (SP *Phil* 290)
- b. Othoi urrikal nakizu (Laph 209)

Lehen adiera honetan, datiboa esperimentatzailea da, ondoko 3. kapituluan ikusiko ditugun modukoa, eta absolutiboa estimulua.

Bigarren adiera “compadecerse, apiadarse”⁵⁸ da, eta esanahi honekin nagusiki instrumentalaz adierazten da osagarria (a,b), nahiz eta datibodunak (c,d) ere ageri diren:

- (94) a. Lagun urkoen neke ta premia urrikaldutzea (AA III 291)
- b. Asko dira, menturaz, nitaz urrikaltzen (Elzb *Po* 192)
- c. Urrikal zakizkigu, Jesus (Dh 80)
- d. Andre ura ikusirik, Yauna urrikaldu zitzaion (Ir *YKBiz* 149)

Bigarren adiera honetan absolutiboa da esperimentatzailea eta datiboa estimulua. Hurrengo atalean ikusiko ditugu halakoxe konfigurazioak di-

⁵⁴ Ikusten denez, salbuespen dira datibo komuntadura zaintzen duten adibideak.

⁵⁵ Borda, Itxaro. 2005. *Zeruetako erresuma*. Susa.

⁵⁶ *Urrikaldu 1* “Tr. Documentado en la tradición septentrional, aunque apenas se encuentra en textos suletinos.” (OEh XV: 859)

⁵⁷ Adiera honetan, salbuespen bakarra aurkitu dugu OEhn, *Urrikal gaitzkitzu, Dabiden Semea* (He Mt 9, 27) adibideak dituen aldaeretatik bat, hain zuzen, *urrikal zaite gutaz* (HeH, Echn).

⁵⁸ *Urrikaldu 2* (G-tol, L, B, Sal). “Tr. Documentado en textos guipuzcoanos y, en mayor proporción, en alto-navarros y septentrionales, aunque en éstos últimos no se encuentra hasta finales del s. XVIII. [...] Generalmente va acompañado de complemento en instr., aunque hau algún caso con sociativo (Beovide).” (OEh XV: 860).

tuzten predikatu psikologikoak. Momentuz, izan kontuan predikatu bera izanagatik ere, adiera batean eta bestean datiboak duen theta-rola ez dela bat bera.

Gaur egungo *urrikaldu* dituen agerpen urrietatik —25 baino ez— Iparraldeko testuetan aurkitu ditugun bakarrak instrumentaldunak dira, ez datibodunak:

- (95) a. Etsitzen nengoela ohartzea Fanch nitaz urrikaldu zen (*Entre les loups cruels*, I. Borda, 74)
- b. Eta aitaz urrikaldu bezala nintzen (*Anaiaren azken bitza*, D. Landart, 127)
- c. haren lekuan Aitatziz urrikaldu (*Anbroxio*, E. Bidegain, 166)
- d. Denek Bateko pilotariak batere urrikaldu gabe (*Herria*, 2005-02-24)

Hortaz, beste behin ere, datiboa postposizioaz ordezkatzeko joera (historikoki) berrizalea itxuraz sustraitu da Iparraldeko hizkeretan. Inoizko alternantziak konfigurazio bakarraren alde egin duela dirudi, baina ziur aski datu gehiago beharko genituzke hori berresteko. Besterik da jakitea ea inoizko alternantzia hori zeri zor zaion literatur lapurteraren bilakaeran, edota Pikabeak aldarrikatzen duen bezala, frantsesaren eraginpean jaso ote duten euskararen hizkera batzuek erabilera arrotza. Baina frantsesaren eragina izan zein ez, hizkuntzak edo nahiago bada, zenbait hizkerek erakusten dute datiboak postposizioetara lerra daitezkeela eta postposizioak, berebat, datiboetara. Halako kasuak ez dira, gainera, inakusatiboetara mugatzen. Konfigurazio iragankorrekoak dira, Pikabeak (1993) aipatzen duen *pentsatu* ere edota Ortiz de Urbinak (1995) dakarren *sinestu*. Hala ere, konfigurazio nagusia inakusatiboa izan ala iragankorra, arazoa bat bera da guztietan: datiboak postposizioa ordezkatzeko duela —edo alderantziz—, edo gutxienez datibo eta postposizio alternantzia sortzen dela. Postposizioetara lerratzearen ondorioz, ez da harritzekoa datibo hauek izatea, hain zuzen, datibo komunztaduraren aldetik, hautzako komunztadura erakusteko joera daukatena.

2.3.4. *Datibo osagarrien kidekoak*

Inakusatiboen artean aipa genitzake azkenik, talde txiki baina itxuraz independentea sortzen duten beste zenbait aditz. Aditz hauek zerikusi es-tua dute, Ortiz de Urbinak (1995) lehenengoz edota Fernándezek (2008) eta Fernández & Landak (2009) berari jarraituz, *quirky case* edo *kasu bitxia* deritzatenarekin, edota zehatzago esanda, *datibo osagarri bitxi*ekin. Horregatik diogu euren kidekoak direla. Halako datibo osagarriak hautatzen dituzten aditz hauek xehetasun handiz aztertuko ditugu absolutibo eta datibo alternantziadun predikatuen artean 4.2, eta hemen ia euren aipamena baino ez

dugu egingo. *Begiratu, jarraiki, segitu* edota *jazarri* dira, adibididez, datibo osagarriaren predikatuak. Predikatu hauek, diferentziak diferentzia, konfigurazio inakusatiboa ez ezik, inergatiboa ere erakusten dute, adibidez, *jarraiki zaio* vs. *jarraitu dio*, eta datibo osagarriko bigarren konfigurazioa, berebat, absolutibodun konfigurazio iragankorrarekin txandakatzen da —*jarraitu dio* vs. *jarraitu du*—. Izatez, datibo bitxi iritzi izan diegu inoiz, osagarri baka-
rreko egituran, osagarri hori absolutiboaz markatzea espero dugulako ez da-
tiboaz —ikusiko goiko 2.1.1 atala—. Dena den, datibo osagarriez hitz egingo
dugu deitura neutroagoan. Datibo markapen hori ez denez konfigurazio iner-
gatibora mugatzen, inakusatiboetan ere ageri den datibo hori bera datibo osa-
garrien kidekoa dela pentsa daiteke.⁵⁹ Hiru kasu aipatuko ditugu hemen, *be-
giratu, segitu* eta, oso albotik bada ere, *jarraiki* irakurleak adibide gisa erabil-
ditzan, 4.2 atalean xehetasunez aztertu arte.

Datibo osagarriaren predikatu ia prototipikoa da *begiratu* aditza. *Begi-
ratu* inakusatiboaren testigantzak ez dira asko historikoki, eta gaur egun ez
da euren aztarnarik —EPG Corsintaxen bitartez arakatuz ikusi dugunez—.⁶⁰
Duvoisinena baino ez zirela genion Fernández & Landa (2009) lanean,
nahiz eta geroago —Fernández, Ortiz de Urbina & Landa (2009)— Arbelbi-
derengan ere aurkitu genituen:

- (96) a. Begiraturen naiz bethi zure Ebanjelioko hitzei (Dv *LEd* 8)
- b. Nola horri ez nattaio begiratu? (Dv *LEd* 168)
- c. Guzien gainetik Jesus behatu zaio Eskualdunen Ama berezi-bere-
ziari, Andredena Mariari. (Arb *Erlis* 32)
- d. Horrelako urguluari behatzen dena galduko da laster (Arb *Bok* 277)

Lehenago aspektu/ekintza datibo zein datibo-postposizioekin ikusi dugun be-
zala, ohikoa da datibo hauekin ere komuntadurak hautazkotasunerako joera
izatea —(a,d) vs. (b,c)—.

Begiratu predikatua konfigurazio inakusatiboan ia agertzen ez den arren,
beste predikatu batzuek, hala nola, *segitu*⁶¹ sarriago erakusten dizkigu konfi-
gurazio inakusatiboak bai historian zehar bai egungo prosan ere. *Segitu* har-
tuko dugu adibidetzat hemen, eta geroagorako utziko dugu *jarraiki*, bere oso
antzekoa dena eta konfigurazio inakusatiboa oso ohikoa duena.

⁵⁹ Berez, Fernández & Landa (2009) lanean predikatu hauetako konfigurazio inakusatibo-
ko datiboei ere datibo osagarri bitxiak iritzi diegu, baina orainoan, esapidea erabiliz gero, ab-
solutibo/datibo alternantzia duten horietara mugatuko dugu, zehatzagoa delakoan.

⁶⁰ *Begiratu zaio* moduko guztiak inpersonalak dira EPGen.

⁶¹ *Segitu* (V-arr-ger-gip (-du) AN-gip-5vill-egüés-ilzarb-olza, L, BN, S). “Tr. Documen-
tado en textos guipuzcoanos, alto-navarros, labortanos y bajo-navarros, pero con mayor fre-
cuencia en los septentrionales. En la tradición suletina sólo se encuentra en Etchaun, y en la
vizcaína en Kirikiño.” (OEH XIV: 623)

“Jarraitu” adieraz⁶² goian aipatu ditugun konfigurazio guztiak erakusten ditu *segitu* aditzak, eta gutxien erabiltzen dena orain aztergai dugun inakusatiboa da. Hegoaldean nagusi da inergatibo datiboduna (d,e) eta Iparraldean iragankor soila (a-c):

- (97) a. Gau ilhuna iguzkiak / ondotikan segitzen (Gç 165)
- b. Segitu zituen beraz Erregek bere xakur maiteak (Barb *Leg* 68)
- c. Itsas-ontzi bat begiekin segitzen zuten (Mde *HaurB* 64)
- d. Jende-boladari segitu zion (Aran *Sign* 52)
- e. Asiyagatik urdintzen / gaztiak diyo segitzen (Xe 274)

Hauexek inakusatibo datibodunak dira; erakusgarri urriak eta Iparraldeko idazleetara mugatzen direnak:

- (98) a. Zertako etziñen haren begirakortasunari segitzen? Baiñan ahalke gaixto batek eta balenorioak ezarri zituzte zorigaitz hortan (Dv *Telem* 157 —KG—)
- b. Hari segitzen zaio yende enoxenta (Hb *Esk* 171)
- b. Bertzeak bezain airos ez naiteke segi laguneri (Elzb *Po* 216)

Gaur egun ere badira konfigurazio inakusatibo datibodunaren testigantzak Iparraldean:

- (99) a. Hogoi bat gazte alde bat segitu zaizkio, oihuka president karguan behar duela aintzina segitu beste bost urtez (*Herria*, 2001-05-31, 8)
- b. Gero etxea aldatu zen tokiz, baina izena aitzina segitu zitzaion, ez badago ere tokiari dagokiona, zeren lehenago izenak emaiten baitziren lehenbiziko tokiaren arabekoak (*Luzaiden gaindi*, A. Aintziburu / J.B. Etxarren, 22)

Aldiz, Corsintaxek erakutsi digunez, konfigurazio inergatiboaren agerpen bat bakarra dago *Herria* aldizkarian eta Iparraldeko liburuetan (a) espero zitekeen bezala.⁶³ Bestalde, ohiko iragankorra sarri aurki daiteke hizkera eremu honetako idazleen lanetan (b) eta *Herria* aldizkarian sarrien agertzen da (c) adibideko testuinguruan:

⁶² *Segitu* 1 “Tr. Al Sur se emplea generalmente con aux. trans. tripersonal, aunque se encuentra en alguna ocasión (por ej. en Soroa) con transitivo bipersonal. Los autores septentrionales lo emplean por lo general con transitivo bipersonal; aparece con transitivo tripersonal en alguna ocasión en Hiribarren, y con intrans. bipersonal en *INav* (ej. no seguro), Elizanburu y Etchamendi.” (OEH XIV: 623)

⁶³ *Zuk segi-azu zureari* (Larz *PaperMen* 216 —KG—) komuntzadurarik gabeko inergatiboa ere dakarte Fernández & Landak (2009).

- (100) a. Segitu nion halere aitzina (*Bibotzeko mina*, J. Dirassar, 38)
- b. Txokok Otsabideko geltokian trenaren hartzen, Loli eta alaba urrutetik segitu zituen (*Hiruko*, I. Borda, 1)
- c. Iragan astean, bere azken egoitzarat segitu dugu Oilokiko Maiena Charriton 91 urtetan (*Herria*, 2005-02-17, 5)

Gainerakoan, *segituk* duen bigarren adieran⁶⁴ “seguir (una línea de conducta, una costumbre, un precepto, un ejemplo, etc.)” Iparraldean konfigurazio iragankor soila dago —osagarria absolutiboaz markatzen duena— eta Hegoaldean, iragankor soil zein inergatibo datiboduna:

- (101) a. Segitu baitute lengoia huntan frantses orthografa (MarII VII)
- b. Ene konseilua segitu nahi baduzue (Lf *Murtuts* 19)
- c. Beste zenbait erresuma sozialistetan segitu duten hizkuntza politikaz (MIH 395)
- d. Ohiturari segituaz (MIH 98)

Bigarren honetan, ez dirudi konfigurazio inakusatiboa dagoenik, ezta Iparraldeko testuetan ere.

Jarraiki predikatuaz gorago arduratu gara 2.2 eta 2.3.2 ataletan, azken honetan aspektu adiera duen beste alternantzia genuela mintzagai. Beherago 4.2.1, itzuliko gara berriro ere predikatu honetara, *jarraituren* erabilera iragankorrekin alderatzeko. Neurri batean, *segituren* ispilu irudia du predikatu honek. Gehien erabilitako konfigurazioa, inakusatibo datiboduna da, eta adibide bakanetan inergatibo datiboduna. ‘Tarteko’ kasuak *segituk* erakusten dituenen antzekoak dira: iragankorra *besta*, *ildoa* bezalako osagarriekin ageri da, eta oso kasu urrietan hemen solasgai dugun alternantzia, hau da, argumentu bera inakusatiboaren datiboa zein iragankorraren osagarria izan daitekeena. Kasu bakartu hauetariko bat bakarrik dakargu hona. Apur bat zalantzarria izan arren, perpausoari begiratzu gero badirudi osagarria *Olentzero* absolutiboa dela:

- (102) Olentzero etorri bezain laster, hurrek, koroek eta soinulariek hirian barna jarraikiko dute Baionako Herriko Etxeko balkoieraino laguntzeko gisan (*Herria*, 2003-12-18)

Ez oso alternantzia emankorra, ikus daitekeenez. *Begiraturen* konfigurazio inakusatibo urriak aipatuz eta *segituren* konfigurazio guztien azalpen laburra erakutsiz, 4.2 atalean aztertu beharreko datibo osagarrien zain egon beharko du irakurleak.

⁶⁴ *Segitu* 2 (G-azp, BN-lab). “Tr. Al Norte la construcción más habitual es con aux. trans. bipersonal, mientras que al Sur hay, junto a ésta, la de aux. trans. tripersonal. Usan además aux. intrans. Dechepare y Etchamendi.” (OEH XIV: 624).

3

Inakusatibo datibodunak II: predikatu psikologikoak

Aurreko kapituluaren hasieran esan dugun bezala, predikatu psikologikoek talde beregaina eta berezia osatzen dute argumentu egituraren eta alternantzien aldetik; bai eta, gure oraingo aztergaia izan ez arren, sintaxiaren aldetik ere. Ikusiko dugunez, askotariko konfigurazioetan ager daitezke predikatuok, eta izenburuan ‘inakusatibo’ labela duen atalean sartzeko arrazoia estatistikoa da, beraz, guri dagokigun aldetik eta bestelako azterketarik gabe, ez oso pisuzkoa: aditz gehiago agertzen dira konfigurazio inakusatibo datibodunetan, inergatibo datibodunetan edo iragankor datibodunetan baino. Bestalde, alderdi askotatik talde berezia denez, atal berezia eskaini diegu.

3.1. Datibo esperimentatzaileak eta predikatu psikologikoak

Munduko hizkuntzetan zehar, sarri aurkitzen ditugu datiboak eta esperimentatzaileak elkar loturik. Izan ere, hizkuntza batzuetan subjektuak diren esperimentatzaileak datiboaz markatzen dira. Hala, islandieraren *quirky datives* edo nahiago bada, *datibo bitxiek* subjektu ezaugarri guztiak izaten dituzte, nahiz eta subjektuek ohikoa duten kasu morfoloikoa eta komunztadura ez duten, eta Belletti & Rizik (1988) erakutsi dutenez, predikatu psikologikoetan honelako subjektu moduko datibo esperimentatzaileak arruntak izaten dira.⁶⁵ Ez da hau

⁶⁵ Izatez, guk inoiz datibo osagarrietarako erabili dugun *datibo bitxi* deituraren sorrera islandieraren *zehir subjektuetan* aurkituko du irakurleak, alegia, nominatiboaz gabe, bestelako kasuez markatzen den subjektuetan —islandierarako, ikus Sigurdhsson (2004)—. Gaztelaniaz ere datibo subjektutzat hartzen diren esperimentatzaile asko daude. Jo adibidez Cuervoren (1999) edo (2003) lanetara. Beste hizkuntza batzuetarako, ikus baita Moore & Perlmutter (2000), Aikhenvald, Dixon & Onishi (2001) edota Bhaskararao & Subbarao (arg.) (2004). Georgieraren datibo subjektuak ahaztu gabe (Harris 1981).

datibo hauen tasun sintaktikoez mintzatzeko lekua, baina morfologikoki, argi dago euskaraz ere datibo argumentu asko semantikoki esperimantatzaileak direla: *begitandu*, *bururatu*, *damutu*, *dolutu*, *garbatu*, *gustatu*, *interesatu*, *iruditu*, *laket (izan)*, *otu*, edota *urrikitu* predikatuekin batera datozen datibo argumentu guztiak esaterako. Lehengo konfigurazioko aditzek ez bezala, predikatu psikologikoeak beharrezkoa izaten dute datibo argumentua, eta ondorioz, nagusiki inakusatibo datibodunen itxura izaten dute.

Predikatu psikologikoetan, sentipen eta sentsazioez gain, goian dagoe-neko esan dugun bezala, estimulua deitu izan den argumentua, badago beste argumentu bat horien guztien esperimantatzailea dena, eta theta-rol hau beharrezkoa izaten da konfigurazioan. Honelako esperimantatzaile argumentua duten aditzek, geroago 3.3 ikusiko dugunez, konfigurazio alternantziak erakusten dituzte, baina, oro har, predikatu psikologikoen konfigurazio gehienetan esperimantatzailea beharrezkoa izaten da, alde batera utzita zein den erakusten duen kasu morfologikoa.

Ikus dezagun, lehenengo eta behin, predikatu psikologikoen askotariko konfigurazioetarako erabiliko dugun terminologia. Liburu honen hasieratik egin dugun bezala, jakina, inakusatibo, inergatibo eta iragankor deiturez baliatuko gara oraindik ere, baina deitura horiei esperimantatzailearen eta estimuluaren aipamena gaineratuko diegu tarteka. Horretarako arrazoa predikatu psikologikoen askotariko itxura da. Ondoren dakartzagu konfigurazio nagusiak. Konfigurazio bakoitzarentzat proposatutako deituraz gain, esperimantatzaile (*esp.*) eta estimuluaren (*est.*) kasuak zehaztuko ditugu. *Datibo-esperimantatzailedun inakusatibo* deitura luzearen ordez, *dat/abs* erabiliko dugu tarteka. Konfigurazio nagusiak erakustearren, *damutu* aditza eta kasu batean, *damu izan* predikatua darabiltzagu. Hasierako hiru konfigurazioetatik, lehena eta hirugarrena dira nahikoa orokortuta daudenak; bigarrenaren erakusgarriak askozaz ere bakanagoak dira, baina izan dezaketen interes tipologikoarengatik dakartzagu harira. Hirurak dira konfigurazio inakusatiboak. Aldiz, euren ondoko biak iragankorrak dira.

3. taula

adibidea	deitura	esp.	est.
Mikeli damutu zaio hori egina	datibo-esperimantatzailedun inakusatiboa	dat	abs
Mikeli damutu zaio hori eginaz	datibo-esperimantatzailedun inakusatiboa	dat	post
Mikel damutu da hori eginaz	absolutibo-esperimantatzailedun inakusatiboa	abs	post
Mikelek damu du hori egina	ergatibo-esperimantatzailedun iragankorra	erg	abs
Mesprezioak ez du (Mikel) damutuko	absolutibo-esperimantatzailedun iragankorra	abs	erg

Predikatu psikologikoez izan ditzaketen konfigurazioen aniztasuna dela eta, notazio berezia erabiliko dugu lanean zehar eta bereziki atal honetan. Hala, *dat/abs* konfigurazioa bestelako konfigurazioetatik ezberdintzearen, gain-indize bat erabiliko dugu dena delako argumentua esperimentatzailea dela adierazteko: *dat^{esp}/abs*, *abs^{esp}/post* etab.

3.2. Beharrezko datiboak predikatu psikologikoetan

Egia da datiboen unibertso lexikoari eskaintzen diogun lan honetan, nagusiki konfigurazio datibodunak aztertzea dugula xede, baina eztabaidan zehar ikusiko dugunez, horretarako beharrezkoa zaigu bestelakoak diren konfigurazioekin konparatzea, eta horrek konfigurazio guztiak, datibodunak zein datibogabeak, aipatu eta nola edo hala aztertzea garrantzitsua. Datiboak beharrezkoak ote diren jakin nahi izanez gero ere, alternantziak izan behar ditugu gogoan. Nahiko ezagunak dira, esate baterako, datibo esperimentatzaileak inakusatiboak (*dat^{esp}/abs*) —*norbaiti zerbait damutu*— eta absolutibo esperimentatzaileak inakusatiboak (*abs^{esp}/post*) —*norbait zerbaitetaz damutu*— osatzen dituzten alternantziak. Goiko taulan, lehena eta hirugarrena dira, hurrenez hurren. Bi egitura iragangaitzen arteko alternantzia dugu hau, *damutu*, *dolutu* edo *interesatu* aditzek erakusten dutena adibidez. Euretari zenbait, gainera, inkoatibo-arazle alternantzian ere ager daitezkeenez,⁶⁶ litekeena da inakusatiboaren absolutiboa predikatu iragankorraren absolutiboarekin lotzea, beheko (c) adibidean bezala. Aipatu berri ditugun hiru konfigurazio hauek, jarraian emango ditugu, *interesatu* aditzarekin batera:

- (103) a. Mikeli artea interesatzen zaio (*dat^{esp}/abs*)
b. Mikel arteaz interesatzen da (*abs^{esp}/post*)
c. Arteak Mikel interesatzen du (*erg/abs^{esp}*)

Lehenengo konfigurazioa, batzuetan *inbertsoa*⁶⁷ deitu izan dena da gure liburuko eztabaidagai nagusiaren ingurumarian berebiziko garrantzia duena.

⁶⁶ Alternantzia inkoatibo/arazlea aldaketa predikatuekin gertatzen da sarri, eta litekeena da, noski, *interesatu* predikatuari ere horrelako aldaketa interpretazioa ematea. Baina testuko adibidean argi ikus daitezkeenez, egoera ere adierazten du aditz honek —ikus 2.2 atalean *atxiki* aditzaz esandakoa, ingelesaren *lean* aditzeko (50) adibideak eta (51) adibideak—. Gaztelaniaren *Mikel se interesa por el arte* (nominatibo esperimentatzailea/preposizio sintagma) / *A Mikel le interesa el arte* (datibo esperimentatzailea/nominatiboa) pareta ezberdina izan liteke, bigarrena ez baita iragankor peto-petoa. Nominatiboa euskararen absolutiboaz ordezkatuz gero, ez dugu alternantzia inkoatibo/arazlerik erdiesten.

⁶⁷ Ez da inbertso egitura hau nahasi behar tipologian edota gramatikan *inbertso* edo *alderantzizko egitura* deritzanarekin. Ikus Hale (2001) Bobaljik & Branigan (2006) Halle & Hale (1997), adibidez, txuktxierarako.

Konfigurazio horretan bi argumentuak dira ezinbestekoak: nekez aurki dezakegu, esate baterako, ez datibo hutsezko konfiguraziorik (a) ez absolutibo hutsezkorik (b):

- (104) a. *Mikeli beti interesatzen zaio
b. *Artea interesatzen da

Lehenengoari izartxo jarri diogu guri dagokigun interpretazioan, hau da, gairik gabekoan, nahiz eta, jakina, onargarria den ezkutuko gaia dagoenean. Interpretatu ezin daitekeena da Mikelen ezaugarria dela zerbaitetaz interesatzea. Izatekotan, beharbada, adiera hau *abs^{esp}/post* konfigurazioaz bidera liteke, beti ere postposizioa isilpean gordez gero —?Mikel beti interesatzen da izango litzateke ordaina, nahiz eta zalantzak ditugun gramatikala den—. Bestalde, bigarren adibidearen ezgramatikaltasuna, inakusatiboaren argumentu bakarra estimulua izateari zor zaio, hau da, artea da interesa sortzen duena. Litekeena da, halaber, datiborik gabeko konfigurazio inakusatibo bat izatea, baina orduan goiko (b) bezalakoa litzateke (*abs^{esp}/post*), esperimentatzaile absolutiboduna, hain zuzen, eta ez, adibide honetan den bezala, gai absolutiboduna (*abs^{gai}*). Datiboen eremutik atera gaitzakeen arren, azpimarratzekoa da badirudiela *erg/abs^{esp}* konfigurazio iragankorrean ere, absolutiboa beharrezkoa dela. Nolanahi ere absolutibo hori adierazi gabe utz liteke:

- (105) a. Arteak beti interesatzen du
b. Eta, gisa guziz, gai horrek berak arras interesatzen du (*Anbroxio*, E. Bidegain, 78)

Rizzik (1986) ohartarazi zuenez, honelakoetan giza-osagarri berezi bat dugula pentsatzen da —‘PRO arbitrarioa’—, eta Levinek (1993: 37) erakutsi digu aholku-aditzez gain, predikatu psikologikoak direla ageriko objekturik gabeko konfigurazio honetan gehien bat agertzen direnak. Semantikoki, osagarri hori, isilpekoa izan arren, beharrezkoa ere bada, eta kontua da jakitea ea benetan sintaktikoki ere hor badagoen ala ez. Ez da auzi hau argitzea gure oraingo zeregina, baina kontuan izatekoa da analisi sintaktiko askotan proposatu izan dela argumentu hori, zerbaitek interesatzen duena alegia, semantikoki ‘hor nonbait’ egoteaz gain, sintaktikoki ere badagoela —izenordain isil modura bada ere—.

Damutu predikatuarekin ere datiborik gabeko konfigurazioan —*Mikel damutu da*, adibidez—, badirudi damutzearen gaia edo estimulua inplizituki edo ezkutuan dagoela eta, *doluturekin* datiborik gabeko konfigurazioa nekezago aurkitzen bada ere, EPGen ageriko zein isilpeko estimulua dugu beti.

Beste aditz batzuetara joaz, *bururatu*, adibidez, oso egokia da esperimentatzailearen beharraz jabetzeko. Absolutibo esperimentatzailedun (*abs^{esp}/post*) konfigurazioak oso urriak dira *bururatu* aditzarekin, eta ondorioz datiborik gabeko adibideak beste predikatuekin baino nabarmenagoak dira. EPGen

arakatuz gero, gehien-gehienak *buruturen* predikatu perfektiboari dagozkio (*abs^{gaia}*), ez psikologikoari. Bestelakoak dira ondoko hauek:

- (106) a. Haren araberako infernua, burura litezkeen munstroik lazgarrienak ageri zaizkigu (*Sagua, eulia, eta gizakia*, F. Jacob / J. Garzia, 150)
- b. Halabehar hutsez bururatzen dira, eta, bururatzen diren unean idatzi ezean, betiko ihes egin dezakete, buruan moldea bakarrik utzirik (*Egonean doazen geziak*, Joserra Garzia, 197)
- c. Bururatzen direnetik azken itxura hartzen duten bitartean, berriz, oso aldaketa sakonak gerta litezke (*Egonean doazen geziak*, Joserra Garzia, 197)

Alde batetik, munstroak eta abarrak bururatzen zaizkion norbaitetaz ari garenez, inplizitua da gizaki esperimendatzailea. Baina, bestaldetik, datiborik gabe erabiltzearen poderioz edo, badirudi asko indartzen dela *bururatupean* dagoen mugimenduzko metafora, alegia, *burura etorri*. Hau da, esperimendatzailea desagertuz doan heinean, zentzu psikologikoa ahuldu eta mugimenduzkoa nagusitzen da.

Datiboaz eraikitzen diren predikatu psikologikoetara itzuliz, *gustatu*, *iruditu*, *axola (izan)*, *inporta (izan)* predikatuak kontuan hartzen baditugu, datiboa beharrezkoa dela konturatzen gara berehala; horretatik, ondoko adibideak ezin onartzea:

- (107) a. *Gai hori gustatu da
- b. *Gai hori interesgarria iruditzen da
- c. *Gai hori ez da axola/inporta⁶⁸

Oso eredu sendoa dugu hau. Geroago ikusiko dugunez, *gustatu* aditzak, adibidez, baditu datiborik erakusten ez duten etsenpluak, hala nola, ondoko hau:

- (108) Muthikoek etzuten zurezko zaldirik. Ukanik ere etziren gustatuko (JEtchep 16)

Nolanahi ere, halako adibideei begiratuz gero, berehala konturatuko gara konfigurazio horretan ez dugula besterik gabe datiboa isildu. Izan ere, halako adibideetan, *gustatu* aditzak absolutibo esperimendatzailedun inakusatiboa (*abs^{esp/post}*) balitz bezala jokutzen du, estimulua postposizio baten bidez adieraziz —adibidean agerian ez badago ere—. Aurreko *Jon arteaz intere-satu da* konfigurazioaren kidea da, beraz. Izatez, ondoko adibidea izan liteke estimulu absolutiboa erakusten duten kasu guztiz bakanetakoa:

⁶⁸ Ikusiko ditugu *axola* honen erakusgarriak geroago 3.3.4.

- (109) Kapitalismoa akatu, espetxeak akaatu, aita akabatu... gustatzen da akabatu hori (*Hizlandia*, I. Aranbarri, 127)

Baina, oro har, datiboa beharrezkoa denez, nahiz eta ageri ez, ‘jendeari’ esperimentatzaile generiko bat sumatzen da adibide honetan ere.

Datiborik gabeko salbuespenak are bakanagoak dira *iruditu*, *axola* eta *inporta* predikatuetan. EPGen, adibidez, *iruditu* aditzerako 3.284 erabilera datibodun jasotzen ditu Corsintaxek, 13 *da* laguntzaileak eta 13 *du*-dunak —alegia, gure inakusatibo eta iragankor datibogabeak, hurrenez hurren—. Apur bat arakatuz gero, baina, gehienak analizatzaile morfologikoaren hutsak direla konturatzen gara, beheko (a) esaterako; benetako adibideak are urriagoak dira (b,c):

- (110) a. Ez da, beraz, egia *begitandu* Euskara Batuan *iruditu* dela, edota *jin* Euskara Batuan *etorri* dela (*Euskararen sendabelarrak*, K. Zuazo, 1)
- b. Testuinguru bat, orain beharbada oso ulerterraza irudituko ez dena, ekialde eta mendebalaren kontrajarpena izan da (*Euskal Herria Krisian*, J. Azurmendi, 229)
- c. Eta hala gertatzen da modelo batzuetan ere, ikusten da tamaina txikian era batera egin direla, eta iruditzen da tamaina handian ere berdín egin beharko direla (*Arkitekturaz hamar liburukak*, Vitruvio / S. Iruretagoiena, 5250)

Erabilera bitxiak dira hauek, *dirudiren* ordezkioak ziur aski —azken adibidekoa (c), beharbada, antzinako testuen tonu jasoagoa lortzearen aukeratu dena—.

Adibide hauek, hala ere, *iruditu* predikatu psikologiko (*dat^{esp}/abs*) eta *iruditu* igoera predikatuaren arteko harremana aztertzea garamatzate. Eta hauxe da honi dagokionez burura datorkigun lehen galdera: bien konfigurazioak alternantzia beraren aleak dira, ala bata bestearekin harremanik ez duten predikatu eta konfigurazioak dira? Gure ustez bigarren aukera da hobetsi behar dena. Izan ere, euskaraz badugu argumentu bakarreko *iruditu* predikatua, inguruko hizkuntzetako igoera predikatuekin erraz lotu daitekeena (*seem*, *parecer*, etab.). Argumentuak dirudiena edota ematen duena adierazten du, eta sintaktikoki perpausa izaten da. Ondoko adibideetan, beraz, ez dago batere garbi inongo esperimentatzailearik dugunik:

- (111) a. Atertuko duela dirudi
- b. “Ez erreala, ametsezkoa dirudizu; hain zara ederra” (*Gorde nazazu lurpean*, R. Saizarbitoria, 148)

Lehenengo adibidean perpaus jokatu dugu, bigarrenean perpaus txikia, eta ez batean ez bestean ez dirudi isilpeko esperimentatzailearik dugunik. Oso

bestela, gerta daitekeen zerbaitetaz edo zerbaiten itxuraz mintzatzen gara, itxuraren beraren ikuspuntutik eta ez itxura horretaz ohartzen denaren ikuspuntutik.⁶⁹ Hala, esperimentatzailerik ez badago, nekez izan dezakegu benetako estimulua, eta ez genuke esango honelakoak predikatu iragangaitzaren datibo argumentua ezabatuz sortu ditugunik hiztegian. Beraz, ez dago, oker ez bagaude, behintzat, bi konfigurazioak lotzen dituen alternantziarik, eta ondorioz konfigurazio beregainak dira gure begietara.

Hala ere, *iruditu* trinkoari begiratzen hasita, aztertu beharreko konfigurazio mugatuagoak aurkituko ditugu:

- (112) a. Euskara ez dakit, baina molde horretako literatura oparoarekin Euskal Herria salbatua dela dirudit (*%100 Basque*, I. Borda, 38)
- b. Beraz, ondorioa argia dela dirudit (*Naturaren mintzoa*, P. Zabala, 268)
- c. Gure ezagutzaren objektu ahalgarri ororen multzoa itxurazko ikusmuga bat duen gainazal leuna dela dirudigu (*Arrazoimen butsaren kritika*, I. Kant / I. Uribarri, 259)
- d. Zer dirudizu? (*Ez balego beste mundurik*, K. Linazasoro, 103)

Oso adibide urriak dira hauek. Semantikaren ikuspuntutik benetan estimulu/esperimentatzaile konfigurazioa dugula ematen du. Morfosintaktikoki aztertzean, baina, zalantza interesgarriak sortzen dira. Lehenengo begiradan, gure ohiko *dirudiren* gainerako formak direla pentsa genezake, hau da, *erg^{esp}/abs* konfiguraziokoak. Horrela balitz, *laket (izan)* predikatuarekin aurki daitekeen alternantzia bera izango genuke, alegia, esperimentatzaile datiboa (*dat^{esp}/abs*, *iruditzen zait*) zein ergatiboa (*erg^{esp}/abs*, *dirudit*) erakutsiko lituzkeena:

- (113) a. Musean artzea laket zaio eta Beti Gazte batasunean partaide da (*Herria*, 2003-11-20)
- b. idazlanetan ere laket du bazterren xeheki aipatzea (*Luzaiden gaindi*, A. Aintziburu / J.B. Etxarren, 190)
- c. Gure ezagutzaren objektu ahalgarri ororen multzoa itxurazko ikusmuga bat duen gainazal leuna dela dirudigu (*Arrazoimen butsaren kritika*, I. Kant / I. Uribarri, 259)
- d. Zer dirudizu? (*Ez balego beste mundurik*, K. Linazasoro, 103)

⁶⁹ Inongo *igoera* izatekotan perpaus txikiarekin *-(zu) / ez erreala, ametsezkoa*— izango genuke *zu* hori *iruditu* iragankorraren subjeto bihurtuz. Ez dirudi benetan argumentu bi ditugunik. Oso eztabadagarria da eta asko eztabaidatu izan da da ondoko perpausaren moduko gramatikaltasuna:

(i) Jonak Athleticen kopa irabazi duela dirudi

Dena den, adibide honetan are garbiago dago subjektu hori ez dela esperimentatzailea. Jonen itxuraren inguruko predikazioa da egiten ari garena.

Litekeena da, baina badago azterbide are interesgarriago bat. Aipatu beharra dugu aurkitu ditugun honelako adibide guztiak lehenengo zein bigarren pertsonakoak direla eta ezin izan dugula horrelako hirugarren pertsonako formarik bildu. Esperimentatzaileari bagagozkio, bestalde, ezin izan dugu komuntadura markarekin batera ageriko izenordainik topatu, baina zilegi da galdetzea agertzekotan zein kasutan agertuko litzatekeen. *Irudi* trinkoaren eredu arrunta jarraituz gero, ergatiboan markatuko lirateke izenordain horiek. Hala ere, bildutako adibideei begira, baliteke lehenengo eta bigarren pertsonako izenordainen kasua datiboa izatea, ez ergatiboa. Hori horrela balitz pertsonaren araberrako murriztapen hori ulertzeko bide bat irekiko genuke: *-t*, *-zu* eta *-gu* komuntadura atzizki horien aurrean *-i-* aurre-datiboa dugunez, erraza izango litzateke *-t*, *-zu*, edota *-gu* datibo komuntadura atzizkitzat jotzea. *Dirudit*, beraz, *iruditzen zait* adizki perifrastikoaren ordezkotzat har liteke. Hirugarren pertsonako adizkiak, jakina, *-dirudi*, *dirudite*— ezin ditugu horrela interpretatu. Existitzen ez diren **dirudio* eta **dirudie* formak izan beharko genituzke euren ordezkotzat. Berrinterpretapen morfologikoak horrela hasten dira: existitzen diren forma anbiguoetarako balizko beste analisi bat egiten da; finkatu orduko bakarrik sortzen dira falta diren forma berriak. Merkeagoa da berranalisiak egitea ezen ez forma berriak sortzea. Datuen interpretazio honetan, beraz, ez dugu benetan inongo alternantziarik, *dat^{esp}/abs* konfigurazio bakarra baizik, *irudi(tu)* predikatu arrunt bakarra, orainaldian, bai forma trinkoetan bai perifrastikoetan erabiltzen dena.⁷⁰ *Dirudi* bezalakoak, bestalde, igoera aditzaren formak izango lirateke.

Benetako predikatu psikologikoaren erabilera, datiboa beharrezko argumentua da. Horregatik, gorago aipatu dugun bezala, benetan urriak dira *??iruditu/iruditzen da/dira* forma perifrastikoak. Orobat, ez dira aurkitzen **iruditu/iruditzen naiz/zara/gara* sortako adizki datibogabeak.

Arduratu aditza interesgarria da datibo eta esperimentatzaileen harremanaren aldetik. *Interesatu* aditzak bezala, *erg/abs^{esp}* (a) eta *abs^{esp}/post* (b) konfigurazioak ditu:⁷¹

- (114) a. Eusko Jaurlaritzaren arduratu du Paroten aurkako ebazpenak (*Berria*, 2006-02-22)
- b. Eta orduan, azkar doa lanera, pozik, bekokitik darion izerdiaz arduratu bage (*Erkiag BatB* 163)

Baina esperimentatzaileek absolutiboaz markatzeko joera sendoa erakusten dute, datiboaz markaturik adibide bakan batzuetan baino ez baitira ager-

⁷⁰ Ez dugu iraganean horrelakorik aurkitu. Oso arraroak dira lehen eta bigarren pertsonako formak, eta ageriz gero, ergatiboaren lekualdatzeagatik ezin izango lirateke horrela berrinterpretatu.

⁷¹ Kontuan izan hemen *arduratu* predikatuaren “kezkatu” adierapean analizatzen dugula. Badago konfigurazio bera darabilen bestelako adiera bat, hau da, zerbaiten erantzukizuna edo arduratu izatea. Erabilerarik normalena da hau, baina ez dugu predikatu psikologikotzat jotzen.

tzen, EPGen bederen.⁷² Ondoko adibideak, *erg/dat^{esp}* eta *dat^{esp}/abs* konfiguraziokoak, oso kasu urriak dira:

- (115) a. Zer arduratuko dio tabako usainak erretzaile amorratu bati? (*Ugerra eta kedarra*, S. Gonzalez, 69)
- b. salatu du Basauriko alkateari «ikus daitezkeen eta usaintzen duten arazoak» soilik arduratzen zaizkiola (*Berria*, 2004-04-07)

Bestalde, *ardura* izena da, eta berez badu argumentu bat, ardura norena den adierazten duena. Argumentu honek igoera jasan dezake, inflexioan islatuz, ondoko adibidean bezala:

- (116) Nori zaizkio, ordea, ardura horrelako ezerezkeriak? (MEIG VII 29)

Oso ezberdinak dira, beraz, erabilera datibodun hau eta goiko (b) adibidekoa, ohiko erduetatik kanpo dagoena. Hala, ezin dugu datiboaren beharrezkotasunaz hitz egin beste predikatu psikologikoetan bezala, baina kontuan hartzekoa da, hala ere, jatorrizko *erg/abs^{esp}* eta *abs^{esp}/post* konfigurazioetan argumentu esperimendatzailea, hots, absolutibo argumentua, beharrezkoa dela. Aipatu gabe utziz gero, beste kasu batzuetan ikusi dugun giza objektu generiko bat sumatzen da, semantikoki eta agian sintaktikoki ere egituran dagoena.

Amai dezagun atal hau hasieran predikatu psikologikoen paradigma osatzeko erabili dugun aditzarekin, *damuturakin* hain zuzen. Beharrezkotasunaren aldetik ere, paradigmatikoa dugu *damutu*, esperimendatzailea beharrezkoa baitaio. Horregatik, *dat^{esp}/abs* konfigurazio datibodunetik datiboa kenduz gero, orduan absolutiboz markatuko da esperimendatzailea eta estimulua postposizio batez adieraziko da:⁷³

- (117) *damutzen da euskal munduaren berexkuntza kaltegarrietaz* (*Herria*, 2004-04-08,7)

⁷² Ez dakigu hala izango ote den ahozko hizkeretan ere.

⁷³ Bestelako adierak ere sortzen dira konfigurazio honen azpian. *Berria*n, esate baterako, Nora Arbelbideren adibide asko agertzen dira “kexatu” adierarekin:

- (i) “Hemen ez da agertzen”, *damutu da Etxeberri-Aintxart* (*Berria*, 2005-05-03)

Adierazpen aditza izanik, predikatu inergatiboa izatea espero liteke, baina inakusatiboa da. Gainerakoan, adierazpen aditza denez, ez da harritzekoa osagarri perpausa ere agertzea:

- (ii) Elkarte hau bertzalde *damutzen da herriak ez duela aski indarrrik egiten Angeluko eskola publikoan euskara sar diten* (*Herria*, 2004-03-04)

Adibide honetan gaia perpausa denez, ez dugu postposiziorik behar: postposizio sintagma ordezkatzeko du perpaus jokatuak.

Aditzotako esperimentatzaileak, beraz, beharrezkoak izaten dira. Alternantzien poderioz, beharrezko esperimentatzaile hori datiboa izango da, eta datiboen artean nahiko egoera aparta da ezinbestekotasun hori. Baina datibo hauek badute berezitasun bat: argumentalak diren goi-datibo bakarrak izatea, hasieran esan dugun bezala, subjektuetara asko hurbilduz. Beste goi-datiboak, jabe/interes datiboak, proposizio osoari gaineratzen zaizkion kanpoko partaideak dira; esperimentatzaileak, berriz, oinarritzko proposizioaren argumentuak dira. Eta subjektuetatik hurbil badaude, ulergarria da beharrezkoak izatea, subjektuak halakoak izaten baitira.

3.3. Alternantziak predikatu psikologikoetan

Aurreko atalean ikusi dugunez, ez da batere erraza datibo esperimentatzaileez eta, bereziki predikatu psikologikoen argumentu esperimentatzaileez aritzea, alternantziak alde batera utzita. Alternantziak ezinbestean aipatu behar izan baditugu orain artean, eta orain alternantziak eurak izango dira gure hizketa gai nagusia.

3.3.1. Inakusatibo datiboduna eta datibogabea

Aditz psikologikoen berri ematerakoan erakutsi dugu *damutu* aditza inakusatibo datibodun modura ez ezik (*dat^{esp}/abs*), inakusatibo postposiziodun modura ere (*abs^{esp}/post*) atondu daitekeela, nahikoa ezaguna den alternantzia. Konfigurazio alternantzia hau izango dugu mintzagai ondoren, sortan nahikoa eredugarria den *damutu* aditzarekin hasita.

Damuturen osagarria sarri askotan, testigantza klasikoei begira, behintzat, perpaus jokatu gabe bat izaten da, partizipioduna (a) ala nominalizazioduna (b), eta bai bati bai besteari absolutiboa ezartzen zaie, ondoko adibideetan ikus daitekeenez:

- (118) a. Hamaika bidar damutu zitzaion etxetik irtena (Ag *G* 255)
b. Murde Irigarai, ene jaona, altxa izadazu buruia: ala damutu ote zaitzu enekin esposatzea (Or *Eus* 118)

Beste batzuetan besterik gabe determinatzaile sintagma bat da osagarria, absolutiboaz markaturik hau ere:

- (119) a. Baña arestian emandako hitza Faraoni damutu zitzaion, eta etzien utzi irteten (Lard 70)
b. Antz emana zeukan ezkontza damutu egin zitzaiola (JAIraz *Bizia* 97)

Hortaz, osagarria edonolakoa izanda ere, konfigurazio inakusatibo datibodunean ager daiteke *damutu* predikatua —*dat^{esp}/abs*—. Halaber, esperimentatzailea absolutiboaz ere erakuts dezake eta orduan, konfigurazioa inakusatibo soila da —*abs^{esp}/post*—. Halakoetan, OEHTik (VI: 15) jaso dugunez, estimulua/gaia instrumentalaz (a,b) marka daiteke, determinatzaile sintagma (a) izan zein perpaus jokatu gabea (b); —(*r*)*ik* partitibodun partizipioaz adieraz daiteke (c) edo —*gati*k postposiziodun partizipioaz (d):

- (120) a. Azkar asko damutu nintzan nire itxumenaz (NEtx *Antz* 98)
 b. Zelan bada damutu bihar ez da bera galdubaz (Mg *CO* 33)
 c. Aspaldi zakuz ta autsez estalirik damutu izango ziran (Ir *YKBiz* 263)
 d. Etzare damutuko zure adiskidea zure ganik apartatua eta hillagatik (SP *Imit* III 42, 1)

Perpaus jokatuak ez dituzte beti izaten determinatzaile sintagmek edota perpaus jokatu gabeek zaindu behar dituzten kasu betebeharrak, eta ez da harritzekoa, beraz, estimulua/gaia bestelako markez adieraztea (c,d) perpausetan. Ezta esperimentatzailea gabe egilea duen “kexatu” adieran, inongo markarik gabeko perpaus osagarri gisa (b) —ikus baita 73 oin-oharra—:

- (121) Frantses franko entzuten dela damutzen dira zenbait... (*Berria*, 2005-04-07)

Kasuistikaren zabala kontuan hartzea komeni den arren, azpimarratu beharra dago *damutu* bezalako aditzetarik batzuek —esaterako *dolutu*, *garbatu*, *interesatu*, *urrikitu* eta neurri batean *gustatu* ere— konfigurazio inakusatibo datibodun eta datibogabearen arteko alternantzia erakusten dutela, eta horren ondorioz, laguntzaile iragangaitz datibodunarekin —*zai*o— eta datibogabearekin —*da*— azal daitezkeela. Inakusatibo datiboduna denean, esperimentatzailea, ikusi dugun bezala, datibo argumentua da, eta estimulua, absolutibo argumentua. Oso bestela, datibogabea denean, inakusatibo, orduan esperimentatzailea absolutiboa da eta estimulua postposizio batez markatzen da. Interesgarria da alternantzia hau gogoan izatea, nahikoa orokorra baita sorta bereko predikatuen artean.

Alternantzia honen berri jasotzen du baita Etxeparek (2003: 403-4) ere, berak alternantzia aurkezteko darabilen modua gurea ez bezalakoa den arren. Izan ere, alternantzia aditz laguntzailearen beraren hautuaren bidez aurkezten du, aditz laguntzaile datiboduna ala datibogabearen erabileran. Guk, aldiz, aditzaren beraren argumentuen konfigurazioei begiratzen diegu. Diferentziak diferentzia, Etxeparek inakusatibo datibodunen artean aipatzen dituen aditzak *gustatu*, *laketu*, *interesatu*, *dolutu*, *damutu*, *bururatu*, *otu* eta *gaitzitu* dira, eta horietatik inakusatibo datibogabeen alternantzia erakusten ez duten

salbuespen bakarrak, bere iritziz, *gustatu*, *bururatu* eta *otu* dira —*gustaturi* dagokionez ez gatoz horren bat, geroago ikusiko dugun bezala—.

Bi dira, beraz, *dat^{esp}/abs* konfigurazio nagusia duten sail honetako aditzen artean sumatzen diren joera nagusiak, batetik, datibogabeko alternantzia ere erakusten dutenak, alegia, esperimantatzailea absolutiboaz ere markatzeko joera dutenak sintagma postposiziodun batez lagundurik —*abs^{esp}/post*—, eta bestetik, datibogabeko alternantzia hori erakusten ez dutenak. Lehen jorari lotzen zaizkion aditzak dira *akordatu*, *ahaztu*, *damutu*, *dolutu*, *garbatu*, *gogoratu*, *oroitu*, *urrikitu*, eta neurri batean, baita *gustatu* eta *interesatu* ere —*laketu* interesgarriaren kasua ere ikusiko dugu—. Hauekin batera, *gogoratu* edota *oroitu* ere aipa genitzake, gaur egun euren konfigurazio datiboduna oso orokorra ez den arren. Halakoetan, *damutu zaio itsumena* edo *damutu da bere itsumenaz* bezalako konfigurazio aukerak izan behar ditu gogoan irakurleak. Azkenik, alternantzia erakusten ez dutenen artean, Etxeparek aipatzen dituen *bururatu* eta *otu* predikatu pareari *begitandu* eta *iruditu* ere gaineratuko genizkioke. Alternantziarik gabeko aditz hauekin, *Mikeli ideia ikaragarria bururatu zaio* bezalako konfigurazioak ditugu, ez ordea, **Mikel bururatzen da ideia ikaragarriaz*.

Ikus ditzagun, bada, alternantzia datibodun/datibogabea erakusten dutenetatik zenbait, adibide gisa. Predikatu hauetan, bi konfigurazioak eskura izanik ere, nagusitzen dena datiboduna da, ikusiko denez. *Garbatuk*, gaur egun ia desagertu egin denak, esaterako, *damuturen* antzeko jokabidea du. Inakusatibo datiboduna da nagusiki eta datiboaz adierazten du esperimantatzailea. Osagarria perpaus jokatugabea izan daiteke, partizipioduna nagusiki:

- (122) a. Bost aldiz garbatu jako / berori ezagutua (Noe 50)
- b. Garbatu zitzaion bere jaiotetxera azaldua (Etxde JJ 198)
- c. Makina bat aldiz garbatu jata gaztetan neskatan gehixao egiñ eza (Exelp Berg)

Eta badira inakusatibo soileko, edo nahiago bada, datibogabeko adibideak, postposizioaz markatutako partizipioaz lagundurik:

- (123) a. Ez zirian garbatuko bein egin ebeen pekatubagaz (fB Ic I 16)
- b. Kristinauba bera garbatuten bada bere gaiski eginagaz, parkatuten deutsa (fB Ic I 66)

Dolutu aditzaren kasuan ere nagusi dira konfigurazio datibodunak OEHK (VI: 277-78) dioenez:⁷⁴

⁷⁴ *Dolutu*. “Arrepentirse, apesadumbrarse. Usado generalmente con aux. intrans. bipersonal [...]. Tr. Documentado ya desde Dechepare, en textos septentrionales; es más frecuente en autores bajo-navarros y suletinos.” (OEH VI: 277)

- (124) a. Dozepareki huna jitia / Behar zaik dolütü (Xarlem, 454)
- b. Egun behar zaik dolütü / Hiria huntara jitia (Mustafa 42)
- c. Etzitiala jin harzara nigana, / Bestela / Gogua / Dolütüren zaizü, amoros gaxua! (ChantP 54)

Gaur egun ere, ez dira asko aditz honen agerraldiak, baina nagusitzen direnak konfigurazio datibodunak dira, iturri historikoetatik atera ditugunen modukoak:⁷⁵

- (125) a. Harat joan direneri ez zaie dolutu (*Herria*, 2003-07-24)
- b. Gero dolutu zait, ene pasaia ez ohartarazirik (*Santiago oinez*, P. Aintziart, 72)
- c. Ttotteri errana tanpex dolutu zitzaion (*Zeruetako erresuma*, I. Borda, 114)

Baina konfigurazio datibogabeak ere badira:

- (126) a. Nehoiz ez da dolutuko (*Herria*, 2003-07-03)
- b. Dolutzen da haatik botere publiko eta herriko etxeen ganik sustengu arras txarra izaitez (*Herria*, 2005-10-06)

Urrikituk (OEH XV: 867-68) ere batez ere konfigurazio datibodunaren testigantzak ditu (a,b), datibogabeak ere izan arren:

- (127) a. Ezen baldin orai iragan baneza zurekin neure apheetu desordentua, urriki lekidikedala berehala (Ax 388 (V 254))
- b. Ala urrikitu zaitzu / enekin esposatzia (Balad 85)
- c. Nahi eztudala sekulan ene hitzaz ukhatu edo urrikitu (SP *Phil* 75)
- d. Urrikitzen naiz egin ditudan hutsez (H)

Bietara aurki daiteke gaur egungo prosan ere, adibide urriekin bi konfigurazioetan —(a,b) vs (c)—:

- (128) a. Baina zonbait egunen buruan, aitari urrikitzen zaio (*Janpierre Arbelbide*, X. Arbelbide, 215)
- b. Hamar bat urrats egin orduko, urrikitu zitzaidan (*Bibotzeko mina*, J. Dirassar, 82)
- c. Gaixo serorak nolako baldintzetan lanean ari ziren ikusirik, urrikitu zen Charles d'Abbadie d'Arrast, Etxauzko jauna (*Oilandoiko ermita*, M. Oronoz, 53)

⁷⁵ Corsintaxek dakartzan agerraldietatik, gehien-gehienetan ez da adierazten estimulua, (a) adibidean bezalaxe.

Predikatu askorekin —*damutu, dolutu, urrikitu, interesatu...*— bai *dat^{esp}/abs* bai *abs^{esp}/post* aldaerak aurki badaitezke ere, alternantzia hau ez da, behar-bada, sintaxiarekin lotuago dauden beste alternantzia batzuk —inpersonalak, kasurako— bezain emankorra: ale lexikoa zein den, konfigurazio bat bestea bezain erabilia izan daiteke, bata bestea baino askoz erabiliagoa ala bietarik bat ezinezkoa. Adibidez, *fidatu* aditzak *abs^{esp}/post* konfigurazioa du, *dat^{esp}/abs* izan gabe. Bestalde, geroago ikusiko dugunez, *begitandu, iruditu, otu, eta bururatu* predikatuek *dat^{esp}/abs* konfigurazioa badute ere, ez dute *abs^{esp}/post* onartzen. Eta *akordatu, gogoratu* eta *oroitu* aditzak nolabait bereizi litezke aurrekoetatik. Gaur egun, bederen, bien oinarriko konfigurazioa edo konfigurazio orokor eta nagusia ez da inakusatibo datiboduna (*dat^{esp}/abs*) —hala erabil daitekeen arren—, datibogabea baino (*abs^{esp}/post*). Neurri batean, aurretik ikusi ditugun aditzen konfigurazio berberak erakusten dituzte bi aditz hauek ere, nahiz eta nagusi den atontzea kasu honetan datibogabea den, ez datiboduna. *Oroitu* aditzaren testigantza klasikoak dira hurrengoak:

- (129) a. Orhoit adi herioaz, orhoit iuiamenduaz (EZ *Man* I 17)
 b. Oroitu edo akordatuko⁷⁶ zitzaizkola nire begatuak (Mg *CC* 124)
 c. Orhoit bekizu oren bakhar bat segurik ez duzula (Dv *LEd* 219)

Ikusten denez, inakusatibo datibogabea islatzen da lehen adibidean (a) eta datiboduna beste bietan (b,c), orain arteko aditzei begira ikusi dugunez, gailentzen dena. Gaur egun, nabarmen dira Iparraldeko idazleengan konfigurazio datibogabeak:⁷⁷

- (130) Aspaldiko hizketaz oroitu naiz gaur, ezpalak baizik ez batzaizkit gelditzen ere (*Azken apeza*, P. Aintziart, 122)

Gogoratu aditzarekin ere antzera, gaur egun datibogabea da konfigurazio nagusia. Hala ere, ez dirudi historian zehar hala izan denik beti. Historikoki OEHra (VIII: 664-5) begiratuz gero, behintzat, konfigurazio iragankorra nahiz iragangaitza nagusiki datibodunak izan direla ikusiko du irakurleak. Nolanahi ere, bietara aurkitu daiteke *gogoratu*:

- (131) a. Lagun onaz beti gogoratzen nak ni (A*Bar Goi* 57)
 b. Gogora baitzait gutizia bat, iragan behar dut gutizia hura (A*x* 51)
 c. Ez zitzaien sekulan gogoraturen bere pasioneaz, heriotzeaz eta bititzeaz mintzo zela. (Lg II 171)

⁷⁶ *Akordatu* aditzak ere neurri handi batean, inakusatibo datibodun/datibogabe alternantzia erakusten du. Gaur egungo testuetan ere aurki daiteke konfigurazio datibodunean, nahiz eta nagusi diren datibogabeak.

⁷⁷ Corsintaxek ez du Iparraldeko idazleen lanetan ez *Herria* aldizkarian, konfigurazio datibodunik erakusten EPGen.

Eta hau bai iraganean bai gaur egun ere. Sarasolak (2008/09), esate batera, konfigurazio biak jasotzen ditu. Bere hiztegiak dira bi adibideok, datibogabea (a) eta datiboduna (b):

- (132) a. Zer gertatu ote zen, orduz geroztik, edozein ibilgailuren leihatilaren kristalean burua jartzen duzunean, egun hartaz, une hartaz gogoratzeko? Gogoratzen al zara nitaz? (*Eta emakumeari sugeak esan zion*, L. Oñederra, 15)
- b. Ergel arraio bati ere ez zitzaion gogoratuko autoa hain agerian uztea, itsu batek ere ikusteko maneran (*Rock'n'roll*, A. Epaltza, 357)

Ez dirudi *akordatu*⁷⁸ ere oso diferente jokutzen duenik. OEhk (I: 545-46) dakartzan adibideetan, ez dira bereizten, bestetan egin ohi duen bezala, datibogabeak batetik eta datibodunak bestetik. Bietatik agertzen da adibide sorta berean, nahiz eta datibogabeak askozaz gehiago diren. Hona hemen adibide bana:

- (133) a. Ura ikusi ta Zeruan dagoanaz oroitu edo akordatu gaitezen (Gco I 465)
- b. Inoiz bein akordau jataz neuri be neure urteak (Ag Kr 121)

Ostean, semantikoki loturik dagoen *ahaztu* (edo *ahantzi*) predikatua aztertuz gero ikusten denez, bietara ageri da esperimentatzailea, datiboaz eta absolutiboaz.⁷⁹ Datibodunak dira ondoko adibideak:

- (134) a. Ene memoriari eztzaio sekulan ahantziko ene baithan egoteko egiñ darotazun ohorea (Gç 119)
- b. Aztuko jako ikasi eban erderia (Mg CO 110)
- c. Goizean takoiak jantzi dituzula ahaztu zaizu eta oreka galdu duzu aulki ergonomikotik altxatzean (*Eta handik gutxira gaur*, E. Rodriguez, 62)

Datibogabeko *abs^{esp}/post* konfigurazioa ere ezaguna da oso. Hala ere, interesgarria da, hizkeren arteko aldakortasunera begira, OEhk (I: 57-8) *ahaz-*

⁷⁸ *Akordatu*. “Tr. Sólo se emplea al Sur, y por los autores más descuidados. Parece que lo utilizan más los vizcaínos. A partir de 1850, únicamente bersolaris y autores populares.” (OEh I: 545)

⁷⁹ Mikel Urdangarinen *Badira hiru aste* kantuan, eremu semantiko honetako zenbait predikaturen konfigurazioak ikusteko aukera ematen dio irakurle kantazaleari, adibidez, *zuekin beti oroitzen banaiz / ahaztu naizenik ez pentsa / sentimenduak esaten baina / ez da hain gauza erreza*; edota kantaren amaieran, “*loriak udan*” kantatzen baitut / *inoiz gutxitan ez uste / letrak ez ditut oraindik ahaztu / akordatzen naiz hainbeste*.

turen konfigurazio datibogabeaz dakarren oharra. Itxuraz, konfigurazio hau mendebaldekoa eta berantiarra da:⁸⁰

- (135) a. Aztu arren zeu neugaz (Urqz 25)
- b. Zuzaz ni ahantz aantzi banendi, neronen izena aantzia (aztua) izan ditela (A *Ardi* 144)
- c. Ta alkarrekin aztu edo oztu egin giñan pixka bat (Uzt *Sas* 23)

Gogoratu, oroitu eta abarretan, ikusi dugunez, bi konfigurazioak aurkitzen ditugu. Hori bera esan daiteke *gustatu* edota *interesatu* aditzez ñabardura batez: bi predikatuok ere *abs^{esp}/post* konfigurazioaren aztarnak erakusten dituzte, nahiz eta ez diren ez asko ez orokorrak. Hala, *gustatu* aditzarekin badira ondokoak bezalako inakusatibo datibogabeak (OEH IX: 46), esperimentatzaile absolutibo hutsa azaltzen duena lehena (a), eta horretaz gain, estimulua postposizio batez adierazten duten hurrengo biak, instrumentalaz bata (b) eta soziationaz bestea (c):

- (136) a. Muthikoek etzuten zurezko zaldirik. Ukanik ere etziren gustatuko (JEtchep 16)
- b. Ori nitzaz gustatzen zala (PE 86)
- c. Aurreneko begiradan elkarrekin gustatu baziren ere [...] amodio hura etzen inoiz posible izan (Arti *Ipuin* 76)

Azken bi adibideetan, *gustatu* predikatuaren adiera oso gertu ikusten dugu Sarasolak (2008/09) EEHn, “sexualki edo erakarria gertatu” adierapean jasotzen dituen konfigurazio bereko adibideetatik:

- (137) a. Hain segur ere, zakur zorrizu bati bezala eginen genion ihes, Charly hartaz gustatu ez balitz (*Rock’n’roll*, A. Epaltza, 188)
- b. Itziar izeneko batek bota zun: Emengo ze neskakin gustatzen zera? (*Uda betiko balitz*, X. Mendiguren Elizegi, 92)

Kontuan izan, hemen ere, instrumental eta soziationaz postposizioak ditugula, hurrenez hurren, tradizionatik jasotako goiko adibideetan bezala.

Aipatutako adibideez gain, *Herria* aldizkarian, *gustatu* datibogabearen erakusgarri batzuk aurkitu ditugu, nahikoa antzekoak denak eta kutsu inpersonala dutenak —asko eta askotan, *jendea gustatu da* bezalakoak dira—:⁸¹

⁸⁰ Halaxe dio OEHk (I: 57-8): “La construcción con el comitativo (*-gaz*, *-(r)ekin*) es occidental y tardía (hoy V, G-goi...) (...) Esta distinción de régimen en verbos de ‘recuerdo’, ‘olvido’ constituyen una diferencia dialectal importante.”

⁸¹ Halako gehienak pilota partidetak kroniketan agertzen direnez, ez dakigu ez ote diren idiolekto bereko datuak.

(138) Astelehenean ainitz gustatu da partida huntan⁸² merkatuko jendea (*Herria*, 2004-05-13, 7)

Bestalde, *interesatuk*, tradizioan oso agerpen mugatua duenak, gaur egungo euskararen orokortua dirudi. *Interesatuk* ere dagoeneko ezaguna zaigun inakusatibo datibodun/datibogabe alternantzia erakusten du (a,b vs. c,d), eta inakusatibo soila denean, estimulua batzuetan instrumentalaz (c) eta besteetan —guretzat interesgarria dena—, datiboaz (d,e) markatzen da:⁸³

- (139) a. Kixotea —dio Menard-ek— izugarri interesatzen zait, baina ez zait iruditzen, nola esan?, ezinbestekoa (*Ipuin hautatuak*, J.L. Borges / J. Garzia, 1998)
- b. Bestetik, hizkuntz gaitan Chomskyk hartutako ikuspegi kognitiboa, hizkuntzalariei ez ezik, filosofoei eta psikologoei ere interesatu zitzaizen laster (*Egitura sintaktikoak*, N. Chomsky / I. Laka, 2003)
- c. Ikusmolde anatomista-naturalista batetik interesatuko dira gizakiaz, behiala Joanes Huarte Donibanekoa bezala (*Filosofiako gida*, Askoren artean, 277)
- d. Itsasgintzako artxibak ikerturik, Baiona eta Donibane Lohizunekoak partikulazki, interesatu da gehien bat 17. mendeko euskal arrantzaile eta mariñelen biziari, berezikiago istas-lasterkarieri, eta orduko ingurugiroari (*Herria*, C. Lugat, 2004-12-16, 8)
- e. Margotzen hasi nintzenetik interesatu naiz formari Picasso eta Modigliani gisako artisten bidez besteak beste. Iraganeko Euskal Herri lasai eta koloretsua, (*Herria*, N. Arbelbide, 2004-03-25)

Azpitarratzekoa da (a) eta, adibidez, (e) konparatzen ditugunean ikusten duguna. Hasi gaitezen (d,e) adibideetatik. Irakurlea dagoeneko konturatuko zen arren, komeni da esatea (d,e) adibideetan *interesatu* aditzak esperimentatzaile absolutiboa erakustez gain, datibo kasuz markatzen duela estimulua (*abs^{esp}/dat* konfigurazioa da, beraz), eta datibo horrekin ez duela komunztadura egiten aditz laguntzaileak —*interesatu da/naiz* adizkietan—. Komunztadurarik gabeko datiboa erraz jaso daiteke Fernández & Landak (2009), Ortiz de Urbinaren (1995) ildotik, sailkatutako datibo-postposizioen artean, *interesatu* aditza bera datibo/postposizio alternantziadun aditzat hartuz. Kontuan izan, orain mintzagai darabilgun alternantzia nagusia esperimentatzailea datiboa ala absolutiboa ote den zehaztean datzala —edo nahiago bada, inakusatibo datibodun ala datibogabea ote dugun—, eta horren harira aipatu dugula *interesatu*

⁸² Batzuetan estimulua inesiboaz markatzen da, adibide honetan bezala. Beste batzuetan instrumental edota soziatiboaz. Badira azkenik, esperimentatzaile absolutibo soila erakusten duten adibideak.

⁸³ Konfigurazio honetako adibiderik ez dago jasota EEHn.

aditza. Horrek ez du esan nahi aditz berak bestelako alternantziarik erakutsi ezin dezakeenik, osagarriaren markapena kontuan izanda, adibidez. Izan ere, goiko adibideetan ikusi dugunez, esperimentatzaile absolutiboa dugun kasu horietan, estimulua postposizioaz (c) edota datiboaz (d,e) marka badaiteke, horrek aukera ematen digu *interesatu* aditza, *fidatu* edota *ohartu* bezalakoen artean sailkatzeko, datibo/postposizio alternantziadunekin batera, alegia.⁸⁴

Bada, konpara ditzagun orain (a) eta, esaterako, (e) adibidea. Lehenean datiboa esperimentatzailea da eta absolutiboa estimulua (*dat^{esp}/abs*); bigarrean, alderantziz gertatzen da: absolutiboa da esperimentatzailea eta datiboa estimulua (*abs^{esp}/dat*). Bi konfigurazio ditugu, beraz, eta ez bakarria, eta datiboari dagokionez, biak, esperimentatzaile zein estimulua markatzen ditu. Gainerakoan, lehena da, dudarik gabe, komunztadura halabeharrez zaintzen duten datibo horietakoa; bigarrenak, aldiz, adibideek erakusten duten moduan, komunztadura nekez zaintzen dutenetakoa —ikus Fernández & Landa (2009), Fernández, Ortiz de Urbina & Landa (2009)—.

Nola edo hala inakusatibo datibodun edota datibogabe modura azaltzen diren aditzak dira orain arte ikusitako guztiak. *Laketu* aztertzen hasi besterik ez dago ikusteko aditz honekin ez dagoela *dat^{esp}/abs* oinarritzko konfiguraziorik —*laketekin* ez bezala—, datibo/postposizio konfigurazioa baino (*dat^{esp}/post*). Hona adibide bat:

(140) Ez ote zaitzu lakhetu zure desterruan (Brtc 88)

Izan ere, OEHri (XI: 224-5) begiratu gero, bederen, estimulua nagusiki inesiboaz markatzen dela dirudi, eta ez absolutiboaz —inesibodun osagarriari buruzko atala aurkituko du irakurleak OEHn, ez absolutibodunena—.⁸⁵ Gorago, *gustatu* predikaturekin estimulua inesiboaz markaturik ikusi dugu, baina kasu hartan, esperimentatzaileak absolutiboa erakusten zuen, ez datiboa; oso kasu ezberdinak dira, beraz. Geroago ikusiko dugunez —ikus 3.3.2 atala—, estimulua inesiboaz markatzeaz gain, esperimentatzailea datiboaz erakusten dituzten adibideak ere (*dat^{esp}/ines*) bestelako aditz batzuekin ere aurki ditzakegu testigantza klasikoetan, bederen.⁸⁶

⁸⁴ Funtzio gramatikalen aldaketa hauen gainean horrenbeste lan egin zuen Erlaziozko Grammatikan (Perlmutter 1983; Perlmutter & Rosen 1984), *chômeur* izango litzateke postposizio sintagma konfigurazio honetan, hau da, periferiara eramandako argumentu nagusi bat. Eta periferian, jasoko du, hain zuzen, postposizioa, dela instrumentala, hizkuntza askotan honetarako ere erabiltzen dena, dela bestelakoa —soziatiboa eta, are, datiboa, ikusi dugunez—.

⁸⁵ Nominalizaziodunak dira salbuespen bakarrak OEHn: *Gizon gazteari laketu zitzaion eske ibiltzea* (HU Zez 37). EPGen absolutibodun adibideak izan badira, baina ez dira batere fidagarriak, itzulpen lanetan aurkitzen baitira, itzultzailearen beraren hizkerakoak ez diren arren —esate batera *Harreman arriskutsuak* (De Laclos / J. Muñoz, Ibaizabal 1997), itzulpenean agertzen dira hauetarik zenbait—. Hauek ez ditugu, jakina, kontuan hartuko.

⁸⁶ Hala ere, mota honetako adibide batzuetan badirudi *laketuk gustura egonen* moduko adiera duela. Hala balitz, honelakoetan ez genuke benetako aditz psikologikoa izango, eta inesiboan dagoen osagarriak lekua adieraziko luke.

Horretaz gain, aditz honen tradizioko erabilerak aztertzen ditugunean, *dat^{esp}/post* konfigurazioaz gain, itxuraz berezkoak zaizkio baita *abs^{esp}/post* konfigurazioko adibideak, eta nahikoa orokorrak dirudite estimulua inesiboaz erakusten dutenak. Halako adibideak tradiziotik (OEH XI: 224-5) nahiz gaur egungo euskaratik jaso daitezke:

- (141) a. Haur da ene seme maitia, zointan onsa laketu bainiz (Bp II 28)
- b. Laster laketu zen bere herri berrian (Lf *ELit* 270)
- c. Lehenago ez zen holako arto landarik Landesetan; orduan ezkurra eta pahatxa zuten beren hautuzko janaria, beraz errexkiago lakezzen ziren hemengo oihanetan (*Luzaiden gaindi*, A. Aintziburu / J.B. Etxarren, 87)
- d. Aterpe anakroniko honetan, berehala laketu naiz, bereziki agertu zaigularik etxeko jauna, Jato, kanpoko lanei dagozkien soinekoak dituela (*Santiago oinez*, P. Aintziart, 191)

Gainerakoan, *laketu* ageriko subjekturik gabeko mendeko perpaus jokatu-gabe batean badago, ez dugu zuzeneko ebidentziarik subjektuaren kasua absolutiboa dela baieztatzeko. Ezin jakin, beraz, esperimantatzailea datiboaz ala absolutiboaz ote dagoen ondokoetan:

- (142) a. Sensatu behar da [...] guztiz kontentatzen, gauza sinpletan lakhetzen (SP *Imit* III 11, 3)
- b. Gogoa hartzen baitugu halako atsegintasunean lakhetzeko (SP *Phil* 448)

Edozein modutan ere, kontuan izan adibide hauetan, inesiboaz markatutako osagarriak ez duela lekua adierazten. Oso bestela, estimulu psikologiko bati dagokion inesiboa da.

Bide luzea egin dugu konfigurazio inakusatibo datibodun zein datiboga-bea duten predikatuei segika. Itzul gaitezen orain atalaren hasierara gogortzeko badirela konfigurazio datiboduna izan arren, datibogaberik izan ezin dezaketen predikatuak, *begitandu*, *bururatu*, *iruditu* eta *otu*, alegia. Horrek esan nahi du esperimantatzailea datiboaz baino ezin marka daitekeela konfigurazio iragangaitzean, eta ez duela, hortaz, absolutiboaz azaltzerik —ikus 3.2 atalean *bururatu* eta *iruditu* predikatuen beharrezko argumentuez esandakoa—. Hala, *begitandu* eta *otu*⁸⁷ predikatuei dagokienez, ondoko adibideen modukoak baino ez ditu aurkituko ditu irakurleak:

⁸⁷ OEhk (IV: 475-6) Orixeren adibide bakarra dakar konfigurazio iragankorrean “representar” adierarekin: *Au ez da irakurri bakarrik, entzun bakarrik egitten, baita ikusi ere yardule edo begitantzale nabarben orrik begitandu oi dutena* (Or *LEItz* 40s). EPGen, bestalde, adibide

- (143) a. Une atan beratan artu eban emakume donga arek itxura bildurgarri bat, allagiña ze, begitandu jakon piztija ikaragarri bat (Ur *MarII* 28)
- b. Begitandu jakon, mundurik mundu urtenda, olgau ta olgau eginda, aztuko jakola (Mg *CO* 189s)
- c. Galdu naz ba otu iatan; baiña etzan alan igaro (Ag *AL* 145)
- d. Nori otu lekiyo Barakaldoko Desiertuen bixi leitezela basapiztiyek? (Kk II 152)
- e. Somera kalea sartzean kantuez libre izango zelakoan, Bizkaiko aberatsena otu zitzaion (*Berandu da gelditzeko*, U. Iturriaga, 39)

Perpausak diren estimuluak erakutsi ditugu (b-d) adibideetan —gehienak halakoak direlako aztergai ditugun bi predikatuekin— eta perpausak normalean —ez beti— absolutibo argumentu bati dagozkio. Dena den, zalantzak argitzen joateko, (a,e) adibideetakoak, absolutibo argumentu garbiak dira. Beraz, *dat^{esp}/abs* konfigurazioa dugu hau, baina orain arte aztertu ditugun predikatuetan ez bezala, datibodun konfigurazio honek ez du alternantzian konfigurazio datibogaberik erakusten. OEHN ez dugu bat bera ere aurkitu eta EPGen, *begitanduk* erakusten duen datiborik gabeko konfigurazio inakusatibo bakarria inperzonal da:

- (144) Arraroa begitandu badaiteke ere, ez nuen arrapostua ongi asmatzen (*Berria*, 2004-08-10)

Otuk ez du bat ere ez.

Kontua litzateke jakitea zer dela eta duten predikatuok murriztapen hori, aztertu ditugun gainerakoetatik bereizten dituen. Guk ez dugu momentuz zergati horren inguruko erantzunik.

3.3.2. *Inakusatibo datiboduna: ohar bat datibo-postposizio konfigurazioaz*

Goian predikatu inakusatibo datibodunak aztertu ditugunean, nagusiki esperimentatzaile datiboa eta estimulu absolutiboa aurkitu ditugu oinarrizko konfigurazioan. Kontua da predikatu hauek xehetasunez behatzen hasiz gero, orduan nahikoa bitxia den beste konfigurazio bat aurkitzen dugula zenbait predikaturekin, esperimentatzaile datiboaz gain, estimulua postposizio bi-

ia guztiak konfigurazio inakusatibo datibodun honetakoak dira. Liburuetan, salbuespen bakarrak, nahikoa idiolektalak diruditenak, Koldo Izagirrenak dira, adibidez, *Zeremonia gisa, bai, begitandu nuen neure heriotza*. Adibide guztietan, “imajinatu, irudikatu” adiera duela dirudi. Prentsan dauden hiru adibideetatik bitan, adiera itxuraz bereko *begitandu* iragankorrak ditugu. *Otuk* salbuespen iragankor bat bakarria du *Hamlet* (W. Shakespeare / J. Garzia, Ibaizabal, 2002) itzulpenean.

tartez adierazten dutenak —*dat^{esp}/post* hain zuzen—. *Laketu* aipagai izan dugunean agertu zaigu konfigurazio hau lehenengoz —3.1 atalaren hasierako taula alde batera—, eta urria izanik ere, aparte aipatzea merezi duelakoan gaude.

Abia gaitezen adibideetatik, errazago ulertuko delakoan. *Damutu* predikatuak erakusten du konfigurazio berezi hau eta OEHTik jaso ditugu bere erakusgarriak. Izatez inakusatibo datibodun itxura duen *damuturen* adibideak dira, eta adibide horietan esperimantatzailea datiboaz adierazten da, baina espero litekeenaren kontra, estimulua/gaia ez da absolutiboaz markatzen, postposizio sintagma batez baino. Hala, *dat^{esp}/post* itxura hartzen du predikatuak halakoetan. Inakusatibo datiboduna da, beraz, estimulua postposizio batez adierazten den arren, ez absolutiboaz. Ikus dezagun adibideetan:

- (145) a. *Damutu* zaio eginaz/egiteaz
- b. Etzitzaion sekulan *damutu* arekin ezkonduaz (Mb *IArg* I 180)

Forma hauen berezitasuna da postposizioa izanagatik ere, esperimantatzaileak oraindik ere datibo marka erakusten duela, eta *dat^{esp}/post* itxuraketa hori ez dela bat ere arrunta euskal gramatikan. Izan ere, goiko atalean aztertu ditugun alternantziatan, datibo/absolutibo eta absolutibo/postposizio modura irudikatu dugu esperimantatzaile/estimulu pareak. Hemen, baina, *dat^{esp}/abs* eta *abs^{esp}/post* pareen gurutzaketaren ondorioz sortutako formak ditugula dirudi. Forma hauek nahikoa bakanak dirudite, eta ezin daitezke orokortu sail bereko beste aditzetara. Dena den, antzeko formak ere badira, esaterako, *urrikitu* predikatuaren ondoko erakusgarriak instrumentalarekin:

- (146) a. *Urrikitu* baizitzaion gero bere leheneko garratzegi izanaz (SP *Phil* 318)
- b. Hala egiñaz hamar miller adiz zaie *urrikitu* (Gy 83)
- c. Floket framazon, erlisionearen etsaienatarik bat hil zenean, egin gaizkiaz *urrikitu* gabe (HU *Aurp* 173)

Laketuk ere antzeko konfigurazioak dituela aipatu dugu gorago. Areago, gogoan izan *laketuk* ez duela datibo/absolutibo konfiguraziorik —hau da, atal honetako aditz guztiei batasuna ematen dien ‘oinarrizko’ konfigurazioa— eta esperimantatzaile datiboa izan arren, estimulua postposizioaren bitartez markatzen duela. Inesiboarekin, ez dira gutxi OEHTk dakartzan testigantza klasiakoak:

- (147) a. Erlei lakhetzen zaie bere eztiaren ingurunean (SP *Phil* 514s)
- b. Ene Jainkoa, zure legean lakhetzen zait (Ch III 55, 3)
- c. Ez ote zaitzu lakhetu zure desterruan (Brtc 88)

Eta soziationarekin ere jasotzen dira batzuk:

- (148) a. Zurekin ere zizaion / gehienik lakhetu (EZ *Eliç* 414)
- b. Lakhatzen zaio egiatiekin eta ez enganariekin (SP *Imit* III, 54, 6)

Ahaztu ezberdina izanik ere —ezberdina, diogu, bere kasuan, datibo/absolutibo konfigurazioa orokorra delako—, baditu datibo *dat^{esp}/post* konfigurazio berezi honen erakusgarri batzuk, datuak arretaz begiratzuz gero ikus daitezkeenez. Ez dira *laketur*ekin bezala, aditzaren konfigurazio nagusiaren eredu, baina halako ale batzuk aurkitzea sorta bereko aditza izanik, zerbaiten erakusgarri izan liteke:

- (149) a. Ezpazaio aztutzen examinaren faltaz (Iraz 64)
- b. Ona da, bere kulpaz ahaztu ezpaiako (Cb *CatV* 82)

Zaila da halako formen gainean orokortzeak bai baitirudi aditz batzuekin baino ez direla jasotzen, eta aditz horietako batzuetan, erakusgarriak ez baitaude behar bezain orokortuak —guk aztergai darabiltzagun hauen artean, aipatu ditugun laurekin baino ez—.

Printzipioz, *dat^{esp}/post* konfigurazioa *dat^{esp}/abs* oinarritzkoagoaren aldaera mugatua dela uste badugu, ez dugu espero halako konfigurazio berezirik sorta honetako datibo espermentatzaileadun aditzetan ez bada. Areago, iradoki dugun bezala, *dat^{esp}/abs* eta *abs^{esp}/post* konfigurazioen gurutzaketa moduko bat dela interpretatzen badugu, espero duguna ez da bakarrik espermentatzaile datiboak onartzen dituzten predikatuekin agertzea, horrezaz gain, sorta honetako aditzetatik *abs^{esp}/post* ez dutenek ere —alegia, *begitandu*, *bururatu*, *iruditu* edota *otu*, adibidez—, alternantzia berezi honen erakusgarririk ez izatea espero dugu, estimuluak ez baitu printzipioz postposizio bitartez agertzerik.

Konfigurazioa erakuts lezaketen aditzak, beraz, ez dira asko, eta *de facto* konfigurazio hau erakusten duten aditzen aztarnak urriak izanda ere, oso hipotesi interesgarritara eraman gaitzakete. Esate batera, gure lanaren hasieran ezarri dugun predikatu tipologian, oinarritzko predikatu sailtzat hartu ditugu absolutibo eta ergatibo sailak, predikatu inakusatibo eta inergatiboaren artean bereizi ditugunak. Diferentziak diferentzia, eta izenak izen, antzeko sailak bereizi izan dira euskalaritzan. Bada, halako formek erakusten dute datibo soilko sail hipotetiko bat ere badagoela, eta datibo horren agerpena ez datorrela nahitaez absolutibo baten eskutik, hau da, ez dela beharrezko absolutiboa izatea, gero datiboa ere izateko —*dat^{esp}/post* sail honetan estimulua/gaia ez da-eta absolutiboa, postposizioa baino—. Hortaz, inergatiboetan, adibidez, ergatibo argumentu bakarrek egiturak ditugun moduan, edo inakusatiboetan, absolutibo argumentu bakarrek, pentsatzekoa da datibo argumentu bakarrek egiturak ere izan litezkeela hipotetikoki, eta izatez, euskaraz erakusgarri gutxi eta itxuraz nahikoa bakartuetan ditugun arren, giza-hizkuntzak

horretarako aukera ematen digula. Begiratzea besterik ez dago ingurura: datibo kasuaz markatutako argumentu bakarreko egiturak izan badira munduko hizkuntzetan. Goian islandiera aipatu dugu, nahikoa kasu paradigmaticoa delako, baina ez da islandiera adibide bakarra. Indiaren barruan bakarrik, kannadaera, hindi-urduera, banglaera, tamilera eta beste batzuk aipatzen dituzte Bhaskararao eta Subbaraok (2004). Eta hizkuntza hauetan ere, esperimentatzaileak izaten dira konfigurazio hauetako subjektuak.

Berez ez luke horren harrigarria izan beharko halako formak izateak, kontuan hartzen badugu, behintzat, datibo soileko egitura horietan, datibo bera dela subjektua, eta subjektua dela, azken finean, perpausean halabeharrez dugun argumentu bakarra. Hortaz, absolutibo, ergatibo, datibo argumentua izan, baldin eta subjektua bada, orduan nahikoa izan behar luke perpausearen oinarria egokiro sortzeko.

Ez dugu, baina, oinarrizko predikatu tipologia lausotu nahi, *damutu*, *urrikitu*, *laketu*, edota *ahaztu* aditz gutxi batzuen konfigurazio bereziak aintzat hartuta. Nahiago dugu halakoak tentuz hartu eta lanean zehar gogoan eduki, badaezpada antzeko erakusgarriak agertuko balitzaizkigu lanean aurrera egin ahala. Nolanahi ere, euskal gramatikak, guk dakigula, behintzat, ez du halakoen testigantza jaso eta oinarrizko konfigurazioetan ez bada ere, aukera tipologiko honen erakusgarri gisa jaso beharko ditu aurrerantzean.

3.3.3. Konfigurazio iragankorrek: esperimentatzaile ergatibo eta absolutiboak

Orain arteko lerroetan, euskaraz esperimentatzailea nagusiki datiboaz markatzen dela ikusi dugu, eta kasu askotan, baina ez beti, absolutiboarekiko alternantzia erakusten duela. Badira, halaber, bestelako alternantziak ere, nahikoa mugatuak diren arren. Esate batera, sorta honetako aditz batzuetan, esperimentatzailea ergatiboaz markatzen da eta estimulua absolutiboaz, *erg^{sp}/abs* konfigurazioan. *Damu (izan)* predikatua erabili behar izan dugu 3.1 ataleko taulan, *damutuk* berak ez baitu konfigurazio hau erakusten —itzuliko gara honetara beherago—. *Damu (izan)* predikatuaz gain, *laket (izan)* batzuetan konfigurazio iragankorrean agertzen da, eta halaxe ikus daiteke ondoko adibideetan:

- (150) a. Gure eskuara ere laket dugu (HU *Aurp* 205)
- b. Edari, kafe, xokolet, / nork ere baititu laket (Etcham 188)
- c. Laket du xume agertzea munduaren begietan (Lg I 303)
- d. Orok laket zuten harekin mintzatzea (HU *Aurp* 97)

Nolanahi ere den, badirudi konfigurazio iragankor hori *laket (izan)* predikatuak bakarrik duela eta ez horrenbeste *laketu* aditzak. Berez, *laketuk* badu forma iragankorraren erakusgarri bat, adiera nagusian ez den arren

—“hallarse, estar a gusto” esanahiaz jasotzen du OEhk (XI: 225)—. Bertan ez dugu absolutiboaz markatutako osagarririk, inesiboaz markatutakoa baino, lehenago konfigurazio inakusatiboan bezala:

(151) Ez du gure eskualdetan laketzen arranoak (Zerb *Azk* 85)

EPGen *laketu* konfigurazio iragankorreen dauden adibide urrietatik, badago bat azken honen modukoa dena:

- (152) a. Agian ongi laketuko du gure artean (*Herria*, 2004-10-28)
b. Beharbada lanean nonbait ari izan ondoan, hemen gaindi laketu zuketean (*Luzaiden gaindi*, A. Aintziburu / J.B. Etxarren, 20)

Neurri batean, konfigurazio hau ikusita, inergatibotzat hartuko genuke *laketuren* itxuraketa hori: inergatiboa —eta ez iragankorra— diogu, ez baitago ergatibo/absolutibo oinarritzko konfiguraziorik,⁸⁸ ergatibo/postposizioa baino. Hala ere, erabilera mugatu honek gorago 3.3.2 ikusitako *laketuren* beste erabilera mugatu baten aldaera ematen du. Goian eman dugun adibide bat errepikatzen dugu jarraian:

(153) Laster laketu zen bere herri berrian (Lf *ELit* 270)

86 oin-oharreen iradoki dugun bezala, adibide honetako inesiboak estimulua gabe, lekua adierazten duela dirudi. Gainerakoan, nominalizaziodun adibide bakarra dakar OEhk, *laket*en goiko adibideen pareko izan litekeena, eta be-
ra, bai, konfigurazio iragankortzat har genezake:

(154) Bakezko gizona zen eta bake denboretan, oraiko hauk ez bezalakoe-
tan, bizitzea laketuko zukena (HU *Aurp* 179)

Salbuespenak salbuespen, beraz, ez dirudi *laketuk laketek* erakusten duen forma iragankor hutsa duenik, edo nominalizaziodun lehengo adibide bakarrari begira, oso erabilera murriztua duela pentsa liteke, tradizioari begira, behintzat. Hortaz, ez dirudi oker gabiltzanik badiogu *laket* formak konfigurazio iragankorra duela eta *laketuk*, berriz, ez —goiko salbuespenak gora-behera—.

Hari honetatik segika, salbuespen hau eta egon litezkeen beste batzuk alde batera, interesgarria da *laketuko*, *laketzen* iragankorrik ez egotea: ageriko aspektu markarik gabe agertzea halakoetan *laket* aditza ez delako sei-

⁸⁸ Corsintaxek *laketuren* konfigurazio iragankorreen, orotara bost adibide baino ez ditu erakusten. Euretatik aipatu ditugun biak dira, gure ustez, kontuan hartzekoak. Gainerako hirurak ez dira *laketuren* jatorritzko euskalki eremukoak.

naletzat har daiteke. Orduan, *laket du* predikatuan, **edun* da aditz nagusia. Halaxe adierazi dugu Fernández, Ortiz de Urbina & Landa (2009) lanean, eta ildo honi jarraituko diogu geroago ere —6.2 atala—.

Laket/laketu pareari buruz esandakoa nahikoa orokortu daiteke sail bereko gainerako aditzetara —*damu(tu)*, *dolu(tu)*, *urriki(tu)*, etab—. Inoiz badira konfigurazio iragankorraren aztarnak, baina murriztapen nahikoa handiekin. *Damu*, etsenplurako, predikatu gisa ageri zaigunean —*damu (izan)*— orduan izan badira konfigurazio iragankorrak. Esperimentatzailea orain ere ergatibo argumentua da, goian *laket* predikatuarekin ikusi dugun bezala. *Damutu du* iragankorraren ale bat dakargu amaieran honelako adibide bakanen lekuko:

- (155) a. Damu dut hori egina(z)
- b. Dolu dizit eta damu zure kontra eginaz (E 41)
- c. Urriki dut eta damu hain itsuski faltatuz (EZ *Man* II 34)
- d. Damu dot, Jauna, biotz osotik zeu ofendidua (CatAnz 1)
- e. Damu debala pekatu Jaungoikoaren kontra egina (OA 142)⁸⁹
- f. Europako Kontseiluak, ostera, damutu du Alexandriako epaileek hartutako deliberoa (*Berria*, A. Sokarros, 2006-04-05)

Adibideok erakusten dute, halaber, *dolu* edota *urrikik* ere *damuren* konfigurazio iragankor bera daukatela, baina oso nekez aurkituko du irakurleak halako konfigurazio iragankorrik *dolutu* edota *urrikitu*⁹⁰ aditzekin. *Dolutuk* ez du testigantza klasikoetan halako alerik erakusten eta EPGen ondoko hau baino ez dugu aurkitu:

- (156) Frankismoaren garai benedikatua dolutzen du, euskaldun asko debrua-
ren ume zaizkiolarik (*Herria*, 2003-02-20, 3)

Antzera esan genezake baita *begitandu* edota *garbatu* aditzez ere.

Bada, gainerakoan, adibideei begira aipagarria den beste alderdi bat: esperimentatzailea ergatiboaz markaturik agertzeaz gain, (a,b,c) adibideetan behintzat, osagarria ez dago absolutiboaz markaturik, espero litekeen bezala, instrumentalaz baino —*kontra eginaz* (b), adibidez—. Halako egitura predikatiboek ‘postposiziodun inergatibo’ moduko konfigurazioan pentsarazten digu, kasuistika zehatza orain egin asmo ez dugun arren, goian *lake-
turekin* ikusi dugun bezala. Bestalde, *damu*, *dolu*, *urriki*, determinatzaile-
gabe agertu arren, osagarriek bezala jokatzeko dutela pentsa daiteke, absolu-

⁸⁹ Adibide hauetan guztietan, ikusten denez, perpaus jokatu gabea da estimulua.

⁹⁰ Salbuespen bakarra da *urrikituk* “escatimar, recortar” adieraz erakusten duen konfigurazio iragankorra. OEHk (XV: 868) adibide bakarra jasotzen du adiera honetan: *Zer geizkiak ez derabil-
tzate de Gaullen kontra, duelakotz Amniztia edo Ahanzteia hurrikitu...* (SoEg Herr 25-8-1966, 1)

tibo kasua nolabait eskuratuz, *hitz eginen* moduko predikatu inergatibo konplexuetan bezala.

Konturatuko zen irakurlea lerro hauetan aipatu ditugun konfigurazio iragankor aski mugatu horietan, esperimentatzailea ergatibo kasuaz markatzen dela. Ez dira asko ezta, konfigurazio iragankorrean, esperimentatzailea absolutibo kasuaz markatzen duten sail honetako predikatuak, adibidez, *harritu* bezalako predikatu psikologiko batek erakusten duen konfigurazio iragankor arazlea izan dezaketenak. ‘Arazle’ diogunean orain, inkoatibo/arazle alternantziaren atonketa iragankorraz ari gara, hau da, *ireki da/dut* bikoteko bigarren atalaren antzeko forma batez. Esate baterako, goian *damutu* aditzaz esan dugunez, ez dago esperimentatzaile ergatiboa erakusten duen konfigurazio iragankorraren adibiderik —*erg^{esp}/abs*—. Aldiz, *damutu* iragankorra ere jasotzen du OEHK (VI: 17) “*entristecer, hacer arrepentirse*” adierarekin, eta konfigurazio iragankor horretan, esperimentatzailea absolutibo argumentua da —*erg/abs^{esp}*—:

- (157) a. Gizonek lurrian egiten duten mesprezioak etzaitu damutuko (SP *Imit* III 41, 1)
- b. Damutzen duena infernuak (Mg *CC* 37) (CO 47 damututen)

Kontuan izan, beraz, konfigurazio iragankorrean, esperimentatzailea bietara ager daitekeela bai ergatibo bai absolutibo argumentu bezala, eta oraingo honetan, berriro esan dezagun, esperimentatzailea absolutibo argumentua dela, ez lehenago aipatu ditugun adibideetan bezala, ergatibo argumentua.

Ikus dezagun beste aditz batzuen jokabidea. *Interesatu* aditzak, adibidez, ez du halako forma iragankorrik testigantza klasikoetan —OEH arakatzuz gero, behintzat—, baina gaur egungo euskararen testigantzetara joz gero, adibideak izan badira, eta EEHK (Sarasola 2008/9) dakarrenez, Iparraldeko idazleen erabilera da *interesatu* aditzaren konfigurazio iragankorra:

- (158) a. Okupazio garaiko istorioek ez zaituzte interesatzen (*Anbroxio*, E. Bidegain, 117)
- b. Amerikako familiako gertakariak biziki interesatzen ninduten (*Herrria*, M. Hermine-Aguer/G. Pontto, 2005-03-31, 8)

Ez dira asko, berez, halako konfigurazio iragankorreko adibideak, baina izan badira eta itxuraz hautu dialektala da *interesatu* predikatuaren konfigurazio hau.

Damutu edota *dolotu* predikatuekin ere, are gutxiago dirudite halako konfigurazio iragankorrek. Gogoratu esperimentatzaile absolutiboak ditugula orain mintzagai —*erg/abs^{esp}*—. OEHK ez dakar bat bera ere. Dena den, Cor-sintax baliatuz adibide bakan batzuk aurkitu ditugu EPGen. Hona hemen:

- (159) a. Ezin bainuen gehiago eta damutuko ninduen ezer egin baino lehen, ikazkinari bizkarra eman eta ikaztegitik irten nintzen (*Ihes betea*, A. Lertxundi, 226)
- b. batzuetan dolutzen zintuela ikusi uste izan dut (*Harreman arriskuak*, De Laelos / J. Muñoz, 76)

Harrigarriak, beraz, eta nahikoa urriak dira halako konfigurazio iragankor-
rrak, hasieran pentsatzen genuen bezala. *Gustatuk* berak ere baditu hala-
koak, eta adibide asko ez diren arren, adibideak egon badaude (OEH IX: 46).
“Agradar, complacer” adierapean jasota daude:

- (160) a. Haren aitzinean zen Xaubadon mintzatu, / eta aditzaileak zituen
gustatu (Hb *Esk* 100)
- b. Zu gustatzen zaituenak gustatzen tu zure baithan gauza guziak
(Ch III 34m 2)

Gainera, bi adibideetan, esperimantatzailea absolutibo argumentua da lehenean
(a) eta ergatibo argumentua da bigarrenean (b), hau da, goian ikusi ditugun er-
gatibo esperimantatzaile horietako bat. Nolanahi ere, adibide klasikoak alde
batera, Corsintaxek ez digu *gustatu* iragankorraren adibide bat bera ere eman
EPG arakatu eta gero. Hortaz, inoiz izan badira, gutxi izan dira eta arrastorik
utzi gabe desagertu direla dirudi —testigantza idatzietatik, behintzat—.

Ikusi dugunez, beraz, konfigurazio iragankorra sorta honetako aditzetan,
oso mugatua da eta erakusgarriak diren arren, ez dira ez asko ez orokorrak.
Baina bada gaineratu beharreko zerbait: nahikoa sendoa den orokorpena ez
dirudi *gogoratu*, *oroitu*⁹¹ edota *ahaztu* aditzetara ere zabal daitekeenik. Iza-
tez, goian 3.3.1, euren konfigurazio datibodun eta datibogabeaz eman ditu-
gun azalpenak alde batera, konfigurazio iragankorra ere duten aditzak dira
hirurak, eta konfigurazio iragankor horren erakusgarriak historian zehar nahiz
gaur egun jaso daitezke, itxuraz murriztapenik gabe. Konfigurazio iraganko-
rrak aipatzen ditugunean, gainera, bi modutara interpretatu behar dira ergatibo
argumentuak, batetik ergatibo esperimantatzailea dutenak —*erg^{esp}/abs*— eta
bestetik, arazle direnak, —*erg^{araz}/abs*—. Esperimantatzaile ergatibokoak dira
ondoko adibide hauek:

- (161) a. Oraintxe gogoratu eban sagardo barrikoa idigita itxi ebala (Bilbao
IpuiB 167)
- b. Oroi zezala antziñakoen esakera jakintsua (Ag *G* 126)
- c. Ta nik berariaz oriek aztu ta kasorik egin ez (Cb *Eg* 92)
- d. Batzarreko giro nahasiaren ondorioen mendratzeko, Ttale Manezen
ilobaren hitzak oroitzen zituen (*Zeruetako erresuma*, I. Borda, 114)

⁹¹ *Akordatuk*, aldiz, ez du inolako konfigurazio iragankorrik erakusten.

Ergatibo arazlea dutenak, berriz, honakoak:⁹²

- (162) a. Gizon jakintsu batek esana gogoratuko diet artzaia (Munita 130)
- b. Falta guztiez orhoitzen zaitu [konzientziak] (Ax 438)
- c. Orhoitzen zaitut [...] elkharren kontrako xedeak eta nahiak dituztela (SP *Pbil* 498)
- d. Ordea inorantziak batzutan batzuei ahanzten deraue zer egin behar den (Harb 205)
- e. Ahantz diatzakidatzu munduan diren guziak (SP *Imit* III, 48, 5)

Sorta bereko aditzen artean, beraz, konfigurazio iragankorra arrotz samarra den arren, ez dirudi hori bera esan daitekeenik *gogoratu*, *oroitu* edota *ahaztu* aditzez. Azpisistema berezia dute semantikoki elkarrengandik hain hurbil dauden predikatu hauek. Besterik da jakitea ea zer dela eta ote den hori.

Bi konfigurazioak iragankorrak izan arren, diferentziak dituzte. Esperimentatzaile ergatiboa absolutiboarekin alderatuz gero:

- (163) a. Jonek^{esp} hori gogoratu zuen
- b. Jon^{esp} horretaz gogoratu zen

orduan, de Rijk (2003) antipasiboa zeritzana dugu, geuk inoiz (Fernández & Ortiz de Urbina 2009a) *postposiziodun estimuluaren alternantzia* deitu duguna —antipasibo hitza zentzu hertsizko egitura antipasiborako utziz—.

Aldiz, arazle ergatiboa eta esperimentatzaile absolutiboa konparatzen baditugu, alternantziak inkoatibo/arazlea dirudi:

- (164) a. Kontzientziak^{araz} falta guztiez orhoitzen zaitu^{esp}
- b. Zu^{esp} falta guztiez orhoitzen zara

Bata izan, bestea izan, gogoan izan *gogoraturen* eremu semantikoko aditzak direla konfigurazio iragankorretan errazen eta sarrien sartzen direnak, eta hori ez dela gainerako predikatuetara zabaltzen den ezaugarria.

3.3.4. Axola eta inporta

Datibo esperimentatzaileak ere topatzen ditugu *axola* eta *inporta* osagaiez eraikitako predikatuetan. Biak batera eta bakarka aztertuko ditugu he-

⁹² *Oroitu* (OEH XIII: 601) eta *ahazturen* (OEH I: 58) kasuetan, OEHk arazle adierako atala bereizten du. Ez, aldiz, *gogoratu* sarrerapean. Ergatibo arazleko adibidea konfigurazio iragankorreko gainerako adibideen artean atera dugu.

men, ezaugarri bereziak dituztelako. Konfigurazio hau askotan agertu arren, inakusatibo datibodunen sail honetan kokatzeko arrazoi nagusia da *axola* —bien artean zaharrena eta hedatuena— diakronikoki konfigurazio honetan agertzen dela sarrien. OEHk (III: 507) dioenez, *axola dio* bezalakoxe formak berriagoak dira: hegoaldeko euskalkietan baino ez daude eta XIX. mendearen amaieratik aurrera, gainera. Gaur egun, datiborik gabeko erabilera iragangaitzak —*axola da*— oso urriak dira.⁹³ Forma inpersonalak, hau da, ageriko espermentatzailerik gabeak, iragankorrak izaten dira —*ez du axola*—,⁹⁴ eta forma pertsonalak, datibodunak beti, iragangaitz —*axola zait*— zein iragankorrak —*axola dit*— izan daitezke. Paragrafo honen hasieran, *axola/inporta* formei predikatu deitura eman diegu, kategoria sintaktikoa gabe funtzioa azpimarratuz. Arrazoa zera da: sail honetako predikatu gehienak ez bezala, *axola* izena da berez, ez aditza, eta, izen bati dagokion bezala, partitiboa har dezake polaritate testuinguruan:

- (165) Bestela, *axola du orain axola ez izateak*, edo *axolarik izango ez balu bezala egin ahal izateak* (*Eta emakumeari sugeak esan zion*, L. Oñederra, 49)

Halaber, *ez du axola handirik* bezalako esapideetan izena den *axola* horri izenlagun bat gaineratzen zaio. Izenekin lotzen diren datiboei eskaintako atala 6.2 aurkituko du beherago irakurleak, baina ordura bitartean badugu arrazoirik hemen ere aipatzeko.

Axola izen *osoa* den kasuetan, argumentua ere izan daiteke eta absolutibo kasu marka jaso dezake. Alabaina, predikatu erabileran, *axolaren* bezko izentasun hori galduz doala dirudi, eta izentasunarekin batera, baita argumentutasuna ere. Ondorioz, beste izen batek jasotzen du absolutibo marka hori. Ondoko adibideek bi konfigurazioak testu berean alderatzeko aukera ematen digute:

- (166) a. *Rufusek diru hura nahi ez izateak ez zion axola* (*Brooklyngo erokeriak*, P. Auster / O. Arana, 264)
 b. *Ez zion axola ezezagunak izatea* (*Brooklyngo erokeriak*, P. Auster / O. Arana, 349)
- (167) a. *Zer axola dizu bakeak?* (*Elizen arteko biblia*, 2 Erg, 9,18)
 b. *niri ez dit axola ni zuzen nengoen ala ez frogatzea* (*Elizen arteko biblia*, 2 Ko 13,7)

⁹³ Testigantza historikoak badira. Ondokoa, adibidez: *Axola den gauza da hori: lurra on-tzen duzu hola gasturik batere gabe* (Dv 341s).

⁹⁴ Badira, dena den, forma iragangangaitz inpersonal datibodunak, hala nola, *Eta, bilketan zearo mazpilduta gelditu arren, etzaio ajola aundirik* (TAg Uzt 207).

Pare bakoitzaren lehenengo (a) adibidean, subjektua ergatiboaz markaturik dago, eta osagarria *axola* bera dela ematen du, hiru argumentudun egitura iragankor arrunta balitz bezala.⁹⁵ Aldiz, (b) adibide bietan, beste absolutibo bat agertzen zaigu, *axola* diguna adierazten duena, hau da, gaiari dagokiona. Honelakoetan, *axola* ez da osagarria, predikatuaren parte bat baino, eta *axolak* izentasuna eta argumentutasuna galdu duenez, beste osagai bat da absolutiboaren bidez markatzen den osagarria. Izan kontuan (b) adibideetan gaia edo estimulua perpausa dela, eta absolutiboaz markatutako perpausa, gainera, nahiz eta predikatu iragankorra izan. Honetan, *merezi* predikatuaren antzekoak dira, *merezi* duena absolutiboan markatzen baita —bai eta, zuzenkeria edo hiperzuzenketa batez edo, ergatiboan—. *Axola* predikatu psikologikoa denez, badago beste argumentu bat, esperimantatzailea hain zuzen, datiboan agertzen dena. Adibide iragankorrak eman ditugu, baina antzera gertatzen da datibo/absolutibo konfigurazioa erabiltzen den gehienetan, absolutiboa gaiari baitagokio:

(168) Ximurra berandu ailegatzea ez zitzaion, nonbait, *axola* (*Rock'n'roll*, A. Epaltza, 344)

Hemen ere, gai absolutiboa ez da *axola* bera, nominalizazioa baizik, eta datiboa esperimantatzailea da guztietan. Oso gutxitan aurkitzen da predikatu hauekin bestelako kasurik esperimantatzaile argumenturako, eta ondokoa dugu horietako bat:

(169) Orduan, haren “lagun inportanteak” baizik ez zituen *axola* (*Rock'n'roll*, A. Epaltza, 385)

Nahiko aparteko kasuak dira hauek: alde batetik, esperimantatzailea ergatiboaz markatzen delako —*gorrotatu* aditzarekin bezala—, eta bestetik, horren ondorioz, predikatu honen bestelako konfigurazioetan ez bezala, datiborik agertu ez arren, esperimantatzailea agerian dagoelako —ez da hau *horrek ez du axola* bezalakoa—. Nolanahi ere den, adibide gutxitxo aurki daitekeenez, ez dugu alternantziatzat hartuko.

Azkenik, ergatibo/datibo konfigurazioak bereziki aztertzen ditugunean ikusiko dugun bestelako berezitasun bat erakusten digu *axolak*: batzuetan *datibo komunztadura inpersonala* deituko dugunaren adibideak topatzen dira, hau da, inongo argumenturi ez dagokion datibo marka. OEHK berak

⁹⁵ Ohartu beharra dago (167a) adibideko *zer* hori, absolutiboa izan arren, ez dela osagarria, neurria adierazten duen argumentu bat baino, *bost axola zait* esakeran *bost* horri dagokiona, hain zuzen. Harrigarria da, honen argitan, ondoko itzulpena:

(i) Nolanahi ere, zerk arraio inporta dit zerri izateak? (*Ahardikeriak*, M. Darrieussecq/J. Elozegi, 105)

Gaiari dagokion ergatibo kasua subjektua den nominalizazioak darama (*izateak*), eta *zerk arraio* neurriaren inguruko galdera da.

(III: 507) jasotzen du erabilera berezi hau, datiboa ‘sin referencia personal’ izan daitekeela dioenean, ondoko adibidea emanaz:

(170) Ez zaio ajolarik. Nere agindua bear bezala betetzeko, ez dezu orren bearrik (TAg 207)

Testuinguruak argi uzten duenez, *ez du axola* zentzuaz erabiltzen da predikatu haren, esperimenez gabe zentzu ‘inpersonalean’. Hauke, beraz, *berdin dio* esapidearen oso antzekoa da —bere aldetik *berdin da* formarekin alderatu daitekeena—. ⁹⁶

Jo dezagun orain *axolaren* antzera jokatzen duen beste predikatu batera, hau da, *inporta* predikatura. Hasteko, *axola ez bezala*, *ez da izena*, eta, berezia izan arren, aditzat hartuko dugu. Hala ere, defektiboa da, inongo aspektu markarik gabe azaltzen baita normalean: **inportatzen* formarik *ez da aurkitzen* EPGen, eta oso adibide gutxitan ikusten da *inportako*. *Axolaren* antzekoak dira erakusten dituen argumentu eta komuntadura konfigurazioak: inergatibo datibogabea inpersonalean (a) —*ez du inporta*—, eta, forma personalean, hots, ageriko esperimenezkoak erakusten diren horietan, inakusatibo datiboduna —*inporta zaio*— (b) zein inergatibo datiboduna —*inporta dio*— (c):

- (171) a. Galdu edo irabazi, ez zuen inporta (*Berría*, 2004-02-11)
b. Baietz ziotenen arrazoiak inporta zaizkigu (*Naturaren Mintzoa*, P. Zabala, 286)
c. Auskalo! Baina, ez dio zenbataren kopuruak batere inporta (*Naturaren Mintzoa*, P. Zabala, 278)

Forma eta erabilerearen aldetik, baliteke gaztelaniaren eragina isurtzea eredu batzuetara. *No inporta* oso esapide erabilia da, eta halako esapideak errazki igarotzen dira hizkuntza batetik bestera ukipen egoeretan. Formaren berezitasunak —**inportatzen* falta da— eta gaztelaniaren *se* gabeko predikatuak euskaraz **edun* laguntzailearekin emateko joerak predikatu honen erabilerearen alderdi batzuk azal litzake. Bestalderetik, gogoratu OEHren (III: 505) arabera, *axola zait* historia luzeko erabilera dela eta *axola dit* mende eskas batera bakarrik iristen dela. Litekeena da konfigurazio hau *inporta dit* eredupean sortu izana. Ondorioz, *axola dio* bezalakoak zabaldu egiten dira, bai eta *axola* aditz predikatu bezala tratatzeko joera ere.

Nolanahi ere, datiboaren aldetik, esperimenezkoak ezagunak dira predikatu hauenak. Eta predikatu psikologikoekin batzuetan gertatzen den bezala, datibo argumentuak subjektu ezaugarriak izan ditzake, argumentu absolu-

⁹⁶ *Ardura (izan)* ere arakatu dezake irakurleak, hemen eredu hartu dugun *axola (izan)* predikatuaren oso antzekoa da-eta.

tiboak osagarriaren jokabidea bereganatuz (Belletti & Rizzi 1988). Horrela uler daiteke, esaterako, ondoko adibidearen uztadura harremana:

(172) Bere burua axola zaio, nola eta zergatik joan zen (*Maitea*, T. Morrison / A. Garikano, 358)

Datiboak subjektua balitz bezala funtzionatzen du, honelako uztadura harremanetan subjektua aitzindaria izaten baita —ez dugu espero **bere burua Mikeli mintzatu zitzaion* bezalakorik aurkitzea—. Dena den, hau arazo sintaktikoa denez, geroago egin asmo ditugun lanetarako utziko dugu.

3.3.5. Taula bat laburpen gisa

Eredu eta azpiero asko arakatu ditugu aurreko ataletan, predikatu psikologikoen konfigurazioak eta aldaketak aztertzen genituen bitartean. Datu multzo hori nolabait laburtzearen, ondoko taulan bildu ditugu kasu esanguratsuenetako batzuk:

4. taula

PREDIKATUA	INAKUSATIBO DATIBODUNA <i>dat^{esp}/abs</i>	INAKUSATIBO DATIBODUNA <i>dat^{esp}/post</i>	INAKUS SOILA <i>abs^{esp}/post</i>	IRAGANKOR SOILA <i>erg^{esp}/abs</i>	IRAGANKOR SOILA <i>erg/abs^{esp}</i>
AHAZTU	<i>Goizean takoia jantzi dituzula ahaztu zaizu</i>	<i>Bere kulpa ahaztu ezpaia</i>	<i>Ahaztu arren zu neugaz</i>	<i>Ta nik berariaz oriek aztu</i>	ez
BEGITANDU	<i>Ondo begitaten zait hori</i>	ez	ez	ez	ez
BURURATU	bai	ez	ez	ez	ez
DAMUTU DAMU (IZAN)	<i>Damutu zaio egina/egitea/ emandako hitza</i>	<i>Damutu zaio eginaz/ egiteaz/ emandako hitza</i>	<i>Damutu da bere itsumenaz</i>	ez <i>Damu dut hori eginaz(z)</i>	<i>Mesprezioak ez zaitu damutuko</i>
DOLUTU DOLU (IZAN)	<i>Etzitadazu dolutu zureki esposatzea</i>	ez	<i>Nehoz ez da dolutuko</i>	ez bai	ez ez
GARBATU GARBAI (IZAN)	<i>Garbatu jako berori ezagutua</i>	ez	<i>Ez ziran garbatuko pekatubagaz</i>	ez	ez

PREDIKATUA	INAKUSATIBO DATIBODUNA <i>dar^{esp}/abs</i>	INAKUSATIBO DATIBODUNA <i>dar^{esp}/post</i>	INAKUS SOILA <i>abs^{esp}/post</i>	IRAGANKOR SOILA <i>erg^{esp}/abs</i>	IRAGANKOR SOILA <i>erg/abs^{esp}</i>
GOGORATU	<i>Ez zitzaien sekulan gogoraturen bere pasioneaz, ... mintzo zela</i>	ez	<i>Lagun onaz beti gogoratzen nak ni</i>	<i>Oraintxe gogoratu eban sagardo barrikoa idigita itxi ebala</i>	ez
GUSTATU	<i>Txokolatea gustatzen zait</i>	ez	<i>Nitzaz gustatzen zala</i>	<i>Zu gustatzen zaituenak...</i>	ez
INTERESATU	<i>Kixotea izugarri interesatzen zait</i>	ez	<i>Interesatu da mariñelen bizinari</i>	<i>Gai horrek arras interesatzen du</i>	ez
IRUDITU	<i>Niri ondo iruditzen zait</i>	ez	ez	<i>Ikus alternantzia atala</i>	ez
LAKETU LAKET (IZAN)	ez bai	<i>Laketzen zait toki huntan</i> <i>Zurekin ere zitzaion gehienik lakhetu</i>	<i>Laster laketu zen bere herri berrian</i>	<i>Ez du gure eskualdetan laketzen arranoak Gure eskuara ere laket dugu</i>	ez
OROITU	<i>Orhoit bekizu oren bakar bat segurik ez duzulai</i>	<i>Orhoit adi herioaz</i>	ez	<i>Oroit zezala antziñakoen esakera jakintsua</i>	ez
OTU	<i>Nori otu lekiyo Barakaldoko Desiertuen bixi leitezela basapiztiyek?</i>	ez	ez	ez	ez
URRIKITU URRIKI	<i>Ala urrikitu zaitzu enekin esposatzea</i>	<i>Urrikitu zitzaion garratzegi izanaz</i>	<i>Urrikitzen naiz nire hutsez</i>	ez bai	ez?

4

Inergatibo datibodunak

Gure oraingo konfigurazio mota, iragankor datibodunaren oso antzekoa da morfologikoki, eta, euskal ikasketetan duela gutxira arte, sintaxiari gabe morfologiari eman zaionez berebiziko garrantzia, sarri askotan konfigurazio biak nahasi egin dira. Funtsean, argumentu bakarreko predikatu inergatiboek badituzte ezaugarri iragankorrak: subjektua ergatiboan azaltzen da eta hautatzen duten aditz laguntzailea **edun/ezan* motakoa da. Baina egon, ez dago iragankortzat hartzeko beharrezkoa dugun osagarririk, ez sintaktikoki, ez eta, kontrakoa dirudien arren, morfologikoki ere, 1.1 atalean dagoeneko esan dugun bezala. Osagarri zuzenaren faltagatik, beraz, ez ditugu iragankortzat hartzen. Honelakoetan datibo bat agertzen denean, osagarri sintaktikorik gabeko predikatu bati gaineratutako datiboak direla azpimarratzeko, *inergatibo datiboduna* deitu dugu predikatua. Ez diogu deitura honi berebiziko tranzendentziarik eman nahi. Dena den, erabilgarria dela iruditzen zaigu, eta 1.1 ataleko 2. taulan ikusten den sailkapenaren simetrikotasuna (eta, espero dugu, argitasuna) zaintzen du. Ez ditugu hemen aztertu nahi inergatibo eta iragankorren arteko loturak —ikus Hale & Keyser (1993), esaterako—, ez baita hori gure hemengo zeregina, nahiz eta atal honetako predikatu askok nabarmentzeko moduko alternantzia duten absolutibo eta datiboaren artean. Konfigurazioen berri ematea bera da gure helburua, eta hori da ondoko lerroetan egingo duguna.

4.1. Beharrezko datiboak inergatibo datibodunetan

Aztertu beharreko hurrengo konfigurazioa inergatibo datibodunek itxuratzen dute. Halakoetan, goian azaldu dugunaren ildotik, bi argumentu baino ez ditugu, ergatibo eta datibo kasuez markaturik, hurrenez hurren, eta **edun* laguntzaile iragankor datiboduna. Laguntzaileari dagokionez gogoratu, goian

1.1 esan dugun moduan, euskararen aditz morfologian hirugarren pertsonako absolutibo komunztadura marka \emptyset denez, *diot* bezalako formak anbiguoak direla: hiru argumentu ($-t$ ergatiboa, $-o-$ datiboa eta \emptyset absolutiboa) zein bi ($-t$ ergatiboa eta $-o-$ datiboa) isla ditzake forma honek. Euskaraz hiru argumenturekin komunztadura egiten den guztietan absolutiboa hirugarren pertsonakoa denez,⁹⁷ paradigma horretako formak anbiguoak dira.

Atal honetan, argumentu bi islatzen dituen konfigurazioez arduratuko gara, Etxeparek (2003) *bivalent ditransitive* deritzen konfigurazioez, hain zuzen: aditz morfologiaren aldetik *ditransitive* —Euskaltzaindiaren *nork-nori-nor*— direla iruditu arren, sintaktikoki argumentu bi besterik ez dutenak (*bivalent*, beraz). Guk inergatibo datibodunak deituko diegu, goian esan dugun bezala.

Hauexek dira konfigurazio hau nagusiki erakusten duten aditzak: *ekin*, *eman*, *eragin*, *erago(n)*, *erasan*, *etsi*, *heldu* eta *iritzi*. Argumentu konfigurazioa berezia denez eta saila osatzen duten predikatuak interes handikoak direnez, arreta berezia emango diegu hauei ere. Datiboaren beharrezkotasuna eta nolakotasuna izango dira orain ere gure eztabaidaren ardatzak.

Sailaren adibide sorta dakargu orain, geroago hauek eta bestelakoak aditez aditz aztertuko ditugun arren:

- (173) a. Tai gabe ekiten zion zurrutari (Etxde *JJ* 187)
- b. Emoten deutsa negarrari (Mg *CO* 54)
- c. Eragijok mutil [...] aurreko tanboliñori (*DurPl* 125)
- d. Alan erago beti gauz onen bati (Añ *LoraS* 152)
- e. Biotzeko naigabeak gorputzari asko erasan oi diote (NETx *LBB* 64)
- f. Gu gera iru probintzi, /lengo legerik ez utzi; / oieri firme etsi, / naiz hanka bana autsi (Xe 411)
- g. Gogorapen gaiztoak zuzen zuzen animari eltzen diote askotan (Inza *Azalp* 148)
- h. Zer iritziko diete 50 urteren buruan gaurko «ismuei»? (MEIG I 110)

Lehenengo adibidean (a), esate baterako, *ekin* predikatuak ez du absolutibo argumenturik, *zion* formari begira pentsa litekeen bezala. Adizki bera, konfigurazio iragankor datibodun bati lagundurik agertu izan balitz, absolutiboaz markatutako argumentua aurkituko genukeen —*dirua eman zion*, adibidez—. Bestalde, azken adibidean (h), absolutibotzat har litekeen osagaia *-zer-*, ez da

⁹⁷ Absolutibo argumentuak halabeharrez hirugarren pertsonakoa izatea *Me-lui murriztapen* edo *Pertsona Kasuaren Mugari* zor zaio. Murriztapen hau euskaraz aztertzeke, literatura oparoa du eskura irakurleak. Zenbait lan baino ez aipatzearren, honakoak: Albizu (1997, 1998), Ormazabal (2000), Ormazabal eta Romero (2007), edota Rezac (2008, 2009).

argumentu bat, osagai predikatibo bat baizik. Jo dezagun (h) galderari *astakeriak* esanez erantzuten diogula. Formalki absolutibo plurala izango litzatekeen arren, pluraltasun hori ezin liteke aditz komunztaduran jaso, predikatu osagai hori ez baita komunztadura eragin dezakeen argumentu bat. Ondorioz, **ismuei astakeria galantak iritziko dizkiete* ezgramatikala litzateke. Hauxe da, hain zuzen ere, sorta honetako aditzen ezaugarri behinena: osagarri datiboduna erakusten dute, absolutibodunik ez duten arren. Horregatik deritzegu inergatibo eta ez iragankor.

Dena den, badira, abiapuntu hau izanagatik ere, irakurleak gogoan izan beharko litzuzkeen *ñabardurak*, aditzon izaera ondo ezagutuko badu. Batetik, berriro ere, arazo bat baino gehiago sortzen zaigu aditzen askotariko konfigurazioengatik: sorta honetako aditzetan datiboa beharrezkoa dela esaten dugun arren, batzuetan aditzaren konfigurazio bakar batez ari gara: litekeena da aditz berberaren konfigurazio —eta adiera— batean datiboa beharrezkoa izatea, eta, oso bestela, beste konfigurazio batean aukerakoa edota, areago, ezinezkoa izatea. Bestetik, datiboa beharrezkoa duten aditzak izan arren, datibo hori inoiz bestelako postposizioekin alternantzian ere atondu daitezke aditz hauetarik zenbait: *ekin*, *erago(n)* —azken hau *ari* zentzuan—, *eraso* edota *heldu*, hain zuzen. Azkenik, lehen auziari lotuta, inergatibo datibodunen artean sailkatu baditugu ere, hori delako, hain zuzen, nagusitzen den konfigurazioa, inakusatibo datibodun gisa ere jokatzeko dute batzuek, *ekinek* esate batera, eta baita, ikusiko dugunez, *emanek* edota *helduk* ere. Ezaugarri hauek nabarmentzen ditugu hirurek berebiziko garrantzia dutelako atala egituratzean: atalean zehar predikatu bakoitzak erakusten dituen alternantziez gain, alternantziak oro har ere aztertuko ditugu, nolabaiteko bikoizketa sortuz. Orobat, alternantzien ondorioz, aditzetarik zenbait —*ekin* eta *heldu* adibidez— konfigurazio inergatibo datibodunean zein inakusatiboan itxuratu daitezkeenez, horrek lehenago inakusatiboek garatutako atalera 2.3.3 eramango gaitu atzera ere. Nolanahi ere, ez dugu uste aditz sailaren berezotasuna lausotzen dutenik *ñabardura* hauek. Areago, kontuan hartzen badugu ez dela taxonomia hutsa egitea gure helburu behiena, ez bada sail honetako aditzen ezaugarri eta konfigurazio nagusiak zehaztea eta, ahal den neurrian, azaltzea. Berez luzea den eztabaidaren egitura argitzeko, azpisailtan bilduko ditugu.

4.1.1. *Aspektu/ekintza aditzak*: *ekin*, *eman*, *eragin* eta *eragon*

Konfigurazio inergatibo datiboduneko aditzetatik batzuk lehenago 2.3.3 konfigurazio inakusatiboan ikusi ditugu, eta ez zaizkio, hortaz, arrotz egingo gure irakurleari. *Aspektu/ekintza* aditzez ari gara berriro.

Aditz horietatik alfabetikoki lehenik datorrenarekin, alegia, *ekinekin* hasiko gara, sail osoaren nahikoa aditz prototipikoa delako, gure ustez. Prototipikoa diogu zenbait arrazoiengatik. Lehenik eta behin, sail honetako aditz

guztiek bezala, konfigurazio inergatibo datiboduna du. Horrek esan nahi duena da osagarri datibodunak erakusten dituela eta ez, aldiz, absolutibodunak. Bestela esanda, hemen bildutako aditzek, salbuespenak salbuespen, ez dute datibo eta absolutibo kasuen alternantziarik erakusten osagarriaren markapenean. Bigarrenik, eta alderdi honi dagokionez ere, azpisailaren prototipoa ere bada, datiboa eta, postposizioen artean, inesiboa txandakatzen ditu osagarriaren markapenean, hau da, datibo eta inesibo alternantziadun aditzak dira hauek, osagarriaren markapenez ari garela. Hirugarren eta azkenik, konfigurazio inergatibo datibodunean ez ezik —*ekin dio*—, inakusatiboan ere —*ekin zaio*— azal daiteke, lehenago aipatu dugun bezala, alternantziek aditz bat oinarritzko argumentu konfigurazioen artean batean ala bestean kokatzeko sortzen dituzten arazoak erakutsiz. Ikus dezagun hau guztia ezaugarritz ezaugarri, adibideei begira, hobeto ulertuko delakoan.

OEhk (VI: 525) *ekin*⁹⁸ aditzaz dioenez, egiturarik zaharrena eta sarrien aurkitzen dena datiboduna da —zuzen gabiltza, hortaz, konfigurazio datiboduneko aditzen artean sailkatuz—. Ondoko adibideetan, inergatibo datiboduna modura ikus daiteke: bertan *zurrutari* (a) eta *aurrian daukagun oni* (b) datibo sintagmez gain, laguntzaile iragankor datibodunak ageri zaizkigu —(*ekiten*) *zion* (a) eta (*ekin*) *dajogun* (b)—:

- (174) a. Tai gabe ekiten zion zurrutari (Etxde *JJ* 187)
 b. Asko da berbarik, ta ekin dajogun aurrian daukagun oni (Mg *PAb* 56)

Gaur egungo testuetan ere, askotan ageri da *ekin* konfigurazio honetan, EPGen ikus daitekeenez:

- (175) a. Erraldoiak, larri, zaurituta, atzera egin du, eta Errolanek ihesari ekin dio (*Elezabarren bidetik*, M. Anso, 127)
 b. Begiak erdi kizkurtu ditu Berdabioko jaunak begirada eguzkitik babestu nahi balu bezala, eta azkeneko bertsoa ontzeari ekin dio (*Konpainia noblean*, A. Lertxundi, 136)

Sarri, gainera, nominalizazio datiboduna izaten da osagarria, (b) adibidean ikusi bezala.

Ekinek, bestalde, konfigurazio inergatiboaz gain, inakusatiboa ere erakusten du, eta horren testigantzak baditugu, besteak beste, literaturan (OEh VI: 524).

⁹⁸ *Ekin* (V, G, AN-larr) “De uso general en la tradición occidental. Al Norte, sólo se encuentra en autores labortanos hasta mediados del s. VIII. [...] En los autores del siglo XVI sólo se documentan formas fuertes o sintéticas; ello ha llevado a Lafon a afirmar que el participio de *ekin* se derivó analógicamente a partir de los verbos fuertes de raíz *-ki-* (Lfn *Syst* 91). Todas las formas fuertes atestiguadas son subjuntivos o imperativos: en Leizarraga, RG, RS, Ax 153 (V 101), Haraneder, Moguel (PAb 58 *gakijozan aurrera* y Guerrico; recientemente tbn. emplean indicativos fuertes Orixe (*Eus* 102 *dakio*) y Zaitegi (*Plat* 151).” (OEh VI: 523-24).

Goiko adibideetan ez bezala, oraingoan forma trinko iragangaitz datibodunak ditugu —*akio* (a) eta *zakizko* (b)—, ez iragankorrak:

- (176) a. Adin onari akio (RG A 8)
- b. Zakizko beraz maiz Jainkoari hatsagorapenez (He *Phil* 129)

Dena den, esan beharra dago, EPGera begira, bederen, ez dirudiela konfigurazio inakusatibo hau inergatiboa bezain ugaria denik. Izatez, oso urriak dira konfigurazio inakusatiboaren testigantzak (a), eta horietatik gehienak, gainera, egitura inpersonalak dira (b) —gure jomuga ez direnak oraingo honetan—:

- (177) a. Ekin zitzaion bere etxe eta auzoetan harrapa ahal zitzan oilo eta arkumeak itotzeari (*Konpainia noblean*, A. Lertxundi 271)
- b. Aspaldi ekin zitzaion hiperbizkaieraren gaitzari aurre egiten; ez da inondik inora ere atzo goizeko kontua (*Euskararen sendabelarrak*, K. Zuazo, 112)

Maiztasuna alde batera, *ekin* inergatibo ala inakusatibo modura agertzeak ez dio, printzipioz, datiboari berari eragiten, egile argumentuaren markapenari baino. Eman ditugun adibideetan, agerian ez bada ere, isilean ditugun egileak ergatibo argumentuak dira (174)-n eta absolutiboak, berriz, (176-177)-n. Horrek, jakina, aditz laguntzaile iragangaitz ala iragankor datibodunen arteko hautua baldintzatzen du eta, oro har, inergatibo ala inakusatibo itxuraz agertzeari. Inergatiboa azaltzen da sarrien (175), nahiz eta, erakutsi dugun bezala, inakusatiboa ere aurki daitekeen (176-177). Konfigurazio inakusatiboa duenean, testigantza klasikoetan, behintzat, adizki trinkoak agertzen dira sarri. Adizki trinko hauek iragangaitzak izatearen arrazoia beharbada hizkuntzaren historian bila daiteke. Kontuan izan forma trinkoak iragangaitz izatetik iragankor izatera igarotzeko, aldaketa paradigmatico zabal eta sakona beharko litzatekeela, eta nekez egin liteke halako aldaketarik. Forma perifrastikoak aldatzeak, aldiz, berez existitzen diren laguntzaileak trukatzea besterik ez dakar —*zaioren* ordez *dio*—. Gaur egun, beherago aipatuko dugun ñabardurarekin, forma iragankorrak nagusitu dira. Edozein modutan ere, forma sintetiko edota trinkoak erakustea da, ikusiko dugunez, sorta honetako aditz gehienen beste ezaugarri bat: *ekin*, *eman*, *eragin*, *eragon*, *eutsi* eta *iritzi* aditzek, guztiek dute erakusgarri bera; ez, aldiz, *eraso*, *erasan* eta *heldu* aditzek.⁹⁹

⁹⁹ “El sujeto en caso ergativo es el más frecuente, pero su uso es general sólo desde la segunda mitad del s. XIX: Etcheberri de Sara (*obrari ekhin natzaiola* 196) e Iztueta emplean siempre el caso absoluto; se encuentra incluso en Lardizabal (72) y Beovide (*AsL* 30), aunque éstos se valen sobre todo del ergativo; en Aguirre de Asteasu y Echagaray siempre hay caso ergativo. En vizcaíno el ergativo es de uso general al menos desde comienzos del siglo XIX. Las formas sintéticas documentadas, todas ellas sin sujeto explícito, son bipersonales intransitivas.” (OEH VI: 524).

Datiboa halabeharrez jasotzen duen aditza izateaz gain, *ekinek* badu atontzeko beste modu bat, osagarriaren markapenean, datibo eta postposizioen arteko alternantzia ere erakusten duena. Hau da, hain zuzen, aditz hauen eztabaida nolabait batera egiteko beste arrazoi bat, euren izaera semantikoa alde batera. OEhk (VI: 524) dioenez osagarria datiboaz ez ezik, inesiboaz ere markatzen da batzuetan, eta halakoetan, aditz laguntzaile iragankor datiboduna erabiltzen da ia beti, (a,b) adibideek erakusten duen bezala.¹⁰⁰ Aldiz, laguntzaile iragankor soila da, ez datiboduna, (d) adibidean agertzen dena:

- (178) a. Ekin eiozu ebagiten (Ur (V) Apoc 14, 15)
 b. Gitxienetik iru ordu laurenian, / ekin eutsen neurtitzak egiten alkarri (Enb 207)
 c. Ekin lanean (Lizardi *IL* 101)
 d. Seme-alaben ohiturei buruz ekin eben berbetan (Bilbao *IpuiB* 60)

EPGen gutxi dira inesibo osagarriak erakusten dituen *ekinen* agerpenak, baina izan badira, eta baten bat (a), gogoangarria, gainera:

- (179) a. Eta hondoa jo baino lehen, igerian ikasi nahi dizu euskarak, eta ur axaleko mariposa estilo xurian ez ezik, urpeko zoko ilunetan ere ekin dio murgilean, eta horratx titanic paperezko gurea azaldu! (*Trapuan pupua*, P. Perurena, 87)
 b. Areago, zenbait ikaslek eta fakultatek gerraren kontrako mugimenduetan ekiten dute (*Berria*, 2006-03-10)

Inesiboan markatzen da ekintza, ez datiboan, eta testigantza urri hauetan ere, laguntzaile iragankor datiboduna atxiki egiten da (a)-n eta desagertu (b)-n. Dena den, historikoki, bederen, laguntzaile iragankor soil edo datibogabea, oro har, ez da sarri erabiltzen *ekin* aditzarekin. Halaxe dio OEhk (VI: 524), eta bi aipamen egiten ditu jarraian, Aguirre de Asteasu eta Añibarro. Añibarroren adibidea (a), goian eman berri ditugun inesibodunen modukoa da, eta Aguirre de Asteasurena (b), bestelako osagarria zehazten duena:

- (180) a. Batean ekin behar dau gizonak (Añ *EL* 193)
 b. Berriro ekiten duana arimaren kontra (AA III 628)¹⁰¹

¹⁰⁰ “Sobre todo en autores vizcaínos, ya desde la segunda mitad del s. XIX, se hace frecuente el uso del complemento vbal. en caso inesibo; se mantiene, casi siempre, el auxiliar tripersonal: *ekin eiozu ebagiten* (Ur (V) Apoc 14, 15). Se encuentran construcciones similares en unos pocos autores guipuzcoanos: Lizardi (*IL* 101 *ekin lanean*), Txirrita (*B I* 185), Jauregui (*Biozk* 24) y T. Agirre.” (OEh VI: 524).

¹⁰¹ Adibidea bera ez da jasotzen OEhn.

Kasu hauek alde batera, aditz laguntzaile iragankor soilik ia ez agertzeak erakusten du, hein batean, *ekin* aditzak datibo osagarria lehenesteko duen joera, absolutiboaren kaltetan. Hala, geroago ikusiko ditugun beste aditz batzuk ez bezala, ez da hau absolutibo eta datibo alternantziarik erakusten dutenetakoa. Ezaugarri honi dagokionez ere, sorta honetako aditz nahikoa prototipikoa deritzagu *ekini*. Ondoren ikusiko dugunez, *eragin* edota *erago(n)* aditzek ere jokabide bertsua dute, nahiz eta eurekin batera sailka genitzakeen, absolutiboa ere erakutsiz, alternantziaren zantzuak —eta ez alternantzia bete-betean— azaltzen dituzten beste aditz batzuek, hala nola, *eraso*, *erasan* edota *heldu*.

Gatozen berriro inesibodun osagarrietara. Aditz hauen osagarriak gartzten den ekintza bera da eta ekintza horren aspektua progresiboa izaten da. Ekintza progresiboa adierazteko inesibo argumentuak arruntak dira hizkera askotan. Jo dezagun, adibidez, *ari* predikatura. *Ari* (nagusiki) iragangaitza¹⁰² bada ere, semantikoki aspektu/ekintza da, eta sarri askotan osagarri inesiboak hartzen ditu —goiko adibideetako *laneanen* (c) antzeko izenak edo *ebagiten* (a) bezalako inesibo mugagabeko partizipioak—. Halako inesibo osagarriak izanez gero, aditz laguntzaile iragankor soilak agertzea ez da horren harrigarria: *ekin* aditzaren osagarriak, inesibodun nominalizazioa —*esaten*— zein bestelakoa —*lanean*,¹⁰³ *berbetan*, *batean*— izan, ez du komunztadurarik eragiten, eta izatekotan komunztadurarik gabeko halako kasuak espero genitzake. Bestalde, perpaus iragangaitz batean inesibo osagarridun adibiderik balego, orduan ere, laguntzaile iragangaitz soila espero izatekoa litzateke, ez datiboduna. Eta horren erakusgarriak ere baditugu, hala nola, *ekin al aiz i ere adarra jotzen?*,¹⁰⁴ non *jotzen* inesibodun nominalizazioak ez duen komunztadurarik eragiten aditz iragangaitz soilean.

Besterik da aditz laguntzaile iragankor datiboduna erabiltzea, hau da, datibo komunztadura jasotzen duena, osagarria inesiboduna izaki. Berez, ez dirudi (178a,b), (179a) bezalako adibideetan isilpeko datibodun osagarriarik dagoenik —ezta erdi-argumentu bezala ere— laguntzailearen datibo komunztadurak hala pentsaraz liezagukeen arren.¹⁰⁵ Hortaz, edo datibo komunztadura *izuna* da nolabait, hau da, izatez datiboa ez den argumentu bati begira dagoena, edo senak eta gramatika tradizio eta teoriak diotenaren kontra, inesibo postposiziodun sintagma batek (datibo) komunztadura eragin dezake. Ez dugu guk asmorik gramatikaren zutabe sendoak iraultzeko, baina

¹⁰² Nagusiki diogu, bai baita *ari* aditzaren aldaera iragankorrik ere, hala nola, Arbelbideren ondoko adibidekoa: *pilota ere uzten ari du gazteriak*, Lakarengandik (2004: 128) jaso duguna. Jo lan honetara aldaera iragankor hauen berri izateko, eta oro har, *ari* predikatuari buruzko xehetasunak jakiteko.

¹⁰³ Lizardiren adibidean, ezin jakin, baina, ez baita aditz laguntzailea esplizituki agertzen.

¹⁰⁴ OEH (VI: 523). G-azp.

¹⁰⁵ (178b) perpausari dagokionez, *ekin eutsen* adizkiaren osagarria *egiten* inesibodun nominalizazioa, jakina, ez *alkarri*.

adibide bitxi eta politak dira hauek,¹⁰⁶ eta oso arreta handiz jaso eta aztertu beharko ditugu inoiz, nahiz eta oraingoan, tamalez, komuntadura-zale porrokatuok gai kuttuna hurrengo baterako utzi behar izango dugun.

Amaitzeko, ohar txiki bat baino ez. *Ekinek* badu, azkenik, “esan” adiera, eta adiera honetan ere, datibo komuntaduradun adibideak nagusi diren arren, datibo komuntadurarik gabeko adibideak ere badira —(a, c) vs. (b)—:

- (181) a. Ekin zidan bereala euskeraz, bizkaieraz (Ldi II 76)
b. —Nerea zaitut Gaxuxa. Ekin zun Piarresek (Etxde JJ 37)
c. ez zion inori sosegurik eman baina, batez ere, haren hiru semeei eta lauroi ekin zigun (*Sukar ustelaren urtea*, E. Jimenez, 50)

Noski, (a) adibideko datiboa solasaren helburua da, ez *ekin* aditzaren aspektu datiboa —*solasari ekin*—, eta *esan* aditza, esate baterako, nori zuzentzen zaion zehaztu gabe erabil daitekeen bezalaxe, *ekinek* ere ez du datibo argumenturik (b) adibidean. Helburu kutsua du baita azken adibideko (c) datiboak ere.

Gorago *ari* aditzarekiko hurbiltasuna aipatu dugu aspektu/ekintza osagarriaren adierazpenaren aldetik, eta horren erakusgarri garbia da inesiboaz markatu ahal izatea. *Ari* predikatuak bestelako osagarriak ere har ditzake, ekintza adieraz ditzaketan bestelako postposizioez-eta atondurik: *zertan ari* egituraz gain, *aginka ari*, *lan eta lan ari da*, *zer ari da* eta abar topa ditzakegu (Hualde eta Ortiz de Urbina 1987).¹⁰⁷ Ez da harritzekoa, beraz, *ekin* predikatuak ere antzera jokatzeko eta zentzu zabal batean, ekintzaren askotariko adierazpideez baliatzea:

- (182) a. *Porca putannaka* ekin zion ikazkinak (*Ibes betea*, A. Lertxundi, 223)
b. Harri-kozkor bat hartu, eta hormatzarraren kontra ekin zion (*Ipuin batean bezala*, J.M.Irigoien, 176)
c. Marmarka ekin zioten batzuek eta besteek (*Ipuin batean bezala*, J.M. Irigoien, 27)

Hemen ere, datibo komuntadura hutsa dugula dirudi. Gogoratu, azkenik, *ekinek* hautazko datibo komuntadurarik erakusten ez duen arren —ikus Fernández eta Landa (2009), 13 oin-oharra— halako aspektu/ekintza datiboak izaten direla hautazko komuntadurarako joera dutenak. Honi dagokionez, ikus baita Etxepare eta Oyharçabal (2008a,b) edota Fernández, Ortiz de Urbina eta Landa (2009).

¹⁰⁶ Gramatikaren gatzeta eta piperra, ikusten denez.

¹⁰⁷ Ez dugu ahaztu behar ezta *ibili* aditzaren erabilera berezia, *ariren* antzekoa baita: *lanean ibili*, *lan eta lan ibili*, *ate-joka ibili*, *zer zabilta?* adibideetan ‘ekintza’ adierazteko aniztasun nabarmena antzematen da.

Egin dezagun aurrera, aspektu/ekintza aditz sorta honetan sar geneza-keen beste predikatu bat aztertuz. *Emanek* ere, *ekinen* antzera, konfigurazio inergatibo datiboduna du “lotu, atxiki” adieraz,¹⁰⁸ eta erabilera hau orokortua dago euskalkietan, OEhk dioenez. Nolanahi ere den, adiera honekin konfigurazio inergatibo datibodunaz ez ezik, inakusatiboaz ere azal daiteke, eta sarriago jasotzen da inakusatiboa Iparraldeko idazleengan. Daukan aspektu kutsuagatik, 2.3.2 atalean aipatu dugun konfigurazio iragangaitzaren parekoa da. Hegoaldeko idazleen artean, erabilera inergatiboa da nagusi —bizkaieraz orokorra—, nahiz eta badiren inakusatibo gisa darabilten idazleak ere (OEH VI: 629).¹⁰⁹

- (183) a. Emoten deutsa negarrari (Mg CO 54)
- b. Jokoari eta tabernari eman dio (Cb Eg III 369)
- c. Ikharatu zituzten filistindarrak non eman baitzitzaizkon ihesari (Lg I 261)
- d. Zuurtziari eman gaitezen (FIr 165)

Emanek, beraz, *ekin* aditzarekin antzeman dugun inergatibo eta inakusatibo aurkakotasun bera ageri zaigu, bietan datiboduna. Honi dagokionez, pentsatzekoa da badela nolabaiteko muga dialektala Iparraldeko eta Hegoaldeko hizkeren artean, oro har, egile-absolutibo gehiago aurkitzen baitira Iparraldeko hizkeretan —*solastatu naiz* bezalakoak ditugu gogoan (Oyharçabal 1990)—, Hegoaldekoetan baino. Horrek, jakina, berehalako ondorioa du orain aztergai darabiltzagun aditzetan: *eman* edota *ekin* inergatibo modura nagusitzen dira Hegoaldeko hizkeretan eta inakusatibo modura Iparraldekoetan. Gainerakoan, banaketa honek ez du eragiten datiboaren agerpenean: hizkerek ergatibo edo absolutiboaren artean egiten duten hautua edozein izan arren, guztiek erakusten dute datiboa osagarrian.

Horretaz gain, goiko adibideei begira ikusten denez, aspektu/ekintza datiboaren izaera ez da beti bat bera, eta ekintza zuzenean ala zeharbidez adieraz daiteke: *taberna* edota *zuhurtzia* ez dira leku izen edo izen abstraktu arrunt gisa erabiltzen hemen, eta euren esanahiak zerikusi handiagoa du ‘tabernan egiten diren ekintzekin’ edo ‘zuhurtzia lortzeko ekintzekin’.

Bestalde, irakurlea, 2.3 atalean esandakoak gogoan, ohartuko denez, lehen hiru adibideek (a-c) datibo komunztadura erakusten duten adizkietan —*deutsa*, *dio* eta *baitzitzaizkon*—; azkenak (d), aldiz, —*gaitezen*— ez du

¹⁰⁸ *Eman* “Ponerse a, darse a, entregarse a, dedicarse a.” (OEH VI: 629).

¹⁰⁹ “El sujeto en caso absoluto es el más frecuente entre los autores septentrionales, aunque ya en Etcheberri de Ziburu emplea el ergativo; en J. Etchepare y en Txillardegui hay ejs. con ergativo y con caso absoluto. Al Sur se emplea sobre todo el ergativo (ya en Cardaberaz y Mendiburu; es general en vizcaino), pero emplean caso absoluto los guipuzcoanos, Lardizabal, Arrue y Lizardi.” (OEH VI: 629).

datibo komuntadurarik, datiboz markatutako *zuurtziari* osagarria izan arren ere. Goian esan dugunez, aspektu/ekintza aditz eta datiboek, salbuespenak salbuespen, oso jokabide bateratsua erakusten dute honi dagokionez eta hautazko komuntadurara jotzen duten horietakoak dira —jo xehetasun gehiagotarako dagoeneko gaiaren inguruan aipatutako lanetara—.

Emanen bestelako erabileretara joz berriro, kontuan izan eguraldi aditz modura ere, badirela gipuzkerarako OEhk (VI: 629) jasotzen dituen *euritari/elurrari eman dio* (Lar. Cf. ES 179) bezalakoak. Bertan, ez da agertzen ergatibo argumenturik. Ez da, nolana ere, aurreko (a,b) adibideen modukoa. Adibide haietan ergatibo argumentua ez dago agerian, baina ergatibo argumentua egon badago. Azken honetan, aldiz, izatekotan erdi-argumentu bat genuke, *elurra ari du* diogunean bezala, ez dago-eta elurra ari duen ezer edo inor argumentutzat har daitekeenik. Ergatiboa behar lukeen erdi-argumentu horrezaz gain, osagarria datiboaz markatzen da —*euritari, elurrari*—. Ez da hau datiboaren agerpen bakarra eguraldi esapideetan, eta ezta *eman* aditza halakoetan agertuko zaigun sail honetako aditz bakarra. Laster ikusiko dugunez, *erago(n)ek* eta *erasanek* ere badute antzekoa den egitura, datiboaz lagundurik.

Erabilera inergatiboa izan ez arren, merezi du azkenik aipatzea OEhk (VI: 629) “norbaiti bere burua eman”¹¹⁰ adierako *eman* ere jasotzen duela, euskalki guztietako testuetan agertzen dena.¹¹¹ Egitura bihurkaria da hau, *bere burua* bezalakoan ordez laguntzaile iragangaitz baten bidez markatzen dena. Ondorioz, konfigurazio inakusatiboa dugu. Dena den anafora bihurkariak ere balia daiteke, osagarri bikoitzeko egitura itxuratuz (e):

- (184) a. Ene ezin hautsizko fideltasunaz emaiten natzaizu (SP Phil 70)
- b. Debru nire etsai higuinari eman hatzaio (Dh 145)
- c. Norbati eman nintzan maitearen maitez (Xa *Odol* 341)
- d. Zuurtziari eman gaitezen (FIr 165)
- e. nahi badu bere burua (ebanjelioari) osoki eman (Lf *Elit*)

Kasu guztietan, datibo helburua dugu konfigurazio honetakoa. Goiko adibideen ildo beretik, komuntaduradun adibideak ditugu batetik (a,b) eta komuntadurarik gabeak (c), (d) eta (e).

Jarrai dezagun aspektu/ekintza datiboak har ditzaketen predikatu inergatiboen azterketarekin. *Eragin*¹¹² aditzak ere dituen adieretatik bitan, alegia,

¹¹⁰ *Eman* “Entregarse, darse (a una persona).” (OEh VI: 629).

¹¹¹ Hegoaldeko tradizioan, ez da sarri gertatzen XVIII. mendetik aurrera (OEh VI: 629).

¹¹² *Eragin* (V, G, AN-gip), *erain* (V-m-gip). “Tr. Documentado desde Axular, desde el s. XIX sólo lo encontramos en autores meridionales.” (OEh VI: 737).

“mugitu, mugitzera bultzatu” eta “ekin” (Sarasola 2007: 318), inergatibo datibodun gisa jokutzen du.¹¹³ Bina adibide ikus daitezke ondoren, hurrenez hurren —(a) vs. (b,c)—:

- (185) a. Umeari eragiten / otzara zarrean (Azc *PB* 233)
- b. Ez eragin gehiago asmo orri (Echta *Jos* 223)
- c. Ta bigarrenari [joan-etorriari] be badaragioe amaseirek gogotsu (Bilbao *Ipuib* 21)

Adiera hauezaz gain, “gainditu” adieraz¹¹⁴ antzera jokutzen du, ondoko adibideetan bezala:

- (186) a. Gaitz paregabe, gaitz guziaz eragiten diena (Cb *Eg* II 169)
- b. Zugiari urek eragin dio (JMB *At*)

*Erago(n)*ek, bestalde, aditz sail honetako hurrengo aditzak,¹¹⁵ bi adiera nagusi dauka, bata “jardun, ari izan” eta bestea “ekin” (Sarasola 2007: 319). Lehen adierakoak dira lehen adibide biak (a,b), azkena (c) bigarren adierakoa (OEH VI: 740).¹¹⁶ Inergatibo datiboduna da guztietan:

- (187) a. Erago birtuteren bati (Añ *EL* 72)
- b. Zezenak itxututa deragoio zaldiari adarka (Kk *Ab* II 125)
- c. Alan erago beti gauz onen bati (Añ *LoraS* 152)

Bada, ostean, bestelako adibide bitxirik *erago(n)* aditzarekin, hala nola, *edurrari beragoio*¹¹⁷ “elurra ari du” zentzuaz. *Eman* aditzarekin ikusi dugun bezala, ergatibo behar lukeena erdi-argumentua da eguraldi adierazpide honetan, eta osagarria datiboaz markatzen da.

Goiko adibide guztietan egitura datiboduna agertzeak ez du esan nahi, *erago(n)*ek halabeharrez halakoxe egitura datibodunetan agertu behar due-

¹¹³ Ez dugu hemen aztertuko *eragin* predikatuaren erabilera arazlea.

¹¹⁴ *Eragin* aditzaren adiera hau, “gainditu” alegia, G-z jasotzen da bakarrik.

¹¹⁵ *Erago, eragon* (V-oro-ger). “*Tr. Atestiguado en autores vizcaínos desde principios del s. XIX.*” (OEH VI: 740).

¹¹⁶ EPGen *eragon* behin baino ez da agertzen. Dena den, ez da aditza bera erabiltzeko, ez bada bere aipamena egiteko: *Bizkaiko kasuan, sarri aipatu da eragon aditza erabiltzen, ‘ari izan, jardun’ esan nahi duena* (Euskara batua, K. Zuazo, 62).

¹¹⁷ V-ger. A.

nik. Bestelako markak ere aurki ditzakegu, hala nola, inesibo postposiziodun egiturak (a-c), *-ka* atzizkidunak (d) edota errepikapenak (e):

- (188) a. Asmo onetan ekin eta eragon (Otx 104)
- b. Margozten daragoiola (Enb 61)
- c. Iolasean daragoionean (Ibiñ *Virgil* 109)¹¹⁸
- d. Galdearen galdez zirika daragoio Sokratek¹¹⁹ (*Zait Plat* 62s)
- e. Baña buruba austen ekin eta ekin eragon arren... (Otx 152)

Adibide hauek erakusten dutenez, *erago(n)ek*, *ekinek* bezalatsu, datibo eta postposizio alternantziaz joka dezake osagarria makatzerakoan. Konfigurazio honetako aditzen artean —inergatibo datibodunen artean—, hauexek biak dira, *heldu* aditzarekin batera, postposizioekin alternantzia erakusten duten bakarrak, eta postposizioen artean, bereziki, inesiboarekin.

Ostean, *ekin* aztertu dugunean komunztadurari begira ikusi dugun bezala, hemen ere, osagarria inesibo sintagma den (b-d) hiru adibideek, *-i-* aurre-dati-boaren ostean, datibo komunztadura erakusten dute *-o-* *daragoio* adizkian, baina ez da inongo perpausetan datiboaz markatutako osagarririk, inesiboaz markatutakoa baino, *asmo onetan* (a), *margozten* (b) eta *iolasean* (c) alegia. Berriro ere, *ekin* mintzagai izan dugunean esan dugun bezala, datibo komunztadura izuna dela pentsatzen dugu, eta hortaz, inongo datibo sintagmari begiratzen ez diona—, ziur aski, zuzena den ustea. Kontuan izan, halaber, ez dugula espero datibo komunztadura izun hori hirugarren pertsonakoa baino izatea, eta ziur aski, singularrekoa baino ez. Aspektu/ekintza datiboa izateak halabeharrez hirugarren pertsonako argumentuak izatea dakar. Hartara, komunztadura bera ere hirugarren pertsonakoa izatea espero dugu. Komunztadura izunak, beraz, nahikoa muga estuak dituela pentsarazten digu lehen harreman labur honetan.

Bestalde, datuoi begira, kontuan hartu beharra dago adizki trinkoak direla hauexek. Hori dela eta, suposa genezake datibo komunztadura marka hori nolabait iharturik dagoela eta *itsua* dela, beraz, perpausean ager daitekeen osagarriaren aurrean. Nolanahi ere, zailagoa litzateke ildo beretik azaltzea lehenago ikusi dugun *ekin eiozu ebagiten* hura, bertan forma trinkorik ez dugulako, forma perifrastikoa baino. Ondoko adibidean ere, datibo komunztadura gordetzen du forma perifrastikoa:

- (189) Bertoldin adiñako seme txaldan batek urtettiaz eragon eutsen (Otx 153)

¹¹⁸ *Erago zirean yantzan* (V-m A. Apend.) da OEHN inakusatibo modura aurkitu dugun adibide bakarra (OEHN VI: 740).

¹¹⁹ Hemen zalantza sortzen zaigu osagarria *zirika* ala *galdearen galdez* ote den. Aditzaren ondokoa *zirika* denez, oso litekeena da osagarria bera izatea. Nolanahi ere, bata *-ka* izan bestea *-z* izan, postposizioak dira biak.

Hortaz, badirudi komunztadura ihartu hutsa baino zerbait gehiago dela gure datibo komunztadura izuna.

Bada, gainerakoan, halako formei begiratzeko beste modu bat. Esate batera, *bolaka daragoigu* “bolotan jolasten ari gara” zentzuan, pentsa liteke aurre-datiboaren osteko *-gu* atzizkia itxuraz baino ez dela datiboarena, izatez *guk daragoigu* baita kontua *-gu ari gara-*, ez *guri daragoigu*. Hau da, *-gu* atzizkia ergatibo argumentu isilari egotz lekioke halakoetan. Baina horrek bidea eman liezaguke pentsatzeko *daragoio* bezalakoetan ere, (d) adibidean, esate baterako, *Sokratek* dela *-o-* komunztadura hori jasotzen duena, eta dudarik gabe okerreko bidea litzateke hori —ez dugu uste benetan singularreko hirugarren pertsonako *-o-* hori ergatibo argumentu bati egozteak inongo oinarririk duenik—. Dena den, jo dezagun bide itxuraz oker honetatik aurrera. Orduan, gure *ekin egiozu ebagiten* adidideak oztopatuko liguke bidea, *-zu* atzizkiak erakusten duenez, *zu* delako subjektua, eta oraindik ere *-o-* datibo komunztadura marka islatzen delako adizkian, komunztadura marka hori zeri egotzi ez dakigun arren.

Honek guztiak zerikusia du, ziur aski, *ekin* edota *erago(n)* aditzek hari ditzaketen osagarrien izaerarekin, baina azken batean, komunztaduraren eremuari zor zaio. Bego, beraz, honetan.

4.1.2. *Beste inergatibo datibodun batzuk: absolutibo/datibo alternantzia zantzuak*

Goian aztertu ditugun aditzak aspektu/ekintza aditzat hartu ditugu eta batasun tematikoaz baliatu gara horretarako. Formaz ere nahikoa jokabide bateratua dute guztiek alternantziatara begira, ez dirudi-eta absolutibo eta datiboaren arteko alternantziarik erakusten dutenik. Besterik da orain aipatuko ditugun aditzek esan daitekeena. Batetik ezin dira aspektu/ekintza aditzat hartu, eta bestetik, absolutibo eta datibo kasuen alternantzia erakusten dute osagarrian.

Guztiek dute, jakina, konfigurazio inergatibo datiboduna, eta alternantzia zantzuak izanagatik ere, horixe dute itxuraketa nagusia. *Eutsi* eta *heldu* dira orain aztertuko ditugunak, eta diferente samarra izan arren, baita *iritzi* ere.

Hasi gaitezen *eutsi* aditzarekin. Aditz honek dituen adieretako batean —“helduta, oratuta eduki; bere egoeran, mugitu, erori, galdu edo suntsitu gabe, iraunarazi” (Sarasola 2007: 374)— datiboa erakusten dute sistematikoki OEHko (VII: 577) adibideek. *Eutsiren* berezko konfigurazioa, hortaz, inergatibo datiboduna da, eta baditu forma trinkoak ere (a), sail honetako aditz gehienek erakusten duten bezala:¹²⁰

¹²⁰ Besterik da jakitea zer dela eta erakusten duten ezaugarri hau aditzok, eta ezaugarri horrek inergatibo datiboduna izatearekin zer zerikusi duen.

- (190) a. ala arimea ta gorputza bere Jaungoikoari eutsan (*CatAnz* 5)
- b. Ilko ezpada, euskerak eutsi bear dio Euskalerruari ta euskalduntasunari (Or *SCruz* 8)
- c. Gu gera iru probintzi, /lengo legerik ez utzi; / oieri firme eutsi, /naiz hanka bana autsi (Xe 411)

Gainerakoan, *eutsik* badirudi oso bestelako joera duela aginterako formetan, gaia nagusiki absolutiboaz eta ez datiboaz ageri zaigulako OEHN jasotzen diren adibideetan.¹²¹ Hau ez da, edonola ere, aginteran antzeman daitekeen markapen bakarra, bai baitira datiboaz markatutako osagarriak ere agintezko formetan. OEHK, adiera beraren barruan jasotzen ditu guztiak, eta ez gara gu izango adieren inguruko eztabaida piztuko dugunak, baina litekeena da, esanahia bera ez izatea absolutiboa eta datiboa erabiltzen diren kasuetan. Adibide datibodunetan, *eutsik* goian aipatutako esanahia duela dirudi (c); absolutiboa ageri zaigun adibideetan (a,b), berriz, aditza “hartu, tori” zentzuan erabiltzen dela pentsa daiteke:

- (191) a. batak diñotsa: eutsi urratu dozun biotz hau, /eutsi neure au, au da besteak diñotsana (AB *AmaE* 158)
- b. eutsi musu bat, kutun (Gand *Elorri* 211)
- c. Autso, Txordon, artz orri ta nik iñes daida (RS 422)¹²²

Alternantzia zantzuak alde batera eta absolutiboaren zergatia adieren ñabar-duretan aurki daitekeen ala ez argitu gabe ere, *eutsi* inergatibo datibodunen artean nahikoa garbiro sailka daitekeelakoan gaude. Dena den, gogoratu ez dela gure asmoa taxonomia hutsa egitea, konfigurazio bat ala beste duten aditzen inguruko xehetasunak ahal den neurrian jaso, deskribatu eta azaltzea baino, eta xehetasun horietan dago, hain zuzen, absolutiboa ere erakusten duten beste adibideak jasotzea —besterik da nola aztertu—.

¹²¹ Adibide horietako gehienetan, osagarria agerian egonez gero, absolutiboa da, ez datiboa, erakusten den kasua.

¹²² Aldezabalek (2004: 216) gaia adierazteko datibo eta absolutiboaren arteko alternantzia aztertzen duenean dio, hitzez hitz, badirudiela “datiboa agertzen denean, ekintzan nolabaiteko ‘esfortzua’ egiten dela”, baina esfortzu hori datiboarekin ez ezik, absolutiboarekin ere adierazten dela. Darabiltzan adibideak *eutsi* aditzekoak dira —ikus baita Aldezabal (2004: 208)—. Alde batera utzirik datibo eta absolutiboaren arteko alternantzia orokorraren zergatia, *eutsiri* berari dagokionez, OEHK dakartzan adibide guztiak sistematikoki datibodunak dira, eta aginterako formei laguntzen dietenak nagusiki absolutibodunak. Salbuespen bi bakarrik daude aginterazkoetan, datiboa erakusten dutenak: testuan aipatu berri duguna eta *D. Domingo Hegiko*, *baler osoa*, *beutso errege gaiti laztan osoa* (Egia K 88). Sarasolak (2007: 374) ez dakar adibide bat bera ere gaia datiboaz markatzen ez denik. Testuan esan dugun moduan, litekeena da esanahi ezberdina izatea absolutibodun *eutsi* aditzak.

Bitxikeria batez amaitzeko, *eutsik* badu, Sarasolak (2007: 375) jasozten duen beste adiera bat bizkaieraz, gaur egun gutxi erabiltzen dena, alegia, “bata bestearen ondoan, elkarri atxikita.” Ondoren adibide bat dakargu (OEH IV: 381):

(192) Eleixari deutsela, ta bere etexa-pean, bixi-leku bat dago (Akes *Ipiña* 15)¹²³

*Heldu*¹²⁴ aditza, *eutsi* bezala, nagusiki datibodun konfigurazio inergatibokoa izan arren, osagarria markatzerakoan, alternantzia zantzuak erakusten dituzten horietako bat da. Aditz honek dituen adiera askotatik batean, “eskuaren bidez tinkatu, ihes egin ez dezan edo higi ez dadin” (Sarasola 2007: 501), inergatibo datibodun argia dirudi (a,b); baita “hozka egin, ausiki” adieraz ere (c). Ikusi bestela:

- (193) a. Gogorapen gaiztoak zuzen zuzen animari eltzen diote askotan (Inza *Azalp* 148)
b. Lenengo abaguneari eldu (Anab *Poli* 47)
c. Suge batek eldu ziolako, moztu zioten anka (Izt *C* (ap. H))

Baina nolabaiteko datibo eta absolutibo alternantzia erakusten duen aditza ere badela dirudi. Kasu honetan, gainera, *eutsirekin* ez bezala, ez dago adierari buruzko zalantzarik: adiera berean ditugu datibo eta absolutibo kasu biak, eta alternantzia osoaz hitz egitea, beraz, zilegi dela dirudi. Dena den, lehenago esan dugun moduan, *helduren* konfigurazio nagusia inergatibo datiboduna da, eta oso gutxi dira absolutiboarekin adiera berean aurki daitezkeen adibideak.¹²⁵ OEHk (VI: 54-7) jasotzen dituen adibideetatik gutxi batzuk baino ez dira osagarri absolutiboduna erakusten dutenak:

- (194) a. Noizpait eltzen baaut... (Zait *Sof* 129)
b. Esku batez gogor eldu zun: —Zaude pittin bat, andrea (Etxde *AlosT* 99)
c. Oriek [eskorpiolak] eltzen dutena il egiten da (Anab *Aprika* 46)

¹²³ OEHko adibide hau *behera* sarrerapean aurkituko irakurleak, ez *eutsi* sarrerapean. Sarasolak ere (2007: 375) antzeko adibide bat eman digu: *Kaleko etxeak bata besteari deutsela daude*. Lekuzko kutsua dauka datiboak egitura honetan.

¹²⁴ *Heldu* (V, G-azp-to-go) [...] “Propio sobre todo de la tradición guipuzcoana desde Laramendi por lo menos. En vizcaíno se encuentra ya en Micoleta, pero apenas vuelve a atestiguar (Añibarro y Uriarte son las únicas excepciones) hasta fines del s. XIX, si bien en el s. XX es bastante común. En alto-navarro sólo se documenta en Beriayn [...] Al Norte sólo se encuentra en Inchauspe. Es bipersonal con dativo sin duda en Beriayn, Laramendi, Mendiburu, y modernamente, Mirande y Txillardegí; en cambio, ya Cardaveraz emplea el tripersonal que predomina después.” (OEH VI: 546).

¹²⁵ Sarasolak (2007: 501) ez du adiera honetan adibide absolutibodun bat bera ere jasotzen.

Bestalde, inergatibo datiboduna ez ezik, inakusatiboa ere bada adiera be-rean¹²⁶ —ikus baita 124 oin-oharra—:

- (195) a. Eldu zitzaizkion bereala eta egotzi zuten labera (Ber *Trat* 111r)
- b. Besotik heldu zitzaidan (Mde *Pr* 110)

Ekin edota *eman* aditzek duten itxura bertsuaz, ikusi dugunez. Are, *ekin*en kideko jasotzen du Sarasolak (2008/09), jokaturako adibide guztietan, konfigurazio inergatiboa baino erakusten ez badu ere (a,b) —jokatugabeak dira gainerako biak (c,d)—:

- (196) a. Damian, hel iezaiozu muinari behingoagatik (*Mutuaren hitzak*, A. Etxeberria, 46)
- b. Atzoko auziari helduko diogu berriro (*Hainbat idazlan*, San Agustín / I. Unzurrunzaga, 40)
- c. Bada, doktoreak jakin du, bai, nondik heldu! (*Goragalea*, J.P. Sartre / M. Etxebarria, 122)
- d. Ez zegoen nondik heldu aldrebeskeria sorta hari (*Eguzki beltzaren sekretua*, A. Ladron, 59)

Eta alternantzia zantzuak erakusten dituzten aditzetako delat nagusiki absolutibo/datibo alternantziak ari bagara ere, datiboak bestelako postposizioekin erakusten dituen alternantziak ere badira, inesiboarekin (a,b) eta adlatiboarekin (c) hain zuzen. Dena den, hiru hauexek baino ez dira OEHK (VI: 547) biltzen dituen adibideak:

- (197) a. Jaungoikoak indarrak eman ez bazizkan, etzan sasia eldu ta geldituko (ABar *Goi* 25)
- b. Peruk, ostera, non eldu badu (Or *Eus* 173)
- c. Albo bakoitzetik galtzetara elduta bost edo sei urteko motiko potxolo bat eta zortzi urteko neska koskor pertxenta bat (Etxde *JJ* 92)

Lekuzko kutsua duten postposizioak dirudite hauexek. Inesibodun osagarria ezin daiteke, beraz, parekatu gorago *ekin*, *erago(n)* edota *eraso*

¹²⁶ *Heldu* aditzak badu inakusatibo datibodun modura agertzea beste adiera batean, alegia, “premia, arrisku edo estutasun larriren batean dagoenari lagundu” (Sarasola 2007: 501; Sarasola 2008/09: *Baina*, *San Migelen laguntza beti da estimatua: San Migel, heldu zakidaz hemen, edo beste paraje batzuetan diotenez*, *San Migel, hemen hel*) adieraz. OEHK (VI: 544) *heldu* honi dagokionez (V-arr, S) ondoko adibideak dakartza: *Hire graziá gure miseriari balia eta hel dakióñ* (Lç *Ins* A 1v) eta *Nork eskua emanen dio? Nor helduko? Nor lagunduko zai-ka?* (Ax 559).

aditzekin batera jaso dugun osagarri inesibodunarekin, itxuraz pentsaraz litekeenaren kontra. Izatez, inesiboak adibide hauetan (a,b), haietan ez bezala, ez du inongo aspektu/ekintza izaerarik eta inesibo hutsa da adierazten duena.

Sorta honetako aditzekin amaitzeko, *iritzi* aditza ere aipatu behar dugu. Aditz honek bi adiera nagusi dauzka. “Uste izan” adieran,¹²⁷ inergatibo datibodunak nagusitzen dira, ondoren bezala —(a,b) adibideak OEHTik eta (c,d) adibideak EEHTik jaso ditugu—:

- (198) a. Beti gogor eretxi deusat nekerik arinenari (Añ *EL* 73)
- b. Zer iritziko diete 50 urteren buruan gaurko «ismuei»? (MEIG I 110)
- c. Ispiluari begira jarri, eta eder irizten zion bere buruari (*Gaur ere ez du hiltzeko eguraldirik egingo*, I. Segurola, 115)
- d. Hor goiko horri jardun merkea iritziko dionik ez da faltako (*Bat-bateko bertsolaritza*, Joserra Garzia et al., 155)

Dena den, badira aditz berarekin, absolutibodun egitura iragankor soilak ere. Hortaz, konfigurazio nagusia inergatibo datiboduna den arren, nolabaiteko absolutibo eta datibo alternantzia ere erakusten duen aditzat har daiteke bera:

- (199) a. Gustiz erraz ta bigun eretxiko dozuz esaten naiz entzuten [itz orrek] (Kk *Ab* II 124)
- b. Zer irizten nazu? —galdegin dit— Zure anaiaren antzik badet? (Ldi II 41)

Gainerakoan, OEHK (IX: 547) *iritzi* aditza mendeko perpausez lagundurik ere jasotzen du adibideetan. Ikus ditzagun. Lehen biak (a,b) mendeko perpaus jokatuak dira; perpaus jokatugabea, nominalizazioduna, hirugarrena (c). Gaur egungo testuetan ere badira halakoak (d,e):

- (200) a. Eta badaritzak hik, haren borondatearen kontra deus egin ahal daitela? (Lç *Ins* E 5v)
- b. Neritzan neretzat bakarrik itz egiten zendueta (AA III 533)
- c. Ondo neritxon egitari (fB *Ic* I vi)

¹²⁷ “*Iritzi* (V, G, L), *iritzi* (V-arr-gip, G), *iritxi* (V-gip), *eritxi* (V), *eretxi* (V, G), *iritsi*, *eritsi*. “*Tr.* Documentado desde Leizarraga [...] y de uso gral. al Sur (con mayor frecuencia entre los vizcaínos); al Norte disminuye notablemente su uso durante el s. XVIII y prácticamente desaparece desde principios del XIX. Al Norte se emplean casi exclusivamente las formas sintéticas [...]” (OEK IX: 547).

Lehenengo biak dira, hain zuzen, gure arreta bereganatu dutenak berezitasun bat dutelako, alegia, datibo komunztadura hizkia¹²⁸ erakusten dute *badaritzak* eta *neritzan* adizkiek, nahiz eta ez agerian ez ezkutuan osagarri datibodunik ez dagoen. Osagarria batean zein bestean *-la* konplementatzailearen perpausa izanik, ez du datibo kasurik jasotzeko aukerarik, hau da, ezin daiteke esan *haren borondatearen kontra deus egin ahal daitelaRI* edota *neretzat bakarrik itz egiten zenduelaRI*, (a,b) adibideen ordainetan. Aldiz, nominalizaziodun adibideak (c) beste biek ez bezala, datibo kasua jasotzen du *-egitari-* eta dagokion datibo komunztadura marka ere. Kasu ezarketan aztertu beharreko gaia da berau (Albizu 2008). Izatez, hemen jokoan dagoena zera da: perpaus jokatuak, argumentuak ez bezala, ez dutela kasua jasotzerik. Hartara, kasurik ez dute goiko aipatu adibideetan. Kontua da, horrek itxuraz ez diola komunztadurari eragiten: datibo komunztadura gorde egiten da, eta mendeko perpausari begira dagoen komunztadura da, gainera, mendeko perpaus jokatuak datibo kasurik erakusten ez duen arren.

Berrito ere, badirudi forma sintetikoetako datibo hau iharturik dagoela, ezin baitaiteke errazki aldatu. Baina hau ez da kontu morfologikoa bakarrik, adizki perifrastikoekin ere antzera gertatzen baita: datibodunak dira laguntzaileak, eta kasurik gabeak, jakina, mendeko perpaus jokatuak:

- (201) a. Hizkuntza bateko fonemak erabakitzeak, hausnarketa morfologikoak egin behar direla irizten bazaio ere... (*Egitura sintaktikoak*, N. Chomsky / I. Laka, 163)
- b. Ez zekien zer egin, baina zerbait egin behar zuela iritzi dio, antza (*Mutuaren hitzak*, H. Etxeberria, 149)

Geroxeago ikusiko dugunez, *erreparatu* aditzarekin ere antzeko datuak aurkituko ditugu.

Kasuaren edo kasurik ezaren ondorioz, datibo komunztadurak goiko adibideetan erakusten duen itxura berezia ere har dakieeke baita ondoko adibideei ere:

- (202) a. Batzuek bekhatu badaritzate ere gauza ebatsien pagatu gabe edukitzea (Ax 244 (V 164))
- b. Adanek egin zuena añ gaizki baderitzat, nik egin dedanaz zer iriztiko diot? (Cb *Eg* II 64)
- c. Orduban gatxago eritxon konfesetia (Mg *CO* 203)

Hauexetan, auzia ez da, aurreko adibideetako kasurik eza, ez bada absolutibo argumentua izanagatik ere *-edukitzea* (a), *Adanek egin zuena* (b) eta *kon-*

¹²⁸ Ez da erraza hemen erroa eta datibo komunztadura elkarrengandik banatzea. Baina ez dirudi horregatik forma berrinterpretatu denik, hau da *-tza-* hori erroaren parte balitz bezala hartu denik, forma iragankor soila sortuaz: Leizarragak, esate baterako, *-tza/-tzo* alternantzia dauka datiboa hirugarren pertsonakoa denean, ageriko datibo batekin ere.

fesetia (c)— datibo komunztadura erakusten dutela *daritzate* (a), *deritzat* (b) eta *eritxon* (c) adizkiek. Hau da, datibo komunztadurak absolutibo sintagma bati begiratzeko dio, eta ez kanonikoki behar lukeen bezala, datibo argumentu bati. Esate batera (c) adibidean: *eritxon* adizki trinkoan, *-txo-* datibo komunztadura hizkia agertzen da, nahiz eta *konfesetia* absolutibo argumentuari ezartzen zaion, eta ez, espero litekeen bezala, *konfesetiari* balizko datibo argumentuari.

Ikusten denez, komunztadurarekin topo egin dugu berriro ere, eta berriro ere geroko utzi beharra dugu gaia. Hala ere, gerokoaren zain, esan dezagun itxuraz argumentuen kasuak eta dagokien komunztadurak bat egiten ez duten adibide horietakoak direla hauexek, absolutibo argumentuak berez dago-kion absolutibo komunztaduraren ordeztatzearena bereganatzen duelako. Ez dugu uste, dena den, halako kasuak, esate batera, datiboaren lekualdatzearekin (Fernández 2001, Fernández eta Ezeizabarrena 2003, Fernández 2004, Rezac 2006) inongo zerikusirik dutenik. Oso litekeena da goian aurkitu dugun datibo komunztadura izunaren erakusgarria izatea hau ere, nahiz eta lehengoaren erabat berdina ez den, kasu honetan, absolutibo kasuko argumentuak ere besarkatzen dituelako. Kasu eta komunztaduraren arteko itxurazko *mismatch* edo banaketa horrek gero eta datu interesgarriagoak ditu, ikus daitekeenez. Dena den, izan gogoan, neurri batean, datiboa beharrezkoa duten aditez ari garenez, berebiziko garrantzia izan dezakeela adizki trinkoen datibo komunztadura honek, inoiz datiboa ezinbesteko argumentua izan dela erakusteko.

Baina utz dezagun komunztadura alde batera, eta ikus dezagun *iritzik* erakusten duen beste konfigurazio bat. Inakusatibo datibodunarena da, ondoko adibideetan erakusten duguna:

- (203) a. Gaizki irizten jat eskribidu dozuna (Elexp *Berg*)
- b. Gutxi eritxi jakezan berreun ogerleko (Echta *Jos* 138)

Halakoetan, datibo kasuaz adierazten da esperimantatzailea eta gaia absolutiboaz; aldiz, inergatibo datibodun moduko *iritzi*ekin, esperimantatzailea ergatiboaz markatzen da eta gaia, berriz, datiboaz. Egitura honetan, *iritzik irudiren* itxura hartzen du, nahiz eta *irudik* ez duen inergatibo datibodun modura agertzerik. Dena den, harritu gaitu ikusteak EPG Corsintaxen bidez arakatzuz, *iritzi*ekin jasotzen diren konfigurazio inakusatibo datibodun guztiak *-zait-* perpaus inperzonaletakoak direla, hau da, datiboak gaia —ez esperimantatzailea— adierazten dutenak, ondokoa adibidez:

- (204) Hau da, gizakiaren funtzio batzuei, metaforaz bada ere, arruntegi iriz-ten zaielako, Jainkoari egotziak izateko (*Alderraien gidaria*, M. Ben Maimon / X. Kintana, 245)

Hori izan daiteke gaur egun predikatuak erakusten duen konfigurazio nagusiaren adierazgarri.

Azkenik, “deitu” adieraz,¹²⁹ inakusatibo datibodun modura itxuratzen da. Hona pare bat adibide:

- (205) a. Lino mueta bi dagoz, batari deritxo agorra, ta bestiari lina beria (Mg *PAb* 138)
 b. Neri deritzat Galtzaundi / apellidua det Goñi¹³⁰

Ikus dezagun ondoren aditz hauen guztiak biltzen dituen taula, laburpen gisa.

4.1.3. Taula bat, laburpen gisa

5. taula

PREDIKATUA	IRAGANKOR SOILA	INAKUS/INERG POSTP	INAKUSATIBO DATIBODUNA	INERGATIBO DATIBODUNA	OHARRA
EKIN	ez	<i>Ekin lanean</i>	<i>Adin onari akio</i>	<i>Tai gabe ekiten zion zurrutari</i>	<i>Ekin eiozu ebagiten</i>
EMAN	—	<i>Gaizkirat eman ziren</i>	<i>Zuurtziari eman gaitezen Norbati eman nintzan</i>	<i>Emoten deutsa negarrari</i>	<i>Euriari eman dio (eguraldia)</i>
ERAGIN	ez	ez	ez	<i>Ez eragin gehiago asmo horri</i>	
ERAGON	—	<i>Iolasean daragoioanean</i>	ez	<i>Erago birtuteren bati</i>	<i>Eduurrari beragoio (eguraldia)</i>
EUTSI	<i>Eutsi urratu dozun biotz hau</i>	ez	ez	<i>Euskarak eutsi behar dio Euskalerrari</i>	
HELDU	<i>Noizpait eltzen baaut</i>	<i>Non heldu badu</i>	<i>Heldu zitzaizkion berehala</i>	<i>Gogorapen gaiptoak animari eltzen diote</i>	
IRITZI	<i>Zer irizten nazu?</i>	ez	ez	<i>Eder irizten zion bere buruari</i>	<i>Hausnarketa morfologikoak egin behar direla irizten bazaio ere</i>

¹²⁹ *Iritzi* (G), *eritxi* (V). “General al Sur (con mayor frecuencia en los vizcaínos); al Norte disminuye su uso durante el s. XVIII y en el XIX sólo hallamos algún ej. de HeH, Goyhetche y Joannateguy.” (OEH IX: 549).

¹³⁰ OEhk jasotzen ditu, halaber, tradiziotik aldentzen diren kasuak, esate batera, Txillardegiren *Nola deritza [...] enparantzatxo horrek?* (Txill *Let* 130). Adibide honetan, datibo kasuaz behar lukeena, ergatibo kasuaz markatuta agertzen da.

4.2. Absolutibo/datibo alternantzia erakusten duten aditzak

Orain arteko lerroetan ikusi dugunez, inergatibo datibodunek, salbuespenak salbuespen, ez dute absolutibo eta datibo alternantzia erakusten, edo oso neurri txikian baino ez, eta osagarria datiboaz markatzen dute ia beti. Orain aztertuko ditugun aditzek, aldiz, absolutibo eta datibo alternantzia erakustea da daukaten ezaugarri nagusia. Horrek ez du esan nahi, goian konfigurazio inergatibo datiboduna dutenekin erakutsi dugun bezala, tarteka postposizioekiko alternantziarik ere erakutsi ezin dezaketenik, baina euren berezko ezaugarria ez da datiboa postposizioekin txandakatzea, datiboa absolutiboarekin txandakatzea baino.

Absolutibo eta datibo alternantzia erakustearen ondorioz, aditz bera bi konfiguraziotan ager daiteke: edo iragankor soilean, osagarria absolutiboa erakusten duen kasuetan edo inergatibo datibodunean, osagarria datiboaz markatzen denean. Badira, halaber, noizbait inakusatibo gisa agertzen diren aditzak, datiboarekin zein datiborik gabe. Ez zaio hau irakurleari harrigarria egingo, kontuan hartuz, behintzat, lehenago zenbait inergatibo datibodun, esate batera, *ekin* edo *eman*, inakusatibo datibodun bezala ere atondurik ikusi ditugula.

Datibo osagarridun aditzak dira, beraz, ondoren dakartzagun guztiak.

4.2.1. *Hizkeren arabera alternantziak, adieren arabera eta alternantzia osoak*

Aditzak erakusten dituen itxurak alde batera —iragankor soila, inergatibo datiboduna eta abar—, bada alternantziez hitz egiterakoan argitu beharrekorik. Izan ere, alternantziak ez dira ez baldintza berberetan ez arrazoi berberengatik gertatzen. Hortaz, absolutibo eta datibo alternantziez hitz egiten dugunean, eta baita ziur aski, alternantziak, oro har, aztergai darabilzagunean ere, argitu beharra dugu zeri deritzagun alternantzia eta alternantzia hori zeri zor zaion.

Gure ustez, hiru dira alternantzia ildo nagusiak. Lehenik eta behin, euskalkien edo hizkeren arabera alternantziak daude, eremu geografiko jakin batean, osagarria markatzeko joera nagusi bat dagoen bitartean, beste eremu batean, beste bat dagoenean. Esate batera, oso modu lausoan bada ere, itxuraz eta behin-behinean esan genezake absolutibo eta datibo alternantzia erakusten duten aditzetan, baldin eta alternantzia hori euskalkien arabera bada, orduan, absolutiboaz markatzeko joera dagoela Iparraldean, eta baita batzuetan Nafarroa Garaian ere, eta datiboaz, berriz, mendebaldean. Beste batzuetan, banaketa Iparralde eta Hegoaldeko hizkeren artean zehazten da. Eman dezagun, euskalkien arabera alternantzia erakusten duen *entzun* aditzarekin, *entzun nauzu* izango genuke Iparraldean eta *entzun didazu*, berriz, Hegoaldean.¹³¹

¹³¹ Hauxe *grosso-modo* diogu, geroago *entzun* aditza aztertzen dugunean ikusiko dugunez, datiboa nagusi da Hegoaldean XIX. mendetik aurrera. Ordura arte, absolutiboa nahiz datiboa erabiltzen ziren.

Halaber, baldin eta datiboaz markatzen bada osagarria, orduan, Iparraldeko hautua dirudi inakusatibo datibodun gisa emateak. Adibidez, *jarraiki* aditzari begira, *jarraiki zaio* izango genuke Iparraldean —eta baita ekialdean ere.— Mendebaldean, berriz, *jarraitu dio* nahiago lukete, alegia, konfigurazio inergatibo datiboduna. Berriro ere, ñabardurarik gabe ari gara, ildo nagusiak zein diren zehazten laguntzearren bakarrik. Xehetasunez ohartzen hasiz gero, irudia ez da inondik inora horren laua. Jo dezagun, esate batera, xehetasun historikoetara. Guk ez dugu, jakina, azterketa diakronikorik egingo,¹³² baina datu historikoei begiratzea besterik ez dago konturatzeko zein esanguratsua izan daitekeen baita bilakaera historikoa ere. Esate batera, mendebaldeko idazleen testigantzarik zaharrenek inakusatibo datibodun modura erakusten zuten *jarraiki* aditza —hau da, *jarraitu zaio*— eta XVIII. mendearen erdialdetik aurrera baino ez da orokortzen euren artean, laguntzaile iragankor soilaren eta datibodunaren erabilera —*jarraitu du/dio*— (OEH X: 110). Horrek mendebaldeko gaur egungo erabilerari beste ikuspuntu batetik begiratzeko aukera ematen digu, bere irudia osatu eta zehaztuz. Nolanahi ere den, gaur egungo euskaraz ere nolabaiteko muga dialektala antzeman daiteke absolutibo eta datiboaren arteko hautuetan, eta hautu bat ala bestea izatea hizkerak eurek agintzen dutela dirudi.

Gure aztergai nagusira itzuliz, badakigu euskalkien araberako alternantzia ez dela behar besteko xehetasun eta fintasunez ezagutuko, harik eta datuak sistematikoki bildu, deskribatu eta aztertu arte, baina datu historikoek erakusten diguten bidetik abiatzeko modua dugu absolutiboa eta datiboa nola txandakatzen diren ulertzeko.

Dena den, ez dira, ustez pentsatzen genuen bezain ugari, nagusiki hizkeren arabera bereizten diren absolutibo eta datibo alternantziak. Berriro ere diogu OEHTik jasotako datuez baliatzen garela, gehien bat, gure azterketaren alderdi honetan, eta baita EPGetik erauzitakoez, eta litekeena dela landa-lanaren ondorioz lortutako datuak bestelakoak izatea —esate baterako, litekeena da guk orain aitortzen duguna baino garrantzi handiagoa izatea euskalkien araberako banaketa horrek, testigantza historikoei begira pentsa daitekeena baino—. Eskura ditugun datuak kontuan hartuz, euskalkien araberako alternantzia erakusten duten aditzak hauexek dira: *abisatu*, *deitu*, *entzun*, *eskertu*, *lagundu* eta *segitu*. Ez dira asko, beraz, alternantziadun aditz guztien sortari begiratzen badiogu, baina bai kontuan hartzekoak.

Alternantzien artean, adieren araberakoak dira bigarrenik aipa daitezkeenak. Honi dagokionez, aldeztu aurretik genuen ustea zen aditz beraren adieren arabera ere gerta zitekeela alternantzia, eta datuei begira, hala dela dirudi.¹³³

¹³² Mounoleren (2008) lana eta lan honek izan dezakeen segida esanguratsua da eremu honetan.

¹³³ Guk ez ditugu, jakina, aditzen adiera guztiak bildu, adiera nagusiak eta ildo nagusiak baino. Ia ezinezkoa litzateke halako xehetasunez lan egitea, datiboa hiztegian arakatu nahi duen monografia honetan. Hortaz, gure pausuei jarraituz, beste inork guk aztertu gabeko adie-

Esate batera, *esetsi* absolutibo eta datibo alternantzia erakusten duen aditza da. Bere adiera nagusi bietan, alegia, “eraso” eta “jarraitu, jazarri” adieretan, absolutiboa nahiz datiboa erakusten ditu, batean zein bestean. Alde horretatik, alternantzia osoa duen aditza dela pentsa daiteke. Baina *esetsi* aditzak, berebat, “errieta egin” esanahiaz, datibodun osagarriak baino ez ditu erakusten, eta ez du, hortaz, azken adiera honetan, alternantziarik. Horregatik, *esetsi* adieren araberako alternantzia duen aditzat har daitekeela uste dugu, adiera batean alternantzia erakusten duelako eta beste batean, aldiz, ez.

Adieren araberako alternantzia beste modu batez ere uler zitekeen. Esate baterako, *begiratu* aditzean, “zerbait eta norbaitengana begiak zuzendu” adieran, datiboaren —eta baita adlatiboaren— markapena nagusitzen da osagarrian, garai eta hizkera guztietan, OEHk (IV: 464) dioenez. Hau da, *niri begiratu* edota *hona begiratu* esaten da nagusiki. Horrek ez du esan nahi aditz berak inoiz absolutibodun osagarririk erakusten ez duenik adibidez, *bere ugazabaren aurpegia begiratzan du* bezalakoetan, geroago aditz hau bereziki aztertzen dugunean ikusiko dugun eran. Aldiz, *begiratu* “babestu, zaindu” adieran, absolutiboa erakusten du salbuespenik gabe —*bere burua begiratu zuen* adibidez—. Hortaz, lehen adieran, alternantziaren zantzuak egon badaude, baina datiboa da, dudarik gabe, nagusi, eta bigarren adieran, absolutiboa kasu bakarra. Horrek pentsaraz diezaguke nagusiki badela adiera batean datiboa eta beste adiera batean absolutiboa erakusten duten aditzak, hau da, adierei kasu bana egozten dietenak. Dena den, hori ez dirudi gertatzen denik *begiratu* —ñabardurez— eta *erreparatu* aditzekin baino. Adieren araberako alternantzia erakusten duten gainerako aditzek duten joera nagusia, adiera batean alternantzia erakustea da, eta beste adiera batean ez. Zentzu batean zein bestean erabiliko dugu, beraz, adieren araberako alternantzia esapidea. Alternantzia hau erakusten dutenak *begiratu*, *erreparatu*, *esetsi*, *jazarri*, *ukitu* eta *laga* dira. Adierak eta hizkerak, argi dago, ez dute zertan izan behar gako beregainak: adiera bi ez badira hizkera berean aurkitzen, hizkeren araberako alternantzia izango dugu.

Badira hirugarren eta azkenik, alternantzia osoak edo beren-beregiak. Alternantzia osoak ditugunean, ezin diogu ez hizkerari ez adierari egotzi kasu baten ala bestearen hautaketa. Gramatikak bietarako aukera ematen digu: biak ageri dira adiera berean, hizkera berean, eta sarri askotan hitzun edota idazle beraren idiolektoan. Hauen zergatia aurkitzea da erronkarik zailena beharbada, azken batean, alternantzia osoen zergatia zein den jakinez gero, hizkeren eta adieren araberakoak ere zergatik gertatzen diren jakin baitaiteke. Kontuan izan, hizkeraren batean, eta ez bestean, alternantzia dugula diogunean, oraindik ere argitu beharra dugula zer dela eta gertatzen den alternantzia hizkera horretan. Berdin esan daiteke adieren araberako alternan-

rak kontuan hartuko balitu aurrerago, litekeena da adieren araberako alternantziadun aditzen artean sailkatzea eskura ditugun datuekin guk alternantzia osoko aditzat jo ditugunetako batzuk. Ez dugu uste, horregatik, sailkapenerako irizpideak edota sailkapena bera baliogabetuko liratekeenik.

tziez. Adiera batean gertatzeak, eta ez beste batean, oraindik ere argitu gabe uzten du alternantzia duen adieran, zein ote den horretarako arrazoia.

Alternantzia osoen zergatia —eta oro har, alternantzia hauen guztien zergatia—, gure ustez, datibo osagarri hauen izaeran datza, eta datiboen zergatia, halaber, aditz hauetako batzuen izaeran. Izan ere, sorta honetako aditzek sari askotan osagarri inplizitu edo ezkutuko osagarri bat dutela pentsa daiteke —kontuan izan, batzuetan konfigurazio iragankor datibodunean ere ager daitezkeela—. Osagarri inplizitu hori baldin eta badago, guk uste dugun bezala, orduan, ez dirudi horren harrigarria denik agerian dugun osagarria datiboaz markatzea, eta ez absolutiboaz. Orobat, ezkutuko osagarria gaia dela pentsatzen badugu, orduan ageriko datibo osagarri hori ez litzateke gaia izango, helburua baino.¹³⁴ Hala, aditz hauekin, datibo argumentuak zehar osagarri prototipikoen zantzuak ditu, ez osagarri zuzenarenak. Horregatik, hain zuzen ere, erakusten dute zehar osagarriek eraman ohi duten kasua, datiboa alegia. Hor-taz, alternantziaren muineko arrazoia aditz hauek helburu argumentua behar izatea da. Bestalde, kontuan izan helburu argumentu hori biziduna izaten dela, eta sari askotan gizakia, eta hori da irakurleak behin eta berriro aurkituko duena, aditz hauek banan-banan deskribatzen ditugunean.

Hipotesi honetara itzuliko gara alternantzia osoak aztertzen hasten garenean, baina bitartean, izan gogoan ez direla alternantzia osoko aditzak bakarrik hipotesi honi lotzen zaizkionak. Hizkeren edota adieren arabera alternantzia erakusten duten aditzetako gehienak dira helburu argumentua dutelako hipotesiari lotzen zaizkionak. Hona hemen guztiak: *abisatu*, *bar-katu*, *entzun*, *erregutu*, *eskertu*, *kontseilatu*, *manatu*, *obeditu*, eta adieren araberba baita *laga*, *lagundu* eta *utzi* aditzak ere. Irakurleari eskatzen diogu hau gogoan izatea, nahiz eta lehen alternantzia mota biak aztertzen ditugunean, hau da, hizkeren arabera eta adieren arabera, bereziki izate horri begiratuko diogun, eta argumentua helburua den, ez den, zeharbidez baino ez dugu ikusiko, harik eta alternantzia osoko aditzetara heldu arte.

Dena den, hipotesi honek ez ditu, zoritxarrez, besarkatzen hona ekarriko ditugun aditz guztiak. Izan ere, bereziki adieren arabera alternantziak dituzten aditzen artean gehien-gehienek ez dute ageriko osagarria besterik, hau da, hauen kasuan, ez dago osagarri inpliziturik, eta zalantzak ditugu datiboaz —eta absolutiboaz txandaka— markatzen diren osagarriak helburu diren, eta ondorioz, zehar osagarri. Egia da osagarri ala zehar osagarri ote diren ebaste-ko, syntaxira heldu beharra dugula, baina hori baino lehenago, hiztegian bertan, nolabaiteko asimetria antzematen da printzipioz alternantziadun aditzen sorta honetako bi multzoen artean. Ezkutuko osagarriak, ustez, ez duten aditzen artean ondokoak ditugu *begiratu*, *erreparatu*, *esetsi*, *jazarri*, *iguriki*, *itxaron*, *jarraiki*, *segitu* edota *oratu*.

¹³⁴ Gai argumentua ere izan dezakete, ikusiko dugunez, euretako batzuk ere onartzen dutelako helburu-gai argumentu egitura, iragankor datibodun gisa.

4.2.2. Hizkeren araberako alternantziak

Goian bereizi ditugun alternantzia motak gogoan, ikus ditzagun orain banan-banan sorta honetako aditzak, eta hasi gaitezen hizkeren araberako alternantzia erakusten dutenekin, alegia, *abisatu*, *deitu*, *entzun*, *eskertu*, *lagundu* eta *segitu* aditzekin.

Euskalkien araberako absolutibo eta datibo alternantzia erakusten duten aditzen artean, *abisatu* dugu aipa daitekeen lehena. OEhk (I: 120) dioenez, Iparraldeko eta Nafarroa Garaiko idazleek absolutibo kasuan (a,b) markatzen dute osagarria eta gipuzkoar eta bizkaitarrek, berriz, datiboan (c,d):¹³⁵

- (206) a. Neure haur maite anzo abisatzen zaituztet (Lç I Cor 4, 14)
- b. Kapatik thira zaitzan, abisa zaitzan (Axular 318 (V 211))
- c. Orain abisatzen dit / palsuak bezela (PE 75)
- d. Abisatu zizun ori / ez dago pobria, / guk aña izango du / zillar da urria (AzpPr 41)

Osagarria absolutiboaz zein datiboaz markatzen da, hizkeren araberako hau-tuarekin —(a,b) vs. (c)— baita mendeko perpaus osagarri bat agertzen den kasuetan ere, zehar galdera (a) izan zein —(e)la osagarri perpausa (b,c)— :

- (207) a. Abisa nazazu / zer balio duen sardinak (ConTAV 5.2.9., 130)
- b. Lehen ere aitzinetik gintuen abisatu / Antekrist gaixtoak behar zuela munduratu (EZ *Man* I 70)
- c. Gabiria-ra ama il zala neri abixatzera joan zan (Salav 22)

(a,b) bezalako adibideak interesgarriak dira, mendeko perpausok kasurik jasotzen ote duten erabakitzerakoan. Osagarria, —*ni* eta *gu*, hurrenez hurren, lehen bi perpausetan— absolutiboaz markatzen bada, orduan nekez esan daiteke, lehen begiratuan behintzat, ondoren datozkien mendeko perpausok ere absolutiboa jasotzen dutela.

Abisatu aditzak argi erakusten du datibo osagarri hauen agerpena azaltzeko modu bat: haien osagarria semantikoki helburua bada, orduan helburu hori datiboaz nahiz absolutiboaz marka liteke, euskalkien arabera. Helburua izateak kasu honetan, ezkutuko gai bat azalerazten du, zeharbidez besterik ez bada ere. Ildo honetan, ezkutuko gaia, eta hortaz, osagarria badugu, oso litekeena da helburua zehar osagarria izatea, eta ez osagarri hutsa. Noski, honela

¹³⁵ *Abisatu* “Como verbo transitivo, los autores septentrionales y navarros lo emplean con aux. bipersonal (*abisatzen zaitut*) y los guipuzcoanos y vizcaínos con tripersonal (*abisatzen dizut*). No lo hemos encontrado en autores como Mendiburu, J.B. Aguirre y Lardizabal, y entre los vizcaínos sólo lo hemos encontrado en J.A. Moguel. En el presente siglo parece que su uso ha decaído en el Norte y se restringe a escritores populares en el Sur.” (OEh I: 120).

mendebaldeko datiboen agerpena azaltzen da, baina ipar-ekialdeko absolutiboak ezohiko bihurtzen ditu, osagarri gisako helburuak gutxi baitira. Dena den, mendeko perpausek ere gaia ezkutuan ez ezik, agerian ere egon daitekeela (207) erakusten dute, eta ageriko gaia izateak ez dakar ondorioz, helburua datiboaz markatzea —hau da, ez dugu *abisa iezadazu* (a) etsenpluan—.

Ikusiko dugunez, sorta honetan aztertuko ditugun aditz hauetako askoren alternantziaren muina gaia ala helburua, edo hobe, osagarria ala zehar osagarria ote dugun erabakitzean datzala pentsa daiteke. Jakina, horrek nahitaez hiztegitik atera eta gramatikaren beste atal batera eramango gintuzke, sintaxira alegia. Atal honen amaieran, hala ere, ohiko hurbilketa honen alderdi ilunak ere aipatuko ditugu.

Deitu aditzak ere euskalkien arabera alternantzia erakusten du, nahiz eta adieren arabera ere, hein batean, islatzen duen. Irudi zail samar hori pausuz pausuz argitzen saiatuko gara hurrengo lerroetan.

Aditz honek bi adiera nagusi dauzka: lehena “norbaiti etortzeko esan, norbaiten ohartasuna erakarri bereziki haren izena erabiliz, edo hitz edo hotsen baten bidez” eta bigarrena “delako izena izan; norbaiti edo zerbaiti halako izena eman” (Sarasola 2007: 267). Lehen adieran, absolutiboa erabiltzen da Iparraldean eta sarri askotan Nafarroa Garaian, nahiz eta Hegoaldekoen erabileran zehaztea oso zaila den, OEHk (OEH VI: 77) dioenez.¹³⁶ Bizkaitar idazleek eta gipuzkoar askok datiboa darabiltela dio, baina lehen adieran, gipuzkoar idazleek bereziki, absolutiboa nahiz datiboa darabiltzate alternantzia, bigarren adieran, salbuespenak salbuespen, datiboa nagusitzen den arren. Hortaz, lehenik eta behin, euskalkien arabera alternantzia dugula dirudi, Iparraldean eta, oro har, ekialdean absolutiboa nagusitzen delarik eta mendebaldean, berriz, datiboa. Halaber, mendebaldeko idazleen hautua adieren arabera ere bada, lehen adieran absolutibo eta datibo alternantzia egon arren, bigarrenean datiboa nagusitzen delako. Gainerakoan, mendebaldeko idazleen erabileran, absolutiboa nahiz datiboa txandakatzen dira horretan.

Gatozen orain adibideetara. Lehen adierari dagozkio ondoko adibideak —(a) adibideak absolutiboa dakar eta (b)-k, berriz, datiboa—:

¹³⁶ *Deitu*. (V, G, AN-egües-ilzarb-olza, L, BN, R, S) “*Tr*. De empleo general en todas las épocas y dialectos. Al Norte, aparece con aux. trans. bipersonal en todas sus acepciones, así como en muchos textos alto-navarros [...]. Al Sur es sumamente difícil detallar su uso, que varía casi de autor a autor. Galante. los autores vizcaínos y buena parte de los guipuzcoanos emplean el dativo (cf. Dv: «Le guipuscoan donne à ce nom verbal pour régime le datif au lieu du passif» y Azkue: «En V y G se usa con el dativo, en otros dialectos con el paciente»); Gte Erd 74 recoge trans. bipersonal en AN-5vill, BN-arb-lab y S, tripersonal en V-arr, G-azp, AN-gip y B), si bien no es infrecuente, sobre todo entre los guipuzcoanos, encontrar ambas construcciones en la 1.^a acepción (cf. p. ej.: *Beregana askotan deitu gaitu eta orain ere deitzen digu*. Gco I 409; en Cardaberaz y Beovide parece predominar el bipersonal); en la 2.^a, en cambio, predomina claramente el dat., con algunas excepciones (Arrue e Inza, p. ej., emplean más, o al menos por igual, el bipersonal). En el s. XX muchos autores de cierto nivel, desde Orixe por lo menos y sobre todo en la 2.^a mitad, emplean sólo o casi sólo bipersonal trans., incluso a veces tbn. en la 2.^a acepción.” (OEH VI:77)

- (208) a. Amar kinta deitu baizituzten lerro-lerro gudari-taldeko utsunerik larrienak betetzeko (Etxde *JF* 180)
- b. Deittu zetsan albulan zan emaztiari ixotu zeixan kandelua (Etxba *Ibilt* 467)

Ez dirudi, nahiz eta gure inpresioa besterik ez den, asko urruntzen direnik gaur egungo joerak, ildo nagusi hauetatik:

- (209) a. Eta hor agertu nintzen, ez ene baitarik, baina Erregeren izenean deitu ninduenari eta Orreagako ene buruzagiari sinesteko xedearekin (*Enkiridion*, M. Azpilkueta / P. Xarriton, 209)
- b. Horrela, ba, bulegora deitu nion (*Gorde nazazu lurpean*, R. Saizarbitoria, 183)

Hala, oso gutxi dira konfigurazio datibodunak erakusten dituzten adibideak bai *Herrian*, bai Iparraldeko testuetan —beste behin ere Corsintaxez baliaturik ikusi ahal izan dugun bezala—.

Bigarren adiera¹³⁷ biltzen dute ondokoek. Oraingoan ere, (a) adibidean osagarriak absolutiboa erakusten du eta (b) adibidean, datiboa:

- (210) a. Preparazionea, bertzela aphaintza deith dezakeguna (Dh 100)
- b. Inok ezteutso deittuten ezizen orregaz (Ehta *Jos* 131)

Eta adiera honi dagokionez ere, joera bertuko datuak jaso daiteke gaur egun ere —(a,b) vs. (c,d)—:

- (211) a. Argixuriko Mainer Igoa eta Stéphane Perrier familian sortu zaiote lehen haurra, muttiko bat, eta deitu dute Ekhi (*Herria*, 2001-10-04, 5)
- b. Bi ezagutza modu horiez bestalde, hirugarren bat badugu, urrunxeago erakutsiko dudana bezala, deituko baitugu ezagutza intuitiboa (*Etika Spinoza* / P. Xarriton, 203)
- c. Elur bustia deitzen diogu inguru hauetan: euriarekin nahasian eta artean ere maluta egin gabe, trinkotu gabe datorrenean (*Naturaren mintzoa*, P. Zabala, 28)
- d. Eta hori, hezkuntza deitzen dioten arren, ikaskuntza baino ez da (*Itsasoan euri*, Joserra Garzia, 192)

Bigarren adierari dagokionez, iruzkin interesgarri bat dakar OEhk (VI: 79)¹³⁸ inbertsonalak direla eta. Iparraldean, eta Nafarroa Garaiko testuetan, inper-

¹³⁷ *Deitu* 2 (V-gip, AN-egüés-ilzarb-olza, L, BN).

¹³⁸ “El impersonal se construye con intrans. unipersonales al Norte y tbn. gramte en textos alto-navarros; al Sur se emplean casi indistintamente (no es infrecuente encontrarlas todas en

tsonala inakusatibo soilez eraikitzen da, eskura dagoen argumentu bakarra absolutiboan markatuz (a); Hegoaldean, berriz, absolutiboan —eta, hortaz, inakusatibo soilaz— ez ezik, datiboan (b) ere marka daiteke —inakusatibo edota iragankor datibodunaz—:

- (212) a. Diszipuluak lehenik Antioken Kristino dei baitzitezen (Lç *Act* 11, 26)
b. Peste deitzen zaion gaitzez galduak (Mb *IArg* II 302)

Aukerarik ez dugu, zoritxarrez, inperzonalak luzaz aritzeko hemen. Gogoratu lan honen atarian esan dugun bezala, inperzonalak konfigurazio berriak sortzen dituzten egiturak direla, eta era berean, edozein aditz edota predikatutara nolabait orokortu daitezkeenak, hau da, ez direla predikatu batzuetara mugatzen —esate batera, orain aztertzen ari garen *deitu* eta abarretara—. Nolanahi ere, interesgarria da ikustea egitura inperzonalak absolutibo eta datibo alternantzia erakusten duten predikatuekin osatzen direnean, alternantziaren banaketa zehazten duten joera bertsuak ditugula inperzonalen absolutibo ala datiboa hautatzerakoan. Ezin daiteke zorizkoa izan. Momentuz, korrelazio horretaz jabetzearekin nahikoa izango da guretzat. Datu hauek behar bezala azaltzeko, inperzonalak, oro har, hitz egin beharko genuke, eta hori lan honen mugetatik kanpo dago.

Deitu aditzak alternantziatara begira erakusten dituen bi aurpegiak ulertutakoan, errazago ulertuko da *entzun* gure hurrengo aditza, hizkeren araberrako alternantzia erakusten duena.

Entzun aditzak ere absolutiboaz nahiz datiboaz marka dezake osagarria alternantzian. Ez, jakina, edozein osagarri. Izan ere, hemen aurkituko dugu lehenengoz, aditz hauetako batzuen datibo osagarriek erakusten duten ezauzgarri nagusia: datiboa erabiltzen den hizkera eremuan, gizakiak izan ohi dira datibo marka hori bereganatzen dutenak (a,b) eta absolutiboa gordetzen dute gizakiak ez diren osagarriek (c):

- (213) a. Vasia, entzuten didazu? Oso maite zaitut (*Zazpi urkatuak*, L.N. Andreiev / J. Morales, 91)
b. Entzun diozu Bilboko hizlariari (*Paperezko begazkinak*, L. Egia, 19)
c. Orduan Peterren ahotsa entzun genuen tximiniako hoditik (*Anne Franken egunkaria*, A. Frank / J. Zabaleta, 47)

Hala, datibo osagarriak helburu itxura, eta baita, zehar osagarri itxura hartzen du. Gainera, *entzun* aditza, ezkutuko osagarri bat —gaia den osagarria— gordetzen dutela diruditen aditzetako bat da, hau da, *entzun diozu* dio-

un mismo autor), ésa, el intrans. con dat. (tal vez algo más esta última) y, algo menos, intrans. tripersonal (*diote, deutse*).” (OEH VI: 79). Aipamenean, *intransitivoren* ordez *transitivo* behar duela esango genuke.

gunean, inplizituki *zerbait entzun diozula* pentsa genezake. Azalbide honek nahikoa bereizten ditu *entzun* bezalakoak, gorago azertu ditugun inergatibo datibodunetatik: haietan nekez uler zitekeen ezkutuko osagarria, osagarria izatez, datiboa bera baitzen —pentsatu adibidez, *lanari ekin zion* bezalako kasuetan; zein da, *lanari* ez bada, osagarria?—. Dena den, goian esan dugun bezala, zalantzak ere egon daitezke ezkutuko gaia dagoela aldarrikatzen duen hurbilketaren inguruan. Beherago zehaztuko ditugu.

Datiboa zilegi den eremura mugatuz —eta alde batera utziz pertsona ez diren osagarri absolutibo orokortuak—, absolutibo/datibo alternantziak bi konfigurazio nagusi ematen dizkio *entzun* aditzari: bata iragankor soila —*entzun zaitut*— eta bestea inergatibo datiboduna —*entzun dizut*—. Alternantzia, oraingoan ere, euskalkien araberako banaketari zor zaiola dirudi. OEHn (VI: 685) ageri denez, absolutiboa da Iparraldean gailentzen den markapena eta Hegoaldean, berriz, XIX. mendetik aurrera datiboa orokortzen bada ere, ordura arte bai absolutiboa bai datiboa erabiltzen ziren.¹³⁹ Ondoko adibideek erakusten dute absolutibo (a) eta datibo (b) txandakatzea:

- (214) a. Itz egizu, entzungo zaitut (Cb *Eg* II)
b. Enzun eidazu (Añ *EL* 170)

Lehen adibidean (a), *zu* absolutibo argumentua isilean egon arren, *zaitut* adizkiaren *z-* absolutibo komunztaduraren bitartez eskuratzen dugu. Aditz laguntzailea iragankor soila da, ikusten denez. Bigarrenean (b), berriz, *niri* datibo argumentua da isilean dagoena, *eidazu* laguntzaile datibodunak —*da-* datibo komunztadura hizkiaren bitartez erakusten digun bezala.

Antzekoak dira testu berriagoetan agertzen diren konfigurazioak (a,b) vs. (c,d):

- (215) a. Behin entzun ninduten lagun batekin solasean eta debekatu zidaten (*Septentrio*, A. Arkotxa, 110)
b. Isil hadi bederen, etsaiak ez gaitzan entzun! (*Zeruetako erresuma*, I. Borda, 250)
c. Bai, baina, entzuidak, ehorzle jaun-maisu (*Hamlet*, W. Shakespeare / J. Garzia 191)
d. Entzuten dizut (*Brooklyngo erokeriak*, P. Auster / O. Arana, 269)

¹³⁹ *Entzun* “Tr. De uso general en todas las épocas y dialectos. [...] Para “escuchar a alguien” los septentrionales usan exclusivamente el aux. trans. bipersonal; al Sur, desde mediados del s. XIX, se emplea generalmente el tripersonal, aunque parece que hasta esa época alternaban ambas construcciones (a menudo en un mismo autor), si bien predominando los ejs. del tipo *entzun nauzu* sobre los del tipo *entzun didazu*. Para *-t(z)en entzun*, mientras al Sur encontramos sólo ejs. con aux. tripersonal, al Norte hallamos tanto (p.ej.) *hori erraiten entzun diot* como *hori erraiten entzun dut*.” (OEH VI: 685)

Joera honek eraman gaitzake lehenxeago *abisatu* aditzarekin ikusi dugun bezala, Iparraldeko erabileretan, konfigurazio datibogabea gordetzera baita mendeko perpaus osagarri bat daukagunean ere, hala nola, ondoko honetan:

- (216) Entzun zaitut beti robot antzeko makina horiek langileak kentzen zituztela marmaritzen (*Hiruko*, I. Borda, 109)

Benetan, datu korapilatsuak dira hauek, datibo markapena azaltzen badugu esanez datiboa egotzen zaiola helburua eta baita zehar osagarria den argumentuari —perpaus berean inplizituki, gai osagarria dugularik— orduan esan beharko dugu zer dela eta ezartzen zaion absolutiboa helburu argumentuari, ageriko osagarri bat baldin badugu. Ez dira *abisatu ez entzun* halako egiturak erakusten dituzten aditz bakarrak, ondoren ikusiko dugunez.

Eskertu aditzak ere hizkeren araberrako alternantzia duela pentsa daiteke, beti ere datiboaz markatutako helburu osagarria, goian *entzun* aditzaz genion moduan, gizakia bada. Dena den, zalantza sortzen digu OEHk (VII: 329) aditz honetaz dakarrenak. Izan ere, hiztegiak dioenez, *norbait eskertu dut vs. norbaiti zerbait eskertu diot* izango genuke,¹⁴⁰ eta gauzak hala balira, behintzat, ez dirudi ezta alternantziak hitz egin genezakeenik ere —eta alternantziak hitz egin ezean, zeren araberrakoa den erabaki nahi izatea alperrikakoa litzateke—.

OEHk dakarren bigarren egituraz —*norbaiti zerbait eskertu diot*— ez dugu zalantzarik, jakina. Horretan, *eskertu* aditzak arrunta den konfigurazio iragankor datiboduna dauka, eta hortaz, espero izatekoa da datibo argumentu bat —*norbaiti*— eta absolutibo argumentu bat —*zerbait*— izatea. Lehenengo egitura da zalantza sortzen diguna, gure ustez, eta itxuraz, OEHk dakarrenaren kontra, alternantzia erakusten duena, hau da, *norbait eskertu dut vs. norbaiti eskertu diot*, ageriko gai osagarririk ez dagoenean ere. Horretarako arrazoia da mendebaldeko hizkeretan, oker ez bagaude, behintzat, nekez entzun daitezkeela absolutibo osagarridun esaldiak (a,b), Iparraldean, agian, entzun litezkeenak, eta datibo osagarridunak (c) direla naturalenak:

- (217) a. Gazte maite hoik eskertzen ditut (Mattin 30)
b. Lukas ez ginuela neholas ere hobeki eskertuko ene pertsu batztuez baino (Xa *Odol* 137)
c. Ongillei neurritz eskartuteko (Enb 203)

Ez dirudi kasualitatea denik, OEHko adibideei begira, Mattin eta Xalbador izatea, hain zuzen, egitura horretan, absolutiboa darabilten idazleak.

¹⁴⁰ *Eskertu* (V-gip ap. Elexp *Berg*) “(Con aux. trans. bipersonal) dar las gracias (a alguien); (con aux. tripersonal) agradecer (algo a alguien). Tr. Documentado este siglo en textos meridionales y en Mattin y Xalbador.” (OEH VII: 329).

Gure uste hori are sendoagoa da EPGeko datuak ikusi eta gero:

- (218) a. Diru horren biltzen okupatu diren gazteek eskertzen gaituzte eta guk erranen diotegu: Goresmenak zueri Mainer, Mañex eta Peio. (*Herria*, 2004-03-18, 5)
- b. Eta berriz ere eskertzen zaitut (*Anaiaren azken bitza*, D. Landart 157)

Halako adibideen ale bat bera ere ez dago, adibidez, Hegoaldeko idazleen liburuetan, zeinetan ageriko osagarririk ez dagoen kasuetan ere, konfigurazio datiboduna erabiltzen den:

- (219) a. Eskertzen dizut (*On Camillo*, G. Guareschi / K. Biguri, 105)
- b. Rubenek musu batekin eskertu dit (*Jeans-ak hozkailuan*, P. Zubizarreta, 312)

Eskertu aditzak erakusten duen alternantziaren hedadura ez da beharbada *entzunena* bezain zabala izango, baina ez du horrek esan nahi alternantzia zantzuak ez daudenik. Gainera, hipotetikoki alternantzia sortaraz dezaketen aditzen ezaugarriak biltzen ditu: alternantziarik ez dago gai osagarria agerian dagoen kasuetan, baina gai osagarri hori inplizitua izanez gero, orduan, gizaki helburuak —lehen eta bigarren pertsonakoak nagusiki— absolutiboa nahiz datiboa jaso ditzake.

Sorta honetako aditza dugu baita *lagundu*¹⁴¹ ere. Aditz hau sarri aipatu izan da absolutibo eta datibo alternantzia erakusten dutenen artean. Bata ala bestearen arteko hautua badirudi hizkeren arabera dela, hein handi batean, OEHK (XI: 193) jasotzen duenez. OEHK dio Iparraldeko aintzinako testigantzetan, laguntzaile iragangaitz datiboduna —(*lagundu*) *zaio*— nahiz laguntzaile iragankor soila —(*lagundu*) *du*— aurki zitezkeela, nahiz eta XVIII. mendetik aurrera, iragankor soila orokortu zen. Mendebaldeko idazleengan, berriz, salbuespenak salbuespen, laguntzaile iragankor datiboduna —(*lagundu*) *dio*— da nagusi,¹⁴²

¹⁴¹ *Lagundu* (gral.); *laguntu* (S). “Tr. De uso general en todas las épocas y dialectos.” (OEH XI: 193).

¹⁴² “En cuanto a su empleo trans. o intrans., los testimonios septentrionales más antiguos corresponden a dos tipos de construcciones: una con aux. intrans. y otra con aux. trans. bipersonal. Se documentan ambas, en proporción similar, en Leizarraga, Etcheberri de Ziburu, Voltoire, Gasteluçar, y sólo con aux. intrans. en Materre, Haramburu, Arambillaga, Axular, Harizmendi, Pouvreau y Tartas. A partir de s. XVIII se generaliza el empleo del aux. trans. bipersonal, si bien se documentan algunos ejes. aislados de aux. intrans. (en todos ellos junto al más frecuente trans. bipersonal) en autores como Chourio, Baratciart, Duhalde, Duvoisin, Zalduby y Goyhetteche. [...] Para autores occidentales es general el uso del aux. trans. tripersonal salvo ejes. más o menos aislados. Así, el primer testimonio vizcaíno de fray Juan de Zumárraga es con aux. trans. bipersonal, mientras que se atestigu sólo aux. intrans. en Capanaga, y tbn. intrans. (junto con aux. trans. tripersonal) en Ochoa de Arin. La casi totalidad de los ejes. posteriores de aux. intrans., corresponden en su mayoría a lo que parecen ser construcciones

eta ekialdekoengan forma guztiak jasotzen dira.¹⁴³ Ekialdeko erabilera alde batera, beraz, pentsatzekoa da gaur egun *lagundu* aditzarekin ere, Iparraldean osagarria absolutiboaz markatzeko joera dagoela eta mendebaldean, berriz, datiboaz —nahiz eta absolutiboaren erakusgarriak ere jaso daitezkeen—. Hortaz, alternantzia egon badago, eta eremu geografiko zabal batean, behintzat, hizkeren araberakoa dela esan daiteke. Dena den, datu historikoak gogoan, azpimarratu beharko genuke berez osagarria bera absolutiboaz nahiz datiboaz marka zitekeela aintzina, aditza bi modutara atontzen zen arren: absolutiboaz markatuz gero, iragankor soil gisa, eta datiboaz markatuz gero, berriz, inakusatibo datibodun gisa. Bilakaeraren arrazoiak zein diren jakin ez arren, osagarriaren datibo markapena galdu egin da, eta berarekin batera inakusatibo moduko itxura, ordutik aurrera, absolutiboa gailenduz eta ondorioz, *lagundu* iragankor soil gisa itxuratuz.¹⁴⁴

Baina ikus ditzagun adibideak, hori baita gauzak argi ikusteko modurik onena. Ondokoak dira aditzak “nor baitengana bildu, doan tokira harekin joateko” adieraz (Sarasola 2007: 673) erakusten dituen zenbait adibide. Absolutibodunak dira hasierako biak (a,b) eta datibodunak ondoren datozenak (c,d):

- (220) a. Doña Inesek ospitaleraino lagundu zuen (Laph 36)
- b. Harek gida ditzan eta lagünt ditzan zelüko portialano (Ip *Hil* 30)
- c. Josetxo [...] lagundu bear deuskuzu Buenos Airesera, ostera bat egittera. (Echta *Jos* 318)
- d. Ramuntxori ateraño lagundu dio (Alz *Ram* 27)

Laguntzailea iragankor datibogabea da hasierako bi adibideetan, eta datiboduna, berriz, besteetan. Ostean, nagusiki Iparraldeko idazleengan, osagarria datiboaz markatu eta aditza inakusatibo modura itxuratuz aurki daitezkeen adibideak dira ondoko hauek:

- (221) a. Lagundu bekio eta egon bidi Sakramendu Santuen aurrean [...] deboziño andiagaz (Cap 124s)
- b. Nori bere aingerua laguntzen zaika bere heriotzean (Hm 229)

fossilizadas de imperativo, muchas de ellas en contextos con *Jauna, Jaungoikoa...* etc. Así, se documenta *lagun zakidaz* en Cardaberaz (*CatV* 100) [...] La construcción con aux. trans. bipersonal se documenta tbn. en algunos autores occidentales (en todos ellos junto al más frecuente aux. trans. tripersonal).” (OEH XI: 193).

¹⁴³ Xehetasunetarako, jo OEHra (XI: 193).

¹⁴⁴ Konturatuko zen irakurlea datu berberei gutxienez bi ikuspuntutatik begira dakiekeela. Guk berez osagarriaren markapenari begira gaude —noiz absolutiboa noiz datiboa— eta zehar bidez, aditzaren itxura inakusatibo eta iragankorrari —datiboduna izan zein ez— dagokien laguntzailearekin. Aldiz, OEHren testua arretaz irakurriz gero, aditz laguntzailearen hautaketa da lehenesten den irizpidea —noiz iragangaitz noiz iragankor, pertsona biko ala hirukoa den—, horrek osagarriaren markapenean dakartzan ondorioekin. Ikus baita Etxepare (2003).

Alabaina, konfigurazio inakusatibo honen datu bat bera ere ez dago EPGen, ez *Herrian* ez Iparraldeko idazleen lanetan, eta datutegi osoan, konfigurazio honetakoak beti dira egitura inpertsonalak, honako hau adibidez:

- (222) Eta harrigarria dela diogu, hemen beti entzun izan baitugu unibertsitateari asko laguntzen zaiola eta diru asko ematen zaiola (*Unibertsitatea eta euskal gizartea gaur*, J.I. Pérez / P. Salaburu, 81)

Gogoan izan, lehenago esan dugun bezala, adibide honetan ere konfigurazio inakusatiboa izatea ez zaiola zor *lagundu* aditzari berari (221) adibideetan bezala, ez bada egitura inpertsonala izateari, eta hortaz, ez da, orain bederen, kontuan hartzeko datua.

Goiko adierako adibideetan, antzeko joera suma daiteke oraingo testuetan ere, alegia, absolutiboa Iparraldean (a,b) eta datiboa Hegoaldean (c,d):

- (223) a. Bihar, tenore berean, soldadu saldo bat igorriko dut, eta oraino hemen bazaudete, biak lagunduko zaituztete Uztaritzerraino eta handik Baionaraino, Guianarako itsasontzian sartzeko. (*Hautsi da katea*, T. Mtz. de Lecea / E. Touyarou, 150)
- b. Amaiurreraino lagunduko zaituztegu (*Anbroxio*, E. Bidegain, 25)
- c. Salaraino lagundu nion, eta sofán eserita geratu zen (*Gerezi denbora*, I. Mujika Iraola, 24)
- d. Handik pare bat urtera, June berriz ezkondu zen, eta berriz lagundu nion aldareraino (*Brooklyngo erokeriak*, P. Auster / O. Arana, 19)

Joera horretan, Iparraldeko testuetan eta *Herria* aldizkarian ez dago konfigurazio datibodunaren datu bat bera ere adiera honetan. Ostean, Hegoaldeko idazleen artean, badira konfigurazio iragankor soila ere erakusten dutenak, Iparraldeko egileen antzera:

- (224) a. Ikastetxe ateraino lagunduko zaitut? (*Lagun izoztua*, J. Sarrionaindia, 123)
- b. Emakume biak saiatutako kontsolamendu-berba bakanei ez entzunarena egin zien, amak “erdu, logelaraino lagunduko” esan arte (*Odolbilda*, J. Landa, 34)

Hortaz, hizkera banaketa dagoen arren, bi formak, absolutibo eta datiboa, hizkera eremu berean ere aurki daitezkeela dirudi; hizkera monitorizatueta bakarrik gertatzen den ikusi beharko litzateke.

Bestalde, aditz beraren bigarren adiera nagusiaz ere “laguntza eman” adieraz alegia, alternantzia bera antzematen da. Ikusi ondoko adibideetan, absolutiboa lehenik (a,b) eta datiboa ondoren (c,d):¹⁴⁵

- (225) a. Hauzoko yende onek lagundu ez bagintuzte nork daki zer bilhakatuko ginen? (Elzb *PAd* 16)
- b. Lagun nezazu haritzaren arthikitzen (*VocBN*)
- c. Da hainbeste lagundu deuskun gizonari emondako itza jan? (Ag *Kr* 177)
- d. Rozinanteren gaiñera igotzen lagundu zion (Berron *Kijote* 115)

Ohartuko zen irakurlea *zertan* lagundu diogunean ere —*haritzaren arthikitzen* edo *Rozinanteren gaiñera igotzen*— absolutibo eta datibo alternantzia bera dagoela —(b) vs. (d)—. Antzera esan daiteke testu modernoetako testigantzez (a,b) vs. (d):

- (226) a. Zutitzen lagundu ninduen (*Entre les loups cruels*, I. Borda, 42)
- b. eta gure begirale eta Jaunak herri guztietako herritar guztiak beti lagun gaitzala haren laguntzaren eskatzen elkar maita dezagun eta salba gaitezen oihu eginez: Jainkoa zatoz gure laguntzera! (*Enkiridion*, M. Azpilkueta / P. Xarriton, 31)
- c. Ibiltzeko gauza zara ala lagunduko dizugu? (*Iruzurgilea*, J. Cain / X. Olarra, 108)
- d. eta oroimenaren fruiturik finena jakinduria izan da, jakinduria ezberdin bat, jakinduria berri bat, gizakiari hainbat gauza ulertzen lagundu diona (*Gauza txikien liburua*, P. Aristi, 55)

Eta oker ez bagaude, (a,b) aukerak ez dira mendebaldekoak.

Azkenik, bigarren adiera honetan ere, inakusatibo datiboduna da *lagundu*¹⁴⁶ eta osagarria datibo kasuaz markatzen da, jakina, baina ez dakigu ez ote diren iragan denboretako testigantzak, gaur egun ez ditugu-eta aurkitu:

¹⁴⁵ Ez dirudi, hortaz, aditzaren adieren araberako hautua denik, Etxepare (2003) irakurrita pentsa litekeen bezala. Etxeparek dio *lagundu zaitut* diogunean “laguntza eman” dela adiera egokia, eta *lagundu dizut* diogunean, berriz, adiera hori bera nahiz “nor baitengana bildu, doan tokira harekin joateko” bigarren adiera ere izan dezakeela aditzak. Guk OEHren adibi-deak arakatuta ez dugu ikusten hautu nagusiki dialektala besterik. Ikus baita Sarasola (2007: 673).

¹⁴⁶ Inakusatibo soil moduko azken adiera ere badakar OEH agortezinak (V-ger ap. A) “Acompañarse, juntarse con gente ruin, perversa.” *Etzaitz lagundu eurakaz, iges egizu onelako miin galdubakgandik* (Ast II 194).

- (227) a. Lagunak lagun zakidaz; okaranak gorriak dakidaz¹⁴⁷
b. Zer gauzetako lagunzen zaizkigu Espiritu sanduaren doaiak? (Ber Doc 162v)

Ikusi dugunez, hedadura nahikoa handiko alternantzia da *lagundu* aditzak erakusten duena, eta itxura guztien arabera, hizkerak baldintzaturiko alternantzia da. Alternantziaren arrazoi intimoenean, badirudi berriz ere, gizaki diren helburu osagarriak direla nagusi adiera batean nahiz bestean, eta gizaki helburu horiek direla, hain zuzen, datibo markapena zilegi egiten dutenak.

Osagarri bizidunetikiko sentikortasun honek, ezinbestez, gaztelaniaren *Osagarri Markapen Bereizgarria (Differential Object Marking DOM)* deritzan fenomenora garamatzate, hau da, osagarri bizidun eta zehaztuak, bestelakoak ez bezala markatzen dituen sistemara. Bien hurbiltasuna alderdi honetatik ez ezik, esanguratsua dirudien beste alderdi batetik ere badator: osagarri bizidunak zehar osagarriak adierazten dituen marka beraren bidez markatzen, hain zuzen ere (*a* preposizioa). Ez dugu uste hau alternantzien azalpen osoa ez eta nagusia ere denik, geroago aipatuko ditugun arrazoiengatik. Alabaina, ezkutuko gai osagarriaren analisiak baditu bere murriztapenak, eta horiek ere izango ditugu mintzagai. DOM fenomenoarekiko lotura ahultzen duten bi faktoreak hauexek dira. Lehenengo eta behin, DOMen eremuan, predikatu iragankor guztien osagarriak markatzen dira biziduntasun edota zehaztutasunaren arabera, ez predikatu jakin batzuenak bakarrik. Hau da, *niri lagundu didateren* antzekoak esaten dituzten hitzun guztiek ez dute nahitaez *niri ikusi didate* esaten. Honelako joerak existitu egiten dira euskaraz,¹⁴⁸ baina mugatuago daude eta baldintza soziolinguistiko jakinak dituzte gure oraingo datuen aldean. Predikatu talde txiki eta ezagun batez ari gara hemen, ez, oro har, osagarri iragankorren markapenaz. Bigarrenik, predikatu talde hauexek bera da gaztelaniaren barruan ere datibo/akusatibo txandakatzea erakusten duena: *lella oí, ayudé* fluktuazioa oso da ezaguna gaztelaniaren barruan. Ez da, beraz, harriztekoa antzeko fenomenoak ditugunean, predikatu horiek aurkitzea beste hizkuntza batzuetan ere, ezta, beraz, ingelesez *listen* predikatuak zehar osagarria hartzea. Arazo semantikoa omen dago hemen, eta semantikoa den heinean, hizkuntzartean aurki daitekeena. Ukipena, beraz, ez da erantzulea, edo ez da, behintzat, erantzule bakarra.

Guztiarekin ere, ezkutuko gaiaren hurbilketak, azalpen dotorea eman arren, baditu pisuzko mugak. Ez dugu ukatzen batzuetan ezkutuko gai argumentua egon daitekeela, agerian ere aurki baitezakegu. Zalantza da ea benetan kasu guzti-guztietan horrelakorik ote dugun. Hurbilketa hau erabiltzea

¹⁴⁷ H (V-gip) “Tengo un buen negocio, ayudadme; litm., compañeros, ayudadme, sé (que hay) ciruelas rojas.”

¹⁴⁸ Gogoan hartu *berriz ere maiteko dio ene aitak amari* bezalakoak.

bera ere esanguratsua da, gaiak ezkutuan uztea guztiz arrunta baita euskaraz, baina ohiko predikatu iragankorren kasuan aipatu ere egin behar ez den datua da, ez baitago azaldu beharreko ezer, horri dagokionez. Hortaz, berezia den zerbait izan behar dugu, predikatu hauetan tratamendu berezi bat eskatzeko. Orobat, bizidunekiko loturak lausotzen du hurbilketa: zergatik aurkitu beharko lirateke ezkutuko gaiak helburu bizidunetan bakarrik eta ez bizigabeetan? Posible bada erreka batek sortzen duen zurrumurrua entzutea, zergatik ez dugu *errekari entzun nion* bezalakoak? Honek guztionek, predikatu talde honen apartekotasun semantikora garamatza, eta, beharbada, azterbi-deak hortik jo beharko luke.

Hauexek, hortaz, euskalkien arabera alternantzia erakusten duten aditzak. Ikus ditzagun orain adieren arabera alternantzia duten aditzak. *Begiratu, deitu, erreparatu, esetsi, jazarri, jarraitu, laga* eta *ukitu* dira. Gogoratu *deitu* aditza aztertua dugula dagoeneko, alternantzia dialektala ere erakusten duelako. Hasi gaitezen, bada, *begiratu* aditzarekin.

4.2.3. Adieren arabera alternantziak

Absolutibo/datibo alternantzien artean adieren arabera berezi behar ditugu bigarrenik. Alternantzia mota hau duten aditzen artean, gure ustez, *begiratu, erreparatu, esetsi, jazarri, ukitu* eta *laga* daude. Sorta honetako aditzek —*laga*, hein batean, alde batera utziz— badute berezkoa den ezaugarri komun bat, lehengo *entzun* edo *eskertu* bezalakoetatik bereizteko bidea ematen digutenak. Goian esan dugunez, *entzun* edo *eskertu* aditzek datiboa erakusten dutenean, datibo hori gizaki helburutzat har daiteke, eta ezkutuko gai bat dagoela pentsa daiteke —eragozpenak eragozpen—. Aldiz, *begiratu, erreparatu* eta abarretan, ez dirudi gai osagarri implizitu bat dugunik. Osagarri bat bakarra dugu, eta hori da, hain zuzen, datiboaz markatzen dena. Hau oso kontuan hartzeko ezaugarria da, gure ustez, bi egitura proposatzera eraman gaitzakeelako: bata gai osagarri implizitu bat duena, eta datiboaz markatzen duena helburu osagarria —*eskertu* aditzarekin adibidez—; eta bestea, ezkutuko gairik ez duena, eta osagarri bakarrari datiboa —edota absolutiboa— egozten diona —*begiratu*—. Joka dezagun, bada, uste honekin, eta ikus ditzagun ondoren alternantzia mota honen xehetasunak aditzez aditz. Bidean erakutsiko dugu uste hori zuzena dela ia bertan zerrendatu ditugun aditz guztietan.

Begiratu aditzak dituen adieretako batean “zerbait edo norbaitengana begiak zuzendu” (Sarasola 2007: 184), ia garai eta euskalki guztietan,¹⁴⁹ datibo eta adlatiboaz markatzen da osagarria. Hegoaldeko idazleen artean, absolutiboaz ere markatzen da batzuetan, normalean datiboarekin alternantzian, nahiz

¹⁴⁹ *Begiratu* “Tr. Documentado en todos los dialectos, excepto en suletino. Es de uso general en la tradición meridional. Su empleo en labortado se reduce a unos pocos ejemplos; tbn. se encuentra en los bajo-navarros Detchepare, Monho, Joannateguy y Arbelbide.” (OEH IV: 464)

eta XX. mende hasieratik aurrera sarriago erabiltzen den, OEhk (IV: 464) dioenez.¹⁵⁰

Ondoko adibideetan, datiboaren testigantza dugu. Testigantza honetan, nabarmentzekoa da datiboaren izaera, biziduntasunari dagokionez. Izan ere, (a,b) adibideetan, osagarria biziduna da eta, are, gizakia —*niri* eta *argiñari*— eta (c,d) adibideetan, datibo argumentua izan arren, bizigabea —*apelliduari* eta *bertuteari*—:

- (228) a. Ken itzatu bada nigandik zure begiok; ez niri begiratu (Lar *SAgust* 14)
- b. Kopetako izerdiari begiratu gabe laguntzen zien argiñari lanian (Bv *AsL* 51)
- c. Eztodala erdeldun antzik, iñundik be, ta olakuak esaten iñardu yuek, baia dana alperrik, apelliduari bakarrrik begitu yeutsiek (Kk *Ab* II 183)
- d. Tristeziari / Bihotza libratuz / Bertuteari zeharka beiratuz (Monho 84)¹⁵¹

Honek, neurri batean, osagarria datiboaz markatzeko murriztapenik ez duela erakusten digu. Gogoan izan Fernández & Rezacek (2008) erakutsi dutenez, datibo osagarriek diferente jokatzeko dutela alternantziadun aditzei zor zaizkienean —*begiratu* aditzari, esate baterako— edo osagarri markapen bereizgarriari (differential object marking DOM) berari dagozkionean —*zuri ikusi dizut* ez-estandarrean—. Azken honetan, ez dirudi osagarri gizaki edo bizidunak baino izan ditzakegunik.¹⁵²

Joera hau bera antzeman daiteke gaur egungo erabileran ere. Egile berak sarri askotan, gizaki/bizidun zein bizigabeekin darabil datibo kasua. Bizigabeak nonahi ia aurki daitezke, adibidez, Atxagaren lanean, eta ez da, jakina, erabilera idiolektal hutsa —ikus adibidez E. Jimenez edo R. Saizarbitoriarenak, beste bi baino ez aipatzearren—:

- (229) a. Mary Anni begiratu nion (*Soinujolearen semea*, B. Atxaga, 12)
- b. Erlojuari begiratu nion (*ibid.*, B. Atxaga, 193)
- c. Virginiaren etxeari begiratu nion (*ibid.*, B. Atxaga, 333)
- d. Telebistari begiratu nion (*ibid.*, B. Atxaga, 359)

¹⁵⁰ “El complemento va, prácticamente en todas las épocas y dialectos, en dativo o alativo. Hay unos pocos ejemplos, siempre en autores meridionales, de complemento en caso absoluto: se encuentra a menudo, aunque en general junto al dativo, en Elizalde, Cardaberaz, Lizarraga de Elcano, Astarloa y Arrue; el caso absoluto se hace más frecuente desde principios del s. XX. Duvoisin emplea a menudo el auxiliar intransitivo bipersonal con sujeto personal (*begiratu natzaio*); tbn. en un ejemplo de *Cantica izpiritualak* citado por Harriet.” (OEh IV: 464).

¹⁵¹ Itxuraz, baxenafarren adibideetan ere, Monhoren honetan, adibidez, datiboa ageri da adiera horretan. Horregatik, ez dirudi kasu honetan, behintzat, euskalkien araberakoa denik alternantzia.

¹⁵² Oso litekeena da gizaki edo bizidun izatea hizkeratik hizkerara parametrotu daitekeen aukera izatea, baina, nabardurak izan arren, DOM itxurako datibo osagarriak ditugunean, ezin daiteke datiboaz markatu bizigabea den osagarririk.

Hori bera esan daiteke baita Iparraldeko egileez ari garela ere. Ikusi ondoren Landartenak:

- (230) a. Begi bazterraz amari begiratu nion (*Anaiaren azken hitzak*, D. Landart, 59)
- b. Harritu nintzen eta berehala erlojuari begiratu nion (*ibid.*, D. Landart, 11)
- c. Gerezi ondoari luzaz begiratu nion (*ibid.*, D. Landart, 189)

Alternantziaren zantzueta itzuliz, absolutiboa ikus daiteke beste hauetan, osagarri bizigabe (a,b) eta bizidunarekin (c), hurrenez hurren:

- (231) a. Bere ugazabaren arpegia betik gora begiratzen du (Etxde *AlosT* 28)
- b. Begitu zotz zar au. Zelan arraio atonduko ete zan onaño elduteko? (Altuna 84)¹⁵³
- c. Hara, beitu zugatz aren azpijan jezarritta dagon eskale ziztrin-loi a (Altuna 96)¹⁵⁴

Eta ez dira horrenbeste, adiera honetan, egungo literatura lanetan osagarria absolutiboaz markatzen dutenen erakusgarriak, baina izan badira, eta ez gutxi:

- (232) a. Liburua itxi eta azala begiratu dut berriro (*Gauza txikien liburua*, P. Aristi, 90)
- b. Amaierarik ez duen zelaia begiratuko duzu ea aita ageri den, eta puntu bat ikusiko duzu han urrun (*Lagun izoztua*, J. Sarrionaindia, 363)
- c. Aspaldion, erretreta hartu zuenetik, halaxe begiratzen ditu L. ikerlariak ere liburuak, artxibo nagusiko eskuizkribuak, mikrofilmak (*Konpainia noblean*, A. Lertxundi, 111)
- d. Emazteak zakur zanpatu soaz begiratu ninduen (*%100 Basque*, I. Borda, 202)
- e. Harek ikusi etxeak begiratzen nituen, urrats berak eginez berdin, ustez ez nuela egiazki galdu maite dudana emaztea (*Azken apeza*, P. Aintziart, 69)

¹⁵³ Testigantza hauek alde batera, gogoratu Duvoisinek inakusatibo datibodun modura darabilela *begiratu* aditza, ondoko adibidean ikus daitekeen bezala *Eta bethi irauen duthen suak, nola jasan behar ditut nik? Nola horri ez natzai begiratu* (Dv *Led* 183).

¹⁵⁴ *Beituk*, hala ere, batzuetan erabilera beregaina dauka, *begiraturekin* guztiz bat ez datorena.

Bada, datu hauek guztiek erakusten dute adiera honetan *begiratu* aditzak absolutibo/datibo alternantzia duela. Gainerakoan, sorta honetako aditzetan lehenengoz, datiboa adlatiboarekin txandakatzen da, edo bestela esanda, datibo eta adlatibo alternantzia ere bada. Ondoko adibideek adlatiboa erakusten dute, osagarria izena (a-c) izan zein nominalizazioa (d):

- (233) a. Begira zazu istiborrerat eta deskubri zazu hareazko mendi bat (Cap 87)
- b. Neuk dakit merezietan eztodala begiretea zeure arpegi ederrera (Urqz 3)
- c. Uste dot Edestiara (Historiara) begiratu ezkerro, ikusten dala erri jakintsuak jausi dirala beti erri kirtenen menpian (Kk *Ab* II 110)
- d. Errenteru askok bere ez dau begiratuten korta ta ganbara onak eukitera baño (JJMg *BasEsc* 201)

Kontuan izan adibide guztietan osagai bizigabe bati ezarri zaiola adlatiboa. Bestalde, osagarria mendeko perpaus jokatua izanez gero, gorago *iritzi* aditza aztertu dugunean esan dugun bezala, itxuraz mendeko perpausera begira dagoen datibo komunztadura harrigarri samar hura ere ageri da *begiratu* aditzarekin ere. Ondoko adibide hauetan, NZ-hitzez hasitako zehar galdera dugu lehena (a) eta harridura sintagma (hemen ez da perpaus izatera ailegatzten), bigarrena (b):

- (234) a. Ekusiko ditu zure obra onak, eta begiratuko die nola eta zergatik egiñak diran (AA III 460)
- b. Begira akiok zer bei para: probintzian ez zioz oberik (Alz *Ram* 102)

Mendeko perpaus jokatuak ez du kasurik, baina datibo komunztadura gorde egiten da inflexioan. Datibo komunztaduraz gabe, absolutibo komunztaduraz agertzen da adizki nagusia, osagarria mendeko perpausa denean, esaterako, bai-ezko zehar galdera ondoko adibidean:

- (235) Erregutzen detsut beittu deizula ia iñoiz ikusi destazun ezer txarto pentsatu eraitzeko gauzarik (Etxba *Ibilt* 480)

Baina ez dezagun hari nagusia galdu, *begiraturen* kasuistika guztia erakutsi nahian. Gogoratu *begiratu* aditzak adieren araberrako alternantzia duela aldarrikatu dugula gorago. Horrek esan nahi duena da lehen adieran, absolutibo eta datibo alternantzia erakutsi arren —nagusiki, datiboa egon arren—, bigarrenean ez dagoela, printzipioz alternantziarik. Ikus dezagun, bada, bigarren adiera hori, “babestu, zaindu” (Sarasola 2007: 184) alegia. Adiera honetan, absolutiboaz markatzen da osagarria (a-d), ez datiboaz, eta aditza itxura

iragankor soilean azaltzen da. Batzuetan, ablatibo sintagma batek laguntzen dio, hala nola, (d,e,f) adibideetan:

- (236) a. Begiratu zuen bere burua errhoarena eginik (Lg I 285)
- b. Eskara ere luke nahi begiratu (Hb *Esk* 127)
- c. Eskolako bidean atzeman hostoa, gogoratzen zait erakutsi niola, bera karlista- seme eta beti euskaltzale suhar ezagutu dudan Laurentx Ayerza gure errient zenari eta, geroztik, ene paper baliosen artean begiratu nuen hosto xume hura (*De re publica edo politikaz*, P. Xarriton, 118)
- d. Begira nazazu peril guztietarik (Mat 187)
- e. Gatzak begiratzen, gordetzen du aragia usteltzetik (Ir *YKBiz* 120n)
- f. Edariak nire oroimenari ezarritako lausoak begiratu ninduen, noski, burua lehertzetik, amaren herrira joateko errepide bihurriko edozein bihurgunetan (*Rock'n'roll*, A. Epaltza, 212)

Ikusi dugunez, *begiratu* aditzaren alternantzia ez da hizkeren araberakoa, nagusiki adieren araberakoa baino. Halaber, datiboaz markatzen den osagarriak aditzaren osagarri bakarra dirudi, eta ezin dugu esan, beraz, ezkutuan beste osagarririk dagoenik. Ondoren ikusiko dugunez, honi dagokionez, nahikoa antzekoa da baita *erreparatu* aditza ere.

Erreparatu aditzerako bi adiera nagusi jasotzen dira, hau da, batetik “ordaindu; antolatu, osatu” eta bestetik “ohartu, arreta jarri, sumatu” (Sarasola 2007: 341). Lehen adiera Iparraldeko testuetan eta Beoviderengan aurkitzen dela dio OEhk (VII: 176). Adiera horretan, absolutiboz markatutako osagarriak baino ez ditu jasotzen (a,b) OEhk:

- (237) a. Errepara zazu denbora galduba (Mih 11)
- b. Ezin da errepara egin izan dena, / sofritzen dutana ni ez bainaiz azkena (Xa *Odol* 341)

Besterik da bigarren adieraz erakusten dena. Hegoaldeko testuetan jasotzen da berau eta askotariko alternantzia antzematen zaio, baina ez, pentsa litekeen bezala, absolutibo eta datibo alternantziarik, datibo eta postposizio alternantzia baino. Sarasolak (2007: 341) (a,b) bezalako adibide datibodunak jasotzen ditu bigarren adiera honetan. OEhtik (VII: 176) jaso ditugu inesibo (c) eta adlatiboduna (d):¹⁵⁵

¹⁵⁵ Sarasolak dio datiboa dela nagusi bigarren adieran eta halaxe jasotzen du, baina OEhk ez dakar datibo garbiko adibiderik. Oso bestela, EPG arakatuz gero, asko eta asko dira adiera honetan datiboaz markatutakoak.

- (238) a. Keari erreparatzen dio (*Azken hitzordua*, S. Marai / X. Olarra, 128)
- b. Eta nik hitz egin ahala, Rubenen irribarre gero eta zabalagoari erreparatu diot (*Jeans-ak bozkailuan*, P. Zubizarreta, 203)
- c. Erreparatu zazute ondo / jarriko dedan puntuan, [...] biziorikan txarrena dago / seigarren mandamentuan (Uzt *Noiz* 15)
- d. Obe zenduen zere etxera / erreparatu bazendu (Tx *B I* 260)

Erreparatu aditzak, beraz, postposizio alternantziak alde batera utzirik, adieraren araberako alternantzia erakusten duela dirudi, eta itxuraz, adierei kasu bana dagokie —lehen adierari, absolutiboa, eta bigarrenari, gehienetan datiboa, *begiratu* aditzean bezalaxe—. Bestalde, adiera bat Iparraldean eta beste Hegoaldean nagusitzen direnez, ez dugu jakiterik absolutibo eta datibo kasuen hautaketa hizkeren araberakoa ere ez ote den. Dena den, gaur egun nagusi den bigarren adieran, absolutiboaren adibideak ere aurki daitezke datiboarekin alternantzian¹⁵⁶ —beti ere datiboa nagusituz—:

- (239) a. Lehenengo zabaldu nuenean, hitzok erreparatu nituen (*Fantasiako ipuinak*, G. de Maupassant / J. Zabaleta, 371)
- b. Hondarribitik erreparatu dute Larun mendiak jantzi ohi duen laino-gerrikoa (*Naturaren mintzoa*, P. Zabala, 334)
- c. Eta balea bat erreparatuko duzue (*Lagun izoztua*, J. Sarrionaindia, 379)

Amaitzeko, *begiratu* aditzarekin batera jaso berri ditugun mendeko perpaus jokatuaren ondoko datibo komunztadura agertzen zaigu baita *erreparatu* aditzarekin ere. Hala (c,d,e) perpausetan, (a,b) adibideetan ez bezala:

- (240) a. Emen erreparatu nai det askoz ere gutxiago dala Jainkoak eskatzen didana (Cb *Eg II* 120)
- b. Nik nahi baino luzeago iraun du kanpaien deiak nire gelako leihoetik sartzen (atzo ez nuen erreparatu moja-komentu bat dagoela hotel ondoko Santa Maria in Nazareth elizaren atzean) (*Italia, bizitza bizpide*, A. Lertxundi, 70)
- c. —Zer dan erreparau dautozue gero? —Nok igarri zer dan?... Gauz ona ez behintzat (Kk *Ab II* 121)
- d. Eztud dudarik erreparatu diola itz batez mintzatan grela bi gisatako elen (Mdg 132)
- e. Erreparatu diot saltzaileak emazteari “umea” esaten ziola eta honek arineketan joan behar zuela gauza bakoitzaren bila (*Zoririk ez*, I. Kertész / U. Urrutikoetxea, 23)

¹⁵⁶ Azterketa zehatza egin beharko litzateke hauek adibide monitorizatuak diren jakiteko, hau da, gramatikaren inguruko uste kontziente batek sortuak.

Segi dezagun, bada, aurrera *esetsi* aditzarekin, gorago adieren araberako alternantzia erakusteko erabili dugun berarekin. Irakurleak gogoratuko duenez, *esetsi*¹⁵⁷ aditzerako bi adiera jasotzen ditu Sarasolak (2007: 350), “eraso” eta “ihes doanari, atzematuko edo harrapatzeko, jarraitu, jazarri.” Bi adieretan, *esetsi* bietara ageri da, datiboaz zein absolutiboaz, honez gero ezaguna zaigun alternantziatz. “Eraso” adierakoak dira (a,b) adibideak, absolutibo eta datiboduna, hurrenez hurren, eta (c,d), berriz, bigarren adierakoak —OEHTik (VII: 288) jaso ditugu lehen hirurak—:

- (241) a. Banaka batzuek guttietsi eta are esetsi izan dute Etxepareren bertsolana (MEIG V 31)
- b. Tentazio zantarrak esesten deuskubenian (Mg CO 291)
- c. Berri onekin artu zuten Jesus esesi edo persegitzeko gogo gehiago (Lard 392)
- e. Txakur batek esetsi zion (Sarasola 2007: 350)

OEHk, bestalde, “errieta egin”¹⁵⁸ adiera ere jasotzen du, eta honetan, adibide datibodunik baino ez dago:

- (242) a. Edatera datozen gizonak esesten deuste neuk erruba baneuka legez (Mg PAb 72)
- b. Bein batian esetsi eutsan senarrari, inos baino errazoe gitxiagogaz (fB Ic III 374)

Adieratik adierara, beraz, itxuraz alternantzia bai, alternantziarik ez dugula dirudi, eta horrek adieren araberako alternantzia dagoela esatera garamatza.

Gaur egun oso gutxi erabilitako aditza da *esetsi* —EPGen oso agerpen gutxi dauka—. Hegoaldeko idazleengan baino ez da ageri —historikoki dagokion hizkera eremua zein den kontuan hartuz, espero izatekoa dena—, eta nagusiki Sarasolak jasotako bi adieretan. Agerpen gutxi horietatik batzuetan datiboa erabiltzen da, hala nola, (a,b) adibideetan, eta absolutiboa, besteetan (c):

- (243) a. Nola esetsi didaten, nola eraso didaten, zein estualdi latzak igaro ditudan! (*Arima bilak*, N. Gogol / J. Morales, 61)
- b. Aiher biziz esetsi nion; Komrover juduak, zokoan bere ohean eserita, ez zidan ja ezer ardura (*Hiltzaile baten aitormena*, J. Roth / M. Múgica, 80)

¹⁵⁷ *Esetsi* (V, G, ap. A), *esesi* (H). “Tr. Documentado en autores vizcaínos y quipuzcoanos (menos frecuente en éstos). Se emplea sobre todo en el s. XIX, y su uso disminuye algo en el XX.” (OEHT VII: 288).

¹⁵⁸ Gurea da itzulpena. “Recriminar, reñir.” jasotzen du OEHTk.

- c. Izan ere, gizon horrek mamuz esetsi zuen Kid bere bizi guztian, eta hartxek ditu berdin esesten eta defendatzen pirataren altxorrak, hura hil zenez geroztik (*Bizi alegiazkoak*, M. Schwob / J. Garzia, 140)

Ikusten denez, konplexua da alternantziaren xehetasunak jasotzea bilakaera diakronikoan, ustez adieraren araberakoa denak alternantzia osoaren zantzuak hartu ditzakeelako gaur egun. Ikerketa sakonago batek adiera bakoi-tzean dagoen aldakortasuna dialektala den ala konfigurazio biak hizkera be-rean batera aurki daitezkeen argitu beharko luke, bai eta gaur egungo hizkera jasoagoetan ‘beste’ hizkera batzuetatik ateratako konfigurazioak diren ala ja-torritzkoak. Esan bezala, konplexua da gaia.

Sorta honetako hurrengo aditza *jazarri* dugu. *Jazarri*¹⁵⁹ nagusiki Iparral-deko tradizioan erabili izan da —Zuberoan izan ezik—, eta “jo; zauritu”¹⁶⁰ adieran, osagarria datiboaz markatzen da kasu guztietan, aditza, salbuespe-nak salbuespen, iragankor datibodun modura itxuratuz,¹⁶¹ ondokoen (a-c) an-tzera:¹⁶²

- (244) a. Uholde abiatu rik, ibaiak jazarri dio etxe hari eta ezin higitu duke (He Lc 6, 48)
- b. [Balaamek] Dio yazartzen bere asto gaizoari (He *Phil* 324)
- c. Hemen jazar diezadazu, zathika nazazu, erre nazazu (DH 168)

*Jazarri*ren “oldartu, eraso” adieran,¹⁶³ berriro ere datiboa da nagusi (a,b):

¹⁵⁹ *Jazarri*. “Propio de la tradición septentrional no suletina, desde principios del s. XVII. Lo emplean algunos autores meridionales a partir de mediados del s. XIX. En los testimonios más antiguos se documenta el empleo del aux. trans. tripersonal, aunque a partir del segundo tercio del s. XIX, el aux. intransitivo pasa a ser el más utilizado. También hay algunos ejemplos del aux. transitivo bipersonal en el único ej. de Chourio, y más tarde en Lardizabal, Iraizoz y Mirande (en los dos últimos junto al aux. intrans.).” (OEH X:197).

¹⁶⁰ *Jazarri* “Pegar, golpear, asestar; herir.” (OEH X:197).

¹⁶¹ “La contrucción más empleada es la tripersonal, excepto Chourio, que emplea aux. trans. bipersonal, y Laphitz e Iratzeder, que utilizan el aux. intrans.” (OEH X:197).

¹⁶² Chourio omen da joera horretan salbuespen ia bakarra —ikus baita aurreko oin-oharra—, antza adibide bakarrarekin. Salbuespena da, hain zuzen, aditza iragankor soil modura atontzen delako, ez iragankor datibodun modura. Horrek pentsaraz liezaguke adibide horretan osagarria absolutiboaz markatzen dela, baina ez da hala. Hauxe da adibidea: *Jazar zazu ene bizkarraren gainean* (Ch III 50, 6), eta latinezko «percutere dorsum meum» esaldiaren itzulpena da.

¹⁶³ *Jazarri* (AN, BN-ciz-arb), *jazartu* (BN-arb) “Documentado en la tradición septentrional no suletina desde la segunda mitad del s. XVIII; su uso se extiende tbn. a algunos autores meridionales a partir de la segunda mitad del s. XIX (Lardizabal, Arana, D. Aguirre, Iraizoz, Orixe y Zaitegui). Aunque los autores más antiguos utilizan el aux. transitivo tripersonal (Larreguy, HeH, Monho, Duhalde, un ej. de *Marll* (junto con otro de aux. intrans.), Duvoisin, Goyhetche y Joannateguy), a partir del s. XIX, es el aux. intransitivo el más empleado. Hay aux. trans. bi-

- (245) a. Etsai bati bezala jazarri darotazu; eta etsaia izan banintz, gogorkiago ezin jazarriko zinarotan (Dv *Led* 95)
- b. Frantses gazteak ere izatu zituen beraz tentazioneak, eta jazarri zioten gehienei aski errexki (Jnn *SBi* 164)

Baina bigarren honetan, lehen adieran ez bezala, badira absolutibodun osagarriak gordetzen dituzten adibideak, juntatutako bi aditzek laguntzaile bera hartzen badute behintzat, hala nola, ondoko hauek (a,b):

- (246) a. Saulo, Saulo, zertarako jazartzen edo persegitzen nazu? (Lard 523)
- b. Onetsi zuen gaitzesleak, otoitz egin yazartzen ta beldurtzen zaituztenen alde (Ir *YKBiz* 125)

Azkenik, ugariak dira inakusatibo datibodun moduko *jazarri* aditzak erakusten dituen adibideak:

- (247) a. Lehoin, puma eta tigreak, orroaz, [...] bata bertzeari hola jazartzen dira (Barb *Sup* 182)
- b. Anaia, ustegabeen, tiroka zaio jazarri (Iratz 26)

Badirudi, beraz, *jazarrik*, historikoki bederen, adieren arabera alternantzia erakusten duela. Lehen adieran ez dago alternantziaren zantzurik eta datiboaren erabilera da bakarra; bigarren adieran, aldiz, datibo eta absolutibo alternantzia agertzen da. Gaur egungo Iparraldeko testuetara begira, nagusiki inakusatibo datibodun modura itxuratzen da *jazarri*, eta oso bakanak dira, konfigurazio iragankorreko absolutibodun adibideak (a,b):

- (248) a. Hauek bortizki jazartzen dituzten haurren izpirituak eta ere jende helduenak (*Herria*, 2005-12-22, 4)
- b. Holako zerbaiten bila nabil, ote, hemen Fededun batzuen argumentu arrunt eta higituek jazartzen naute (*Santiago oinez*, P. Antziart, 152)

*Laga*¹⁶⁴ aditzak ere aurrekoen jokabide bertua duela dirudi,¹⁶⁵ hau da, osagarria absolutiboaz (a,b) nahiz datiboaz (c,d,e) marka dezake, eta hautu

personal en Lardizabal y en dos ej. de Iraizoz y uno de Mirande (en estos dos últimos junto con el más frec. aux. intrans.).” (OEH X:197).

¹⁶⁴ *Laga* (V-m-gip, G-azp), *laja* (G-bet), *lagatu*, *lajatu* (V-oroaz, G, AN). “Documentado en autores guipuzcoanos desde mediados del s. XVIII; no se encuentra en autores vizcaínos hasta el s. XX.” (OEH XI: 179).

¹⁶⁵ Kontuan izan, *lagak* berezkoa duela baita konfigurazio iragankor datiboduna, eta hortaz, osagarri birekin lagundurik ager daitekeela: *Zoruan laga dit aspila, piper hautsetan egositako patata okaztagarri batzuekin* (Agirre zaharraren kartzelaldi berriak, K. Izagirre, 53). Ez gara, jakina, konfigurazio honetaz ari, osagarri bakarrek konfigurazioaz baino.

horren araberako aditz laguntzaile iragankor soil (a,b) ala datiboduna (c)¹⁶⁶ erakusten ditu. Ez, nolana ere, adiera guztietan, ondoren ikusiko dugunez (OEH XI: 179-80):

- (249) a. Lajatuko ditugu erbesteko hitz horiek, nahi badegu, gure euskerarenak piskabana usatuaz jakiñak egingo diradenean (Lar, carta a Mb 279)
- b. Berriz esaten baidak / Indalexio “Moko”, / ezurrak aurtsi arte / ez aut nik lagako (Bil 170)
- c. [...] Laga izan zioten lanbideari (Izt C 70)
- d. Gerrari laga eta pakiari heldu / inozente gaudenak / ez gaitezen galdu (Xe 402)
- e. Nai al zenduke [damatxo orrek] neri lagata / zeurekin esposatzia? (Gaztelu in Tx B 121)

Laga aditzak, gainerakoan, aditz izen/nominalizazio datibodunak erakusten ditu “dejar, cesar de hacer algo” adieraz (a). Bada, OEHn (XI:180), absolutiboa erakusten duen adibide bat bakarra —datiboa da orokortzen dena—:

- (250) a. Goierrian sagardoak egiteari lagatu zioten denporan (Izt C 143)
- b. Frantziara (...) [...] sarri joan-etorriak egin arren, ez du behinere laga bere lurrean bizitzea eta lan egitea (MEIG IX 131)

Eta alternantzia berean ageri da baita “dejar algo o a alguien de cierta manera” zentzuan ere. Ikusi bestela —absolutibodunak (a,b) vs. datibodunak (c,d), (OEH XI: 180)—:

- (251) a. Nora jun zara [...] ni emen lagarik min-garrasika? (Onaind in Gazt *MusIx* 203)
- b. Bakarrik laga beariko zaitut (NETx *LBB* 112)
- c. Guri bakian laga-ta (Enb 37)
- d. Arantza orren miñak etzidan pakean lagatzen (NETx *LBB* 58)

Nolana ere den, “dejar, poner, colocar” adieraz, absolutibodun osagarriak baino ez dira aurkitzen (OEH XI: 181):

- (252) a. Katillua mai-ganean laga (A *BeinB* 46)
- b. Baña galtzerdiyak non laja ditut nik? (Iraola 86)

¹⁶⁶ Azken bietan, aditz laguntzailerik ez badugu ere: (d) adibidean ezkutuan dago, eta (e), adibidean, berriz, aditza forma denboragabea ageri da.

Honek garmatza berriro ere aditz honen alternantziak adierarekin zerikusia duela pentsatzera. Kontuan izan (251b,d) adibideak, komunztadura absolutiboduna eta datiboduna, hurrenez hurren, egile berarenak eta lan berekoak direla.

Ukitu aditza¹⁶⁷ ere adieren araberako alternantzia erakusten duten aditzetako bat dela dirudi, eta azkena dugu sorta honetan. Bere adiera nagusian, alegia, “gorputzaren zati batez (batez ere hatzen puntez) edo gauzaki baten bidez, zerbaiten gainaldea iritsi” (Sarasola 2007: 972), absolutiboaz (a-c) eta datiboaz (c,d), bietara markatzen da osagarria, batzuetan idazle berarengan¹⁶⁸:

- (253) a. Errekako ura egalakin ukutu (Altuna 10)
- b. Multzotekoa ukitu baizik ez duenak ere... (MIH 197)
- c. Ukutu eskuaz sua (Añ *EL*¹ 51) vs. Ukutu egiozu eskuaz suari (Añ *EL*² 58)
- d. Buruaz zeruari / zeuk arren ukitu (AB *AmaE* 180)

Bestalde, “hunkitu” adieraz absolutiboa da, oro har, erabiltzen den kasua (a,b):

- (254) a. Askotan ethortzekoak diren gauzen orhoitzapenak gauzek berek bezain biziki ukitzen gaituzte (Dh 181)
- b. Edozein sinfonik aña ukitzen nau ark (Txill *Let* 47)

Nahiz eta salbuespen bat edo beste baden:

- (255) Erbesteko semearen oroimenak ikutzen etzionean (Ag *G* 67)

Hortaz, bigarren honetan, alternantziaren zantzuak izan baditugu, baina lehen adieran genuen alternantzia beren-beregia izan gabe, hemen absolutiboa nabarmen agertzen da-eta.

Aldiz, “referirse, concernir, afectar” (OEH XV: 686) adieraz, aditzak inakusatibo datibodun itxura baino ez duela, datiboaz markatzen da osagarria —ez da, hortaz, ez absolutibo markapenik, eta ezta ondorioz aditz iragankor soil moduko agerpenik—:

¹⁶⁷ *Ukitu*. “Tr. Documentado en la tradición meridional y (hasta el s. XX, en que apenas se encuentra) tbn. en la septentrional sobre todo labortana.” (OEH XV: 685)

¹⁶⁸ “Con el objeto en dat. lo emplean los meridionales Zuzaeta, Moguel, V. Moguel (12), Astarloa (II 139), Lardizabal, Uriarte (Gen 27, 22), Iturzaeta (*Azald* 12), Echeita, Barandiaran (*ELG* 86), N. Etxaniz y Uztapide (*Sas* 335), y alternando con absoluto, Arana (*Sign* 99), Arrese Beitia, Arrue (*May* 72), D. Agirre, Zaitegi (*Sof* 96), Anabitarte, Gandiaga (Elorri 225) y Erkiaga (*BatB* 45).” (OEH XV: 685).

- (256) a. Eztute axola egiazko bakeari ukhitzen zaizkon gauzez (SP *Imit* III 25, 1)
- b. Maite dudanari ukitzen zaizkonak sentitzen ditut nerorriri ukitzen balitzauzkit bezala (Dh 246)

Azkenik, “gai bati buruz aritu, sakondu gabe batez ere” adieran (Sarasola 2007: 972), absolutiboaz bakarrik markatzen da osagarria, ez datiboaz, eta iragankor soil itxura erakusten du aditzak:

- (257) a. Axular gure erroter famatuak ederki ukitzen du pontu hau (ES 93)
- b. Zenbat gai ezin uki ditzake Egan-ek (MIH 137)

Hortaz, aditz honi dagokionez ere, adieren arabera alternantzia hitz egin daitekeela dirudi. Dena den, ñabardurak gaineratu behar zaizkio diogun honi. Izan ere, aipatu dugun lehen adieran, esaterako, EPG arakatzuz gero, ez dago ez Iparraldeko liburuetan ez eta *Herria* aldizkarian ere, konfigurazio iragankor datiboduneko adibiderik. Eta oso bakanak dira *ukitu* aditzaren agerpenak eurak, baita osagarria absolutiboaz markaturik ere:

- (258) a. Eta hara igan direla eta Noeren ontzia ukitu dutela erraten dutenek gezurra diote (*Septentrio*, A. Arkotxa, 67)
- b. Neke da harekin ibiltzea, baina hala ere badu ukitzen nauen alde bat (*Zeruetako erresuma*, I. Borda, 227)

Gogoratuko du irakurleak, jakina, *ukitu* honen ordezkoko *hunkitu* dagoela Iparraldean, hasieran aipatu ditugun bi adieretan, eta bietan, absolutibodun osagarriak erabiltzen direla, hala nola, Bidegainen ondokoetan:

- (259) a. Doi bat lasaitu ondoan eta arrebarekin beribilera buruz abiatu zirelarik, gizon batek Joanes sorbaldan hunkitu zuen (*Anbroxio*, E. Bidegain, 210)
- b. Mundua zein ttipia den Kattalin Agustinen istorioak arras hunkitu zuen, aitatzik kondatu ziolarik (*ibid.*, E. Bidegain, 212)

Ñabardurak alde batera, *ukitu* aditza ere adieren arabera alternantziadunen artean sailka daitekeelakoan gaude.

4.2.4. Begiratu eta abarren kasuaz ohar bat

Sorta honetako aditzei begiratzen diegunean —gogoan izan *begiratu*, *erreparatu*, *esetsi*, *jazarri* eta *ukitu* aditez ari garela, eta hauetatik nolabait bereizi beharreko baita *laga* aditzaz ere—, bada kontuan hartu beharreko zer-

bait, gorago ere labur aipatu duguna: aditz hauek guztiek osagarri bat bakarra dute eta ez dirudi datiboa lehenesten den kasuetan, ezkutuko beste osagarri bat daukagunik —*abisatu*, *entzun* edota *eskertu* hizkeren arabera alternantziadun aditzen kasuan aipatu dugun bezala—.

Kontuan hartu behar du irakurleak ez dugula korrelaziorik ezarri nahi alternantzia mota jakin baten eta itxuraz alternantzia horretako konfigurazio datibodunean aditzak duen argumentu egituraren artean. Erraz uler dadin: ez dugu esan nahi hizkeren arabera alternantziadun aditzetan, osagarri implizitu bat dugunik beti eta salbuespenik gabe, eta adieren arabera, berriz, ez. Gure ustez, sorta honetan gailentzea bereziki osagarri implizitua ez duten aditzak, besterik gabe zorizkoa izan daiteke. Kontuan izan, *deitu* aditzak, adibidez, hizkeren arabera alternantzia badu ere, ez dela bereziki datibo osagarriaz gain, beste gai osagarri bat ezkututzen dutela pentsarazten diguten kasuetako bat. Halaber, ondoren ikusiko dugunez, alternantzia osoa edo beren-beregia azaltzen duten aditzetatik batzuek badira ezkutuko osagarria dutela diruditenak —*barkatu*, *erregutu* edo *obeditu*, adibidez— eta badira osagarri bakar bat eta agerikoa dutenak, hala nola, *iguriki*, *itxaron* edota *oratu*.

Jakina, osagarri implizitua duten kasuetan, datibo osagarriak helburua adierazten duela nahikoa erraz esan badaiteke ere, goian dagoeneko aldarrikatatu dugun moduan, zalantza handiagoak sortzen zaizkigu osagarriak ezkututzen ez duten aditz horien —*begiratu*, esaterako— datibo osagarriak helburua edo, besterik gabe, gaia ez ote duen adierazten erabakitzerakoan. Gaia izatekotan, ez da gai hutsa. Konpara itzazue, adibidez, *ikus* eta *begiratu*. *Ikusiren* osagarria gaia da, gai hutsa; osagarri horrekin konparatuz gero, ez dirudi *begiraturen* osagarria gaia denik, ez gai osoa, behintzat, helburura lerratzen den gaia baino. Badakigu tarteko theta-rolaz hitz egin ezin daitekeenik, eta ez dugu horretarako asmorik, baina euskaraz ez ezik, gaztelaniaz edota ingelesez, bi hizkuntza besterik ez aipatzearen, nabarmentzekoa da *a* edota *at* preposizioak erabiltzen direla *begiraturen* ordezkotako *mirar (a)*, *to look at* predikatuetan, eta preposizio horien arrastorik ez dagoela *ver* edota *to see* bezalakoetan. Hau da, hizkuntza bi hauek zein euskaraz, markatuagoa dirudi osagarriak *begiraturen* kasuan, *ikusirenean* baino.¹⁶⁹ Eta syntaxira bidean, inoiz erabaki beharko da, ea theta-rolak alde batera, osagarri zuzen ala zehar osagarriak diren datiboarekin markatzen ditugun horiek. Ziur aski, Fernández eta Rezacen (2009) ildotik erabaki ahal izango da hori. Momentuz, hiztegiaren lanean gabiltzala baliatuz, ez dugu hemen, osagarri hauen izaera sintaktikoaren inguruko hausnarketarik egingo.

Hortaz, datibo osagarrien artean, bi eredu dira nagusi: bata helburutzat har daitekeena eta, beharbada, gai osagarria ezkututzen duena —izan gogoan, datibo osagarriak gizaki edota bizidun izan ohi direla halakoetan—; eta bes-

¹⁶⁹ Osagarriaren theta-rolaz gain, subjektuarena ere aldatzen da: *begiratu/ikusi*, *oir/escuchar* pareetako lehen predikatuaren subjektuak kontrol handiagoa dauka ekintzaren gainean, baita ekintza bera hasteko kontrola ere; 'egile' tipikoagoa da, beraz.

tea, helburua edo gaia zer ote den erabaki ezinda, ezkutuko osagarriaren azterbidea eragozten duena. Bi eredu hauek aurkituko ditu irakurleak baita ondoren arakatuko ditugun alternantzia osoko aditzetan ere.

Halaber, adiera batean balizko alternantzia bat aurkitzeak ez du nahitaez esan nahi adiera horri dagokionez, hizkera banaketa ere ez daukagunik. Gogoratu ikuspegi diatopikoa erabiltzen dugula lehen hurbilketa honetan, konfigurazio ezberdinak biltzerakoan: behin behar den arretaz aztertuz gero balizko alternantzia hori ‘osoa’ izan liteke baldin eta hizkera sistema beraren barruan aurki balitezke lehia dauden bi konfigurazioak.

4.2.5. Alternantzia osoak

Badirudi konfigurazio inergatibo datibodunaz gain, predikatu batzuek nahiko argiro erakusten dutela ohiko absolutibo/datibo alternantzia. Alternantzia osoa erakusten duten ondoko aditzak: *barkatu*, *bultzatu*, *erregutu*, *iguriki*, *itxaron*, *kontseilatu*, *manatu*, *obeditu*, *oratu* eta *utzi*.

Barkatu sorta honetan alfabetikoki lehenik datorren aditza izan arren, ez da agian, tradizioari begira, behintzat, alternantzia osoa ondoen islatzen duena. Lehenik eta behin, utz ditzagun alde batera, zer barkatu edota nori zer barkatu adierazten duten adibideak, hau da, *irakurlea*, *gaizki esanak barkatu* (Zab *Gabon* 110) edota *barka egiguzu gure zorrak edo pekatuak* (Gco I 431) bezalakoak. Nori (a,b) edota, harrigarria bada ere, zeri (c,d) barkatu diogunean, orduan, tradizioak osagarri hori datiboaz markatzen du eta *barkatu* aditza konfigurazio inergatibo datibodunaz azaltzen da, ondoko adibideetan bezala:

- (260) a. Nola ez barkha gure etsaiei, yuie ikharagarriak hanbat barkhaten darokunean? (Lg I 299)
- b. Bai, eta ez die eriotzak barkatuko, ez Erregeai, ez oen mendekoai, ez Aita Santuai (AA III 568)
- c. Ez dio onen mingaÑak barkatu lagun urkoaren onrari (AA III 458)
- d. Puttikok ez dio barkhatzen sokari, eta berea yauzarazten du untziraino (Hb *Egia* 133)

Tradizioan absolutiboaren aztarnarik ez aurkitzeak, egia esan, zer pentsatua ematen digu, baina ez dugu uste, horregatik, nori barkatu adierazten dugunean, osagarria absolutiboaz ere markatzen ez denik.¹⁷⁰ Tradizioan igual ez,¹⁷¹

¹⁷⁰ Etxeparek (2003) ere jasotzen du *barkatu* aditza alternantziadunen artean.

¹⁷¹ OEhk (IV: 41-44) dakartzan adibide asko eta askotatik ez gara izan halako bat bera ere aurkitzeko gauza. Horrek ez du, jakina, esan nahi bat bera ere ez dagoenik. Sarasolak (2007: 170) “persona bati dagokionean, dio” dakar, baina *etsaiak barkatzea* jasotzen du, ez *etsaiei barkatzea*.

esan dugun bezala, baina besterik da gaur egungo testuetan adibidez aurkitzen diren aleak, eta baita, akaso, ahoz jaso litekeena:¹⁷²

(261) a. Nik ere barkatzen zaitut (*Skyroom*, R. Etxeberri, 306)

b. Barkatuko nauzu (*Parisen sabela*, E. Zola / K. Zabala, 20)

Horregatik, aditz honek erakusten duen alternantziak muga estuak izan arren, alternantzia osoa dutenen artean aipatu nahi izan dugu. Besterik da gero jakitea zer dela eta dugun hemen alternantziarik. Ez da hizkeren araberakoa ezta adieren araberakoa ere, hortaz, beste zerbaitek ematen digu berez datibo kasuaz markaturik behar lukeena absolutiboaz markatzeko aukera —edo, nahiago bada, alderantziz—. Eta lehen esan dugun bezala, hori bera esan daiteke neurri batean baita alternantzia hizkerari edota adierari zor zaienean ere, zeren azken batean, alternantzia hizkerari edo adierari egozteak ez baitu argitzen txandakatzearen muineko arrazoa zein den, hizkera batzuetan zilegi izateko eta besteetan ez, edo adiera batzuetan bai eta besteetan ez.

Paradoxikoki, *barkatu* aditzak berak erakuts ditzake absolutibo eta datibo alternantzia, oro har, azaltzeko erabil daitezkeen eta dagoeneko erabili ditugun gako nagusiak. Ostean, kontuan hartu behar du irakurleak, alternantzia osoen zergatia zein den azalduz gero, gainerako alternantzien muineko zergatiak ere azaldu ahal izango ditugula —hizkerak edota adierak alde batera—. Horregatik, ondoko lerroetan, alternantzien arrazoi bila gabiltzala, ez ditugu alternantzia osoko aditzak bakarrik aipatuko, ez bada alternantzia nola edo hala erakusten duten guztiak edo gehienak. Goian aipatu dugu lehenengoz, gure ustez, alternantziadunetan datibo argumentua azaltzearen arrazoi nagusia dena. Gatozen berriro hipotesi horretara.

Barkatu bezalako aditzetan, datibo osagarria ez da gai argumentua, helburu argumentua baino edo, nahiago bada, ez da osagarri zuzen prototipikoa, zehar osagarri prototipikora lerratzen den argumentua baino. Itxuraz, helburu argumentu hori agertzea, neurri handi batean, sorta honetako aditzen izaerari zor zaio. Esate baterako, *barkatu* aditzak berak badu, goian esan dugun bezala, konfigurazio iragankor datibodunean agertzea, nori zer barkatu adieraziz, alegia, helburu eta gaia. Inergatibo datibodun gisara atontzen denean, gaia implizituki agertzen da, eta datiboaz markatzen dena oraindik ere, helburua dela uste dugu. Implizituki hitza nabarmentzen dugu, ez dugu-eta esan nahi osagarria isilik dagoenik —irakurleak honez gero ondo daki euskaraz argumentuak isilik egon daitezkeela, hau da, ez dutela zertan agerian egon behar—. Hemen gai implizitua edo ezkutukoa diogunean, esan nahi duguna da aditzaren esanahiak gai bat dakarrela bere barruan. Iruzkina alde batera,

¹⁷² Ez dakigu halako formak ez ote diren *ultrakorrektzioaz* sortu, datibodunak okerretara sortuak direla pentsatuz. Sortzeko arrazoiak zein diren alde batera utzita, alternantziadun aditzen artean jasotzea erabaki dugu.

helburu horrek dituen ezaugarrietatik bat gizaki edota biziduna izatea da, goian aurreratu dugun bezala, eta gure datibo osagarri hauek gizakiak izan ohi dira. Goiko adibideetan (260), esaterako, *etsaiei* (a) edota *Erregeai*, *oen mendekoai* eta *Aita Santuai* (b), izen arruntak izanik ere, guztiak dira bizidun eta gizaki, eta guztiak nolabaiteko helburu, jakina.

Jo dezagun, bada, zehar osagarrien antzekoak direla datibo argumentu hauek. Goian esan dugun bezala, itxuraz, zehar osagarriei egozten zaien kasua datiboa bada, orduan ez dirudi horren harrigarria denik helburu argumentu horiei ere datiboa ezartzea. Kontuan hartu, gainera, datibo hori ez zaiela gizakiak diren osagarriei bakarrik egozten, aipatu berri ditugun adibideek pentsaraz dezaketenaren kontra. *Onrari* (c) edota *sokari* (d) begiratzea baino ez dago horretaz konturatzeko. Hau da, bizidun izatea ez da derrigorrezkoa, datiboaz markaturik agertzeko. Helburua izatea, hor dago koska. Hortaz, halako datibodun osagarri bizigabeak ere badaude, helburu, eta ez gai, diren heinean. Nolanahi ere, *barkatu* aditzari dagokionez, bederen, halakoek nahikoa bazterrekoak dirudite —oso bakanak OEHK dakartzan adibideen artean, urrutira joan gabe—, ziur aski zehar osagarri prototipikoak gizakiak izateagatik, hain zuzen, eta ez horrenbeste bizigabeak.

Hauxe da, bada, gure ustez, alternantziadun aditz batzuen artean —vs. *begiratu* eta *abar*— datiboa agertzeko arrazoi nagusietako bat: osagarri hauek zehar osagarrien modukoak direlako, *helburu* argumentuak alegia, eta hortaz, kanonikoki datiboa dagokielako, ez absolutiboa.

Banan-banan ikus ditzake irakurleak dagoeneko aipatu eta sailkatu ditugun aditz hauetatik batzuk, datibo argumentu hauek helburuak direlako hipotesia berretsi edota baztertzeko, zeharbidez honi buruzko aipamenak egin ditugu, gainera. Egia da aditz guztietan eta adiera guztietan ez dela hala. Edozein modutan ere, esango genuke asko direla hipotesia berretsi eta finkatzen dutenak. Goian aipatu ditugu lehenengoz. Aipa ditzagun berriro orrialdeetan atzera egin behar ez izateko. Hauexek dira: *abisatu*, *barkatu*, *entzun*, *erregutu*, *eskertu*, *kontseilatu*, *manatu*, *obeditu*, eta adieren arabera *laga*, *lagundu* eta *utzi*.¹⁷³ Hauek ziur aski talde beregaina osatzen dute datibo osagarriaren guztien artean. Besterik da ezkutuko gai osagarriarik onesten ez dituztenak, eta goian jada eztabaidatu dugun moduan, benetan helburu osagarria ote duten zalantza sortzen digutenak. Gogora ekarriko dizkiogu irakurleari beste behin: *begiratu*, *bultzatu*, *errepairatu*, *esetsi*, *iguriki*, *itxaron*, *jarraiki*, *jarri*, *oratu*, *segitu* eta *ukitu*. Euretatik batzuk adieren arabera alternantziadunen artean deskribatu ditugu. Alternantzia osokoak dira gainerako guztiak.

Ikus ditzagun, bada, alternantzia osoa duten aditzen artean, osagarria helburua dela argiro erakusten dutenak. Gogoratu lehenago bereziki hizkeren arabera alternantziak aztertzerakoan aipatu ditugun zenbaitek ere bete-be-

¹⁷³ Helburu horietako asko eta asko gizaki edota bizidunak izaten dira, goian aurreratu dugun bezala. Horrela adibidez, *abisatu*, *barkatu*, *deitu*, *entzun*, *erregutu*, *eskertu*, *kontseilatu*, *lagundu*, *manatu*, *obeditu* aditzetan, eta adieren arabera, baita *laga*, *lagundu*, *utzi* aditzetan ere.

tean azaltzen dutela osagarria helburua delako hipotesia. Horiek berrikus- teko, gora besterik ez du egin behar irakurleak, dagoeneko beste ikuspuntu batetik bada ere, deskribaturik baitaude.

Alternantzia osoa erakusten duten aditzen artean, datibo osagarria helbu- rua delako hipotesia argiro islatzen duen aditza da *erregutu*.¹⁷⁴ *Barkatu* aditza- rekin bezalatsu, gaia impliziturik dagoela pentsa daiteke, konfigurazio inerga- tibo datibodunaz ageri denean, eta halakoetan, helburua datiboaz markatzen da. Aditz honekin, helburu osagarri hori, tradizioan, behintzat, *Jainkoa* izaten da —ez nahitaez, jakina—, eta gizatiar —metaforikoki besterik ez bada ere—, eta hortaz, biziduna izaten da. Dena den, helburu argumentu hori datiboaz (a) ez ezik, absolutiboaz (b) ere marka daiteke, alternantzia osoa erakutsiz:

- (262) a. Erregutu dagiezula nigaiti geure Jaun eta Jangoikoari (Cb *CatV* 88)
- b. Erregutu egizu gu bekatariok gaiti (Bet 5)

Erregutu aditza, bestalde, gaia agerian duen egituran ere aurki daiteke. On- doko adibideetan, esate batera, gai hori mendeko perpausa da:

- (263) a. Erregututen deusut jarraitu dagizula orain artian legez (Ur *Dial* 59)
- b. Jaungoikoa debeela herreguten / degiola eman [...] bitoria andia (Cantar de Breña) (*ConTAV* 5.1.1)

Konturatuko zen irakurlea (b) adibidean, *erregutu* aditzak ageriko gaia izanda ere —*degiola eman [...] bitoria andia*—, helburua absolutiboaz mar- katurik agertzen dela, eta ez, helburu-gai argumentu egitura izanik espero li- tekeen bezala, datiboaz. Horraino zabaltzen da alternantziaren eremua, lehe- nago ere beste aditz batzuen kasuan ikusi dugun bezala.

Kontseilatu aditzak ere alternantzia osoa erakusten du, eta alternantzia islatzen duen osagarria helburua dela esan daiteke zalantzarik gabe. Helburu hori absolutiboduna (a) nahiz datiboduna (b) izan daiteke:¹⁷⁵

- (264) a. Konseilla nazazu (Gç 37)
- b. Hala konseila niezeke debozisionean berri ta gauza hautan arrotz di- renei (Dh 10)

¹⁷⁴ *Erregutu* (V, G, AN, Ae). “Tr. Documentado desde finales del s. XVI en autores meridio- nales. [...] Por regla general, el complemento va en dativo. Encontramos complemento en ab- soluto en el *Cantar de Breña*, Ubillos, Moguel (un sólo ej. en CC 208 frente al general dati- vo), Beovide y *Arrantz* 145.” (OEH VII: 146).

¹⁷⁵ Alternantzia osoa izan arren, kasu bat bestea baino sarriago agertzen ote den esatea ez da erraza, baina batzuetan adibideak ikusita joera bat suma daitekeela dirudi. *Kontseilatu* aditza- ri dagokionez, esate batera, helburu argumentua nagusiki absolutiboaz markatzen dela dirudi. Litekeena da hala izatea Iparraldean, ikusi dugunez, absolutiboa izaten delako alternantziadun aditzekin batera orokortzen den kasua.

Kontseilatu aditzak mendeko perpaus bat duenean osagarri, alegia, gaia age-rian duenean, orduan ere bietarako joera erakusten du helburu osagarriak: edo absolutiboduna da (a) edo datiboduna (b) —goian *erreguturrekin* ikusi dugun bezalaxe—:

- (265) a. Hala dagitela koseillatzeintu Iondone Paulok presuna zaharrak (Ax 187s (V 127))
- b. Koseilatu zakoten eskapa zadila (Elsb *Fram* 88)

*Manatu*¹⁷⁶ aditza, berebat, alternantzia osoa garbiri erakusten duen aditza da, eta alternantziadun argumentua helburua dela azaltzen duena. Baina aditz honek itxuraz beharrezkoa du helburua ez ezik —nori manatu zaion alegia—, gaia bera ere —zer manatu den— agertzea egituran. Hau da, ez dirudi, gaia bera inplizituki dakarren adibiderik dagoenik, eta hortaz, *manatu* aditza ez da itxuratzen inergatibo datibodun modura, iragankor datibodun modura baino.¹⁷⁷ Ageriko gai hori, gainerakoan, mendeko perpaus subjunktiboduna izaten da, ondoko adibideetan ikus daitekeen bezala. Helburua datiboduna da (a,b) adibideetan, eta absolutiboduna azken bietan (c,d):

- (266) a. Manatu daut itzul nadin (Ox 61)
- b. Manatu darotazu maita zaitzadala (Ch III 10, 1)
- c. Haren exenpluari garreitzan manatu gaitu (Lç Ins F 6r)
- d. Manatu zituen bere apostoluak [...] mundu-herri guzitik predika zezatela (ES 392)

Alternantzia osoa izan arren helburu argumentuaren markapenean, *manatu* ez bezalakoa da *obeditu*¹⁷⁸ aditza. Hemen ez dirudi gaia inondik inora ager daitekeenik —ez bada inplizituki, jakina—, hau da, *obeditu* inergatibo

¹⁷⁶ *Manatu* (AN, L, B, BN, Sal, S, R). [...] “General en textos septentrionales y alto-navarros desde Dechepare (incluido Mendiburu) [...] En cuanto al auxiliar trans. tripersonal o bipersonal, emplean ambas formas todos los autores antiguos (excepto Oihenart y Bordel que sólo emplean el bipersonal). El uso del aux. trans. bipersonal va disminuyendo progresivamente hasta casi desaparecer en el s. xx.” (OEH XII: 64).

¹⁷⁷ Hori ikusi dugunez, ez da sorta honetako aditzek nagusiki erakusten duten aukera. *Erregutu* edo *kontseilatu* aditz aztertu berriak baino ez ditu gogoratu behar irakurleak: inergatibo zein iragankor datibodunak izan daitezke, gairik gabe edo gaia dutela.

¹⁷⁸ *Obeditu* (V-arr, G-azp, AN-gip, BN-lab-ciz-arb, S). “Tr. Documentado en todas las épocas y dialectos, aunque es bastante menos frecuente en el s. xx. Al Sur se emplea gralnte. con complemento en dativo, aunque hay ejs. con caso absoluto en Micoleta, Elizalde y *CatBurg* (29). Al Norte domina la construcción con absoluto hasta el s. xviii; a partir de esta época se hace más frecuente con complemento en dativo, si bien hay ejs. con absoluto hasta nuestros días; es bastante frecuente el empleo de ambas construcciones por un mismo autor, por ej., Leizarraga, Larreguy (I 247 y I 261), *CatLan* (40 y 38) o Baraciat (191 y 86).” (OEH XIII: 23).

datibodun modura baino ezin daiteke itxuratu. Helburu argumentua absolutiboduna (a,b) nahiz datiboduna (c,d) da, alternantzia osoa agerian utziz:

- (267) a. Nola duten [erleek] bere erregea, eta obeditzen duten (Ax 35 (V21))
- b. Obeditü behar dütügüla gü beno zaharragoak (Bp I 93)
- c. Non haren sensuek arrazoñari obeditzen baitiote (Ch III 53,2)
- d. Bere maisuai guztian obeditzen zien (Cb Just 91)

Alternantzia osoa erakutsi arren, goiko *begiratu* eta abar bezala, ageriko osagarri bat bakarra duten eta, beraz, osagarri impliziturik ez duten aditzak dira ondoko hauek guztiak. Esanguratsuak diren kasuetan baino ez ditugu xehe-tasunak jasoko. Zenbait kasutan, alternantzia osoa erakusten duten adibideak dira nagusiki emango ditugunak, xehe-tasun gehiago behar izanez gero, irakurleak berak bilaketa egingo duelakoan.

*Bultzatu*¹⁷⁹ aditzak absolutibo eta datibo osagarrien artean, bata zein bestea hauta dezakeela dirudi (a,b) vs. (c,d).¹⁸⁰ Alternantzia osoa da, beraz, *bultzatu* aditzarena (OEH VI: 622):

- (268) a. Güziak bata berzia pultzatzen ari diradialarik, txotxak bezala beren kotxeran (Egiat 166)
- b. Bañan bere aotik / datorren bapora / kapaz da bultzatzeko / trena aldatz gora (*JanEd* I 70)
- c. Iturri askok ibai egiñik / baldin badeutse bultzetan [errotako arriei] (AB *AmaE* 71)
- d. Erdi erori zabilta bañan / gora nai nizuke bultza (*Uzt Noiz* 63)
- e. Argiñ ona zala ta / zakurraren putza, / bera eroriko dek, / ez akiyo bultza (*Tx B* 20)

Dena den, harrigarria da konturatzea gaur egungo erabileran, EPGeko Hegoaldeko liburuetan esate baterako, adibide bat bakarra dela datiboduna (a) —eta *Berrian* beste bat—. Gainerako guzti-guztiak absolutibodunak dira. Egia da, absolutibodun horiek (b) bezalakoak direla sarri askotan, alegia, —*tera* no-

¹⁷⁹ *Bultzatu* (G-azp, AN); *bultza* (G-azp); *pultzatu* (V-och). “Los primeros ejemplos y los únicos al Norte, son de Eguiateguy (que emplea *bul-* y *pul-*); al Sur empieza a documentarse a comienzos del s. XIX en autores guipuzcoanos; hay tbn. ejs. vizcaínos, si bien algo más tardíos.” (OEH VI: 622-23).

¹⁸⁰ Sarasolak (2007: 250) bi adiera jasotzen ditu aditz honetarako: bata “zerbait edo norbait, higitzera behartzen duen sakatze edo kolpe baten eraginpean jarri” eta bestea “norbaiti, zerbait egin dezan, indar egin.” (a-c eta e) adibideek lehen adierakoak dirudite eta bigarrenkoa (c) adibideak. Sarasolak jasotzen dituen adibide bakar bat ere ez da datiboduna ez adiera batean ez bestean.

minalizaziodun osagarria ere erakusten dutenak —edo besterik gabe adlatibodun beste osagarri bat—:

- (269) a. “Benga, Dodov, oso gauza interesgarriak esan dizkiguzu eta”, bultzatu nion nik, mainutsu (*Glosolaliak*, K. Linazasoro, 165)
- b. Izatez heldugabe, are heldugabeago adinez, frankismoaren presioak Euzkadi jakin batean eta Espainiak gerran azpiratuta-ko euskal aberrian sinestera bultzatu gintuen (*Lekuak*, B. Atxaga, 90)

Estandarraren interpretazio estu baten presiopean baztertu eta ia desagertutako formak dirudite datibodunek —testuetara begiratzuz gero, jakina—. Emaitzak ziur aski bestelakoak izango da ahozko erabilera aztertuz gero.

Iguriki aditzak ere “zain egon” adieraz, bietara erakusten du osagarria bai datiboaz (a,b) bai absolutiboaz (c,d) (OEH VI: 203).¹⁸¹

- (270) a. Neure dolamenak erran artean iguriki diazadazu (Harb 253)
- b. Iguriki nion ene maitaleari (Arti MaldanB 205)
- c. Azken mementoa iduriki gabe (CatJauf 128)
- d. Zezenak geldi igurikitzen du oldarra (Or *Mi* 49)

Ez dakigu, baina, alternantzia osoak gaur arte iraun ote duen. EPG arakaturik, ez dago, adibidez, erakusgarri datibodun bat bakarra ez liburuetan ez *Herrian*. Dena den, kontuan hartu beharra dago oso oso gutxi direla, oro har, *igurikiren* agerpenak EPGen —liburuetan 3 baino ez, eta *Herrian* bat ere ez—. Hona hemen ale bat —beste biak Xarritonek jasotzen ditu paragrafo bakarrean—:

- (271) Eta espero nuen bertan igurikiko ninduela, han bertan atzemanen nuela (*Anaiaren azken hitza*, D. Landart, 169)

Ostean, “espero izan” adieraz, absolutiboaren erabilera da nagusi, eta itxuraz ia bakarra —ikusi (a) adibidea—. Oker ez bagaude, behintzat, salbuespen bakarra dago OEHk dakarren adibide sorta osoan —(b)—. Salbuespena da bi arrazoirengatik: bat, osagarria datiboaz markaturik dakarrelako, eta bi, inakusatibo datibodun bezala ageri delako —begiratu bestela *gaizko* aditz laguntzaile irangaitzari (OEH VI: 203)—:

¹⁸¹ Itxuraz bilakaera diakronikoan, datibotik absolutiborako aldaketa gertatu da. Ikusi bestela: “Hasta el s. XVIII se encuentra con complemento en dativo (aunque no en Leizarraga); a partir de esa época es general el complemento en caso absoluto, aunque todavía hay algún ej. con dat. (en Duvoisin y Aresti). Pouvreau lo utiliza en alguna ocasión con aux. intrans. biperpersonal.” (OEH VI: 203).

- (272) a. Eztezakete bertze sorterik higuriki (Dh 256s)
b. Iankoaren miserikordiari iguriki behar gaizko (SP *Imit* I, 22, 5)¹⁸²

Gaur egungo testuetan ez daukagu bigarren adiera honetako *igurikiren* testigantzarik.

Itxaron aditza dugu sorta honetako hurrengoa. Aditz honi dagokionez, OEHk (IX: 693) aurkakotasun esanguratsu bat nabarmentzen du: bizidunak diren osagarriek beti erakusten dute datiboa (a); gainerakoek, berriz, bai datiboa (b) bai absolutiboa (c):¹⁸³

- (273) a. Beste askori etxeden ez ta niri etxeden (Cb *Eg* II 71)¹⁸⁴
b. Bihar joango naz Bilbora ontziari itxarotera (Echa *Jos* 929)
c. Ikastetxera sartzeko ordua itxaroten zaudela (Osk *Kurl* 73)

Gaur egungo testuetan, datiboaren erabilera oso hedaturik dago:

- (274) a. Bihar itxaron egingo dizut (*Mirarien kalezuloa*, N. Mahfuz / P. Zubizarreta, 254)
b. Ate-leihoak zabalik, gaueko hozkirriari itxaroten diot Ryder kanpoan dagoen bitartean (*Hollywood eta biok*, J. Cillero, 104)

Eta tarteka, absolutiboaz markatutako osagarriaren aztarnak ere aurki daitezke —salbuespenak diruditen arren—. Ikusi, esate batera, itzultzaile berak darabilen lehengo (a) adibidearen ordaina:

- (275) Ez naiz kafera itzuliko, inoren susmoak ez eragitearren, baina egunero itxarongo zaitut..., beti (*Mirarien kalezuloa*, N. Mahfuz / P. Zubizarreta, 217)

Ez dirudi, ostean, oso orokortuak, baina aipatzekoak dira, datibo eta postposizio alternantziatar begira, bakanak izanda ere, adlatibo postposiziodun formak. Ondoren ale bat:

- (276) Obe det itxaran depora obeago batera (Mg *CC* 210)

¹⁸² Ohar bedi inakusatibo datiboduna dela lehen adibide honetakoa. Oker ez bagaude, behintzat, albuespen bakarra da OEHk dakartzan adibide sorta osoan.

¹⁸³ “[...] el complemento va siempre en datibo si se trata de seres animados; por lo demás, el complemento suele ir tanto en caso absoluto como en dat.; hay con todo ejes. de alativo y gen. en algunos pocos autores.” (OEH IX: 693).

¹⁸⁴ Joera nagusi honek badiu albuespenak, OEHk berak (IX: 693) aipatzen duenez, hala nola, *Gogoratu zelan egoten dan gaixo bat mediku osagillea itxadoten* (Añ *LoraS* 72). Joera urratzen dute baita erlatibozko egiturek, esaterako, *Ura zala Mesias, aspaldian itxedoten zutena* (Lard 376) edota *Zeu zara itxaroten gendun gure Jauna* (Altuna 110). Interesgarria litzateke ikustea ea egitura hauetan osagarria absolutiboan markatzen duten egileek bestela datiboaz markatzen ote dituzten *itxaron* aditzaren osagarriak —inplizituki hala dela dirudi—.

Aditz honek badu, halaber, “espero izan” adiera, eta absolutiboa gailendu arren (a) —eta dagokien testuinguruan partitiboa (b) edo *-ela* konplementatzailedun mendeko perpausa (c)—, bada datiboaz markatutakorik (d) ere:

- (277) a. Alperrik itxaroten dituk nigandik [...] berba bigunak (Ur *MarII* 10)
- b. Hegiaphalian etzazute babesik itxaron (Etxde *JJ* 166)
- c. Zorionera [...] eroango nozula, uste betez, itxaroten dot (KIK V 15)
- d. Gatx egiten bok / ain besteri itxadok (RS 296)

Azkenik, bada “esperar en, confiar en” adieran ere, nagusitzen den inesibo postposizioarekin batera (a) datiboaren agerpenik (b):

- (278) a. Zugan, Jauna, itxadoten dot; Zugan ifinten dot esperanza (Añ *EL* 234)
- b. Etxiden Jangoikoái ta eramán ongi (LE *Ong* 13r)

*Jarraiki*¹⁸⁵ aditzak ere alternantzia osoa erakusten du absolutibo eta datiboaren artean. Batzuetan, konfigurazio iragankor soilean ageri da eta besteetan, berriz itxura inergatibo datiboduna hartzen du. Dena den, goian aipatu dugun bezala —2.3.2 atala—, inakusatibo datiboduna ere izan daiteke.¹⁸⁶ Aditzaren adieretatik bat ondokoa dugu “norbaiten edo zerbaiten ondotik joan edo ibili” (Sarasola 2007: 607). Datibo osagarria dugu lehen adibidean (a), *jarraikiren* adizki trinkoa erakusten duen forma iragangaitz datibodunean —*arraio*— eta baita (b) adibidean ere, iragankor datibodunean. Osagarri absolutiboduna dugu azkena (c):

¹⁸⁵ *Jarraiki* “Tr. El part. *jarraiki* (*jarreiki*, *jarreki*, etc.) es la forma propia de la tradición septentrional, y *jarraitu* de la occidental.” (OEH X: 110)

¹⁸⁶ “En cuanto a su empleo trans. o intrans., para autores occidentales los testimonios más antiguos corresponden a la construcción intrans. bipersonal: *RG*, *RG*, *Egiaren Kanta*, Capanaga y tbn. Arzadun (pero no Urquizu). Sin embargo, [...] el empleo de *jarraitu* exclusivamente como verbo transitivo, tripersonal o bipersonal, es general en autores occidentales desde mediados del s. XVIII (el aux. trans. bipers. se emplea por lo gral. para la 3.ª acepción y, con menor frec., para la 1.ª, cuando se trata de un complemento no ref. a personas, por ej. *bidea jarraitu*, *ohitura jarraitu*... A partir de mediados del s. XVIII, se encuentran ejs. de construcción intrans. bipers. (en todos ellos junto al frecuente trans. tripers. o bipers.) en Cardaberaz (*Eg* II 190), Ubillos, Moguel (*PAb* 97), Guerrico (II 55), Aguirre de Asteasu, f. Bartolomé, Arrue, Beovide, Iturzaeta (*Azald* 189), y ya en el s. XX, en autores de cierto nivel como Mokoroa (4), Lizardi (*IL* 80), Otxolua (50), Eguzkitza (*GizAuz* 14), Olabide, Orixe (*Aitork* 199), S. Mitxelena (*Aranz* 49), Etxaide (*JJ* 173), Txillardegí, M. Atxaga (*Gazt* 105), Gandiaga (*Elorri* 167), Zaitegi y Villasante (*Jaink* 165) (cf. tbn. And *AUzta* 149: *Atsegiña ta atsekabea / dabiltz alkarren atzian*, / *ixil ixillik jarraitzen dira / goiberan ta aldatzian*). Hay tbn. algunos ejs. aislados de aux. intrans. unipers. en Añibarro, Lardizabal, Otaegi, Enbeita, Txillardegí y Oskillaso. [...]

Al Norte es prácticamente general la construcción intrans. desde los primeros testimonios. En los casos en los que el verbo lleva complemento dativo se documentan ejs. tanto con aux. bipers. como unipers., alternando ambos usos en la mayoría de los autores.” (OEH X: 110)

- (279) a. Inurriari arraio (RS 183)¹⁸⁷
- b. Asko ziran munduari agur eginta jarraitu ziotenak Franziskori (Bv *AsL* 79)
- c. Ze nekez jarraitu zenduan Kalbarioko bidea! (Añ *EL* 190)
- d. Bertso abek / bear dituzu jarraitu; / jarraitu eta gero / gogoan ondo artu (*JanEd* II 127)

Kontuan izan, OEHK dioenez osagarria absolutiboaz markatu ohi dela gizakia ez denean,¹⁸⁸ hala nola, (c,d) adibideetan, baina ez dira gutxi gizaki ez diren datibo osagarriak. Hona hemen bi:

- (280) a. Alper uts-utsak, eta ezergatik, nekeari jarraitzeko esnatuko ez diranak (AA II 81s)
- b. Baserritarren solaseri iarraikirik eskuara garbi [...] ikasi nahi duenak (Zub 94)

Bereziki interesgarriak iruditzen zaizkigu adiera¹⁸⁹ beraren barruan jasotzen diren ondoko adibide hauek. OEHK (X: 111) dioenez, Iparralde zein Hegoaldean aurki daitezke, nahiz eta “ocuparse de, dedicarse a” esanahiko formen testigantzak bereziki Iparraldeko idazleengan aurkitzen diren. Halakoetan, jakina, ez da agertzen gizakia den osagarriarik, oso bestelako osagarri bizigabeak baino (a,b), eta *egitekoa*, *ogibidea* adierazten denean, bereziki ekintza izaera duten osagarriak dira (c-e):

- (281) a. Iarreikiren zaie nik orain erranen ditudan hitzei (Lç *Ins* 1r.)
- b. Egiteko huni borthizki jarraiki izatu izan zaizkonak (ES 384)
- c. Dantziari ta piestiari jarraituten deutseenak (fB *Olg* 52)
- d. Mando tratuari da luzean yarraiki (Hb *Esk* 121)
- e. Kabala hazkuntzari jarraikitzen da oraino hango yendea (JE *Bur* 81)

Hauetan ere, ikusten denez, datibo osagarriak dira nagusi, nahiz eta badi-ren baita absolutibodunak ere. Gure ustez, *jarraikiren* erabilera hau, goian 4.1.1, sorta beregain gisa jaso ditugun aspektu/ekintza datibodun aditzekin batera ere aipa genezake. Han ez aipatzeko arrazoi nagusia da sorta hartako

¹⁸⁷ 2.2 atalean aztertu dugu adibide hau bera.

¹⁸⁸ Berez, halako kasuetan, aditz laguntzaile iragankor datiboduna erabiltzen dela dio OEHK, ez osagarria absolutiboaz markatzen denik. Gogoratu aditz laguntzaileen erabilerari begiratzen diola OEHK, ez guk bezala, osagarriaren markapenari.

¹⁸⁹ “Seguir (un consejo, mandato, orden, ejemplo, costumbre, ley...); seguir, practicar, perseverar, ejercitar(se) (en) (la virtud, fe, oración, devoción...); ocuparse de, dedicarse a (una actividad, trabajo, oficio...)” (OEH X: 111)

aditzek —ia— ez dutela alternantzia zantzurik erakusten eta *jarraikik*, aldiz, bai. Hala, inergatibo datiboduntzat hartu ditugu *ekin* eta abarrak, eta alternantziadunen artera ekarri dugu *jarraiki*. Baina datiboaren izaerari begiratu gero, erabilera honetan, *jarraiki* lotzen zaio lehenago *ekin* eta abarrez esandakoari.

Bestalde, postposiziodun osagarriak ere erakusten ditu *jarraiki* aditzak adiera honetan, hala inesiboan (a,b) nola adlatiboan (c,d):

- (282) a. Eman ezazü ordre / jarraiki dadin legian / edo bestela exila / Franziako lürrian (Xarlem 714)
- b. Jarraitu daigun neure anaiak / euskaldun zarren legean (AB *AmaE* 468)
- c. Ostatura jarraiki orde, bezperetara jarraiki balitz, ez bide zen arditik gabe geldituko! (Arb *Igand* 129)
- d. Danak pakean, anaiak bezela, beste festetara alaitsu eta paketsu jarraituaz (Salav 105)

Ez da harritzekoa, adibidez, inesiboaren erabilera, goian esan dugun moduan, inergatibo datibodunetan, ohikoa da-eta aspektu/ekintza datibo hori inesiboaz ere markatzea.

EEHn (Sarasola 2008/09) jasotzen den “egoera edo jarrera jakin batean irauñ” ez dago ia inergatibo datibodunaren adibiderik —bai, jakina, inakusatibodunak—, eta hori erabilera historikoari lotzen zaiola dirudi, OEHk (X: 113) dioenez ere, mendebaldeko idazleengan orokorturik dagoena iragankor soila baita.¹⁹⁰ Dena den, inoiz datibodunak aurki daitezke. Ondoren dakartzagu absolutibo (a-c) eta datibodunak (d,e):

- (283) a. Modu honetan iarraitu eben lengo autua (A *BeinB* 88)
- b. Eta itxasoratu zirean, euren osterea jarraitzeko (Ehta *Jos* 143)
- c. Petroliozko lanparen inguruan biltzen ginen, klaseak jarraitzeko; hotz handia egiten zuen (*Nire aitaren fusila*, H. Saleem / J.K. Igerabide, 60)¹⁹¹
- d. Errektoreak jarraitu zion bere galdeketari (Muj *PAm* 43)
- e. Ez ezak utzi gutatik eskuartean erabilkikan lana. Jarrai egiok lanari (TAg *Uzt* 88)

¹⁹⁰ *Jarraitu* 3. “Tr. En autores occidentales es casi gral. El uso del aux. trans. bipers. frente al menos frec. tripers.; se documentan tbn. ejs. de aux. intrans. unipers. en algunos autores (Lardizabal, Añibarro, Enbeita, Txillardegi, Oskillaso.” (OEH (X: 113)

¹⁹¹ Hauxe da EEHk dakarren absolutibodun adibide bakarra adiera honetan, gainerakoak historikoki aurkitzen direnen modukoak dira, adibidez, *hizketan*, *horretan*, *lo*, *kantari*, *aurrera jarraitu*. EEHk ez dakar adiera honetan adibide datibodunik.

Adiera honetan, inesibodun osagarriak ere aurki daitezke, zertan jarraiki adierazten dutenak, hala nola, ondoko hauek:

- (284) a. Ausarkeria litzakela gerran jarraitzea (Or *Scruz* 35)
- b. Burrukan jarraitu; beste biderik eztago (Eguzk *GizAuz* 191)

Alternantzia osoa erakusten duten aditzetan hurrengoa, *oratu* dugu. *Oratu*¹⁹² aditzak “heldu” adieraz, datibodun osagarriak erakusten ditu nagusiki, orain arteko aditzetan ohikoa izan den bezala:

- (285) a. Egaz maneki, ora nekikeo txoriari (RS 230)
- b. Eztakit zelan oratu neutsan ostera be txalopeari (Ag *Kr* 92)

Osagarriak gehien bat datiboa izateak ez du esan nahi absolutibodun adibi-deak aurkitu ezin daitezkeenik, hala nola, ondoko hauek:

- (286) a. Bestek ezin atzeman zituen sasi-bei ta idisko izuak adarretatik oratu eta menderatu oi zituela (Izt *C* 247)
- b. Beste batek atzetik beste besoa oratu, eta klisk, eskuturretakoak ipiñi zizkion (Osk *Kurl* 30)

Hortaz, osagarriaren markapenean, absolutibo eta datibo alternantzia dugula esan daiteke.

Ostean, OEhk “agarrar, atrapar, capturar” adieraz dakartzan adibideetan ere bietara markatzen dira osagarriak, absolutiboaz (a,b) eta datiboaz (c,d) alegia:

- (287) a. Oratu dabe lapurra (Etxba Eib)
- b. Etzun abagunerik galtzen bere maitale-oia ostera ere bere sare lilluragarrian oratzeko (Etxde *JJ* 199)
- c. Lau milla gizon lurrean etxunik / gelditu yakez eta bost millari / oratu deutse gureak eta arturik / onantz ekarri (Zav Fab RIEV 1907, 534)
- d. Zamaldako gizon guztien artean ezeutsan inok iltzailleari oratu (Ag *AL* 125s)

Azkenik, “lotu” zentzuaz, inakusatibo datibodun gisa ere agertzen da *oratu* aditza:

¹⁹² *Oratu* (V, G). “Documentado en textos vizcaínos ya desde RS. Lo emplean además los guipuzcoanos Iztueta, Orixe, Goenaga y Etxaide (*JJ* 36).” (OEh XIII: 491).

- (288) a. Zure aberri maitearen odol-lokarriak tinko estutu itzazu; oratu zatzakio berari biotz eta gogo guziz (Goen Y 1934)
- b. Lanari garratz oratu jako / zure poza egiteko (Gand *Elorri* 57)

Gorago, 2.2 atalean ikusi dugu antzeko esanahia eta konfigurazioa dituen beste predikatu bat, *atxiki* alegia. *Utzi* aditza ere aipatu izan da absolutibo eta datibo alternantziadunen artean. Harrigarria bada ere, OEHren testigantzei begira nagusitzen den erabilera absolutiboduna da, aditzak bere adiera nagusia erakusten duenean (“Nolabait loturik gauden edo dagokigun norbaitengandik edo zerbaitengandik bereizi” Sarasola 2007: 987):

- (289) a. Utz nazazue ni orai ere, orainokoa utzi nauzuen bezala (Ax 213 (V 142))
- b. Utz lezake aita bihozdu horrek semea libro (Larre in Xa *Odol* 13)

OEHk jasotzen dituen datibodun adibideak gutxi batzuk baino ez dira, hauek tartean:

- (290) a. Utzi dio gizonari librea / ungi edo egiteko gaizki borondatea (EZ *Man* I 62)
- b. Utzizute arren aur errukarri oni bizirik
- c. Ildakuai pakian utzi akuyok (Ud 31)

Nolanahi ere, “bakean utzi, lasai utzi (dejar en paz, dejar tranquilo)” adieran¹⁹³ ere ageri dira goian aipatu berri ditugun adibideez gain, datiboa erakusten duten beste batzuk, hala nola:

- (291) a. Ay! Utzadazu; zure eskua otza dago jela bezela (Arr *GB* 104)
- b. Itxi eidazu, seme; joan zakidaz emetik norabait (Ag *Kr* 210)

Hauxe da inergatibo datibodunei buruzko gure lanaren amaiera. Argi dago sail korapilatsua dela bai datuen aldetik bai eta azterketaren aldetik ere. Ikusi dugun bezala, iragankorrekiko erlazioa eztabaidagarria da, alde semantiko zein sintaktikotik. Hemen hasierako datu bilketa eta sailkapen bat besterik ez dugu egin, datu eta auzi nagusiak plazaratzeko asmoz. Laburpen gisa, taula batean bildu ditugu datu nagusiak.

¹⁹³ (G-azp, AN, BN).

4.2.6. Taula bat, absolutibo/datibo alternantzidun aditzak biltzen

6. taula

PREDIKATUA	IRAGANKOR SOILA	INERGAT DATIBOD	INAKUS DATIBOD	ALTERNANTZIA	OHARRA
ABISATU	<i>Abisatzen zaituztet</i>	<i>Orain abisatzen dit</i>	ez	hizkeren arabera	
BARKATU	<i>Barkatuko nauzu</i>	<i>Ez die eriotzak barkatuko</i>		osoa	
BEGIRATU	<i>Zelaia begiratuko duzu *** Eskara ere luke nahi begiratu</i>	<i>Ez niri begiratu *** ez</i>	<i>Nola horri ez naitaio begiratu?</i>	adieren arabera	dat kmz + mend perp
DEITU	<i>Deitu ninduenari</i>	<i>Bulegora deitu nion</i>	ez	hizkeren/adieren arabera	
ENTZUN	<i>Etsaiak ez gaitzan entzun</i>	<i>Entzuten dizut</i>	ez	hizkeren arabera/	
ERREPARATU	<i>Ezin da errepara egin izan dena *** Hitzok erreparatu nituen</i>	<i>ez *** Keari erreparatzen dio</i>	ez	adieren arabera	<i>Zer dan errepara dautsozue gero?</i>
ESETSI	<i>Esetsi izan dute Etxepareren bertsolana *** ez</i>	<i>Tentazio zantarrak esesten deuskubengan *** Esetsi eutsan senarrari</i>	ez	adieren arabera	
ESKERTU	<i>Eskertzen zaitut</i>	<i>Eskertzen dizut</i>	ez	hizkeren arabera	
IGURIKI	<i>Igurikiko ninduela</i>	<i>Iguriki diazadazu</i>	<i>Iguriki behar gaizko</i>	osoa	
ITXARON	<i>Itxarongo zaitut</i>	<i>Itxaron gingo dizut</i>		osoa	bizidun dat bizigabe abs

PREDIKATUA	IRAGANKOR SOILA	INERGAT DATIBOD	INAKUS DATIBOD	ALTERNANTZIA	OHARRA
JARRAIKI	<i>Kalbarioko bidea</i>	<i>Jarraitu ziotenak Franziskori</i>	<i>Jarreikiren zaie... hitzei</i>	osoa	
JAZARRI	<i>ez *** Zertarako jazartzen nazu?</i>	<i>Dio yazartzen bere astoari *** Jazarri darotazu</i>	<i>Bata besteari hola jazartzen dira</i>	adieren araberakoa	
LAGA	<i>Ez aut nik lagako *** Katillua mai- ganean laga</i>	<i>Neuri lagata *** ez</i>		adieren araberakoa	
LAGUNDU	<i>Amaiurreraino lagunduko zaiutztet</i>	<i>Ateraino lagundu dio</i>	<i>Lagundu bekio</i>	hizkeren araberakoa	
OBEDITU	<i>Obeditü behar dütügüla gü beno zaharragoak</i>	<i>Bere maisuai obeditzen zie</i>		osoa	
UKITU	<i>Ukutu eskuaz sua *** Ederki ukitzen du pontu hau</i>	<i>Ukitu egiozu eskuaz suari</i>	<i>Egiazko bakeari ukhitzen zaizkion gauzez</i>	adieren araberakoa	
UTZI	<i>Utz nazazue ni orai ere</i>	<i>Itxi eidazu, seme</i>		osoa	

5

Iragankor datibodunak

Konfigurazioz konfigurazio goazela, azken motara helduko gara orain, iragankor datibodunetara, alegia. Lehenago bezala, hiru aldetatik hurbilduko gara gaira. Lehenengo eta behin 5.1, konfigurazio honetan beharrezkoak diren datiboen ingurukoak aurkeztuko ditugu. Jarraian, 5.2 atalean, konfigurazio iragankorretako datiboen theta-roleri gainbegirada bat emango diegu. Azkenik, 5.3, konfigurazio datibodunen eta datibogabeen arteko alternantziez arduratuko gara.

5.1. Beharrezko datiboen aztarnak adizki iragankor trinkoetan

Jo dezagun orain, lehenago —2.2— aditz iragangaitzekin bezala, aditz iragankorretatik bereziki forma trinkoak dituztenen lekukotasunak aztertzeraz. Gorago aditz iragangaitzei dagokienez ikusi dugun bezala, adizki trinkoen eremu morfologiko itxi honetatik nolabaiteko ebidentzia lor daiteke datiboen beharrezkotasunaz: forma trinkoek datibo marka beharrezkoa izanez gero, orduan pentsatzekoa da argumentu hori beharrezkoa dela —edo, garai batean, behintzat, hala izan dela—.

Adizki iragankor trinko gutxik erakusten dituzte beharrezko datibo markak. Lafonen tesiaren (1944) aurkibidean, iragankorren artean —*verbs de la 2^e classe* deritzenak— datiboa derrigorrez erakusten dutenak *erauntsi*, *erausi*, *iritzi* eta *itxaron* dira, baina hauetatik azken biak dagoeneko inergatibo datibodunen artean aztertu ditugu, ez baitago euren egituran inongo absolutibo argumenturik. *Erauntsi* eta *erausi* aditz bat bakarra direla dio Lafonek (1944: 277).

Erauntsi laguntzaile iragankor datibodunaz jasotzen da eta “jo, eraso”¹⁹⁴ da bere adiera nagusietako bat (OEH VI: 789):

¹⁹⁴ OEH (VI: 789) “Golpear; atacar, acometer. Arremeter, asaltar, atacar al enemigo.”

- (292) a. Eta bazeraunsaten haren buruari kanabera batez (Lç Mc 15, 19)
 b. Baina bere bulharrari zeraunson (Lç Luc 18,13)

Lafonek dioenez (1944: 276), aditz honek “*n’a que de formes tripersonnelles...; le patient, qui est toujours à la 3^e pers. du sg., est indéterminé.*” Hala, Lafonen ustez, *erauntsik* hiru argumentu ditu, ez bi, eta bere hitzetatik, absolutibo osagarria isilpean dagoela interpreta daiteke. Alabaina, adiera honean, datibo osagarriak gai theta-rola duela ematen du. Alde horretatik, beraz, Lafonen iritziaren kontra, ez genuke isilpeko absolutibo osagarririk, datibo osagarria baino, eta horrek *erauntsi* inergatibo datibodunen artean kokatzera eramango gintuzke.

Gainerakoan, *erauntsi* eguraldi aditz modura ere erabiltzen da. Goian, inergatibo datibodunen atalean 4.1.1, zenbait eguraldi aditz aipatu ditugu, hala nola, *eman*, *eragon*, *erasan*, *eraso*. OEHk (VI: 790) dioenez, eguraldi fenomeno aipatuz gero, orduan datiboaz markatzen da (a,b), baina fenomeno bera aipatu gabe ere utz daiteke (c):

- (293) a. Uriari darauntsa (SP)
 b. Euriari, elurrari [...] eraunsi dio (Lar)
 c. Eta hegoak draunsanean, erraiten duzue, ezen bero eginen duela (Lç Lc 12, 55)

Eguraldi aditz hauen erabilerari buruzko xehetasunak jaso ditugunean adierazi dugunez, halako aditzetan ergatiboa erdi-argumentu bat da, eta itxuraz hori bera esan beharra dugu (c) adibideko datiboaz ere, erdi-argumentu bat dela, alegia. Kontuan izan guk inergatibo datiboduntzat jotzen dugula *erauntsi*, hau da, absolutibo osagarririk ez duena. Jakina, absolutibo osagarria isilpean dagoela uste duenak, (c) adibideko datibo osagarria ere isilpean dagoela esan beharko luke, aditzaren irudia are korapilatsuagoa eginez.

Egia esan, Lafonen testuan bildutako XVI. mendeko forma trinkoen artean, laguntzaileetatik aparte oso iragankor datibodun gutxi agertzen dira. Baliteke testuen urritasunagatik izatea hori, baina gaur egun ere EGLUK (1987) eredu zko iragankor datibodun gisa jasotzen dituen aditzen artean, ez *ekarri* aditzak ez eta *eraman* eta *erabili* aditzek ere ez dute konfigurazio datibodun honi dagokion formaren lekukorik.¹⁹⁵ Testigantza klasikoetara itzuliz, *eroan* predikatuak badu *deroat* ‘eroaten dit’ forma bat (RS 82),¹⁹⁶ eta egia ere bada *erakutsi* aditzaren forma trinko bakarra datiboduna dela —*neure gogoia nera-*

¹⁹⁵ Ez ditugu hemen kontuan hartzen, noski, ez aginterazko forma datibodun laburtuak (*eqhardaçu*, *ekarroçue* eta *ekaztaçue* bezalakoak), ez eta marka alokutiboa dutenak (*diraus-çaçu*) (Lafon 1944: 277).

¹⁹⁶ *Tacot deroat dodana neure echerean çeraja* “para me lleua lo que tengo de mi casa al mercado” (Lafon 1944: 292).

*cutson*¹⁹⁷ ‘erakusten nion’, baina azken hau forma bakarra denez, ezin daiteke jakin *erakutsi* aditzari datiboa beharrezkoa zitzaien ala ez—. Azpimarratzekoa da XVI. mendeko datuetara begira, konfigurazio iragankor datiboduneko adizki gehienak erro defektibo edo supletiboetatik datozela, batez ere *-io-*, *-i-* eta *-rau-* erroetatik, eta “eman” adiera zabal batez erabiltzen direla:

- (294) a. Baietare konplitzeko didan penitenzia (E 43)
- b. Ezker drauzat neure Iankoari (Lç Rom 1,8)
- c. Ezker diarozat neure Iankoari (Lç Tim 1,3)

Emanek berak badu forma datibodun bat edo beste:¹⁹⁸

- (295) a. Hark ehoi eztemaio oren baten ephia (E 35)
- b. Eta gogoa demogun elkharri xariterara eta obra onetara inzitatzeko (Lç Hebr 10,42)

Baina gehienetan forma datibodunak perifrastikoak dira, laguntzaile gisa lehen aipatu ditugun erro defektiboak erabiltzen dituztenak, eta perifrastikoak diren heinean, atal honen eremutik kanpo gelditzen dira. Nolanahi ere, garrantzizkoa da kontuan hartzea garai hartako euskarari, erro defektiboetako adizkiak forma datibodunetarako bakarrik erabiltzen zirela. Neurri handi batean, beraz, badago banaketa osagarri moduko erlazio bat: forma datibodunetarako erro supletiboak erabiltzen ziren, berez edo laguntzaile gisa, eta forma datibogabeetarako ez ziren erro berezi horiek erabiltzen, *emanen* beraren forma trinko zein perifrastikoak baino. Kontuan izan dezagun, hurrengo atalean 5.2 ikusiko dugun bezala, *eman* moduko predikatuak iragankor datibodun tipikoenak direla eta denetariko berezitasunak erakusten dituztela hizkuntzetan zehar. Ez da harritzekoa, beraz, garai hartako euskarari egoera korapilatsu hori izatea. Euskara horren nahastura interpretatzeko, ez da harritzekoa euskalarietara pentsatzea datibo komunztadura, konfigurazio iragankorrean, behintzat, hizkuntzan forma hartzen ari zen fenomeno zela, hau da, nolabait fenomeno ‘berria’. Fenomeno hori iragankor datibodun prototipikoetan itxuratzen hasi zen, eta geroago, denboraz, aditz iragankor gehiagotara zabalduko zen.

Ikusi dugunez, denetariko forma berezietan baliatzen da hizkuntza konfigurazio iragankorreko datibo komunztadura adierazteko, erro supletiboetaz

¹⁹⁷ *Neure gogoa nerakutsen sekretuki han barna* (E 143).

¹⁹⁸ *Eman*. “Las formas sintéticas (de *eman*: no nos referimos a otras raíces supletivas como *-i-*, etc.) se documentan, en autores septentrionales hasta comienzos del s. XVIII (más tarde tbn. los emplea a menudo Goyhetché). Al sur son raros los verbos fuertes ya en los textos del s. XVI, pero se vuelven a encontrar. Se emplean casi exclusivamente verbos tripersonales (*demogula lekhu* Ax 291) (V 193)). [...] Algunos autores de este siglo ‘reinventan’ formas sintéticas pero con el infijo *-a-* propio históricamente de los bipersonales.” OEH (VI: 627).

edota erro supletibo horiek laguntzaile gisa erabiliz. Azpimarratzekoa da erro horiek ez dutela berez forma denboragaberik, eta hori, hain zuzen, laguntzaile askoren ezaugarria da —horregatik ezartzen dizkiegu izartxoak **edun*, **ezan*, **edin* bezalakoei—. ¹⁹⁹ “Eman” adierako aditz horiek, oro har, forma iragankor datibodunak adierazteko erabiltzen hasi ziren, eta gramatikalizazio prozesu bati bidea eman zioten. ²⁰⁰

Mendeen joan-etorrien ikuspegitik, berrikuntza izan zein ez, gaur egun hizkuntzan finkatuta dagoen gertakaria da datibo komunztadura. Baina, esan dugun bezala, ez dago gaur egun ere beharrezko datibo komunztadura duen predikatu iragankor trinkorik. Beraz, ebidentzia mota honi lehentasuna emanaz gero, *dakarkiot* bezalakoak, forma berriagoak izateaz gain, eratorritako formatzat hartu beharko genituzke, hau da, oinarrizko forma iragankor bati argumentu bat gaineratuz sortutakoak. Hartara, Levin eta Rappaportek (2005) *complex event creation* edota *gertaera konplexuaren eraikuntza* deriztaten prozesuaren ondorio lirarteke.

5.2. Theta-rolak

Erakutsi berri dugunez, ez dugu aurkitu iragankor datiboduna bakar-bakarrik izan daitekeen adizki trinkorik. Eta EPGeko testuak Corsintaxen bitartez arakaturaz gero ere, gauzak ez dira aldatzen, ez baitago konfigurazio iragankorren artean, datiborik gabe ere agertu ezin daitekeen predikatu datibodunik.

Jo dezagun EPGERa, konfigurazio iragankor datibodunean sarrien agertzen diren predikatuak zeintzuk diren jakiteko. Datuek erakuts dezaketen maiztasunari ez diogu garrantzi berezirik eman nahi, nahiz eta sarrien agertzen diren kasuetatik abiatuko garen, theta-rolen matazaren hariari tenk egiteko. Datu hauek argitu dezakete agian zeintzuk diren konfigurazio honetako datiboen theta-rol nagusiak eta nola lotzen diren predikatuaren oinarrizko argumentu egiturarekin, alegia, konfigurazio datibodunak datibogabeekin. Gogoan izan lehenago iradoki dugun bezala, datibo hauek predikatu iragankorren oinarrizko argumentu egiturari gaineratutako osagaiak direla. ²⁰¹

¹⁹⁹ Ez bakarrik euskaraz. Ingeleseaz, adibidez, laguntzaile modalen ezaugarri ezaguna da hau: ez dago **to must*, *canning*, *to may*, *oughting* bezalakorik.

²⁰⁰ Txineraz morfema bera erabiltzen da bai *eman* aditza bai datibo kasua markatzeko:

- (i) Ta gei wo shuo...
hura eman ni esan
 ‘Hark niri esan zidan’
- (ii) Ta gei wo qian
hura eman ni dirua
 ‘Hark dirua emango dit’

²⁰¹ Argumentua hiztegian ala sintaxian gaineratzen ote den oraindik erabakitzeke dago.

5.2.1. Iragaitea: helburuak, iturburuak eta onuradunak

Alderdi tipologikotik begiratuta, hizkuntzetan zehar, konfigurazio iragankor datibodunetan²⁰² agertzen diren predikatuak iragaite edo transferentzia predikatuak izaten dira, hau da, gai bat iturburu batetik hartzaile edo helburu bati iragaten zaiola adierazten dutenak. Horregatik, euskaraz ere, iragankor datibodunetan mota honetako predikatuak aurkitzea espero dugu. EPG corpora Corsintaxen bidez arakaturaz gero, agerpenen zerrendan *izan*, *egin* bezalako aditzak alde batera, hasierako predikatu guztiak nahiko ondo egokitzen dira egoera prototipiko honetara: *agindu*, *azaldu*, *ekarri*, *eman*, *erakutsi*, *erantzun*, *esan*, *eskaini*, *eskatu*, *galdetu*, *jarri*, *kendu*, *kontatu*, *leporatu*, *utzi* dira corpus horretan mila agerpen baino gehiagoko aleak. Gehien-gehienetan helburu bati egiten zaion gaiaren iragaitea dugu. *Gehien-gehienetan* diogu, iragaite prototipiko hori zentzu zabal batez ulertu behar delako. Lehenengo eta behin, iragaitea kontrako norabidean gerta daiteke batzuetan. Halakoetan datiboa ez da, jakina, helburua, iturburu baizik. Hau da, esaterako, *kendu* predikatuaren kasua, eta bere antzekoak dira baita *hartu* eta *atera* ere.²⁰³ Bigarrenik, datiboak askotan onuradunaren kutsu nabaria du, eta horixe izan daiteke, hain zuzen ere, *eskatu* predikatuaren datiboak duen theta-rola. Hala, askotariko interpretazioak dituzte ondoko perpausek:

- (296) a. Taxi bat/dirua eskatu dizut
- b. Mikeli loteria erosi diot

Pragmatikaren arabera, interpretazio bat bestea baino eskurago egon badaiten ere, *zuri* implizitua eskaeraren helburua zein onuraduna izan daiteke (a) adibidean: *zu* hori taxi konpainiaren langilea bada, helburutzat hartuko dugu, baina taxi baten zain dagoen laguna bada, errazago interpretatuko dugu *zu* onuraduna dela —alegia, taxia *zuretzat* dela—. Eta *diruarekin* ere antzera, dirua zuk baduzu, eskaeraren helburua *zu* izango zara; baina jo dezagun nik dirua beste bati eskatu diodala gero zuri emateko, orduan *zu* azken hartzailea —edo ingelesez, *intended recipient*— izango zara, onuraduna azken batean. *Erosi* aditza duen adibideak (b) lerro hauetan adierazitako ñabardura biak biltzen ditu: Mikel loteria saltzailea bada, iturburu izan daiteke. Alabaina, ez nahitaez, loteriaren azken hartzailea ere izan daiteke-eta —beharbada nik neuk gordetzen ditut familia guztiaren loteria txartelak, eta baita Mikelentzat ere erosi nuena, eskura eman ez arren—.

²⁰² Gure lanaren hasieran esan dugun moduan, *ditransitive* edota *ditransitivo* ere deitu izan direnak.

²⁰³ Semantikoki, *kentzen*, *hartzen* edo *ateratzen* dena iturburuaren atala edo jabea denean, datiboa oso hurbil dago jabe edota interes datiboetatik.

Onuradun theta-rola nabarmena da sortze predikatuetan (a) (Oyharçabal 2007b), baita zerbitzuak adierazten direnean ere:

- (297) a. Joni bixkotxak egin dizkiot
b. Atea zabaldu didate
c. Idazlana laburtuko dizut

Guztietan, *-(r)entzat* destinatiboa ala onuraduna erabilenezake datiboaren ordeztu, aldaketa semantiko handirik gabe. Arregik (2003: 16) datibo/onuradun alternantzia hau erakusten duten predikatuen ondoko sailkapena egin du:

- a) BUILD verbs: *eraiki, ebaki, bildu, josi, tolestu, txikitu, egin...*
b) CREATE verbs: *diseinatu*
c) PREPARE verbs: *erre (oilaskoa), egosi, garbitu, prejitu, prestatu (janaria), plantxatu, piztu, bota (ardoa), jarri (mahaia), aletu...*
d) PERFORMANCE verbs: *margotu, pintatu, irudikatu, jo, abestu, idatzi, antzetzatu...*
e) GET verbs: *erosi, erreserbatu, deitu (taxia), hartu (fruta), jaso (soinekoa), bildu (loreak), lortu, alokatu, eskatu (1) (pizza), jarri, gorde (lasagna), jeitsi, igo...*
f) OBTAIN verbs: *atera (sarrerak), harrapatu (erleak zure kolekziorako), aukuratu (pololo berdeak), bildu (kromo guztiak), eskuratu...*
g) CREATE verbs: *konposatu, idatzi, antolatu (festa bat)...*
h) STEAL verbs: *berreskuratu, hartu*

Datibo/onuradun korrelazioak, beraz, emankorra dirudi baita euskaraz ere. Horregatik, Arregi & Ormazabal (2003) lanean, datiboak, sintaktikoki onuradunetatik eratortzen direla proposatzen da, pre/postposizioak datibo bihurtzeko prozesu zabalago baten barruan. Ez da hau euren proposamen sintaktikoa baloratzeko unea, baina darabiltzaten datuek datiboak bestelako theta-rola lotu daitezkeela erakusteko balio dute. Dena den, zalantzarikoa da proposamena, Oyharçabalek (2007b) dioen moduan, perpaus berean bai datiboa bai onuraduna batera ere ager daitezkeelako, adibidez, *Joni bixkotxak egin dizkiot bere haurrentzat* perpausuan.

Eta hirugarren eta azkenik, Arregik (2003), esate baterako, *ordezkatzeko* datiboak ere jaso ditu:

- (298) Zu gaixorik zeunden; inprimakiak nik eraman nizkizun udaletxera

Interpretazio bat baino gehiago izan ditzake hemen datiboak —bere malgutasun tematikoaren seinalea dena—, baina interpretazioetako batean, paperak udaletxera eraman behar bazenituen, orduan *zuri* datiboak ‘zure ordeztu’ adierazten duela dirudi.

Beraz, iragaita prototipikoa adierazten dute nagusiki konfigurazio iragankor datiboduneko predikatuek, nahiz eta iragaita hori modu murriztailean ulertu ezin daitekeen.

5.2.2. *Jabe datiboak eta interes datiboak*

Konfigurazio iragankorreko datiboek bestelako theta-rolak ere izan ditzakete. Etxeparek (2003: 411) dioenez, inongo iragaiterik adierazten ez duten aditzetan, datiboak nahitaez jabetza motakoak dira. Esate baterako, ondoko adibideetan jabe datiboak edota datibo etikoak ditugu:

- (299) a. atetik urkatuko zaitu [faraoiak] eta txoriek haragia jango dizute (*Elizen arteko Biblia*, Has 40, 19)
- b. Odola gatzatzen dizute oinazeko heia-gorek (*Elektrika*, X. Montoia, 141)
- c. Abizena aldatu dizute, baina, antza denez, hobe iritzi diote izena ez aldatzeari (*Eguzki beltzaren sekretua*, A. Ladron Arana, 42)
- d. Benda batekin bildu diote ezkerreko besoa, eta aurpegia handituta dakar (*Auzoak*, U. Urrutikoeetxea, 80)
- e. Zure hitzek, alkate laguna, bihotz-mamia ukitzen didate (*Glosolaliak*, K. Linazasoro, 113)
- f. Izpituaren usain eta gustuak, haurtzaroan etxen eta ahaideen etxeetan egiten genituen besten oroitzapena piztu didate (*Santiago oinez*, P. Aintziart, 206)

Adibide hauetan norberaren *haragi*, *odol*, *abizen*, *beso*, *bihotz-mami* eta *oroitzapenaz* ari gara, jabetza ezinbesterenduzkoaren ohiko adibideez. Ez beti, baina: lehenengo adibidean (a), horixe da interpretaziorik naturalena. Dena den, beste testuinguru batean —urkamendurik gabe, ahal dela— *txoriek haragia jango dizute* esan genezake beharbada, baldin eta zuretzat prestatu dudan xerraz hitz egingo bagenu. Kasu honetan, datiboak jabetza zein neurritan adierazten duen eztabaida daiteke, baina gorago 1.2.3 esan dugun bezala, badirudi ‘jabetzapean’ pertsonarekin lotutako denetariko gaiak jaso daitezkeela: interes datiboa, esate baterako, jabe datiboaren azpikasua bat dela pentsa daiteke.

Datibo batzuek gaia edo gertaera bera argumentu batekin lotzeko ahalmena dute, eta lotura horren bitartez adierazten ditugu jabetza edota interesa bezalako erlazioak. Semantikan oinarritzen diren analisi sintaktikoetan, Pylkkänenen (2008) analisisan, adibidez, goi-aplikatiboa eta behe-aplikatiboa bereizten dira: goi-aplikatiboak aditz sintagmak adierazten duen gertaera argumentu batekin lotzen du, eta behe-aplikatiboak, aldiz, aditzaren osagarria helburu, iturburu edota onuradunarekin. Semantika eta sintaxiaren elkargu-

nean, beraz, bi motatako makro-rolak bereiz daitezke, eta hauetako bat jabetza/interesa da. Denetariko loturak onartzen ditu erlazio honek. Hona hemen, jabe eta interes datiboen beste adibide sorta bat:

- (300) a. Neuk asmatutako orrazkera dela esaten badiet, erdia sinesten didate (*Anne Franken egunkaria*, A. Frank / J. Zabaleta, 187)
- b. baina ez al zen Ortzi hemen hauetako jainko zaharra? —ebakitzen didate teologo “guturrek”— (*Gaur ere ez du hiltzeko eguraldirik egingo*, I. Segurola, 58)
- c. gisako huskeriek itzultzen didate niri bizipoza (*Rock’n’roll*, A. Epaltza, 143)
- d. Uribarriko etxe-blokeek bertigoa sortu diote (*Auzoak*, U. Urrutikoe-txea, 37)
- e. Horietako batzuek aurrea hartzen diote ikasleen jakiteari (*Hainbat idazlan*, San Agustin / I. Unzurrunzaga, 327)
- f. lustrea ateratzen diote hiriari (*Urregilearen orduak*, P. Aristi, 346)
- g. egunez egiten dutena, beste herrikoak gauetz etorri eta birrintzen diote dena (*ibid.*, P. Aristi, 357)
- h. Orain ez didate deusetarako balio (*Hobe nuen etxean gelditu*, H. McCoy / F. Rey, 74)
- i. Estatu bat jarri didate herriko plazan (*Romain zen bere izena*, J. Agirre, 111)

Ikusten denez, askotarikoak dira adibide hauetan azaltzen diren loturak: ‘nik esandakoa’ (a), ‘nire solasaldia, nire hitza’ (b), sentipenak (c,d), *aurrea* bezalako erlazio izenak (e), gauza baten berezko ezaugarria (f), norberak egingakoa edo norberari interesatzen zaiona (g), norberarentzat balio duena (h), norberaren omenez egindako zerbait (i), etabar. Hauetako gehienetan lotura azaltzerakoan genitiboak erabil baditzakegu ere, kontuan hartzekoa da genitiboaz markatutako loturak askozaz zabalagoak direla jabetza hutsa baino. *Nire kanta* nik kantatu dudana, nik konposatu dudana, niri gustatzen zaidana, nik kantariari eskatu diodana, nitaz hitz egiten duena, eta beste hamaika gauza adierazteko egokia den sintagma dugu. Galdera da, beraz, ea datibo markak zein neurritan erabil daitezkeen konfigurazio iragankorretan *nirekin* zerikusia duten lotura zabal horiek adierazteko. Jabetza berez datiboaren bidez berreskura daitezkeen loturarik errazenetariko bat izan arren, aurreko datuek bestelako lotura zabalagoak ere egin daitezkeela iradokitzen dute. Dena den, sakon aztertu gabeko eremua da hau.²⁰⁴

²⁰⁴ Hau da, *nire kanta kantatu dute* perpausean *nire* horrek adieraz dezakeen guztia *kanta kantatu didate* formaren bidez ere eskura daitezkeen ikusi beharko litzateke.

Oyharçabalek (2007b) jabetza eta interesa nolabait ezberdinak direla uste du. Oyharçabalek Pylkkänenen sisteman oinarritzen du bere analisia, eta gogoratu sistema horretan, behe-aplikatiboak gai baten iragaitea lotzen duela helburu edo iturburu batekin. Iragaite hau jabetzaren iragaitetzat hartzen du Oyharçabalek, eta predikatu estatiboetan inongo iragaiterik ez dagoenez —ekintzarik ez dagoelako—, ez genuke espero halako predikatuekin batera jabe datiboak izatea. Hori erakustearren, honako adibideak ematen ditu:

- (301) a. *Jonek Joanari ahotsa maite dio
- b. *Jonek Joanari segeretuak dakizkio

Dena den, badirudi ez ditugula jabetza eta iragaitea elkartu behar. Izan ere, jabetza erlazioetan ez du zertan inongo iragaiterik edo transferentziarik izan behar: *autoa hondatu didate* esatean datiboak nire autoa dela adierazten du, baina osagarriari iragaten zaion ekintzaz gain —*hondatzea*— ez dago, gure ustez, bestelako transferentzia berezirik. Pylkkänenen sisteman —edota beste edozeinetan— jabetza zein buru sintaktikorekin lotu behar den jakiteko ebidentzia enpirikoa beharko litzateke, erraza baita buru aplikatibo batekin zein bestearekin lotzea: jabetza osagarri baten ezaugarria den heinean, berarekin harremanetan dagoen behe-aplikatibo baten argumentua izan liteke jabe datiboa; halaber, jabe datiboa, zentzurik zabalenean, aditz sintagmak adierazten duen gertaerarekin lotzen dugun argumentua izanik, goi-aplikatibo batekin ere lotu litekeela uste dugu.

Aurreko paragrafoetan jabetza eta interesa lotzen saiatu gara, eta benetan jabetzaren iragaiterik ez dagoela azpimarratu nahi izan dugu. Sintaktikoki bien artean ezberdintasunik egon badagoela erakusteko, predikatu estatiboak duen perpaus batean jabe datiboak eta interes datiboak batera agertu ezin daitezkeela erakutsi beharko litzateke:

- (302) a. Jonek indabak gorrotatzen dizkit
- b. Mirentxuk Realaren jokalaria guztiak ezagutzen dizkit
- c. Jonek ahotsa ezagutzen dit
- d. Jonek autoa gorrotatzen dit

Lehenengo adibidean, datiboa *Jonekin* lotzen dela ziurtatu behar dugu (Jon, nire semea da; indabak, aldiz, ez dira nireak). Ikusten denez, oro har, ez dirudi aparteko ezberdintasunik dagoenik, eta Oyharçabalen goiko adibideen ezgramatikaltasuna bestela azaldu beharko litzatekeela uste dugu.

Atal honetan zehar erakutsi dugunez, datiboaz bideratzen diren erlazio semantikoak elkarrendik hurbil gaude: iragaiteetan —dela iturburu batetik, dela helburu batera, dela onuradun batentzat— jabetza implizitua dago; eta interes datiboaren barruan, esan dugun bezala, jabetza, zentzu estu zein zabalago batez inplikaturik egoten da: nire neurea dena da, batez ere, interesatzen zaidana. Eta,

azkenik, berezko ‘jabetza’ dugu, noski. Gure helburua, baina, ez da azterketa semantikoa egitea, markapen morfologikoa edota jokabide sintaktikoa ulertzen laguntzen digun neurrian, semantika eztabaidagai hartzen dugun arren.

5.2.3. Igoera datiboak

Datiboen theta-rolei buruzko sarrerako atalean 1.2.4 esan dugun bezala, datibo batzuk, itxuraz predikatu jakin batekin harremanetan daudela erakutsi arren, berez egituran ‘beherago’ dagoen beste osagai batekin loturik daude. Esate baterako:

- (303) baina atearen ostean ezkututzen den nagusiari egoten zaio adi (*Mutua-
ren bitzak*, H. Etxeberria, 152)

Perpaua honetan *nagusiari* datibo argumentuak *egon* predikatuarekin erakusten du lotura aditz laguntzailearen datibo komunztaduraren bitartez. Baina irakurlea konturatuko zenez, inflexioak datibo argumentua *egon* goiko predikatuarekin lotzen badu ere, berez *adi* predikatuarekin lotuta dago —hau da, kontua da *zeri adi* dagoen ez *zeri egon*—. Ostean, igoera zer den ulertu nahi bada, irakurleak imajinatu behar du zuhaitz bidezko egitura sintaktiko bat, bere tontorrean inflexioa edo aditz laguntzailea duena, aditz eta guzti. Horregatik bereizten dugu ‘goiko’ predikatua —*egon*, kasu honetan— eta ‘beheko’ predikatua —*adi, erne* edo beste edozein—. Izatez, beheko predikatuarekin lotuta dagoenak gora egiten du egituran, hots, igo egiten da goiko predikatuarekin lotuz —*erne* edota *adi* aztertzeko, ikus 6. kapitulua—.

Honelako kasu gehienak bilakaera sintaktikoen ondorioztat har daitezkeenez, ez ditugu hemen haien alde tematikoak ukituko. Ondoko kasuak eta euren antzekoak, beraz, gure oraingo zereginetatik kanpo daude:

- (304) a. Mikeli autoa ekar arazi diogu
b. Liburua irakurtzen hasi zaio
c. Hori esaten nabilkizu
d. Inguruan dabilzkizu beti (*Ordaina zor nizun*, J. Urteaga, 142)

Hala ere, badaude hemen aztertu beharreko bestelako igoera datiboak. Cor-sintaxen emaitzak harturik, *dio* datiboduneko eta *du* datibogabeko konfigurazioen testigantzak alderatuz gero, konfigurazio datibodunean agertzeko joera sendoena duten predikatuak bildu ondoren, oso nabariak dira aditz arinekin osatutako predikatu konplexuak: *agur egin, aurre egin, dei egin, hitz eman, kalte egin, kasu egin, men egin, min egin/eman, musu eman, muzin egin, so egin, su eman, uko egin, zor izan*. Predikatu hauek guztiak, EPG corpusean, sarriago agertzen dira datibo argumentu batekin, bera gabe baino. Morfologikoki an-

tzekoak izan arren —determinatzailearik gabeko osagarri biluziak dituzte guztiek—, tematikoki ezberdintasunak sumatzen dira euren artean. *Eman* dutenak gardenak dira, eta datiboa helburutzat har daiteke besterik gabe. Baina *egin* erakusten dituen datiboak bereziak izan daitezke. Batzuetan sormen predikatua da osatzen dena eta orduan datiboa helburu/onuradun-kaltetun arrunta dela pentsa daiteke —*kalte egin*, *muzin egin*, eta beharbada, *agur egin* eta *min egin* hauen artean koka daitezke—. Baina *aurre egin*, *kasu egin*, *so egin*, *uko egin*, eta igual *dei egin* ere beste era batez analiza daitezke. Aspaldiko zenbait lanetan (Uribe-Etxebarria 1989, Laka 1993, Fernández 1997) adierazi zenez, aditz arinak tematikoki nahiko gardenak dira, eta euren osagarrian sortzen diren theta-rolak bereganatzeko ahalmena izan dezakete, predikatu konplexuak sortuz. *Aurre egin didate* perpausean, esate baterako, lehenengo pertsonako datiboa *aurre* erlaziozko izenari dagokiola dirudi, ez *egini* berari. Beraz, sortzez izen horretatik letorkioke *egin* predikatu gardenaren laguntzaileari gaineratu diogun datibo marka, ez *eginetik* bertatik. Honelakoak izan litezke ondoko hauek ere:

- (305) a. Giltzurrunek tira egiten dizute (*Mentxakaren aitorpena*, J.R. Goiakoetxea / R. Egiguren, 163)
- b. Erreflexuek alde egin dizute azken aldian (*Odolbildua*, J. Landa, 67)
- c. Baina horrek, dagoeneko, ihes egin dit eskutik: testuotan dago ala ez dago (*Konpainia noblean*, A. Lertxundi, 121)
- d. Antza, nik gura baino goiztiarrago ibili da eta ihes egin dit (*Jeans-ak bozkailuan*, P. Zubizarreta, 46)
- e. Ihes egin dit garrasiak (*Atzo*, A. Kristof / E. Mujika, 74)

Objektuaren izaera oso hurbil dago goian datiboen rol batzuetan ikusitakoetatik: gorputz atala —*giltzurrunak*— eta erlazio izena —*alde*—, biak berezko jabetzatik hurbil daude, edo besterik gabe jabetza adierazten dute. Azken hiru adibideek *ihes egin* predikatu konplexua jasotzen dute, eta ikusitako theta-rolen erakusgarri gisa dakartzagu: neukan zerbait edo interesatzen zitzaidan zerbait hasierako bietan (a,b), eta nire garrasia azkenekoan.

Ez da *egin* dagoen predikatu arin edo garden bakarra, loturazko aditzak ere, azken finean, eduki handirik gabeak baitira. Ondoko kasuetan, berriro ere, aditz nagusiaren datiboa beste nonbaitetik datorkiola dirudi:

- (306) a. Horrela, begirune izanen dizute (*Elizen arteko biblia*, Erg 8, 40)
- b. hipotesi honi ikara diote akademikoek (*Hainbat idazlan*, San Agustín / I. Unzurrunzaga, 50)
- c. Ximurrak, aldiz, Charlyri zor zion bere izengoitia (*Rock'n'roll*, A. Epalza, 183)
- d. “Baina aitari izugarritzko gorrotoa diot!”, erantzun nion (*Soinujolearen semea*, B. Atxaga, 190)

Aditzak ez diren kategoriekin loturiko datibo hauetara beherago —6. kapitulu— itzuliko gara.

5.3. Alternantziak

Konfigurazio iragankorreko datiboek ez dute alternantzia askotan parte hartzen. Zentzu zabal batean, alternantziatzat har genezake datibo argumentua konfigurazioan izateko ala ez izateko aukera, hau da, oinarrizko aditz bati datibo argumentu bat gaineratzea —buru aplikatiboen bidez, esaterako, Levin eta Rappaporten (2005) gertaera konplexuaren eraikuntza sortuaz—. Hipotesi modura, datiboak ‘gaineratutako’ argumentuak badira, orri hauetan zehar eman ditugun zehaztasun guztiak honelako ‘alternantzia’ baten ingurukoak izango lirateke, konfigurazio datibodun guztiak datibogabeen ondoan bildu bailitezke. Hau eztabaidagarria da gainerako konfigurazioetan, beharrezko datiboak ditugun neurrian —gogoratu adibidez aditz psikologikoen datiboez esandakoak. Dena den, dagoeneko aipatu dugun bezala, zaila da iragankor datibodunen artean datiborik gabe ere erabili ezin litekeen predikaturik aurkitzea. Ikuspegi honetatik, beraz, ez litzateke existituko datiboak ‘kentzen’ dituen alternantziarik, horrek suposatuko lukeelako alde aurretik oinarrizko konfigurazio datibodun bat izatea. Alde horretatik, iragaitea adierazten duten argumentuak aztertu beharko lirateke, zeren kasu horretan datiboak beharrezko argumentutzat har litezke, eta hala balitz, datiboen hautazkotasunaren kontrako ebidentziatzat har liteke. Esate baterako, *erakutsi* aditzak baditu adiera bi, bata epistemikoa —*demonstraturen* parekoa— eta bestea, oinarrizkoagoa beharbada, baten bati zerbait begiekin ikusaraztea. Iragaitea edo transferentzia ohikoa ez den arren, gaia helburuaren begietara heltzen den neurrian, iragaitea egon badago. Zentzu epistemikoan, helbururik gabe, adiera guztiz osoa dela esan badaiteke ere, bigarren adieran, egitura lexiko-semantikoan helburua beharrezkoa dela dirudi —gorago esan dugun bezala, sintaktikoki eta morfologikoki beharrezkoa izan ez arren—. Hala, ondoren dakargun datiborik gabeko konfigurazioa lexikoki ‘eratorritzat’ jo genezake eta alternantzia bati leporatu:

(307) Telebistak uholdeak egindako kalteak erakutsi zituen

Helburu inplizitu bat dagoen neurrian, Levinek (1993) PRO-izenordain arbitrariotzat jotzen duen argumentua izango genuke, eta helburu arrunta duen konfigurazioarekin alternantzia batez loturik dagoela pentsa genezake (*PRO-*arb* object alternation*).²⁰⁵ Levinek aipatzen duen alternantzia giza-osaga-

²⁰⁵ Levinen terminologia darabilgu hemen. Bertan, osagai semantikoak eta sintaktikoak bateratzen dira. Lexikoaz ari garenez, ez dugu eztabaidatuko delako PRO argumentu hori sintaktikoki existitzen den ala ez. Orobat, perpaus inpertsonaletako PRO arbitrarioak sintaktiko gautzen diren ala ez eztabaida daiteke.

rriekin aurkitzen da sarrien, baina, datibo helburuak prototipikoki giza argumentuak direnez, ez litzateke horren arraroa alternantzia hori halako datiboetara ere zabaltzea.

Goazen, bada, zentzu hertsiago batean defini litekeen alternantziarik ba ote dagoen aztertzeraz, hau da, argumentu bera datiboarekin zein beste kasuren batekin ager daitekeen aztertzeraz. Datiboarekin batera aukeran dagoen kasua perpaus mailako argumentuek izan ditzaketan horietara mugatuko dugu: 5.2.2 atalean adierazi dugun bezala, jabe datiboak genitiboen ordezkatat har daitezke, euren lotura semantikoa syntaxiraino eraman nahi dutenen ikuspuntutik behintzat. Halaber, igoera datibotzat jo ditugunak perpausa baino ‘beherago’ dagoen sintagma baten barruko osagaiekin lotu daitezke. Eremua horrela mugatuta ere, hasieran balizko alternantziatzat har daitezkeen zenbait kasu ere baztertu behar dira. Esate baterako, *Mikel/Mikeli obeditu* bezalako adibideetako absolutibo/datibo alternantziadun konfigurazioan 4.2, benetako gairik ez dagoen kasuetan, hau da, *Mikeli obeditu diot* bezalakoetan, zerbait ezkututzen ez denean. Halakoetan, konfigurazio datibogabea iragankorra da; datiboduna, aldiz, inergatiboa da, ez iragankorra. Atal honetan aztertu beharreko alterantzia, beraz, ezin daiteke absolutibo/datibo motakoa izan. Ikus dezagun orain aurkitu nahian gabiltzan balizko alternantzia horietako bat.

5.3.1. *Datibo alternantzia: alderdi orokorrak*

Iragankorren eremuan benetan bildu daitekeen alternantzia bat, konfigurazio iragangaitzetan ikusi dugun datibo/postposizio motakoa izan liteke. Eta horrelakoa da, noski, *dative alternation* edo datibo alternantzia deritzana, deiturak iradokitzen duenez, datiboen alternantzia ia prototipikotzat hartu izan dena. Hizkuntza askotan argumentu batzuk —helburuak sarrien—, postposizio sintagma modura ala osagarri zuzenaren antza duen izen sintagma modura ager daitezke. Adibide bi dakartzaguz hona, lehenengo txamorroetatik hartutakoa (Baker 1988: 248), eta bestea, beharbada ezagunagoa, ingelesetik:

(308) a. Hu tugi' i kätta pära i che'lu-hu
 1sS idatzi det eskut. P det anaiarreba-nire
 'Eskutitza anaiari idatzi nion'

b. Hu tugi'-i i che'lu-hu ni kätta
 'Eskutitza anaiari idatzi nion'

(309) a. I wrote a letter to my sister

b. I wrote my sister a letter

Bi hizkuntzetan, (a) konfigurazioan gai osagarria dugu aditzaren eskumatara, eta helburua preposizio sintagma batez adierazten da.²⁰⁶ (b) konfigurazioan, berriz, helburua da osagarri zuzenaren itxura eta lekua hartzen duena: preposizioz gabe eta aditzaren eskumatara. Ingelesez, gaia bigarren osagarria balitz bezala ageri da —osagarri bikoitzeko egiturak deitzen zaie halakoei, irakurleak gogoratuko duenez—. Txamorroeraz, bestalde, (b) konfigurazioan, gaia ez subjektua ez osagarria markatzen ez duen zehar kasu batez ageri da. Ingelesez ez bezala, txamorroeraren (b) egituran, aditzari morfema berezi bat gaineratu zaio, morfema *aplikatiboa* hain zuzen, eta (b) bezalako egiturei *aplikatiboak* deitzen zaie askotan —horretatik, besteak beste, Pylkkänenek bere proposamean darabiltzan goi-aplikatibo eta behe-aplikatibo deiturak—.

Printzipioz, euskaraz ez dugu horrelako alternantziarik aurkitzen: ‘datiboak’ itxura morfologiko bakar batez zehaztu dira beti. Honelako datuen aurrean, sintaxiaren ikuspuntutik eztabaidatu izan dena da ea euskaraz adibideen itzulpenetan ikusten den datiboa (a) ala (b) motakoa den. Bestela esanda, gure galdera da ea euskararen datiboak postposizio sintagmak (a) ala izen/determinatzaile (b) sintagmak diren. Oro har, euskalaritzaren barruan bigarren aukeraren alde jo izan da (Fernández 1997, Artiagoitia 2000, Elordieta 2001). Azterbide honek euskal datiboak (b) ereduko helburu argumentutik hurbil jarriko lituzke. Dena den, sintaktikoa den alderdi honetatik gure zeregin lexikaletara itzuliz, hizkuntza askotako datiboak ez dira *to IS* bezalako preposizio edota postposizio sintagmekin elkartzen: pre/postposizio sintagma (a) eta osagarriaren (b) arteko lotura ez da helburuetara bakarrik mugatzen. Honelako alternantziak dituzten hizkuntzetan, bestelako preposizio sintagmen bidez adierazten diren argumentuak ere ager daitezke ohiko osagarria dirudien osagai batekin alternantzian (Hirschbühler & Mchombo 2006):

- (310) a. Alendó a-a-khuthula nyémba mu msika
bisitariak S-prf-bota indabak lek azoka
‘Bisitariek azokan indabak bota dituzte’
- b. Alendó a-a-khuthul-il-á msika ndí nyemba
bisitariak S-prf-bota-APL azoka inst indabak
‘Bisitariek merkatua indabez bete [botatzean] zuten’
- (311) a. I bought a book for/from Mary
- b. I bought Mary a book

Hizkuntzaz hizkuntza, osagarriarekin alternantzian dauden sintagmak helburuez gain, lokatiboak, onuradunak, iturburuak etab. izan daitezke. Euskaraz, bestalde, datiboekin batera *to IS*en antzeko postposizio sintagmarik ez

²⁰⁶ Txamorroera hizkuntza polinesiarra da, Mariana irlتان hitz egiten dena. Gaztelaniatik mailegatutako hitz asko dauzka: hemen *kátta* eta, arraroagoa dena, *pára* preposizioa.

badago ere, baliteke datiboak bestelako postposizio sintagmekin alternantzia sartzia. Arregik (2003) eta Arregi & Ormazabalek (2003), adibidez, hala aldarrikatu izan dute. Ondoko adibideen antzeko kasuak dira aipatzen dituztenetako batzuk:

- (312) a. Mirenengana liburua bidali dut
- b. Mirengana liburua bidali dut

- (313) a. Mirentzat opari bat prestatu dugu
- b. Mireni opari bat prestatu diogu


- (314) a. Mirenen jertsea hartu dut
- b. Mireni jertsea hartu diot

- (315) Aitorren etxea nik garbituko dizut

gorago 5.2 ikusi ditugu honelako datu batzuk, batez ere azken datiboaren theta-rola *zure orde*, alegia, ordezkapena adierazten omen duena. Hala, azken adibide motak ez luke inongo alternantziaren aldeko ebidentziarik eskainiko; oso bestela, azken aurreko adibidean (314) ikusten den genitibo erlazioaren barruan kokatuko litzateke. Bueltatuko gara honetara beherago.

Arregik (2003) eta Arregi eta Ormazabalek (2003), datiboaren eta postposizioaren arteko lotura hori aldarrikatzeaz gain, sintaktikoki bata bestetik eratoritzea proposatzen dute. Bakerren (1988) *UTAH (Uniformity of Theta Assignment Hypothesis* edo *Theta Ezarketaren Berdintasunaren Hipotesia*) hatsarreaki jarraituz, haien ustez “biek erlazio tematiko berberak adierazten dituztenez, erlazio hauek errepresentazioaren mailan egitura berbera ere partekatu behar dute.” Ikuspegi sintaktiko honetan, ezberdinak diren konfigurazioek ‘egitura berbera’ partekatze modua datibo egitura postposizio egituratik eratorzea da. Ez da hau, noski, semantika eta sintaxia lotzeko modu bakarra, eta datiboari dagokionez guztiz bestelako loturak eskaintzen dituzte gaur egun beste hurbilketa batzuek —McFaddenek, Pylkkänenek, etabar—. Oraingo gure eginkizuna, hala ere, alternantziaren mugak eta baldintzak argitzea besterik ez da. Datibo batzuk postposizio sintagmen bidez ere azal daitezke, hala da. Dena den, ezin dugu espero alternantzia hau sistematikoa izatea, alternantziak, orokorrenak ere, gutxitan izaten baitira horrelakoak. Kasu honetan, ikusiko denez, helburu bizidunak izaten dira datibo modura zein postposizio modura errazen ager daitezkeenak. Bestelako postposizio sintagmak nekezago eta era asistematikoago batez txandakatu daitezke konfigurazio datibodunekin. Ondoko lerroetan erakutsiko dugunez, badirudi interes/jabetza loturaren barruan interpreta daitezkeen erlazioak bakarrik direla postposizio sintagma zein datibo sintagma gisa burutu daitezkeenak. Ez dugu, hortaz, datiboetarako rol berririk asmatu beharrik (onuraduna, iturburua, etab.) post-

posizio sintagmekiko erlazioa ulertzeko. Oso bestela, gure ustez, datiboen oinarriko rol batzuk, hala nola, jabetza edota interesa, oso hurbil daude postposizio batzuen bitartez adierazten ditugun roletatik. Bertara ekarriko ditugun postposizio sintagmen artean, datibo modura ere eman daitezkeenak azpisail bat dira, interes/jabetza erlazioan interpreta daitezkeenak hain zuzen:



Apur bat gehiago zehaztearren, ‘jabetza/interesa’ bezala uler daitezkeen iturburuak bakarrik ager daitezke *nori/norengandik* alternantzian. Hiztegiaren ikuspegitik, ‘jabetza/interesa’ rola da orduan noziorik garrantzitsuena, eremu txiki batean ‘iturburu’ nozioarekin gurutzatzen dena. Gurutzaketa eremu horrek alternantziaren mugak zehazten ditu.

Alternantzia hauen azterketa honela egituratuko dugu. Lehenengo eta behin, datiboa eta ablatibo/destinatiboaren arteko alternantziak arduratuko gara. Gero, datibo helburu bizidun jarungo dugu —datibo/adlatibo bizidun harremanaz—. Azkenik, rol hauek genitiboekin lotzen diren eztabaidatuko dugu.

5.3.2. *Datiboak iturburu*

Predikatuaren semantikaren arabera, iragaita edo transferentzia dagoeanean, gaiak helburu batera eraman zein iturburu batetik har daitezke. Azken honi bagagozkio, alternantzien ikuspuntutik galdetu behar dena da ea datibo sintagmarik aurki daitezkeen ablatiboaren orde. Datibo/ablatibo bizidun alternantziak bilatu zituen Arregik (2003), datiboa normalean biziduna denez, alternantzia osatuz gero, ablatibo bizidunarekin osatzea espero bailiteke. Hala ere, erakutsiko dugunez, ablatibo bizidunetara murrizteak ez digu datibo iturburuaren eremu osoa ikusten uzten, datibo batzuk ablatibo bizigabeekin ere lotzen dira-eta. Bestalde, alternantzia bat bilatzerakoan ezin dugu espero datiboa ablatibo guztiekin parekatu ahal izatea, hau da, datiboa onartzen duen predikatu guztietan ablatiboa ere horren orde aurkitu ahal izatea. Alternantziarik emankorrenetan ere murriztapen lexiko-semantiko eta pragmatikoak daude. Esate baterako, ingelesez *show* aditzak datibo alternantziaren parte hartzen du, semantikoki erabilera epistemikoan bere oso antzekoa den *demonstrate* aditzak ez bezala:

- (316) a. show something to her/show her something
 b. demonstrate something to her/*demonstrate her something

Beraz, *nor baitengandik espero, sortu* baten ondoan *nor baiti espero, sortu* ez existitzea, esate baterako, ez da harritzekoa alternantzia batean. Hau guztia kontuan harturik, Arregik iturburuen kasuan benetako alternantziarik ez dagoela defendatzen du. Ondoko adibideak ematen ditu:

- (317) a. Errezeta hori nire amarengandik ikasi nuen (*amari ikasi nion)
 b. Amaren jertsea hartu dizut (*zuregandik hartu dut)
 c. Bi opari erosi dizkizut nire alabarentzat (*zuregandik erosi ditut)

Lehenengoan (a), datiboa onartezina izango litzateke; beste bietan (b,c) ez dago datiboa ordezkia lezakeen ablatiborik. Printzipioz, aipatutako murriztapen lexikoak kontuan harturik, predikatu gehiago arakatu beharko genituzke benetan alternantziatzat har genezakeen erlaziorik badagoen ziurtatzeko. Zorionez, euskalkien arabera irudia oraindik ere zehaztu behar bada ere, EPG corpusak hipotesiak oinarri sendoago batez eraikitzeke datu asko eta asko eskaintzen dizkigu, eta balizko alternantziak aurkitzeko altxor bikaina da. Ondoren ikusiko dugunez, datiboarekin, itxura batean, txandakatzen diren ablatiboak bizidunak dira sarri askotan, baina bizigabeak besteetan. Inoiz ablatiboak izateak ez du berez adierazten datiboarekin alternantzia dagoenik. Izan ere, berebiziko garrantzia duen faktorea jabetza/interesa erlazioa izatea da.

Hasteko, Arregik berak erabilitako predikatuak —*ikasi, hartu, erosi*— behin EPG bezalako corpus batean aztertu ondoren, bai datiboen bai ablatibo bizidunen testigantza ugari bildu daitezke. Testigantzeekin hasi baino lehen, liburu honetan zehar egin dugun bezala, zera azpimarratu nahiko genuke berriro ere: gaur egungo euskarari dagokionez, gure lana corpus batean oinarritzerakoan, ikuspegi ez dela hiztun bakar batena, EPGen islatuta dagoen hiztun taldearena baino. Eremu geografikoa alde batera utzirik, gaurko hiztun eskolatu batek eskuragarri dituen aukeren berri ematen digu, nahiz eta predikatu berarekin txandakatzen diren konfigurazioak idazle berarengan edota lan berean, aurkitu ez. Gure interpretazioaren arabera, konfigurazio baten testigantza kopuru esanguratsu bat topatzen badugu, euskara batuaren gramatikaren ‘barruan’ dagoela pentsatu behar da eta hala aztertu. Ikuspuntu honetatik, beraz, *nori (=nor baitengandik) ikasi* adibideak egon badaudela esan behar dugu, beste ezer baino lehen:

- (318) a. Amari ikasia diot nik, berak zaharragoren bati ikasitako kontsigna etsi eta hala ere umoretsu hauxe (*Itsasoan euri*, Joserra Garzia, 134)
 b. Sakabik ere Azpeitiko ez dakit zein musikori ikasten zizkion, garai hartan ez zegoen piezarik, ez zegoen grabaziorik eta musikoengana jo behar ikasteko (*Gelatxo, soinuaren bidaia luzea*, P. Aristi, 61)
 c. Koplak eta kanta zaharrak aitari-eta ikasten eutsazan (*Rufino Arrola, Vulkanoren atzamarrak*, X. Amuriza, 26)
 c. Bertsotan ikasiko nion, Imanol Lazkanori edo (*Hogeita bina*, A. Egaña, 110)

Testigantza klasikoren bat ere aurkitu dugu OEHN (IX: 219):

- (319) Ikasiko didazu azkar zure gizonari zor diozun legea gordetzen (Netx Antz 122)

Bestalde, ez du ematen ablatibo biziduna Arregik aipatzen dituen beste aditzekin ezinezkoa denik, euskalkien gora-beherak albo batera utzita. Ondokoak aurkitu ditugu beste askoren artean:

- (320) a. gure gurasoengandik hartutako altxorrari eusten saiatu baikara (*Euskararen etxea*, P. Salaburu 199)
- b. Jaunari eman nahi dion baino gehiago lagun hurkoagandik hartu nahi duenak (*Asisko Frantzizko, Asisko Klara*, Askoren artean, 126)

Egia da *norbaitengandik* bezalako ablatiboak beharbada maila jasoagoan aurkitzen direla, eta, gainera, iragaitea edo transferentzia dagoenean, sarri askotan objektu fisikoena ez den transferentzia metaforikoa adierazten dela. Beharbada, *erosi* predikatuarekin benetan horrelako ablatiborik aurkitzen ez bada, adiera metaforiko honen egokitasun pragmatikoaren ezagatik izan liteke, ez beste ezerengatik.

Bestalde, theta-rolarekiko lotura argi dagoela ematen du. Ablatiboa iragaitekerik adierazten ez duten predikatuetan erabiltzen denean, ez dugu ordezkotzat datiborik aurkitzen. Hau argiro ikusten da ablatiboa predikatu baten osagarriari ezarritako kasua denean. Honelako ablatibo biziduna sarri hartzten duen predikatuetarik bat *espero* da —*zerbait norbaitengandik espero*—. Ezin izan dugu iturburu ablatiboaren ordezkotzat datiborik aurkitu predikatu honekin. Eta alderdi honetan, bere antzekoak dira *babestu*, *banandu*, *dibortziatu*, *gorde*, *libratu* edota *zaindu*, aditzak —*norengandik zaindu*, *babestu*, *gorde zituen?*—. Dela osagarriak izateagatik, dela ablatibo hauen rolak iturburu theta-rolarekin loturarik ez izateagatik, gure corpusean ez dugu ablatibo hauei dagokien datiborik aurkitu.

Alternantzia, beraz, iturburu batetik abiatzen den iragaitea adierazten duten predikatuen artean aurki daiteke errazen. Honelako predikatu bat *jaso* aditza dugu,²⁰⁷ ondoko adibideetan ikus daitekeen bezala:

- (321) a. hona Isidro Sagastibeltza Dendarinekoari Leitzan jaso nion josteta baten errepika (*Harrizko pareta erdiurratuak*, P. Perurena, 160)
- b. ezkontzak jarri omen zuen galbidean trikitilaria, horixe jaso zion Joxean Agirrek Sakabiri (*Elgeta, sasiaren sustraiak*, K. Izagirre, 28)

²⁰⁷ *Hartu* adiera duen aditzaz ari gara, ez *goratu* adiera. Honen datiboak bestelakoak dira: *eskua jaso zidan* (helburua, jabetza), *beloa jaso zion* (jabetza).

- c. artxiboen arduradunak eskaria jaso zidan (*Hemingway eta euskaldunak zerbitzu sekretuetan*, E. Jimenez, 28)
- d. Bere amarengandik jaso zuen, hark, bestalde, Fernández de Leundataren etxean ikasitakoa (*Gorde nazazu lurpean*, R. Saizarbitoria, 367)

Azken adibideak (d), ablatibo biziduna ere eskura dagoela berresten du; hasierako hirurek, berriz, aztergai ditugun datibo iturburuak adierazten dituzte.

Hasiera batean, datuen interpretazio estu batean, (c) adibidea, orain esku artean darabilgun balizko alternantziaren adibide bat ez dela pentsa liteke: adibideko datiboa jabetza edo interesa duen argumentu bati dagokiola esan genezake —*nire* eskaria—. Dena den, interes/jabetza osagaia ez da, gure ustez, adibide honen berezitasuna, datibo iturburu gehienek atzean dagoen ezaugarria baino. Aurreko irudian adierazi dugun bezala, datiboarekin txandakatzen diren ablatiboak interes/jabetza kutsua dutenak dira, hain zuzen. Iturburu rola, zentzu honetan, interes/jabetza makro-rolaren barruan sar daiteke sarri askotan. Era orokor batez adieraztearren, interes datiboak argumentu batek ekintza edo gertaera batekin nolabaiteko ‘lotura’ edo interesa daukela adierazten du. Lotura hori, askotan, beste argumentuaren ‘jabea’ izatetik dator (autoa hondatuko didazu), baina jabetza/interesa horren azpikasua bat besterik ez da, hala nola, jabetza ezinbestetuzkoa deitu duguna, parte/osotasuna erlazioa adierazten duena (*estalkia apurtu diot*). ‘Interes’ erlazio hau eta genitiboek laguntzen dituzten izenekin daukatena oso antzekoak dira: *autobusa kendu didate* esatean *autobusak* ez du zertan izan behar nik erositakoa, baizik eta *nire autobusa* sintagmak besarkatzen dituen denetarikoa aukeretatik bat: nik goizero hartzen dudana, gustatzen zaidana, diseinatu nuena, grafiti batean nire izena daramana eta abar luze bat. Iturburu erlazioak ‘interes’ erlazio honen beste azpikasua bat izan litezke: transferentzia egoeran iturburu batetik datorrena iturburu horren parte bat da sarri askotan. Beraz, lehengo (a) eta (b) adibideetan, norbaitengandik ‘jasotzen’ dena iturburu horren ‘jabetza’, horren parte da, oso ‘bera’ den zerbait, ezagupena bera ere izan daitekeena. *Jasorekin bezalaxe, ikasi eta hartu* predikatuetan norbaiten informazioa, ezaugarria, trebetasuna, jakintza eta antzekoak iragaten dira aurkitu ditugun adibideetan —jo lehengo adibideetara—. Beraz, zenbat eta norberarentzat berezkoago den zerbait *ikasi, hartu, jaso*, hainbat eta errazagoa da datiboa erabiltzea. Norbaitengandik beste lagun baten telefono zenbakia ikasten badugu, nekez esango dugu *telefono zenbakia ikasi nion*; aldiz, *arraunean egitea berari ikasi nion* onargarriagoa da. Orobat, interpretazio pragmatiko hori desagertzen denean, interes kutsu zabalagoetara pasatzen gara: *Mitxelenari latina ikasi nion* beharbada onargarria izango litzateke, berak irakatsiz gero, baina nire latin irakaslea ez bazen, iturburu izatetik interes erlazio oinarrizkoago batera pasatzen gara —berak nik latina ikastea nahi zuelako, esate baterako—. Lexikoki, iragaite predikatu hauetan

iturburua jakintza edo informazioa daukan pertsona izaten da. Zailagoa da osagai bizigabeekin datibo iturburuak eraikitzea, beharbada informazioaren gordailuarekin inongo ‘interes’ erlaziorik oinarritu ezin delako:

- (322) a. ??Informazioa irratitari jaso nion
b. ??Informazio hori esperimentuari jaso nion

Baina interesa duen argumentu bizidunetik erlazio hau ez da ezinbestekoa datibo iturburuaren eremuan. Predikatu batzuetan, esate baterako, parte/osotasun erlazioa da datiboaren bidez adierazten dena, eta erlazio horrek bizidun/bizigabe banaketarekin zerikusi handirik ez duenez, datiboa ablatibo bizidun zein bizigabeekin txandaka daiteke, honi dagokionez. *Atera* eta *kendu* honelako predikatuak dira, eta normalean datiboak parte ateratzen edo kentzen zaion osotasuna adierazten du; iturburua osotasuna da, beraz. Gorago esan dugunez, itxuraz, objektu fisikoen iragaitetako iturburuak nekezago adierazten dira datiboen bidez. Hala, jabetza/interesa saihesten duen testuinguru bat eraikiz gero, apur bat zalantzazkoa gertatzen da datiboa:²⁰⁸

- (323) Postariari zure eskutitza jaso diot

Atera predikatuan, esate baterako datibo eta ablatibo bizidunekin erabil daiteke. Ondoko adibidean biak agertzen dira:

- (324) berarengandik etekina nola atera ari da ikasten, eta gehiago atera liezaioke oraindik (*Lotsaizuna*, J.M. Coetzee / O. Arana, 39)

Onuraduna izateaz gain, *atera diot* forman datiboak iturburua ere adieraz lezake. Baina ‘barruan’ dagoena norberaren partetzat har daiteke, hau da, jabetza ezinbestetuzkoaren azpikasutzat, eta ikuspegi honetatik, jabe datiboa izan liteke ‘iturburua’ adierazten duen hau. Beharbada, analisi egokiena hau izan liteke. Datibo iturburuak normalean bizidunak dira, eta *atera* predikatuarekin ez dago arazorik datiboa argumentu bizigabe batekin lotzeko. Antza, dagoen baldintzarik garrantzitsuena ez da biziduna edo bizigabea izatea, baizik eta ateratzen denaren eta ateratzen den lekuaren arteko erlazioa parte/osotasun erlazioaren antzekoa izatea:

- (325) a. *hozkailuari esnea, *autoari maletak, *kutzari liburuak atera
b. esnari gantza, erlojuari orratza, autoari fokoak, kutxari estalkia atera

²⁰⁸ Dagokigun interpretazioaz ari gara, noski. Bestalde, zalantzazkoa da *eskutitza jaso dizut* ere bigarren pertsona, nolabait deitzearren, *urrunko iturburua* denean, hau da, zu eskutitza bidali zenidana zarenean, ez eskutitza dakarrena. *Eskutitza jaso dizut* perpauseko datiboa onuraduna da, eta apur bat nekezago interpreta liteke hurbileko iturburua dela, alegia, beste norbaiten eskutitzaren emaile hutsa.

Datibo bizidunekin agertzen diren adibideetan ere, berezko edukia edo parte den zerbait ateratzen den neurrian, analisi orokorrean datibo hauetan daukaguna ez da iturburu biziduna, berezkoa den parte edo ‘jabetza’ baino. Edo bestela esanda, datibo hau ez da ablatibo kasuaren kideko; aldiz, predikatu bati goi-aplikatiboa gaineratzerakoan, aurkitzen dugun eduki tematikoa da hemen duguna.²⁰⁹ Interesgarria da ildo honetatik aztertzea *aterak* baino zentzu murriztuagoa duen *erauzi* predikatua. Adiera batean iturburu dugu, baina corpusaren adibide guztietan jabetza ezinbesterenduzkoa da iturburu eta gaiaren arteko lotura:

- (326) a. Kaboak mapa pasatu baino lehen, eskuetatik erauzi zion sarjentuak (*Erretzaileen Eremua*, J. Alonso, 133)
- b. Beso bat erauzi zion eta bestea mastrikatu (*Zakurra, zeure laguna*, G. Garate, 76)
- c. Urki baten enbortzar zuriak —adabururik gabe, ekaitzek edo erauntsiek erauzi baitzioten— (*Arima bilak*, N. Gogol / J. Morales, 169)
- d. maite izan ditugunen parterik hoberenak gure alboan dirauela, menturaz heriotzak ondotik erauzten badizkigu ere (*Errautsera arteko sugarra*, I. Zurutuza, 41)

Beharbada, ez dugu ablatibo bizidunik aurkitu datutegian, jabetza ezinbesterenduzkoaren zentzu murriztuago honetan erabiltzeagatik. Arregiren argumentuaren ildotik, predikatu jakin baterako, postposizio sintagmarik izan ezean, ezin dugu alternantzia dagoela adierazi. Baina ikuspegi orokorrago batez, ‘iturburu’ eduki tematikoa postposizio sintagma batekin lotu ezin bada —Arregi eta Ormazabalaren analisisian, ‘eratorri’—, orduan eduki tematiko hori datiboari berari egotzi beharko diogu. Eta iturburu izatea datiboari zor bazaio, theta-rol hau aurki daitekeen beste predikatuetan ere hortik etor liteke, postposizio sintagma batez azaldu zein ez.

Aurreko adibideetan zehar askotariko rolak onartzen dituzten predikatuak topatu ditugu. Ezagunenatariko bat *erosi* da, datiboak iturburu/jabetza eta onuradun rolak batera izan baititzake. Jabetza eta helburua onartzen ditu *aterak*; konparatu, adibidez, *norbaiti mingaina atera* eta *norbaiti hagina atera*. Ez du ematen iturburu eta helburua batera aurkitzea erraza denik. Egon badaude bai adlatiboa bai ablatiboa har ditzaketen predikatuak, iragankorrek zein iragangaitzak: *eraman*, *ekarri*, *joan*, *etorri*. Hasierako predikatu iragankorretara hurbiltzen bagara, datiboak ezin du iturburu adierazi: *eraman/ekarri diot* diogunean helburu, jabetza, onuradun rolak suma ditzakegu, baina ez iturburu. Baliteke berezko norabidea zehazten duten predikatu

²⁰⁹ Hala balitz, ekialdeko euskalkietan komuntadura zaintzen duten predikatuen artean aurkitu beharko genuke *atera* predikatua. Ez dugu hemen alderdi hau aztertuko.

hautan datiboaren lehen interpretazioa funtsezko norabidea izatea. Postposizioen bidez mugimenduaren hasierako erreferentzia puntua alda liteke —*berarengandik eraman, ekarri*—, baina mugimenduaren helburua zaindu egiten da —hiztunarengana, *ekarri* predikatuarekin eta hiztunarengandik kanpo, *eraman* predikatuarekin—.

Iturburu argumentua hartzen duen beste predikatua *kendu* da, eta horrekin ere datiboaren eta postposizioaren arteko loturak badu zerikusia jabetza edota parte/osotasun harremanarekin: gai bati kentzen zaiona berarekin bat eginda dagoen zerbait izaten da, eta unitate bat osatzen dute normalean. Hala, gorago aipatu dugun *atera* aditzaren antzekoa da:

- (327) a. *hozkailuari esnea, *autoari maletak, *kutzari liburuak kendu
b. esnari gantza, erlojuari orratza, autoari fokoak, kutxari estalkia kendu

Lekuzko harremanetako berezko kokalekuak horren barruan sartuko lirateke *kendu* *iezadazu hortik/aurretik* bezalako adibideetan. Lotura hau ez dagoenean, ablatiboa erabiltzen dela dirudi:

- (328) Ez zituen bere begi galdekariak nigandik kendu (*Ispiluen gainean lotan*, J. Sierra i Fabra / J. Muñoz, 82)

Begia(k) kendu esakerak ere horrela jokatzen du: esakeraren adiera begirada leku batetik bestera iragaitea bada, ablatiboa da nagusitzen dena, nahiz eta duen interes kutsuagatik —kalteduna izaten da batzuetan—, datiboa ere posible izan. Datiboa, hala ere, bizidunetan aurkitzen da:²¹⁰

- (329) a. Marinari begia kendu ezinik nik, kantuan jende gehienak (*Europako mugetan barrena*, E. Jimenez, 183)
b. Calladok ezin zituen armatik begiak kendu (*Egurra Pinotxori*, A. Gorrotxategi, 155)
c. Baina nik ez nituen begiak kendu bizikletaren farolak errepidean egiten zuen horiunetik (*Soinujolearen semea*, B. Atxaga, 172)

Zentzu fisikoago batean, baten bat itsutzea bada, jabetza harreman hori datiboaren bidez adierazten da beti:

- (330) —Erradikalak —esaten zuen beti, ezkerreko begia kendu ziotenengatik (*Kilkerren hotsak*, E. Jimenez, 92)

²¹⁰ Hala ere, singularrean dagoenean bizigaberik ere badago:

(i) *Gabin horma liburuztatu haiei begia kendu ezinik zegoen, liluratuta* (*Kuskue tanden*, I. Inurrieta, 39).

Beherago itzuliko gara berezko leku erlazio honetara. Iturburu aditzekin amaitzeko, *apartatu* aipa genezake. Ez da aditz berria.²¹¹ Ablatibo adibideak —bizidun eta bizigabeak— dakartza Sarasolak (2007), baina EPGen forma datibodunak ere aurki daitezke —oso gutxi, dena den, Corsyntaxen arabera, 108 ale iragankorretatik, 4 besterik ez dira datibodunak—. Datibodunetatik, iturburu ez direnak ere aurki daitezke: onuraduna (a), *hautatu* adierarekin,²¹² edota jabetza ezinbesterenduzkoa, (b) gorputz atal bati dagokiona, esaterako:

- (331) a. Eta ondorio horietatik, honako hauxe apartatuko nizueke (*Naturaren mintzoa*, P. Zabala, 407)
- b. neskak eskua apartatu zion (*Lagun izoztua*, J. Sarrionaindia, 372)

Printzipioz, azken adibidean (b), eskua neskarena zein datiboaren erreferentearena izan daiteke —eta, pragmatikoki arraroagoa izan arren, beste norbaitena—. Baina jabetza ezinbesterenduzkoari dagokion bakarra —eskua norenarena den— datiboaren erreferentearena dela dirudi. Eskua neskarena zein beste inorena balitz, orain mintzagai dugun iturburu, edo, behintzat, abiaburu rola izango genuke.²¹³ Adibide gutxi badira ere, badirudi hemen ere bizidunetan agertzen dela datiboa, (a) adibidean metaforikoki *amaren agur musua* borondatedun izaki biziduna dela ulertzen badugu:

²¹¹ *Apartatu*. “Tr. Se encuentra, desde Dechepare, en casi todos los autores de los siglos XVI, XVII y XVIII; a partir de mediados del s. XIX su uso se va limitando a bersolaris y diálogos.” OEH (II: 250).

²¹² Adiera honi dagokionez, ikus OEH (II: 252).

²¹³ Oso antzekoak diren ondorengo adibideetan subjektuarenak dira *eskua*, *begiak* eta *begirada*, eta datiborik ez agertzeak mugimenduaren hasierako gunearen markapenik eza adierazten du argiro:

- (i) Inazitok ez zuen eskua apartatu (*Lagun izoztua*, J. Sarrionaindia, 292)
- (ii) Komandanteak irribarre egin du eta begiak apartatu ditut (*Lagun izoztua*, J. Sarrionaindia, 299)
- (iii) baina ez nituen begiak itxi, ez nuen begirada apartatu (*Ihes betea*, A. Lertxundi, 89)

Mugimenduaren hasierako gune hori markatzen denean, ablatiboa da erabilitako kasua, ez datiboa:

- (iv) eskua beregandik apartatuz (*Asisko Frantzizko*, *Asisko Klara* / Askoren artean, 242)

Ondokoan, abiaburu biziduna izan arren, oraindik ere begiak subjektuarenak direnez, ez da datiboa erabiltzen:

- (v) esanez ez zituela sekula bere miserikordiaren begiak erregearengandik edo bere jendearengandik apartatuko (*Lisboako setioaren historia*, J. Saramago / J. Alonso, 179)

Bestelako faktoreak ere egon daitezke. Atxagaren ondoko adibidean ezin genezake datiboa erabili —hemen erabili nahi izango genukeen ere ez dago argi—, pertsonen araberako murriztapen ezagunak direla eta:

- (vi) Amore eman nuen, eta Cesarrek eta Josebak Martinengandik apartatu ninduten (*Soinujolearen semea*, B. Atxaga, 141)

- (332) a. masaila apartatu zion amaren agur musuari (*Lagun izoztua*, J. Sarrionaindia, 124)
- b. hankak elkarrengandik apartatu eta orekari ondo eusteko modua bilatu nuen (*Ibes betea*, A. Lertxundi, 20)
- c. Gorputz bat apartatzen hasten da besteagandik (*Lagun izoztua*, J. Sarrionaindia, 418)
- d. hamar milako sorta gizenetik bost bilete apartatu zituen Laranja Mekanikoari luzatuz (*Pasaia Blues*, H. Cano, 155)

Jabetza eta biziduntasuna aipatu ditugu ablatibo eta datiboaren banaketaren gakoak zehazterakoan, alegia, datiboari zuzenean lotzen zaizkion gakoak biak. Baina *apartatu* aditzak inkoatibo/arazle alternantzian ere parte hartzen du, eta komeni da gogoan izatea konfigurazio inkoatiboan, datibo/ablatibo alternantziaren ardatza dirudiela interesak. Ikus, esate baterako OEHTik (250-51) jasotako ondoko adibideak:²¹⁴

- (333) a. Horrela, zugandik, nire on guzia, sekulan aparta ez nadin (Cb *Eg* II 142)
- b. Aparta zitezte ene ganik madarikatiak (CatLan 50)
- c. Aparta akit, enganatzaille gaixtoa, eztuk izanen ene baitan parterik (SP *Imit* III 6, 4)
- d. Apartatzen bazaigu / jaunaren fraziya, / izugarriya izain da / gure sententziya (Ud 110)²¹⁵

Itxuraz, ablatiboa neutralagoa dela pentsa daiteke eta, horregatik, ziur aski, maila jasoagokoa. Datiboak, berriz, aukera markatuagoa dirudi, estilistikoki zamatuagoa da eta lagun artekoagoa —(b) adibidea bertsolari baten jardunetik jasoa da—. Hau benetan hala bada eta ez ispilatze hutsa, horrek azal lezake, adibidez, konfigurazio datibodunaren erabilera mugatua bai klasikoe-tan bai gaur egungo testuetan²¹⁶ ere. Ikusi beharko litzateke ahozko erabilera zein ote den.²¹⁷

²¹⁴ Harrigarriro, OEHN ez daude adibide iragankor gutxi batzuk baino, konfigurazio iragan-gaitzeko adibide asko eta askoren artean. Gehien-gehienak ablatibodunak dira.

²¹⁵ *Eta aparta zakizko San Martingo aldeari* (INav 51).

²¹⁶ EPGen adibide bat bakarra dago erabilera datiboduna duena: *Nola urtetan elkarrekin dantza egin izan ondoren, behin apartatu egin zitzaidan, eta betiko: biok beti elkarrekin dantza egitea traba handia zela senargaia aurkitzeko* (Kontu-jaten, A. Iturbe 185).

²¹⁷ Benetan helburua ote dugun ala interes datiboa erabakitzeko, hitz hurrenkerari begira genezaioke, gaia irristakorra izan arren. Dena den, baldin eta hitz hurrenkera ez-markatua datibo-absolutiboa balitz —eta ez alderantziz—, orduan beharbada pentsa genezake interes datiboa dugula eta ez helburu soila —*Mikeli emaztea apartatu zaiio* vs. *Emaztea Mikeli apartatu zaiio*—. Datibo-absolutibo hurrenkera da, esperimentatzaile, etiko eta oro har, goi-datiboan ezaugarria. Hartara, *Eta aparta zakizko San Martingo aldeari* (INav 51) adibidean, zalantzak ditugu interes datiboa ote dugun.

Balizko iturburu kasuen azterketa honekin amaitzeko, *ihes egin* edota *alde egin* bezalako predikatuak aipatuko ditugu azkenik. Igoera datiboak dira hauek, datiboa *egin* predikatu arinarekin elkartzen den izenarekin baitaude lotuta. Edukiaren aldetik, ez dugu inongo iragaiterik sumatzen haien edukian; bai, ordea, iturburuaren antzekoa den abiaburua. Mugimenduaren abiaburu hori pertsona denean, ablatibo biziduna erabil daiteke, maila jasoa bada ere:

- (334) a. harengandik alde egiteko agindu zion deabruari (*Asisko Frantzizko, Asisko Klara, Askoren artean*, 1095)
- b. Niregandik alde egin dute (*Elizen arteko Biblia, Askoren Artean, Os 7,14*)
- c. Ziur egon ez dutela nigandik ihes egiteko asmorik (*Berria, 2006-02-07*)
- d. Santuak hura ikusi bezain agudo, harengandik ihes egin eta bere gelan sartu zen arrapaladan (*Asisko Frantzizko, Asisko Klara, Askoren artean*, 3000)

Eta, jakina, datiboa ere erabil daiteke. Alabaina, ez da hain erraza ikusten datiboa benetan iturburu/abiapuntu izateari lepora dakiokkeen eta ez datiboekin loturik dagoen jabetza/interes kutsuari. *Ihes* eta *aldek* abiapuntua zehazten dutenez, erlaziozko edukia ere badute. Hortaz, jabetza edo interes kutsurik ez duten kasuetan ere izenarekiko loturak baldintzatuko luke datiboaren agerpena, *ondoan nabilkio* diogunean bezala. Horrela azter litezke ondoko adibide datibodunak:

- (335) a. Haizeak zakar jotzen duenean ez, orduan ni makurtu orduko hostoek ihes egiten didate (*Agirre zabarraren kartzelaldi berriak, K. Izagirre, 158*)
- b. San Frantziskok hitz hauek esan bezain laster, bat batean alde egin zion tentazioak (*Asisko Frantzizko, Asisko Klara, Askoren artean, 1000*)
- c. Karlek alde egin zion, haserre (*Europako mugetan barrena, E. Jimenez, 109*)
- d. hala alde egin zion Norari ere leiho batetik sartutako ilusioak beste leiho batetik (*Azkenaz beste, A. Lertxundi, 121*)
- e. Baso batek eskuetatik alde egin zion Alazneri (*Ortzadarra sutan, F. Morillo, 123*)
- f. Beste eginkizun batzuetara alde egin zigun diktadoreak (*Sua nabi, Mr. Churchill?, K. Izagirre, 266*)

Datiboa biziduna da gehienetan, eta ablatibo bizidun bati dagokio. Oso adibide gutxitan dagokio argumentu bizigabe bati —*espexetik ihes egin du/*espe-*

txeari ihes egin dio—, eta halakoetan, bizidun bailitzan jokatzen du bizigabeak, nortzean, kaltetun gisa agertuz (ikusi, baina OEH IX: 166):

- (336) a. 50 urteko gerrillari ohiak une oro segitzen zioten polizien kontrolari ihes egin zion (*Berria*, 2004-08-25)
- b. Jakin dut, ahizpa laztana, nola ihes egin diozun, Jainkoaren grazia-
ren bidez, munduko lohiari (*Asisko Frantzizko, Asisko Klara*, Askoren artean, 1205)
- c. Errusiak berriz Urriko Iraultzaren bidez ihes egin zion prozesu horri (*Ekonomiaren globalizazioa*, J. Adda / K. Navarro, 56)
- d. Omar Lakdak eta bere gizonak ihes egin diote Frantziako Armadari bertze behin (*Elektrika*, X. Montoia, 93)

- (337) a. Bekhatü txipier ere ihes eginen düdala (Usk LiB 68) bizigabe
- b. Azienda guziak ihes egin dio (Hb *Esk* 116) etikoa
- c. Begiak iges egin nai zioten Patxiri aiek ikusi zituanian (Apaol 40) jabe dat
- d. Nik soldaduzkari iges egingo nioke (Alz *Ram* 51) bizigabe
- e. Aitzakia bila gabiltza Venezuelan, geure eginbeharrari ihes egiteko (MIH 363) bizigabe
- f. Alperra beti atxaki billa / nundik lanai iges eingo (BEnb *NereA* 52)

Ikusi bezala, badirudi iturburu rola duten partaide asko datibo/postposizio sintagma alternantzia batean sartzen direla. Alternantzia horren analisisiaz ez gara hemen arduratuko: analisi sintaktikoetan litekeena da datiboa postposizio sintagmadun egituretatik eratorzea, eratorpen hori aipatutako baldintza pragmatiko/semantikoek mugatuko luketena. Beste ikuspegi batez, ez dago argi benetan datiboak ablatibo bizidunekin txandakatzen diren rol berarekin, ala besterik gabe datiboaren rola —demagun, goi aplikatiboa— eta ablatibo batzuen ez ote dauden bata bestetik oso hurbil. Edozein modutan ere, badirudi iturburu kasua eta helburuena ezberdina dela. Hiztegitik ateratzen bagara ere, orrialdeotan erakutsi nahi izan dugunez, behe-datiboen kutsua gabe, iturburuek goi-datiboen kutsua dute.

6

Beste kategoria batzuen datibo osagarriak

Predikatuen inguruko deskribapen eta azalpena izan da orain arte garatu duguna, hori da-eta printzipioz datibo sintagmen izaera zehazteko lehen urratsa. Datiboa osorik ulertzearren, baina, badira aztertu beharreko bestelako alderdiak. Liburuan zehar han-hemenka igoera datiboez aritu gara, hau da, perpausaren predikatu nagusiaren argumentuak izan gabe, sintaktikoki halakoak balira bezala jokatzeko duten horietaz, komunztadura harremanetan sartzen direlako, esate baterako. Oso esparru zabala dugu hau, eta neurri handi batean, jorratu gabea. Hemen, berriz ere, hasierako hurbilketa besterik ez dugu egingo.

6.1. Adjektiboak

Orain arte nagusiki arakatu dugun kategoria aditza izan da, tarteka aditz ez diren predikaturen bat edo beste aipatu ditugun arren. Hemendik aurrerakoan, aditz ez diren kategoria horiez arduratuko gara, eta adjektibo edota adberbioekin hasiko dugu ibilbidea.

Adjektiboen artean badira batzuk bereziki datiboaz lagundurik agertzen direnak. Esate baterako, *atsegin* adjektiboa *atsegin izan*²¹⁸ predikatuan jaso daiteke konfigurazio inakusatibo datibodunean. Halakoetan, datiboaren theta-rola esperimentatzailea da. Rol hau nekez etor liteke *izan* bezalako predikatu betegarri batetik, semantikoki hutsa da-eta; hortaz, *atsegin* bezalako adjektibo psikologiko batetik etorri behar zaio theta-rola datiboari, ez *izane*-tik. Konfigurazio hau, beraz, aditz psikologikoekin —3. kapitulua— aurkitu dugunaren modukoa da:

²¹⁸ *Atsegin* “(Con aux. intrans. bipersonal). Ser grato, gustar, agradar. *Tr.* Documentado en autores meridionales y en J. Etchepare.” (OEH III: 226)

- (338) a. Niri eztabaidak atsegin yataz (Altuna 81)
b. Orixez geroztik doinu berri batean ikasi du mintzatzen euskal prosak, atsegin bazaigu eta ez bazaigu (MIH 261)

Atsegin, OEhk dakartzan sorta bereko adibideetan, adjektiboa dela erakusteko badira aipa daitezkeen bestelako erakusgarriak. Ondoko lehen etsenpluan, adibidez, *-ago* konparaziozkoaz jasotzen da, *agitz* adberbio gradua-tzaileaz lagundurik, eta bigarrenean *arras* adberbioak laguntzen du:

- (339) a. Agitz atseginago zaio denbora berean guk gere aragi lotsagabea nekaerazi edo mortifikatzea (Arr *May* 123)
b. Arras atsegin zitaion erdaldunen ezpainetan esaten zituen mordoi-lokeriek sorterazten zuten irrifarrea ikustea (MIH 367)

Atsegin, baina, kategoriari dagokionez, adjektiboa ez ezik, izena ere izan daiteke. Hala, konfigurazio iragankorrean ere ager daiteke *atsegin izan*:²¹⁹

- (340) a. Eta alde zere damu dut eta alde atsegin (Ax 11 (V 5))
b. Hala zere, eta hala izanen zere, eta hainitz dut atsegin (Dv *LEd* 120)

Konfigurazio iragankor horretaz azpimarratzekoa da osagarria adibide askotan postposizio batez (b-d) adierazten dela eta ez, nahitaez, absolutibo hutsaz²²⁰ (a):

- (341) a. Atsegin dut zure adiskide izaitea (ES 235)
b. Atsegin det zuek ni ikustera etortzeaz (Arr *GB* 135)
c. Atsegin dudala bekhattuz? Kontent naizela Deabruaren esklabotazunaz? (Brtc 171)
d. Oh! Zonbat atsegin dudan hoinbertze jakitateren eta modestiaren elgarrekin khausitzeaz (Laph 168)

(a) adibidean, badirudi *atseginek* osagarri izaera guztiz galdu duela predikatuaren barruan. Hala, *zure adiskide izaitea* da adibide honetan osagarria. Bide beretik, azter litezke gainerakoak (b-d) ere, *atsegin izan* konfigurazio nolabait inergatiboa balitz bezala postposizio batez lagundurik —inergatiboa diogu, ez baitago (a) adibidean aurkitu dugun absolutibo osagarriaren modukorik kasu honetan—. Lehenago ere izan ditugu aipagai postposiziodun konfigurazio inergatiboak —aspektu/ekintza aditez 4.1.1 ari ginela adibidez—. Dena den, adibide hauetarako (b-d) badago beste azterbide naturalago bat: konfigurazio ira-

²¹⁹ *Atsegin izan* (G ap. A; SP, Ht VocGr, Lar, Añ, H). “(Con aux. trans.). Complacerse, alegrarse; gustar, agradar, querer, desear.” (OEH III: 226).

²²⁰ Gaur egungo testuetan, absolutiboa da, itxuraz, nagusi.

gankortzat har daiteke, *atsegin* osagarria delarik —osagarri nolabait biluzia—, eta konfigurazio iragankor horri postposizioa gaineratzen zaiola pentsa daiteke.

Bestelako predikatuak ere osa ditzake *atseginek*, hala nola, *atsegin egin*, *eman*²²¹ aditz arinekoak biak —*egin*, *eman*—, OEhk (III: 224) dakarrenez. Orduan aurrekoa ez bezala, datiboduna da konfigurazio iragankorra —(a) adibidean, biak, konfigurazio iragankor eta iragangaitz datibodunak ikus daitezke—:

- (342) a. —Atsegin al dautsu? —Inddar atsegin yat, bai eguno bada (Otx 153)
b. Bai, yaun Anbrusi, atseginen digu; kanta zerbait, esan zun Marik (Or *Mi* 7s)
c. Etxat damutuko mordoloki idatziriko usteri onetaz, irakurle guztiei atsegiten badeutse (Or *Tormes* 5)

(b,c) etsenpluetara begira, badago gainerakoetan ez dagoen ezaugarri nabarmen bat: *atseginen* eta *atsegiten* aspektudun adizkiak dira. Aldiz, ikusi ditugun beste guztietan *atsegin* hutsa da ageri dena, aspektu markarik gabea, alegia. *Atsegiten*, esate baterako, bi modutara azter daiteke: edo i. *atseginena* dela uste dugu *-ten* aspektudun morfema gaineraturik, edo ii. *atsegin eginena* dela interpretatzen dugu —OEhk interpretatu duen bezala— eta *-ten* aspektu marka *atsegini* berari gaineratu beharrean, *egini* ezarri zaiola pentsatzen dugu. Itxuraz hutsala den diferentziak badu bere garrantzia, kontuan hartzen badugu aspektu markak jasotzeak aditz bihurtzen duela *atsegin* i. hipotesian,²²² eta ii. hipotesian, berriz, ez. Aditza ez bada, *egin* arineko predikatu konplexuaren atal bat baino, orduan badugu hemen aipatzeko arrazoia, predikatu konplexuen atal honetan.

Higuin ere ez da asko urruntzen *atseginen* jokabidetik. Izatez, antzeko predikatu konplexua, *higuin izan*, eta antzeko konfigurazioak sortzen ditu, esate batera, konfigurazio inakusatibo datiboduna (a,b) edota iragankorra (d,e) —bi konfigurazioak daude (c) adibidean—:

- (343) a. Herri belz hau iguin zait (Volt 136)
b. Laket zaitzu iustizia, / iniustizia higuin (Hm 51)
c. Higointzen zaitzu, hura higoiz duzu (SP *Imit* III 40,4)
d. Higuin duzula zure burua (Dv *LEd* 128)
e. Bata higuin izanen du eta bertzea du maitatuko (He Mt 6, 24)

²²¹ *Atsegin egin*, *atsegin eman*. “Contentar, complacer, gustar, agradar (Con aux. trans. tri-personal). Salvo un ej. de Ubillos, los demás son del presente siglo; no se documenta en textos septentrionales.” (OEh III: 224)

²²² OEhk (III:229) *atsegindu* aditza ere badakar, eta irakurleak ikusiko duenez, aspektu markarik ez zaio falta erakusten dituen askotariko konfigurazioetan —adibidez, *Umiak ondo azten dituban Gurasua atseginduko da ta konsolatuko da bere semiagaz ta alabiazgaz* (fB *Ic* app. 1) inakusatibo soilean—.

OEHren (IX: 198) adibideei begira, ugariagoak dirudite konfigurazio irangakorrek, inakusatibokoek baino. Konfigurazio bat ala bestearen oinarrian, *atsegin*ekin ikusi dugun bezala, *higuinen* kategoria dagoela dirudi: inakusatiboan *higuin* adjektiboa dela pentsa daiteke eta iragankorrean, berriz, izena. Jakina, kasu guztietan salbuespenik gabe, predikatu konplexu bat dugu, bate-tik, *higuin* eta bestetik, *izan* aditz arina biltzen dituena.

Atsegin edota *higuin* ez dira berez datiboa eskatzen duten adjektiboetako zerrenda labur samar bateko aleak besterik, baina nahikoa ondo azal dezake, oro har, nolakoak diren predikatu konplexuek erakusten dituzten datiboak eta zein diren eurak aztertzeko bideak. Esate baterako, *niri Rachmaninov atsegin zait* diogunean, *izan* aditz arina dugu eta itxuraz *niri* datibo sintagma ez diogu aditz arin horri zor, ez bada *atsegin* adjektiboari. Jakina, *niri* datibo sintagma *atsegin izan* predikatu osoari gaineratzen zaio, baina predikatu horren barruan dauden banakoei begira, *atsegin* adjektiboari loturik dagoela dirudi eta ez *izan* aditz arinari. Hala, datibo argumentua sortzez adjektibo bati loturik egon daitekeen arren, adjektiboarekin batera osatzen duen sortzezko sintagma horretatik atera edota igo daiteke predikatu konplexu osoaren osagai bihurtuz. Hortaz, nolabait igoera jasan dezaketen datiboak dira hemen aztergai ditugunak edo, nahiago bada, igoera datiboak.

Ikus dezagun beste adibide batez. *Adi*²²³ OEHtik jasotako adibide asko eta askotan, nagusiki datiboarekin erabiltzen da (a-d).²²⁴ *Adik egon* aditz arinaz osatzen du predikatua, ikusiko dugunez:

- (344) a. Egon oi dira umiari adi, orain mosuka, gero siñuka, ain laster barrera (Ast II 201)
- b. Zenbat bider nagotzu adi balkoetik! (AB *AmaE* 263)
- c. Tomas Kirru behintzat aoa zabalik adi-adi egoakion (Bilbao *Ipuib* 150)
- d. Itxas-gizonak ixar argijai / adi egoten oi dira (Enb 40) (a)ren berdina

Adibideei begira berehalako diferentzia batek bereizten ditu (a,d) adibideak (b,c) adibideetatik: batzuek ez dute datibo komuntadurarik zain-

²²³ *Adi* (V-arr-ger-oro apud A). “Empleado exclusivamente en la tradición vizcaína hasta el presente siglo, en que se difunde su uso a otros autores peninsulares, como Orixe, Labayen, etc.” (OEH I: 153).

²²⁴ *Adik* adlatibodun osagarriak ere (a,b) erakusten ditu, ondoko adibideotan bezala:

- (i) a. Zerura adi, zizpuru egin ezkerro (Astar (apud H))
- b. Zagoze adi esatera noian doktrinara (Astar II 111)
- c. Aita itun eta ixillik zegoana, adi-adi jarzten da seme-alabaren esanetara (NETx *Antz* 95)

Baita genitibodunak ere:

- (ii) a. Juana Mari egoan gogo-illunaz, guztiz motel, autuen da auzien adi (Echta *Jos* 36)
- b. Zagoz zu emen lasai berez etorri bihar dauanaren adi (Otx 80)

Kasuistika osoa erakustearren baino ez dugu aipatzen, azterbide gehiagorik gabe.

tzen —*dira* bietan— eta besteek, aldiz, bai —*nagotzu, egoakion*—. Halako adibide eta egiturak beste lan batzuetan ere aipatu izan ditugu —bereziki, Fernández, Ortiz de Urbina eta Landa (2009) eta Fernández eta Ortiz de Urbina (2009a)—, ipar-ekialdeko hizkeretako datibo komunztadura galerarekin alderatuz. Datibo komunztadura zaintzen den adibideetan (b,c) gure hipotesia da *niri* eta *hari* datibo isil biak *adi* adjektiboarekin batera osatzen duten sintagmatik atera eta gora igo direla, inflexioaren eremura. Hortik dator, hain zuzen, datibo komunztadura inflexioan (edo nahiago bada, aditz laguntzailean) islatzea. Oso bestela, datibo komunztadurarik zaintzen ez den adibideetan (a,d), *umiari* edo *ixar argijai* ageriko datiboak²²⁵ sortzezko gunean bertan gelditu direla dirudi, inflexioaren eremura igo gabe. Hala, igoerarik gabe, ulertzekoa da datibo komunztadurarik ez eragitea aditz laguntzailean. Neurri batean, beraz, halako kasuetan, komunztadura zaintzea edo ez zaintzea, hurrenez hurren, igoeraren edo igoerarik ezaren seinale delakoan gaude. Guixienez, mendebaldeko euskalkietako egoera dugu hau, datibo komunztadura beti gordetzen ez duten eki-iparraldeko euskalkietan datiboa bere jatorrizko bigarren mailako predikatuan zein goiko predikatu nagusira igota ere berdin geldi baitaiteke komunztatu gabe. Esan gabe doa, ez direla halako egiturak falta ipar-ekialdeko euskalkietan ere, datibo komunztaduradunak batzuk eta komunztadurarik gabeak besteak —jo besterik ez dago aipatu berri ditugun gure lanetara edota Fernández eta Landa (2009) lanera datuak ikustearren—.

Goian *adi* adjektiboaz esan duguna egitura predikatibo konplexuetan ageri diren beste hitz batzuez ere esan genezake. *Aiher*²²⁶ adibidez, konfigurazio inakusatibo datibodunean ager daiteke, OEHk (I: 340) jasotzen dituen bi adieretan: bata “intentar, desear; tener afición”, eta bestea “aborrecer, odiar, desear mal”. Lehen adierakoak *dira* (a-c) adibideak, bigarren adierakoak (d,e). Bigarren adieran, OEHk dioenez, beti erabiltzen da datiboa; lehen adieran ez da beti hala —adibidez, *tera(t)* nominalizaziodun osagarriak ere jasotzen ditu (c)—:

- (345) a. Hunelako han sorthu zen, / Huni ninzaion aiher (Hm 18)
 b. Haur ttipier da gehienik aiher gaitza [paralesia] (JE *Med* 66)
 c. Aiher naiz erratera (H)
 d. [Saulo] kanpokoai ere aier zitzaien (Lard 494)
 e. Bertzeer aiher da, edo bederen ez ikusiarena egiten deie (JE *Bur* 55)

²²⁵ Ikusi beharko da, halaber, ageriko datiboak izateak (a,d) eta ez izateak (b,c) zein zerikusi izan dezakeen datibo komunztaduraren (des)agertzearekin —ikus baita Fernández, Ortiz de Urbina eta Landa (2009), 29 oin-oharra—. Oharturik gaude, jakina, auziaz, nahiz eta hemen aztertuko ez dugun.

²²⁶ *Aiher* (B, L, BN, Sal, S ap.; O *VocPo*, Lar (*aier*), *VocBN*, H). “(Con aux. intr.). Tr. Ya desde Leizarraga se diferencian los significados ‘inclinarse, tender a y odiar’, este último siempre con complemento en dativo. Entre los peninsulares, la utiliza Lardizabal (en la acepción de ‘odiar’); a partir de la primera década del s. xx, aparece tbn. En autores occidentales (por influencia de Azkue?), no siempre utilizado según la tradición oriental.” (OEH I: 34).

Ikusten denez, konfigurazio datiboduna da nagusi adibide sortan. Kontuan izan, dena den, *atsegin/higuin izan* egitura predikatiboan ez bezala, hemen absolutiboa dela esperimentatzailea, ez datiboa —estimulua da datiboaren theta-rola—.

Bestalde, kasu honetan, *adi egon* predikatuan ikusi dugun bezala, *aiher* horri dagokion datibo argumentuak komunztadura eragin dezake (a,d) zein ez (b,e). Horrek berretsi egiten du igoera datiboez arestian esan duguna, hau da, halako egitura predikatiboetan datiboa adjektiboaren (edota beste kategoria baten) eremuan egon daitekeela atera gabe ala inflexioaren eremura igo datibo komunztadura sortaraziz inflexioan. Beraz, predikatu egitura konplexuak antzeko itxura erakusten du, edozein delarik predikatuan sartzen den aditz arina (*egon, izan* eta abar) eta edozein, orobat, aditz arin horri gaineratzen zaion hitza eta hitzaren kategoria (*atsegin, adi, aiher*).

Dena den, komeni da gogoraraztea, inoiz aipatu dugun bezala (Fernández, Ortiz de Urbina eta Landa 2009: 218) datibo kasua zilegiztatzan duen predikatua zein ote den erabakitzeke, alegia, mendeko adjektiboa ala goiko aditz arina, bilatu beharko genituzkeela adjektiboa predikatu arin horretatik aska daitezkeen egiturak. Esate batera, *fidel* ere, *aiher* bezala predikatu egitura konplexu hauetan ageri da *fidel izan/egon* osatzen (OEH VIII: 16):

- (346) a. Ene biotza, bizi naizeno, izanen zaizu fidela (Xa *Odol* 115)
b. Haren familia egon zen Jainkoari fidel (CatJauf 32)
c. Kantari, pilotari, oro dituzuna, / euskara maiteari fidelik zaudena (Xa *Odol* 153)

Jo dezagun, esate batera, (b) adibidea abiapuntutzat hartuz, adjektiboa predikatu nagusitik askatu eta *haren familiari [Jainkoari fidel] deritza* bezalako perpaus bat osatzen dugula. Perpausa, printzipioz, ez zaigu ezgramatikala iruditzen. Horrek erakusten du, gure ustez, *fidel* adjektiboa dela perpaus honetan *Jainkoari* argumentuaren datibo kasua zilegiztatzan duena, eta ondorioz, inflexioak, bere aldetik, *haren familiari* argumentuaren datibo kasua zilegizta dezakeela. Halakoa ere izan daiteke baita *leial* adjektiboa ere. *Leial* adjektiboaz OEHk (XI: 472) dakarren erabilera nagusia datiboduna²²⁷ (a,b,c) da, nahiz eta bestelako erabilerak ere badiren, tartean, adlatiboarena (d):

- (347) a. Maite duguna leial egonen zaikula (Lap 47 (V 26))
b. Sekulan baino leialago egon zitzaion (Zerb *IxtS* 60)

²²⁷ “Suele expresarse con sintagma en dativo (SP *Phil* 452, Mih 9, Dh 271, *MarII* 81, Jaur 130, Ur *MarII* 113, Lard 157, Aran *SIgn* 99, Arr *May* 202, Jnn SBi 27, Lap 47 (V 26), Ip *Hil* 191, Zerb *IxtS* 109, Mde *Pr* 143, Vill *Jaink* 162, Larz Iru 46, Xa *Odol* 284); aunque tbn. se encuentran con sintagma con suf. *-(r)ekin* [...], con suf. *-ra(t)* [...], con *-tako* [...], y con suf. *-(r)entzat* [...]; hay además un ej. con *-(r)en* en Axular.” (OEH XI: 472).

- c. Hizkuntzari leial irautea (MEIG IX 40)
- d. Añ naizela leixala zure legera (Etxba Ibilt 480)

Ez dirudi oraingo (a,b) adibideak eta *fidel* adjektiboaren (a) adibidea oso diferenteak direnik. Gaur egun ere badira halako adibideen testigantzak:

- (348) a. Monoteismoa eta Gerra Santua erakundeak Al Kaedari eta Osama Bin Ladeni leiala zela adierazi zuen herenegun (*Berria*, 2004-10-19)
- b. Leiala izan al hatzait, Leonore? (*Argizariaren egunak*, A. Lertxundi, 25)

Bestalde, galdera bera egin daiteke adjektibo bietaz: goiko aditz arina ala mendeko adjektiboa da datiboa zilegiztatu duena? Bada, *Erakunde horri [Osama Bin Ladeni leial] deritzagu* perpausa gramatikala bada —eta guk gramatikala dela uste dugu—, orduan berriro ere, goian *fidel* adjektiboarekin bezala, *leiali* egotzi behar diogu *guri* argumentuaren kasua zilegiztatzea.

Oso bestelakoak dira, gure iritziz, berez datiborik hautatu ez arren, predikatu konplexuan datibo argumentu batez lagundurik ager daitezkeen beste adjektibo batzuk, hala nola, *beharrezkoa*, *ezinezkoa*, eta abar. Esate batera, (*zuri*) *hori beharrezkoa zaizu* badiogu, ez dirudi *zuri* datibo argumentua *beharrezkoa* adjektiboari zor diogunik, nahiz eta *beharrezkoa (izan)* predikatu konplexuan datibo argumentu hori gaineratu den. Hala, **horri [zuri beharrezkoa] deritzat* perpaus ezgramatikala dela uste dugu, berez *beharrezkoa* adjektiboak *zuriren* kasua zilegiztatzerik ez duelako, eta jakina, predikatu nagusiak datibo bat bakarra zilegizta dezakeelako. Beraz, *leial*, *fidel* vs. *beharrezkoa* bezalako adjektiboen artean nolabaiteko asimetria dagoela pentsa daiteke, kasu guztietan aditz arineko predikatu konplexuak izan arren.

Dena den, halako kasuak oraindik ere igoera bitartez azal litezkeela uste dugu, datiboak adjektiboarekin nolabaiteko harremana duela defendatuz, ez zuzenean, *leial* edota *fidelek* izan dezaketen bezala, ez bada zeharbidez —ez ahaztu *leial* eta *fidelen* datibo argumentua osagarria dela—. Kontuan izan *beharrezko* bezalako adjektiboekin ohikoa dela —eta gramatikala, beraz— destinatiboa ere erabiltzea, hau da, *zuretzat beharrezkoa da* erabiltzea *zuri beharrezkoa zaizuren* ordeiz. Hona hemen, testigantza klasikoetatik (a,b) zein gaur egungo testu batetik (c,d) jasotakoak:

- (349) a. Emaiguzu, Jaun maitea, guztioi ain bearrezko zaigun zure laguntza (ArgiDL 91)
- b. Norentzat dira bearrezkoak Bataioa ta Aitortza? Bataioa, guztiontzat da naitanaiezkoa (KikV 67)
- c. Hori izigarri beharrezkoa zait (*Ez da musik*, M. Oxandabaratx, 15)
- d. Irria beharrezkoa da gorputzarendako (*Ez da musik*, M. Oxandabaratx, 68)

Destinatiboa, ostean, *horri zuretzat beharrezkoa deritzat* igoerarik gabeko egituretan erraz ager daiteke, datiboa ez bezala. Honek datibo/destinatiboaren arteko txandaketa kasuak badaudela adieraziko luke, eta pentsaraz liezaguke beharbada periferikoa den argumentu hori (*zuretzat*) argumentu gune batera igo dela, ondorioz *izan* loturazko aditzarekin komunztadura eraginez eta, jakina, datibo kasua jasoz.

Igoeraren hipotesia alde batera, badago beste azalbide posible bat, hau da, interes datiboarena. Hala, *izan* loturazko aditzaren laguntzaileak daraman datibo komunztadurak adjetiboak adierazten duen ezaugarri edo tasuna noren interesekoa den erakutsiko luke. Gogoratu jabe eta interes datiboek, esperimentatzaileek bezala, nahikoa hurrenkera berezia dutela, eta absolutiboa bera baino lehenago lerratzen direla perpausean, hurrenkera neutroa denean. Gure datibo horiek ere, nolabait etikoak badira, orduan hurrenkera neutroan etikoek bezala jokatzeara espero genezake, eta hala dela dirudi:

- (350) a. Niri hori beharrezkoa zait
- b. Hori niri beharrezkoa zait

(a) adibideko hurrenkerak neutroagoa dirudi (b)-koa baino.

Hala ere, ez da guztiz zilegi bi azterbideak —igoera datiboa eta interes datiboa— aurkakoak direla pentsaraztea. Kontuan izan datibo bat etikotzat hartzea semantikoki theta-rol batekin lotzea dela; aldiz, igoeraz ari bagara, prozesu sintaktiko batez ari gara. Baliteke, beraz, bi aukerak elkarren kontrakoak ez izatea. Datibo etikoak, euren eduki semantikoa alde batera, osagai sintaktikoak diren heinean, gune sintaktiko jakina dagokie perpaus egituran, eta oso litekeena da igoera datiboak gora egin eta pausatzea datibo etikoek betetzen duten gune sintaktiko berean.

Nabardurak egiten hasiak garelara, azkenik, ezin dugu ezkutatu *atsegin* edota *higuinek* jasotzen dituzten datiboak ez direla printzipioz *leial*, *fidel* predikatuenak bezalakoxeak. *Atsegin*, *higuin izan* predikatuetan, Fernández, Ortiz de Urbina eta Landa (2009: 201-2) lanean erakutsi dugunez, datiboak esperimentatzaileak dira eta hala, komunztadura zaintzeko joera oso sendoa dute. Sarritan, gainera, formaz zein adieraz kideak diren aditzekin harremanetan daude —aipatu berri ditugunak *atsegin*²²⁸ edota *higuindu*, aditzekin adibidez—, eta halakoxe aditz psikologikoak dira ezinbesteko datibo komunztadura agertzen dutenak. Aldiz, *leial*, *fidel* predikatuen absolutiboak dira —ez datiboak— esperimentatzaileak direnak, eta ziur gara besteez (*atsegin*, *higuin*) aipatu dugun ezinbesteko datibo komunztadura hemen hautazko bihurtzen dela. Datibo ko-

²²⁸ Fernández, Ortiz de Urbina eta Landa (2009: 202) lanean, *atsegin izan* predikatu egitura konplexuaz ari ginela, ez ginen *atsegin* aditzaren existentziaz konturatu, eta predikatu egitura hori baino ez genuela genioen. Orain ikusi dugunez, ez da hala, eta *gaitzi izan* edota *higuin izan* predikatuen eta *gaitzitu* edota *higuindu* aditzen arteko harremanaz ohartarazi genuen bezala, *atsegin izan* eta *atsegin* artekoa ere aipatu beharra dugu.

munztadura alde batera, zalantza handiak ditugu ?/ *nik zuri atsegin deritzat horri moduko perpausen gramatikaltasunaz. Benetan ezgramatikalak badira, guk susmatzen dugun moduan, *atsegin*, *higuin* adjektiboek berez datiboa zilegizatzerik ez dutela eta kasu hori *izan* aditz arinari zor zaiola ondorioztatu beharko genuke, hau da, atal honen hasieratik aldarrikatu dugunaren kontrakoa. Beharbada, *atsegin* edota *higuinen* datiboak nolabait esperimantatzaileak direnez, jokabide sintaktikoan, etikoen antzekoak dira —hortik, besteak beste, aipatu berri dugun igoerarik gabeko egituraren ezgramatikaltasuna—. Ertz askotako irudia dugu, beraz. Bego honetan, geroko azterbide sintaktikoak mutur askotako korapilo hau askatzen lagunduko digulakoan.

Amaitzeko, kasuistika ahal den osoena erakustearren, aipatu nahi ditugu datiboa hautatzen duten bi predikaturen erabilera itxuraz mugatuak.²²⁹ Lehena *zale* da, OEhk (XVI: 303)²³⁰ dioenez, Goyhetcheren hizkeran instrumentalaz (a) eta datiboaz (b) ageri dena, nahiz eta nagusiki, oro har, *zaleren* osagarria genitiboaz markatzen den (c):

- (351) a. Presuna handituak ere [karamelu] hetaz zale direla eta yale (Gy VI)
- b. Astakarloari net zale zen arren (Gy 158)
- c. Zelakotz bertzenen zalea (Hb *Esk* 154)

Erabilera nahikoa bazterrekoa izan arren, (b) adibideko datiboari postposizio-datiboaren itxura har dakioke, ez horrenbeste genitiboarekin lotzen den igoera datiboarena, kontuan hartzen badugu, behintzat, datibo komunztadurarik ez dela zaintzen perpausan.

Igoera datiboarekin lotzen errazagoa iruditzen zaigu, aldiz, *erruki* (OEh: VII, 248) genitibo (a) edota (b) instrumentalaz marka dezakeena osagarria:

- (352) a. Izan zaitetz gure erruki (Añ *EL* 107)
- b. Nere buruaz ni erruki ez banaz (Cb *Eg* II 30)

Errukik berak, datibo osagarriko testigantzak ere eman dizkigu:

- (353) a. Menderatzen autanean ez natzaik erruki izango (Etxde *JJ* 77)
- b. Asarretzen nintzan manestaren aurka eta erruki nintzaian (Or *Aitork* 217s)
- c. Erruki zaizunaz errukiago zera (Or *Aitork* 249)

²²⁹ *Egoki* adjektiboak ere datiboa hautatzen zuen testurik zaharretan (OEh VI: 442). Halako adibideak dira ondokoak: *ondasun arimari egokiak*; *Eta har kontentamendu nekeei egokiak* (EZ *Man* I 87); *Erremedio portitzagoak ta gaitzari egokiagoak* (Cb *Eg* III 388).

²³⁰ *Zale* “La construcción es gramte. con complemento en caso genitivo, aunque se encuentra con ablativo en Axular, con alativo en Iztueta y J.J. Moguel, con instrumental y dativo en Goyhetché, con *-rako* en Kirikiño y San Martín (*Zirik* 107), y con sociativo en Anabitarte.” (OEh XVI: 303).

Eta testigantza horietan, oso litekeena da datiboa genitiboaz markatutako argumentuarekin lotuta egotea, eta hortaz igoera datiboa izatea. Kontuan izan (c) adibideaz egiten dugun irakurketan, *erruki zaizunaz* dioenean, esperimentatzailea ez dela isilpeko *zuri* ez bada isilpeko *hura*, hau da, zutaz errukitzen dena. Bestelakoa da, datibo esperimentatzaileduna, hain zuzen, “damutu” adierako ondokoa:

(354) Erruki zit joango nintzela esana (AN-gip) (Gte *Erd* 254)

Ez genuke atal honen amaierara heldu nahi, datibo etikoetara lerratzen diren predikatuak aipatu gabe. *Haizu izan*, *zilegi izan* edota *berdin izan* dira gogoan ditugunak, Fernández, Ortiz de Urbina eta Landa (2009: 204) lanean ere aipagai genituenak. Jakin behar du irakurleak *haizu* sarri askotan konfigurazio datibogabea agertzen dela. Ikusi besterik ez dago OEhk (I: 524-25)²³¹ dakarren atala, baina horrek ez du esan nahi konfigurazio datibodunean ere agertzen ez denik. Ikusi bi konfigurazioak (a,b) eta (c,d) adibideetan:

- (355) a. Hauzu naiz hirekin mintzatzera (Lç Act, 21, 37)
b. Ez othe naiz haizu ene onthasunaz egitea nahi dudana? (TB Mt 20, 15)
c. Deabruak eta damnatuak dire bakharrak higuintzea haizu zaikunak (Dh 251)
d. Bainan ez zauku aizu / Odol ixurtzea (Larz *Senper* 104)²³²

Konfigurazio datibodunei, predikatu inbertso itxura hartzen zaie. Esate baterako, *aizu* (d) adibidean, *odol ixurtzea* da predikatuaren gaia, eta nolabait etikotzat har daitekeen datiboa da implizituki dagoen *guri*. *Haizu izan* predikatuko datibo honek subjektua dirudi, nominalizazioan ageri den subjektuaren kontrolatzailea da-eta ondoko adibidean (Fernández, Ortiz de Urbina eta Landa, 2009: 204):

(356) Artzain onari, haizu ez zaiona da bakarrik, bere ardien etsai bilakatzea edo hetarik baztertuz bizitzea. (Larz *Idazl* VI, 199)

²³¹ *Haizu (izan)* ia desagertu egin da gaur egungo idatzizko testuetatik, bederen. Agerpen bat bakarra du EPGen konfigurazio datibogabea: *Alabainan, Nafarroako Gobernuak erabakia du ez dela aizu euskal ikurriñarik dilindan ezartzea Herriko Etxeko balkoinetik, salbu Euskal Autonomia Erkidegoko pertsonalitate bat jiten delarik (Herria, 2005-09-01)*.

²³² Datibo komunztadura galeraz jakin-mina duen irakurleak baditu *haizu (izan)* predikatuarekin ere komunztadurik eragiten ez duten datiboak: —*Muthil gaztia, / Bilo horia, / Burian duka banitatia? / Uste duk bai noski / Haizu dela bethi / Gorthiaren egitia andre orori. // —Eni haizu da / Galdegitia, / Zuri konbeni begiratzia (ChantP 372)*. *Eni* etikora lerratzen den datiboa da hau. Komunztadurik gabea, ikusten denez. Predikatu konplexuan agertzearen ondorioa izan daiteke galera —ikus Fernández, Ortiz de Urbina eta Landa (2009) xehetasunetarako—.

Zilegi (izan) predikatuarekin ere, konfigurazio nagusia datibogabea izan arren, datibodunak ere ez dira falta ez testigantza klasikoetan (a,b) ez gaur egungoetan (c,d) ere. Kasu honetan, *haizu (izan)*en kasuan bezala, datibo etikoa dugula dirudi:

- (357) a. Ankerki ordaintzea etzaizu zillegi (*Zait Sof* 140)
- b. Ukitzerek zillegi etzizaion aur zoragarria (*Etxde JJ* 234)
- c. Zilegi bazait aitormen bat egitea, adiskide min baten heriotzaren oroitzapena berri zidan Larkinen poemak, lehenbizikoz irakurri nuenean (*Mentura dugun artean*, A. Lertxundi, 13)
- d. Irakien, urre beltzak edo petrolioak badu bere ministerioa Saddam Hussein-i zilegi baitzizaion (*Herria*, 2003-04-24)

Berdin (izan) predikatuan, azkenik, datibo etiko edota esperimendatzailearen arteko zerbait dugula dirudi. Hemen ditugu klasikoetatik zein gaurko testuetatik jasotako adibideak, konfigurazio datibodunekoak denak:

- (358) a. Legea onhar ala ez onhar, bardin zauku (*HU Zez* 156)
- b. Beña beti bidez-bide zebillen ezkerro, berdin zitzaion iparraldera igo edo egoaldera jetsi (*TAg Uzt* 211)
- c. Ez zaituztet ulertzen eta berdin zait, ez zaituztet ulertu nahi (*Eta handik gutxira gaur*, E. Rodriguez, 48)
- d. Berdin zaigu hitzaldi bateko mintzaira, egunkarikoa, lagunartekoa edo bost urteko neskatiko bati egiten dioguna (*Euskararen etxea*, P. Salaburu, 155)

Beste kasuetan bezala, datiboa *berdinekin* loturik dagoen argumentua izan arren, ez dirudi datibo gisa ager daitekeenik bigarren mailako predikatua-rekin (??/**horri zuri berdin deritzat*), eta goiko predikatuan —semantikoki gardena dena— bakarrik gauza daiteke interes erlazioaren bidez. *Berdin* nahiko berezia da, datiboa konfigurazio inergatiboan ere ager baitaiteke: *berdin dio* esakeran, ez dago bat ere argi datiboa erreferentziaduna ala erreferentziarik gabea den. Kasu guztiotan, mendeko (bigarren mailako) predikatua adierazten duena da norbaitentzat garrantzia duena, eta hori da ‘interes’ datiboaren bidez markatzen duguna. Alabaina, predikatu nagusian markatzen dugu hori, *igoeraren* antzeko egitura sortuaz.

Predikatu konplexuetako adjektiboekin jarraituz, *egin (iruditu zentzuan)* aditzarekin elkartuz osatzen direnak aipatu nahi genituzke, labur bada ere. Begiratu, adibidez, ondoko adibide hauei:

- (359) a. Matrikula ezaguna egin zait, aurretik ikusi banu bezala (*Ordaina zor nizun*, J.M. Urteaga, 175)

- b. Bolumena leundu du eta ahotsa askoz lodiago egin zaio (*Ugerra eta kedarra*, S. Gonzalez, 149)

Sintaktikoki, perpaus txikiak dira hemen ditugun bigarren mailako predikatuak: *matrikula ezaguna (da)*, *ahotsa lodiago(a da)* aditzik gabeko predikazioak dira hauek. Predikatu nagusia *egin da*, jakina, eta (a) bezalako adibide sorta handi batean, *irudituren adiera bera du*,²³³ (b) adibidean, aldiz, *bihurtu* aldaketa zentzua dauka. Ondorioz, (a) adibideko datiboak bigarren mailako predikazioak adierazten duenaren garrantzia markatzen du (*niretzat ezaguna*). Bigarren adibidean (b), ohiko ‘jabe’ datiboa dugu, ahotsaren ‘jabeari’ baitagokio. ‘Esperimentatzaile’ moduko datiboak (a), oso arruntak dira adjektibo ebaluatiboekin, hau da, *amaigabea*, *antzekoa*, *arraroa*, *deigarria*, *erraza*, *ezaguna*, *ezinbestekoa*, *ezinezkoa*, *gaitza*, *gorrotagarria*, *gogorra*, *harrigarria*, *inbidigarria*, *sinesgarria*, *susmagarria*, etab. Testigantza klasikoagoak ere badira. OEhk (VI: 415) dakarrenez, hegoaldeko tradizioan jasotzen da XIX. mendearen hasieratik:

- (360) a. Astun egiten jatzu eskari au? (Astar II 42)
b. Adiskideari gaitz egiten zitzaien (Arr *May* 190)
c. Sinbolismoa bera zeharo arrotz egiten zaiolako (MIH 196)

Gorago egin dugun bezala, hauetan bigarren mailako predikatua aditz kopulatibotik bereizi beharko genuke igoera oztopatzeko, eta horrela berez jatorrian har dezaketen itxuraz hobeto jabetzeko. Ikusten denez, ukitu besterik ez dugu datiboen azpimundu hau.

6.2. Izenak

Predikatu egitura konplexuak osatzen dituzten hitzak ez dira nahitaez adjektiboak. Batzuetan, ikusi dugunez, hitz bera kategoria bat baino gehiago izan dezake eta horren arabera egitura sortu. Goian, adibidez, *atsegin* edota *higuin* aztertu ditugunean erakutsi dugunez, izentzat ere har litezke bai *atsegin (izan)*en zenbait agerpenetan bai *atsegin egin*, *eman* predikatuetan ere. Ikus dezagun berriro ondoko adibide banatan:

- (361) a. Atsegin dut Chowder emakume gotor eta egiati hau, eta atsegin dut orobat beraren aita zaharra (*Brooklyngo erokeriak*, P. Auster / O. Arana, 204)
b. Ametsak, lehenengoetan, atsegin egin zidan, sorterrria ikusi bainuen (*Sukar ustelaren urtea*, E. Jimenez, 282)

²³³ OEhk (VI: 415) horrela itzultzen du: *hacersele a uno, parecerle, sentir como*.

Nahikoa paradigmaticoak dira adibide hauek, batetik (a) *atsegin (izan)* predikatuaren erakusgarria dugu, eta goian dagoeneko esan dugun bezala, *atsegin (izan)* predikatuaren barruan osgarri izateko ahalmena galdu du, eta beste osagarri bat gaineratu zaio predikatu osoari. Bestetik (b), *atsegin egin* dugu. Adibide honetan, aurrekoan ez bezala, *atsegin* osagarria dela dirudi, osagarri horrek murriztapenak izan arren. Begibistakoa da, esate batera, ez dela determinatzaile sintagma (**atsegina egin*), izen sintagma hutsa baino. Helduko gara geroxeago *egin* edota *eman* aditz arineko predikatueta. Hori baino lehenago, aipa ditzagun labur zein diren *atsegin* edota *higuinen* antzera, predikatu konplexuak osatzen dituzten bestelako izenak.

Jo dezagun, adibidez, *plazer (izan)* edota *plazer egin/eman* predikatueta. *Plazer* izena da eta konfigurazio inakusatibo zein iragankorrean ager daiteke. *Plazeren* irudia benetan konplexua da baina, egia esan, ez da asko aldentzen *atsegin* edota *higuinen* erakusgarrietatik. Lehenik eta behin, konfigurazio inakusatibo datibodunean ager daiteke, nahiz eta ikusi dugunez, bai OEHN (XIV: 189) zein EPGen, oso gutxi diren, konfigurazio iragankorren aldean. EPGen bereziki *Herria* aldizkariko agerpideak izan ditugu kontuan, hitzaren jatorriatik:

- (362) a. Plazer zaie, bere errebelamendu guztiarekin ere, bide zabal hartan ibiltzea (Ax 480 (V 310))
- b. Plazer zaio Euskal Herrian ere agertzea uztail-agorrietan, aurten hiru kontzertu emanen dituela (*Herria*, M. Etchenic, 2002-08-08, 8)²³⁴

Esperimentatzailea datiboa izaki, ez da harrigarria konfigurazio inakusatibo datibodun honetan agertzea, ezta, jakina, iragankor soilean ere agertzea, predikatu psikologikoen egin ohi duten bezala:

- (363) a. Zerorrek eginen duzu plazer duzuna (Ax 239 (V160))
- b. Emazü plazer düzüna, plazer düzün bezanbat eta plazer düzünian (Mst III 15, 2)
- c. Zure maitatzeaz plazer dut (GÇ 171)

Irakurlea ohartuko zenez, gainera, badira, *atseginekin* erakutsi dugun bezala, postposiziodun egiturak ere (c). Gaur egun ere badira (a,b) bezalakoak:

- (364) Kantuz arizan, bertsuak entzun, hots zinez elgarrekin goxatu gira, plazer baiginuen elgar ikustea (*Herria*, “Herrietako kronikak: Baxenabarre. Iherra”, 2001-07-12, 7)

²³⁴ *Plazer da* esapidea ere aipa genezake datiborik gabeko konfigurazioan: *Plazer da jakitea, adixkide gordeak baditugula* (Larz Iru 138) (OEHN XIV: 189). Gaur egun ere erabiltzen da.

Plazer (izan) horren ondoan, *plazer egin/eman* ere aurki daitezke konfigurazio iragankor soil (a) zein datibodunean (b,c):

- (365) a. Plazer egiten duena, plazeren begira dago (Volt 242)²³⁵
b. Zure gogo guzia heda zazu niri xoilki plazer egitera (SP *Imit* III 25, 1)
c. Ez nüzü segur merexi düdala, bena plazer egiten ditazü (*Herria*, “Herrietako kronikak. Baiona eta Zuberua”, J.L. Davant 2001-07-12, 7)

Kontuan hartzekoa ere bada, gorago 3.3.4, *axolarekin* ikusi dugun bezala, *plazer* oraindik ere izena eta, hortaz, osagarria dela (a) adibidean. Hartara, nominalizaioak ergatiboa jasotzen du. Oso bestela, (b) adibidean, *plazer* dagoeneko predikatuaren atal bat besterik ez dela ematen du, hau da, argumentu izaerarik ez duena. Horren ondorioz, ziur aski, nominalizazioa osagarri gunean ageri da eta absolutiboaz markaturik:

- (366) a. Jutsiko ixtorio zaharrean Arbidea da leku aipatua eta plazer egiten du ikusteak berriz toki eder hortan etxea xutituko dela (*Herria*, “Herrietako kronikak: Baxenabarre. Jutsi”, 2001-09-06, 5)
b. Oraiko mundu erebes huntan plazer egiten du ikustea artetan berderen fedezko urhats horietan parte hartuz sanoki eta ahalgerik gabe oraino jendeak baduela bere baitan zerbeit onik (*Herria*, “Herrietako kronikak: Lapurdi. Senpere”, 2001-04-15, 4)

Ikusten denez, neurri batean, lehenago aipatu eta aztertu ditugun egiturak sortzen zaizkigu berriro —deskribapena nolabait amaitzen ari garelako seinalea da hau—. Izatez, *axola* bera ere hemen azter genezakeen, nahi izanez gero. Baita *laket*, *damu*, *dolu*, *urriki (izan)* ere psikologikoen konfigurazio iragankorren atalean 3.3.3 ikusi ditugunak. Baina itzul gaitzen, *egin* edota *eman* aditz arinen testigantzetara. Ez gara gehiegi luzatuko eurekin, ez berez merezi ez dutelako, baizik eta sintaxiaren aldetik hemen eman dezakeguna baino arreta gehiago merezi dutelako. Horietatik bi, *ihes egin* eta *alde egin*, datibo iturburuen 5.3.2 atalean ikusi berri ditugu, eta dagoeneko adierazi dugunez, igoera datiboak dira biak, hau da, neurri batean *ihes* bezalako izenei loturik daudenak eta igoeraren bitartez, aditz laguntzailearen eremuan sartzen direnak. Ondoko adibidean igoera datibo sorta interesgarria dugu:

- (367) Argi dago: nire pentsamenduaren bat-bateko garapenaren lekuko naiz: so nagokio, adi natzaio; egiten diot kolpe bibolinari (*Denboraldi bat infernuan*, A. Rimbaud / M. Lasa)

²³⁵ Itxuraz PRO arbitrariokoa da *Herriatik* ere jaso dugun ondokoa: *Kalifornian negua izaki eta asexiak baiginen euriaz eta lanoaz, Patagoniako udak plazeregitzen zuen, han udaren erdia baitzen* (*Herria*, M. Etxamendi, 2005-07-28, 8).

Batetik *adi* predikatua dugu, baita *soren* kide hurbilak diren *begira* eta *beha* bezalakoak ukituko ditugu —ondoren 6.3 aztertuko ditugunak—. Baina hauezaz gain, *kolpe egin* predikatu konplexua daukagu hemen. Kasu honetan ere, datiboa ez da berez *egin* aditzaren argumentua: *kolpearen* helburua dugu, eta *eginen* laguntzailean islatzen bada, izenaren eremutik goiko predikatuaren eremura igo da. Honezaz gain, nabarmentzekoa da helburu hau ez dela biziduna, *kolpe* izena *eman* predikatuarekin batzen denean adierazten diren helburuek bidizunak izan behar ez duten bezala. Hedapen metaforikoa? Baliteke, baina orduan hedapen horien mugak ondo zehaztu beharko ditugu datibo helburuen eta biziduntasunaren arteko lotura ulertuko badugu.

6.3. Postposizioak

Egitura predikatiboetako adjektibo eta izenak izan dira azken orrialde haue-tan datiboarekin harremanetan aztertu ditugunak. Ikusi dugunez, egitura predika-tiboetan aditz arinekin batera agertzen diren osagaien kategoriak muga lausoak ditu batzuetan, eta osagaiari kategoria bat baino gehiago egotz dakioke —*atse-gin* gogoratu besterik ez dago—. Ildo honetan, ez da gure asmoa orain muga zehatzik jartzea adjektibo edota adberbioen artean —dagoeneko aztertu dugun *ernereren* kasuan adibidez—. Ezta, orobat, dena delako hitza postposizioa, adjek-tiboa edo zer ote den erabakitzea —*erne* bera esaterako—. Atal honetan, labur deskribatu eta aztertu nahi ditugu postposiziotzat jo izan direnen artean, bereziki datibo osagarria eskatzen dutenak, irakurleari hiztegiko datiboaren irudi osoa es-kaintzearren. Ondokoak dira nagusiki datibodun postposizioen artean aipa ditzakegunak: *aitzina*, *begira*, *beha*, *beheiti*, *behera*, *buruz*, *esker*, *goiti*, *gora*, *hurbil*, *hurran*, *kontra* edota *zelatan* (Lafitte 1944; Villasante 1983).

Zerrenda laburrari begiratzea besterik ez dago konturatzeko euretarik asko lekuzko postposizioak direla —*aitzina*, *beheiti*, *behera*, *goiti*, *gora*, *hurbil*, *hurran*, eta baita neurri batean, bederen, *buruz* edota *kontra* ere— eta leku-datiboa dela ezartzen dutena. Lekuzko postposizioek hautatzen dituzten leku-datibo hauek gogora ekarriko dizkiote irakurleari Fernández eta Landa (2009) eta Fernández eta Ortiz de Urbina (2009) lanetan aipagai izan ditugun datibo-postposizioak: *egon* —ikus Ortiz de Urbina (1995: 585), Camino (1997: 375)—, *hurbildu* edota Etxepare & Oyharçabalek (2008b,c) diotenez, *abiatu*,²³⁶ *joan* eta *itzuli* bezalako mugimenduzko aditzekin batera jasotzen direnak. Ostean, azken bi hizkuntzalariak dira leku-datibo hauek zehatzen eta sakonen aztertu dituztenak, bai deskribapenean bai analisi teorikoaren garapenean, eta irakurleari euren lan horietara jotzea gomendatzen diogu xehe-tasun bila. Guk lekuzko postposizio hauek alde batera utziko ditugu,²³⁷ eta

²³⁶ Aditz honi dagokionez, ikus Fernández eta Landa (2009), 27 oin-oharra.

²³⁷ Villasante (1983), Lafitte (1944) edota Pikabea (1993) lanak irakur daitezke, lekuzko postposizio hauei dagokienez.

lekuzkoak ez diren gainerako postposizioetara lerratuko gara. Bistan denez, hauek dira lekuzkoak ez diren postposizioak: *begira*, *beha*, *esker* eta *zelatan*. Lekuzkoaz gain, bestelako erabilera dute *buruz* eta *kontra* postposizioek, eta bereziki *buruz* izango dugu aipagai.

Ez dira asko datiboa hautatzen duten postposizioetatik lekuzkoak ez direnak. *Begira* aipa genezake lehenik, eta gorago, adjektiboen atalean 6.1 aztertu baditugu ere, *adi* edota *erne*, *begirarekin* batera eman genitzake. Beste bien kasuan, adjektibo edo besterik gabe postposizio ote diren eztabaida liteke, nahiz eta guri eztabaida horrek ez digun orain axola, baina *begiraren* kasuan, ziur aski *-ra* adlatiboaren marka morfologikoa oraindik ere gordetzen duenez, ez dirudi halako zalantzarik dugunik: postposizio sintagma baino ez da. Dena den, diferentzia morfologikoak alde batera, *adi* edota *ernek* bezalakoxe itxuraketa du, ondoren ikusiko dugunez.

Orobat, *begira* behar bezala ulertu nahi duenak *begiratu* aditzaren ezaugarri batzuk ere izan beharko lituzke gogoan. Adibidez, *begiratu* aditzak datiboaz markatzen du osagarria absolutiboarekin alternantzian. *Begirari* dagokionez, osagarria ez da, jakina, absolutiboaz markatzen (d), baina bai datiboaz (a), eta datibo hori adlatiboarekin (b,c) alternantzian ageri zaigu (Villasante 1983):

- (368) a. Herriari begira
- b. Etxera begira
- c. Kanpora begira
- d. *Herria/etxea/kanpoa begira

Begira postposizioaren adiera nagusian,²³⁸ datibo (a,b) nahiz adlatibo (c,d) alternantzia ikus daiteke, beraz, testigantza klasikoetan (OEH IV: 451-2):

- (369) a. Exerzitu bijak aurkituten ziran alkarri begira, baña eskubetara eldu baga (J JMg *BasEsc* 175s)
- b. Zeri begira zaude, arima tristea? Erremedio gabeko sententzia zure kontra eman arteo zaude? (Dv *Led* 235)
- c. Bakarrik alde onetan Bizkaira begira, / Itsasozko azañetan or agiri dira / Machin Mungui, Arbolancha, Bilbaotar ona (Aran *SIgn* 213)
- d. Elburu oro, gerora begira egon barik, indarrez eta matxiñadaz al-bait lasterren lortu nai leukie (Eguzk *GizAuz* 43)

Hala da baita gaur egungo testuetan ere, eta asko eta asko dira postposizio honen agerpenak. Guk bi baino ez ditugu jasoko, idazle berarenak biak.

²³⁸ *Begira* (V, G, L, Sal, R) “Mirando.” “*Tr.* Poco empleado en la tradición septentrional en este uso: no lo utilizan los suletinos y sólo se encuentra en Leizarraga, etcheberri de Ziburu, Gasteluçar, Argaiñarats y Chourio hasta mediados del s. XIX, aunque a partir de entonces se hace más frecuente. En los dialectos meridionales, sobre todo en los occidentales, su uso es general.” (OEH IV: 450).

Adlatiboa nahiz datiboa erakusten ditu lehenak (a) eta datiboa baino ez bigarrenak (b):

- (370) a. Atea zabaldu eta markoa apuntalaten nago, kanpora begira, auzo-koak etxaurrean lehortzen zabalduko izarari begira (*Lagun izoztua*, J. Sarrionaindia, 27)
- b. Amari begira, baina titiak eta sabela ikusi gabe (*Lagun izoztua*, J. Sarrionaindia, 42)

Alternantzia honen aztarnak jasotzea bat ere zaila ez den arren, ez gaur egun ez lehenago, zailago da erabakitzea zein diren datiboaren agerpenaren mugak. Villasantek (1983: 63), goiko (368a-c) adibideak eman dizkigunak, dio: “rige caso directivo o, cuando el nombre se concibe como ser animado, caso dativo.” Baina ez dirudi osagarria biziduntzat hartzea denik bakarrik datiboa erabiltzeko aukera ematen diguna. Bai, nahi bada, Villasanteren *herriari begira* adibidean, baina ez, oro har, datiboa erabiltzen den kasu ugarietan. Atzera egin beharko luke irakurleak ikusteko, gogoan ez baditu, *begiratu* aditzak datiboaz markatzen dituen osagarri bizigabeen erakusgarriak. Asko dira eta askotarikoak. Eta hori bera esan daiteke baita *begira* postposizioari dagokionez. Atxagaren nobela batetik²³⁹ ateratako agerpenetan *huriari begira*, *lorei begira*, *paisaiari begira* —baita *paisaiara begira*—, *zaldiei begira*, *itzulbideari begira*, *bideari begira*, *kikarako kafeari begira*, *liburuari begira*, eta abar luze batean, osagarri bizidunak badira —gizaki ez direnak ez ditugu zerrenda txiki honetan sartu—, baina asko eta asko bizigabeak dira. Eta ez dugu uste hori bera esan ezin daitekeenik beste egile askok *begira* postposizioaz egiten duten erabileraz.

Itxuraz, lekuzkoak diren osagarriek jasotzen dute errazen adlatiboa —*gora*, *behera*, *atzera*, *aurrera*, *iparrera*, *mendebaldera*, *itsasora*, *plazara begira*—, nahiz eta ezezagun ez zaizkigun *bideari* edota *paisari begira* ere. Beharbada, osagarria objektutzat hartzen denean, eta ez lekutzat, orduan datiboa hobetsi daitekeen aukera da, osagarria bizigabea izan arren. Hala dirudi: *izarrei begira* diogu, teleskopioaz ari garela, eta testuinguru honetan beharbada nekezago, *izarretara begira*; eta *mapari begira* diogu eta ez *mapara begira*. Dena den, Villasantek badu arrazoia hein batean, bizidunek datiboa jasotzeko joera ezin ukatuzkoa delako. Ostean, *beheari*, *goiari*, *aldamenari* edo *aurreri begira*, *behera*, *gora*, *aldamenera* edo *aurrera begiraren* ordeztu, besterik gabe ez dira gramatikalak.

Baina jo dezagun orain irakurleari ezagun egingo zaion beste ildo batera. *Begira* postposizioak, lehenago *adi* edo *erne* bezalakoez esan dugun bezala, predikatu konplexuak sor ditzake. Sarri *egon* aditz arinarekin batera ageri da, eta horrek pentsarazten digu ez dela oso diferentea izango, ezta datibo komunztadura harremanei dagokienez ere. Ikusi bestela:

²³⁹ Atxaga, Bernardo (2003) *Soinujolearen semea*. Pamiela.

- (371) a. Jainkoa zure aldean dezu, ta guztia begira dagokizu (Cb *Eg* III 384)
 b. Jainkoa zegokala betaz-beta begira, xoratzen bezela asi zan (Lar *Sagust* 14)
 c. Sermonadore barri orri egon naizako begira (Acto 305)

Adibide hauetan *egon* aditz arinarekin batera dagoen laguntzaileak datibo komunztadura zaintzen du —*dagokizu* adizkiak, adibidez (a)—. Jakina, *zuri* argumentua (a), ez da *egon* aditzaren argumentua, *begira* postposizioaren argumentua baino. Hala eta guztiz ere, komunztadura zaintzen du laguntzailean. Hortaz, datiboa mendeko *begirapean* sortzen bada ere, gora egiten du eratorpenean inflexioa besarkatuz. Igoera datiboa litzateke beraz. Oso bestela, badira mendeko *begirapean* sortu eta inflexiora igotzen ez diren datiboak. Halakoetan, ez da komunztadurarik eragiten, (a) adibidean bezala:

- (372) a. tartean hortxe irakurtzen Ernestek liburua itxi eta medikuari begira lotu da (*Hemingway eta euskaldunak zerbitzu sekretuetan*, E. Jimenez, 239)
 b. —Erbesteraturik zegoen —begira geratu natzaio (*ibid.*, E. Jimenez, 32)

Jimenezen bi adibide hauetan, *begira*, *lotu* edota *geratu* aditzekin ageri da egitura konplexua sortuz. Lehenean (a), ez da igoerarik —bestela *lotu zai*o izango genuke—; aldiz, bigarrenak (b) igoera islatzen du, goiko testigantza klasikoetatik (371) atera ditugunek bezala.

Begira predikatu konplexu hauetan agertu ahal izateak, eta sarri, gainera, ez du esan nahi nahitaez hala agertu behar duenik. Askotan postposizio hutsa da eta ez da predikatu konplexu baten atala, adibide sorta honetan ikusiko denez:

- (373) a. Ez zenion, bada, hor goian zeruari begira lo egiten utziko (*Azkenaz beste*, A. Lertxundi, 119)
 b. Zutitu, eta, ile-eskuila bat harturik, orraztu eta orraztu aritu zitzaion Nora, harik eta Mathildek, ispiluari begira beti, ile guztiak inolako lotura eta korapilorik gabe laxatzen zitzaizkiola ikusirik, Norari aski zela adierazi zion arte (*ibid.*, A. Lertxundi, 178)
 c. Denbora luzea egin zuen neska zuriz jantziari begira, baina hark zirkinik egiten ez zuenez, arnasa doi-doi bildu, eta eskumuturretik heldu zion (*ibid.*, A. Lertxundi, 218)

Hauxe da, bada, adiera nagusian postposizio honen itxuraz esan dezakeguna. Gainerakoan, *begira* postposizioak “zain” adieraz,²⁴⁰ genitibodun

²⁴⁰ *Begira* (V, G, L-ain, R-uzt). “Tr. Atestiguado en todos los dialectos, excepto en suletino. Parece, sin embargo, que su uso va disminuyendo progresivamente tanto al Norte —era casi general entre los labortanos hsta mediados del s. XVIII—, como al Sur, especialmente entre los guipuzcoanos a partir del s. XIX.” (OEH IV: 452).

osagarria ere erakusten du (a,b) —ikus baita Villasante (1983)—. OEhk (IV: 452-3) genitibodun adibideak dakartza nagusiki, nahiz eta datibodun sorta txiki bat ere badakarren (c), bigarren adiera honetan:

- (374) a. Plazer egiten duena plazeren begira dago (Volt 242)
 b. Kanpokoen lanari begira egon behar genuke. Ez, ordea, alferkerian eta, Oleaga zenak esaten zuen bezala, haien lanaren begira (MIH I, 98)
 c. Zuri begira egon giñan hamarrak arte (Elexp *Berg*)
 d. Zuri beire ementxe gaude ordubete ontan (Asp *Leiz2*)

Halakoetan, datiboa eta genitiboa alternantzia daudela dirudi, baina datiboaren agerpena ez zaio, gure ustez, igoerari zor. Gogoratu, beste batzuetan, jabe datiboan kasuan, adibidez, halaxe dela dirudi, hau da, sortzez dugun genitiboa eratorpenean zehar bihurtzen dela datibo.

Begiraren oso antzekoa da baita *beha*²⁴¹ ere. Hemen sorta txiki bat dakargu postposizio honen erakusgarri. Irakurlea ohartuko denez, *begira* postposizioaz esandakoa *behaz* ere esan dezakegu: osagarria datibo zein adlatiboaz markatzen du (a,b); *egon* aditz arinarekin predikatu konplexua osa dezake, eta orduan datibo komunztadura eragiten du batzuetan (d), eta bes-tetan ez (e); predikatu konplexuetatik kanpo, postposizio beregaina ere bada sarritan (a). Dena den, salbuespen linguistikoki interesgarri bat aurkitu dugu, oso idiolektala, ikusiko dugunez:

- (375) a. Zeruari eta izarrei beha baitarama denbora (Ch I 2, 1)
 b. Beti lurrera beha zaude. Bethi gogoa lurrean duzu (Harb 128)²⁴²
 c. Behazalea maizago bere gaizkiari ezen ez hunkiari beha dago (O *Pr* 84)
 d. Orohoit zaite Jainkoa beha dagotzula (Brct 191)
 Zuri begira egon giñan hamarrak arte (Elexp *Berg*)
 e. Bethi hiregana beha gaudelarik (Lç *ABC A 8r*)

²⁴¹ *Beha* (L, BN, Sal, S, R ap. A). “*Tr.* Propio de la tradición septentrional; no hay ejs. Alto-navarros, ni meridionales en general, hasta el s. XX (Irigaray, Orixe) y aún entonces escasean. La tradición bajo-navarra y labortana emplea *beha* sobre todo en el sentido de «mirando, atento con los ojos»; la suletina (salvo algún ej. de Eguiateguy), en el de «escuchando, atento con el oído». Leizarraga se sirve siempre del alativo, incluso con seres animados; salvo en él, se usa más frecuentemente el dat. En cualquier caso, estando el alativo restringido a inanimados.” (OEh IV: 260).

²⁴² Datibo komunztadurari dagokionez interesgarria da aipatzea predikatu konplexua *izan* aditz arinarekin osatzen den kasuetan, ez dagoela komunztadurarik: *Barkoxen baira / bi ama alabha; / algarri segretien khuntatzen ardüra. / Hek uste gabe heltü, haier beha zena (Etch404); Huna, Jinko, ororen Jauna, / zuri beha gira heben (CatS 132)*. Gaiari buruzko lanean aztertu beharko da hau.

(e) adibidean, adlatibo biziduna darabil Leizarragak. OEHk (IV: 260) dioenez —ikus 241 oin-oharra—, egile honek adlatiboa baino ez du erabiltzen *beha* postposizioarekin. Hautua are markatuagoa da, OEHri jarraituz kontuan hartzen badugu adlatiboa bizigabeekin bakarrik jasotzen dela. Adlatiboaren muga, beraz, nahikoa argia da, salbuespen bakarra alde batera, ez baita bizidunetara zabaltzen. Datiboaren eremua, berriz, ez da bizidunetara murrizten. Lausoagoa du muga, baldin eta mugarik badu.

Gainerakoan, *behak* ere goian *begira* postposiziorako zehaztu dugun “zain” adiera bera erakusten du:

(376) Orhoitzapenez bizi nuk geroaren beha (Jetchep 68)

Eta gaur egungo testuetan agerpen asko dituen postposizioa da, bi adieretan:

- (377) a. Zeri beha? Saltegiak aski bixtan ezarriak baitzituen zernahi arroltze, oilo, arrain eta ezkila, denak xokolatzekoak eta denak untsa polliki apainduak, haurrak beraz heieri so eta so... (*Herria*, 2004-04-15)
- b. Arrapostuaren beha daude orai (*Herria*, 2003-11-27)

*Zelatan*²⁴³ bera ere nahikoa antzekoa da jokabidez.²⁴⁴ Ez dugu honekin esan nahi datibo osagarria adlatiboarekin txandakatzen duenik. Antzekoa diogunean esan nahi dugu predikatu konplexua osa dezakeela eta postposizio beregaina izan daitekeela. Predikatu konplexua osatuz gero, ohikoa den *egon* arinarekin elkartzen da sarri, eta dagoeneko ezagunak zaizkigun datibo komunztadura konfigurazioak azaltzen dira —komunztaduraduna (a) zein komunztadurarik gabea (b)—. Gainerakoan, genitiboaz ere markatu ohi du osagarria, datiboarekin alternantzian (c,d):

- (378) a. Etsaia zelata dagokanean (Ax 342s (V 228))b. Arrapostuaren beha daude orai (*Herria*, 2003-11-27)
- b. Belarriak artez-artez dittuzala egon da guri zeletan (Otx 177)²⁴⁵
- c. Katua saguen zain, da mirua txindor papar-gorriaren zelaetan egoten direan antzera (*A BeinB* 55)
- d. Gure zelatan egon dela hor, ate-atzean [haurra] (Mde *HaurB* 39)

²⁴³ *Zelatan* (G-goi-azp, AN-gip-5vill, B; *zelaetan* V, G; *zeletan* L-côte) “Tr. Documentado desde Leizarraga tanto al Norte como al Sur. Lo emplean con dativo Axular, Haraneder, Toyhetche, Urruzuno, Otxola, Iraizoz, Etxaide e *IBk*, y con genitivo Aguirre de Asteasu, Duvoisin, Arrue, Beovide, Azkue, Etxaide (*JJ* 152) y Mirande.” (OEH XVI: 478).

²⁴⁴ Postposizio honi dagokionez, ikus baita Villasante (1983: 108).

²⁴⁵ Gaur egungo testuetan ere itxuraketa bertsuak aurki ditzakegu: *Etsaiak begira ditut, niri zelatan daudenek elkar hartu dute (Elizen arteko biblia, Askoren artean, Sal 71, 10) vs. Gaiztoak zelatan zegozkidan ni galtzeko, baina ni erne nengoen zure xedapenetara (Elizen arteko biblia, Askoren artean, Sal 119, 95).*

*Esker*²⁴⁶ postposizioak²⁴⁷ askozaz ere erabilera mugatuagoa du.²⁴⁸ Postposizio beregaina izan daiteke eta datiboaz markatzen du osagarria. Beregain diogunean esan nahi duguna da ez dela predikatu konplexuak sortzen dituzten goiko postposizioen modukoa —adibidez, *beha egon*—. Hemen zenbait adibidetan ikus daiteke:

- (379) a. Bizi naiz, zuri esker bizi naiz (Laph 75)
- b. Abagune oni eskar (Ldi II 47)
- c. Naizena haiei esker naizelako (MIH 367)

Jakina, *esker eman* bezalakoak ere aipa genitzake, eta horietan predikatu konplexua aurkitu. Horrek neurri batean lehenago —6.2— aztertu ditugun *eman* edota *egin* aditz arineko gainerako predikatu konplexuetara eramango gintuzke. Ez dugu hala egingo, han esandakoak gogoan izango direlakoan, baita *esker eman* honetarako ere.

Ikus dezagun amaitzeko, *buruz* postposizioa. Hasieran esan dugun bezala, lekuzkoa izan daiteke postposizio hau, nahiz eta lekuzkoa ere ez den erabilera erakusten duen. Bere bi alderdi horiek aipatuko ditugu jarraian, hala irakurleak ezagutuko du baita nolako den leku-datiboa eskatzen duen lekuzko postposizio bat ere.

*Buruz*²⁴⁹ postposizioak, “hacia, en dirección a” adieraz datiboaz markatzen du osagarria, hala nola, ondoko adibideetan (a,b). “Kontra” adieraz ere berdin (c):

- (380) a. Bizi berri bati buruz abia nadienzat (Dv Led 163)
- b. Baxenabar, Lapurdi eta Xuberoan / nik ez dakit jendea zeri buruz doan; / euskara itotzea hartu du gogoan (Xa Odol 224)
- c. Zer balentia! Berogei mila, ehüni bürüz! (Mde Pr 49)

Postposizioak datiboa erakusten du baita denbora esanahia duenean, esaterako, *Gabari buruz* (Sal) (Gte Erd 71).

²⁴⁶ *Esker* “Tr. Documentado en la tradición septentrional (y en Lizarraga de Elcano) hasta el presente siglo, en que es normalmente empleado al Sur, sobre todo en la segunda mitad.” (OEH VII: 320).

²⁴⁷ *Esker*, besterik gabe, izentzat har liteke. Dena den, goian esan dugun moduan, ez gaitu horrenbeste kezkatzen hitzaren kategoria zein den zehazteak. Ikus baita Etxepare & Oyharçabal (2008b,c) lekuzko datiboak hartzen dituzten zenbait hitzen kategoriarako —*aitzina, beheiti*, eta abar—.

²⁴⁸ Postposizio honetaz, ikus Villasante (1983: 76).

²⁴⁹ *Buruz* (BN, S) “Tr. Documentado sobre todo en textos de autores bajo-navarros y suletinos del los ss. XIX y XX. [...] En EI 200 se recoge como respuesta a «hacia la montaña, vers la montagne» *mendiri buruz* en Ainoa (L-ain). En AtSac 69, respondieron con dativo a «vers [le bois]» en diversos puntos de L-côte, BN-lab-ad-bard-arb-mix-ciz y S.” (OEH V:754).

Ez dirudi datibotik asko bereizten denik postposizio berak erakus dezakeen adlatiboa²⁵⁰ ere. (b) adibideak adlatiboa eta datiboa dakartza:

- (381) a. Bere emaztea eta umeak Mexikoko irian utzirik, Tepic eskualdera buruz atera zen (FIR 134)
- b. Ez duzue ikusten zuen armadaren oldarra ez dagoela Parisera buruz, bainan bai itsasoari buruz Frantsesen eta Anglesen junta trankaturik? (StPierre 20s)

Honek neurri handi batean leku-datiboek ohikoa duten datibo eta postposizio alternantzia erakusten du, kasu honetan adlatiboarekikoa. Txandaketa horren oihartzuna jaso izan dute euskalariek.²⁵¹ Esate batera, Pikabeak (1993: 218) dioenez, datiboa bizidunekin ageri da eta bizigabeekin adlatiboa:

- (382) a. Jesus Jauna itzuli zen hekiei buruz (Jn *SBI* 22)
- b. Itzuli zen berehala elizarat buruz (Jn *SBI* 52)

Alabaina, goian eman ditugun adibideek erakusten dutenez, datiboa bizigabeekin ere erabiltzen da, ez bizidunekin soilik. Oso litekeena da adlatiboa bizigabeetara mugatzea, baina datiboaren erabilera lehenago ere ikusi dugunez —adibidez, *begira egon* predikatu konplexuan—, ez da bizidunetara mugatzen eta bizigabeetara ere zabaltzen da.

Gaur egun ere *buruz* honen testigantza ugari aurkitu ditugu. *Herriara* joz gero, kasuistika osoa aurkituko du irakurleak: leku-datiboa (a), “kontra” adierakoa (b), denbora adierazten duena (c), datibo biziduna (d), eta baita adlatiboa bera ere (e):

- (383) a. Yemen aldeko itsasoan zoalarik Frintziari buruz petrolaz kargaturik, makur zerbait zako gertatu eta sua lotu. (*Herria*, 2002-10-17, 2)
- b. Ipar aldea oro beretua dute jazarleek eta jakin arazi dute hegoaldeari buruz eginen dutela orai beren oldarra, Abidjan hiri nausiaz jabetu artio (*Herria*, 2002-10-17, 2)
- c. Negu huntan tenkatu beharko da auzi hori, obrak egitekotan helduden udari buruz, rugbilarien sasoina bururatu-eta, ondokoa hasi aintzin... (*Herria*, 2001-11-08, 1)
- d. Taizé-ko anaidiak antolatzen du urte undar oroz elgarretaratze berezi bat, gazteeri buruz joanez. (*Herria*, 2001-06-07, 6)

²⁵⁰ Goiko azken oin-oharraren ildotik: “ En *EI* 220 se recoge como respuesta a «hacia la montaña, vers la montagne» *mendira buruz* (BN-ciz...)” (OEH V: 755).

²⁵¹ Ikus baita Villasante (1983:71). Lafittek (1944: 170-1) ez du *buruz* datiboa hautatzen duten postposizioen artean aipatzen, adlatiboa hautatzen dutenen artean baino ez.

- e. Mugarat buruz zoan kamiun bat, Suisatik heldu zena, bat-batean zeiharka joan da eta arrunt ixkuli! autobidearen zabaltasun guzia hartzen zuela! (*Herria*, 2001-01-25, 2)

Honaino ikusi dugun erabilera hau ez da hegoaldeko irakurleentzat, behintzat, ondoko hau bezin ezaguna: “-(r)en gainean, -(r)i dagokionez, -a gaitzat harturik” adieraz (Sarasola 2007: 256)²⁵² ari gara, osagarriaren markapenean datiboa erakusten duena. Hona pare bat adibide:

- (384) a. Finlandiako gauza askotaz berba egin dogu, baiña batez be ango literaturari buruz (*Alzola Atalak* 95)
- b. Ez da hizkuntzarik Europa osoan euskara bezain ilun eta ezkutu ageri denik, bere jatorriari eta kondairari buruz (MIH 146)

Gaur egungo hegoaldeko testuetan, hauxe da nagusitu den erabilera, leku-datiboaren kaltetan.

²⁵² *Buruz* (V-m, B, BN-lab-ciz, S) “*Tr.* Comienza a documentarse en la 2.^a mitad del s. XIX en textos septentrionales. En el s. XX se hace muy común tbn. entre los autores meridionales.” (OEH V: 755). Ikus baita Villasante (1983: 72).

7

Ondorioak

Honaino heldu da gure lana. Hasieratik aitortu dugun bezala, zabalak izan dira bai lanerako erabili dugun ikuspegia bai lan eremua bera. Datu asko eta askotarikoak jaso ditugu, eta ez, jakina denez, sistema bat eta bakarrekoak, guztiak euskararenak izan arren. Horrek, dudarik gabe, zaildu egingen du gaian gaiko hurbilketa. Nolanahi ere den, gure lanaren ildo nagusiak erraz bereiz daitezkeela uste dugu, eta xehetasun handiko ikerketa izanagatik ere, oinarrizko proposamen zehatzak ulertuko direlakoan gaude. Lanak izango du zer hobetu. Dena den, guretzat hau egitasmo osoago baten lehen urratsa baino ez denez, izango dugu berriro lan honetako ikergaietara itzultzeko parada, hipotesiak berrikusiz eta, adibidez, sintaxiaren lantresnez beraztertuz.

Aipamenak

- Aikhenvald, Alexandra Y., Robert M.W. Dixon & Masayuki Onishi (arg.). 2001. *Non-canonical marking of subjects and objects*. Amsterdam: John Benjamins.
- Albizu, Pablo. 1997. *The Syntax of Person Agreement*. Doktorego tesia, University of Southern California, AEB.
- Albizu, Pablo. 1998. «Generalized Person-Case Constraint: A Case for a Syntax-Driven Inflectional Morphology». In M. Uribe-Etxebarria & A. Mendikoetxea (arg.), *Theoretical Issues on the Morphology-Syntax Interface*. ASJUren gehigarriak XL. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia/EHU. 1-33.
- Albizu, Pablo. 2001. «Datibo sintagmen izaera sintaktikoaren inguruan: eztabaidarako oinarritzko zenbait datu». In B. Fernández & P. Albizu (arg.), *Kasu eta Komunztaduraren gainean. On Case and Agreement*. Bilbo: EHUko Argitalpen Zerbitzua. 49-69.
- Albizu, Pablo. 2008. «Tensed Clauses and Case Theory». *Licensing conditions at the interface. International Encounter at the Summer Courses of the University of the Basque Country*. XXVI Uda-ikastaroak, Donostia, ekainak 23-24.
- Albizu, Pablo. 2009. «Construcciones inacusativas con dativos posesivos y dativos de interés en vasco: un análisis derivacionalista». Seminario de Lingüística Teórica, CSIC, Madrid.
- Aldezabal, Izaskun, M. Aranzabe, A. Atutxa & M. Lersundi. 2002. «Levin-ek *English verb classes and alternations* (1993) liburuan proposatzen dituen ingeleserako alternantziak euskararekin parekatuz ». Barne txostena, UPV/EHU.
- Aldezabal, Izaskun. 2004. *Aditz-azpikategorizazioaren azterketa sintaxi partzialetik sintaxi osorako bidean. 100 aditzen azterketa, Levin-en (1993) lana oinarri hartuta eta metodo automatikoak baliatuz*. Doktorego tesi argitaragabea, UPV/EHU.
- Arregi, Eurídice. 2003a. «On Possessor Raising Effects in Basque». Eskuizkribua, UPV/EHU.
- Arregi, Eurídice. 2003b. «On Dative Alternations in Basque». Eskuizkribua, UPV/EHU.
- Arregi, Eurídice & Javier Ormazabal. 2003. «Aditz ditransitiboen barne-egitura». In J.M. Makazaga & B. Oyharçabal (arg.), *Euskal gramatikari buruzko eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian. Gramatika gaiak*. Iker-14 (I). Bilbo: Euskaltzaindia. 119-136.

- Artiagoitia, Xabier. 2000. *Hatsarreak eta parametroak lantzen*. Gasteiz: UPV/EHU eta Arabako Foru Aldundia.
- Baker, Mark. 1988. *Incorporation: a theory of grammatical function changing*. Chicago: University of Chicago Press.
- Belletti, Adriana & Luigi Rizzi. 1988. «Psych-Verbs and Theta-Theory». *Natural Language and Linguistic Theory* 6: 291-352.
- Bhaskararao, Peri & Karumuri V. Subbarao (arg.). 2004. *Non-nominative subjects*, 1, Amsterdam: John Benjamins.
- Bobaljik, Jonathan D. eta Phil Branigan. 2006. «Eccentric agreement and multiple case checking». In A. Johns, D. Massam eta J. Ndayiragije (arg.), *Ergativity: Emerging Issues*. Dordrecht: Springer. 47-77.
- Camino, Iñaki. 1997. *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*. Iruñea: Nafarroako Gobernua, Hezkuntza eta Kultura Departamentua.
- Chomsky, Noam. 1981. *Lectures on government and binding*. Dordrecht: Foris.
- Cuervo, María Cristina. 1999. «Quirky but not eccentric: Dative Subjects in Spanish». *MITWPL 34, Papers on Morphology and Syntax*. Cambridge (Mass.): MIT. 213-228.
- Cuervo, María Cristina. 2003. *Datives at large*. Doktorego tesia, MIT.
- De Rijk, Rudolf. P.G. 2003. «Antipasiboak euskarari». In J.M. Makatzaga eta B. Oyharçabal (arg.), *Euskal gramatikari eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian. Gramatika gaiak*. IKER 14 (1). Bilbo: Euskaltzaindia. 385-393.
- De Rijk, Rudolf. P.G. 2008. *Standard Basque. A progressive grammar*. Cambridge (Mass.): MIT Press.
- Deustuko Hizkuntzalaritza Mintegia. 1989. «Inkorporazioa perpaus kausatiboetan». In P. Salaburu (arg.), *Sintaxi teoria eta euskara*. Donostia: UPV/EHU. 87-119.
- Elordieta, Arantzazu. 2001. *Verb Movement and Constituent Permutation in Basque*. Utrecht: LOT.
- Etxepare, Ricardo. 2003. «Valency and argument structure in the Basque Verb». In J.I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. 363-425.
- Etxepare, Ricardo & Bernard Oyharçabal. 2008a. «Dative structures in standard and north-eastern Basque». *Licensing conditions at the interface. International Encounter at the Summer Courses of the University of the Basque Country*. XXVI Uda-ikastaroak, Donostia, ekainak 23-24.
- Etxepare, Ricardo & Bernard Oyharçabal. 2008b. «Locational datives and dative agreement in the Eastern Dialects of Basque». *European Dialect Syntax Meeting III*. Venezia, 2008 irailak 18-21.
- Etxepare, Ricardo & Bernard Oyharçabal. 2008c. «Leku-datiboa ekialdeko zenbait hizkeratan». *Aldaketak, aldaerak, bariazioak euskarari eta euskal testugintzan*. Baiona, 2008 abenduak 12-13.
- Euskaltzaindia. 1985. *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak I*. Iruñea: Institución Príncipe de Viana eta Euskaltzaindia. [Birrarg. Euskaltzaindia. 1991]
- Euskaltzaindia. 1987. *Euskal Gramatika. Lehen urratsak II*. Bilbao: Euskaltzaindia.
- Fernández, Beatriz. 1997. *Egiturazko kasuaren erkaketa euskarari*. Bilbo: UPV/EHU-ren Argitarapen Zerbitzua.
- Fernández, Beatriz. 2001. «Absolutibo komunztaduradun ergatiboak, absolutibo komunztaduradun datiboak: Ergatiboaren Lekualdatzetik Datiboaren Lekualdatzera». In Beatriz Fernández & Pablo Albizu (arg.), *On Case and Agreement. Kasu eta Komunztaduraren gainean*. EHU-UPVko Argitarapen Zerbitzua. 87-112.

- Fernández, Beatriz & Marijose Ezeizabarrena. 2003. «Itsasaldeko solezismoa, Datiboaren Lekualdatzearen argipean». In J.M. Makazaga & B. Oyharçabal (arg.), *Euskal Gramatikari eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian. Gramatika gaiak, Iker*, 14-1. Bilbao: Euskaltzaindia. 255-278.
- Fernández, Beatriz. 2004. «*Gustatzen nau gustatzen dizu*: aditz laguntzaile eta komunztadura bitxiak perpaus ez-akusatiboetan». In P. Albizu & B. Fernández (arg.), *Euskal gramatika XXI. mendearen atarian: arazo zaharrak, azterbide berriak*. Gasteiz: UPV/EHU / Arabako Foru Aldundia. 89-112.
- Fernández, Beatriz. 2007. «High and low datives in Basque bivalent constructions». Eskuizkribua, Rutgers.
- Fernández, Beatriz. 2008. «Quirky dative objects in Basque». *European Dialect Syntax Meeting III*, Venezia, 2008 irailak 18-21.
- Fernández, Beatriz & Josu Landa. 2009. «Datibo komunztadura beti zaindu, inoiz zaindu ez eta batzuetan baino zaintzen ez denean. Hiru ahoko aldagaia, datu iturri bi, eta erreminta bat: Corsyntax». [Argitaratzeaz: *Lapurdum*, Baiona.]
- Fernández, Beatriz & Jon Ortiz de Urbina. 2009a. «Datibo alternatiboak hizkeretan eta hiztegian». *Euskaren sintaxia: aldakortasun sintaktikoa euskal hizkeretan. XXVIII Donostiako Uda Ikastaroak/XXI Europar ikastaroak*. Donostia, uztaialak 2-3.
- Fernández, Beatriz & Jon Ortiz de Urbina. 2009b. «Core and peripheral datives: Dative agreement drop in Basque». *Case in and across languages*. Helsinki, 2009 abuztuak 27-29.
- Fernández, Beatriz, Jon Ortiz de Urbina & Josu Landa. 2009. «Komunztadurarik gabeko datiboan gakoetz». In R. Etxepare, R. Gómez & J. Lakarra (arg.), *Beñat Oihartzabali gorazarre. Festschrift for Bernard Oyharçabal*. ASJU XLIII:1-2. 357-380.
- Fernández, Beatriz & Milan Rezac. 2009. «Datibo osagarri bitxiak eta Datiboaren Lekualdatzea: *ari nai diyot* eta *kanta egin nazu* bidegurutzean». In B. Fernández, P. Albizu & R. Etxepare (arg.), *Euskara eta euskarak: aldakortasun sintaktikoa aztergai*. ASJU. [Inprimatzen]
- Fernández, Beatriz & Pablo Albizu (arg.). 2001. *Kasu eta Komunztaduraren gainean. On Case and Agreement*. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Internet-en eskuragarri: http://www.ehu.es/servicios/se_az/pags/frp03/c40filol.pdf]
- Hale, Kenneth. 2001. «Eccentric Agreement». In B. Fernández eta P. Albizu (arg.), *Kasu eta Komunztaduraren Gainean. On Case and Agreement*, Bilbo, UPV/EHU-ko Argitarapen Zerbitzua. 15-48.
- Hale, Kenneth eta Samuel Jay Keyser. 1993. «On Argument Structure and the Lexical Expression of Syntactic Relations». In: Kenneth Hale eta S.J. Keyser (arg.), *The View From Building 20*, Cambridge (Mass.): The MIT Press. 53-109.
- Halle, Morris eta Ken Hale. 1997. «Chukchi transitive and antipassive constructions». Eskuizkribua, MIT.
- Harris, Alice. 1981. *Georgian Syntax. A Study in Relational Grammar*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Hirschbühler, Paul & Sam Mchombo 2006. «The Location Object Construction in Romance and Bantu: Applicatives or not?». Poster presented at the *Bantu-Romance Connection: An ESF Exploratory Workshop*. University of Leeds. Maiatzak 26-27.
- Hopper, Paul & Sandra Thompson. 1980. «Transitivity in Grammar and Discourse». *Language* 56, 251-299.

- Hualde, José Ignacio. 2003. «Case and number inflection of noun phrases». In Hualde, José Ignacio & Jon Ortiz de Urbina (arg.). 2003. *A Grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. 171-186.
- Hualde, José Ignacio & Jon Ortiz de Urbina. 1987. «Restructuring with ARI». *ASJU* 21, 425-452.
- Hualde, José Ignacio & Jon Ortiz de Urbina (arg.). 2003. *A Grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter.
- Lafitte, Pierre. 1944. *Grammaire Basque (Navarro-Labourdin Littéraire)*. Librairie Le Livre, Baiona. [Birrarg. 1979. Donostia: Elkar.]
- Lafon, René. 1944. *Le système du verbe basque au xvie siècle*, Bordele. [Birrarg. 1980. Donostia: Elkar.]
- Laka, Itziar. 1988. «Configurational heads in inflectional morphology: the structure of the inflected forms in Basque». *ASJU* XXII-2. 343-365.
- Laka, Itziar. 1993. «Unergatives that assign ergative, unaccusatives that assign accusative». In J.D. Bobaljik & C. Phillips (arg.), *Papers on Case and Agreement I*, MITWPL 18. 149-172.
- Laka, Itziar. 2003. «Ari progresiboaz: euskararen kasu markak». In P. Albizu eta B. Fernández (arg.), *Euskal gramatika XXI. mendearen atarian: arazo zaharrak, azterbide berriak*. Gasteiz: UPV/EHU eta Arabako Foru Aldundia. 113-132.
- Lardizabal, Francisco I. de. 1856. *Gramática vascongada*. Donostia.
- Levin, Beth. 1993. *English verb classes and alternations: A preliminary investigation*. Chicago/London: The University of Chicago Press.
- Levin, Beth & Malka Rappaport Hovav. 2005. *Argument realization*. Cambridge: Cambridge University Press.
- McFadden, Thomas. 2004. *The position of morphological case in the derivation: a study on the syntax-morphology interface*. Doktorego tesia, University of Pennsylvania.
- Mitxelena, Luis eta Ibon Sarasola. 1989-2005. *Diccionario General Vasco. Orotariko Euskal Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Moore, John. & David M. Perlmutter. 2000. «What does it take to be a dative subject?». *NLLT* 18/2, 373-416.
- Mounole, Celine. 2008. «Evolution of the transitive verbs in Basque and emergence of dative-marked patients». In G. Authier & K. Haude (arg.), *Ergativity, Transitivity and Voice*. Berlin: Mouton de Gruyter.
- Oyharçabal, Bernard. 1990. «Structural and inherent case-marking: Ergaccusativity in Basque». In J.A. Lakarra & J. Ortiz de Urbina (arg.), *Syntactic Theory and Basque syntax*. ASJUren gehigarriak XXVII. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. 309-342.
- Oyharçabal, Bernard. 2007a. «Argument Structure Building: Applicative Heads in Basque». *Workshop on Argument Structure and Syntactic Relations*. Baiona: IKER, CNRS, 2007. Maiatzak 23-25.
- Oyharçabal, Bernard. 2007b. *Basque Ditransitives*. Eskuizkribua, IKER, CNRS.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1995. «Datibo komuntaduraren gainean». In R. Gómez & J.A. Lakarra (arg.), *Euskal Dialektologiako Kongresua (Donostia, 1991ko Irailak 2-6)*, ASJUren Gehigarriak XXVIII. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. 579-588.
- Ormazabal, Javier. 2000. «A conspiracy theory of case and agreement». In R. Martin et al. (arg.), *Step by Step: Essays on Minimalist Syntax in Honor of Howard Lasnik*. Cambridge (Mass.): The MIT Press. 235-260.
- Ormazabal, Javier eta Juan Romero. 2007. «Object agreement restrictions». *Natural Language and Linguistic Theory* 25: 315-347.

- Payne, Doris. L. & Immanuel Barshi. 1999. *External Possession*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins.
- Perlmutter, David M. 1978. «Impersonal passives and the unaccusative hypothesis». In J.J. Jaeger & A.C. Woodbury (arg.), *BLS* 4, 157-189.
- Perlmutter, David M. (arg.). 1983. *Studies in Relational Grammar* 1. Chicago: Chicago University Press.
- Perlmutter, David M. & Carol G. Rosen (arg.). 1984. *Studies in Relational Grammar* 2. Chicago: Chicago University Press.
- Pylkkänen, Liina. 2008. *Introducing arguments*. Cambridge/London. The MIT Press.
- Pikabea, Josu. 1993. *Lapurtera idatzia (xvii-xix). Bilakaera baten urratsak*. Donostia: EHU & Kutxa Fundazioa.
- Rezac, Milan. 2006. *Agreement displacement in Basque: Derivational principles and lexical parameters*. Eskuizkribua, UPV/EHU.
- Rezac, Milan. 2008. «The syntax of eccentric agreement: The Person Case Constraint and Absolute Displacement in Basque». *Natural Language and Linguistic Theory* 26. 61-106.
- Rezac, Milan. 2009. «Person restrictions in Basque intransitives». *Lapurdum*, Baiona. [Inprimatzen]
- Rizzi, Luigi. 1986. «On chain formation». In H. Borer (arg.), *The syntax of pronominal clitics. Syntax and Semantics*, 19, Orlando: Academic Press. 65-95.
- Rizzi, Luigi. 1990. *Relativized minimality. Linguistic Inquiry Monograph* 16. Cambridge (Mass.): The MIT Press.
- Sarasola, Ibon. 2007. *Euskal hiztegia*. Donostia: Elkar.
- Sarasola, Ibon. 2008/09. *Egungo euskararen hiztegia (EEH). F-J. Leioa: Euskara Institutua, UPV/EHU*. [Internet-en eskuragarri: <http://www.ehu.es/eeh>]
- Sigurdhsson, Halldór Á. 2004. «Icelandic non-nominative subjects: facts and implications». In P. Bhaskararao & K.V. Subbarao (arg) *Non-nominative subjects*, 2, Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins. 137-159.
- Trask, Robert L. 1977. «Historical syntax and Basque verbal morphology: two hypotheses». In W.A. Douglas, R. Etulain & W.H. Jacobsen (arg.), *Anglo-american contributions to Basque studies. Essays in honor of Jon Bilbao*. Reno: Univ. of Nevada.
- Uribe-Etxebarria, Myriam. 1989. «On noun incorporation in Basque and some of its consequences in the phrase structure». Eskuizkribua, Univ. of Connecticut.
- Villasante, Luis. 1980. *Sintaxis de la oración simple*. Oñate: Editorial Franciscana Aranzazu.
- Villasante, Luis. 1983. *Estudios de sintaxis vasca*. Oñate: Editorial Franciscana Aranzazu.
- Zulaika, Esther. 1999. *Ioanes Leizarragaren aditza*. Donostia: Deustuko Unibertsitatea

Ereduzko Prosa Gaur (EPG). <http://www.ehu.es/euskara-orria/euskara/ereduzkoa/>
Klasikoen Gordailua (KG). <http://klasikoak.armiarma.com/>

Corsintax, corpus arakatzaileria (Landa 2008). <http://weblingua.ametza.com/corsintax/>

Aurkibideak

Hitzen aurkibidea

- Abiatu 56, 57, 213
Abisatu 130, 132, 133, 138, 156, 159, 171
Adi (egon) 34, 182, 202, 203, 204, 213, 214, 215
Agindu 177
Agur egin 182, 183
Aitzina 213, 219
Akordatu 86, 88, 89, 101
Alde egin 183, 197, 212
Ahantzi 89
Ahaztu 11, 25, 47, 54, 86, 89, 96, 97, 101, 102, 106
Aihher (izan) 203, 204
Arazi 22, 29
Ardura 83, 105
Arduratu 82
Ari (izan) 19, 29, 43, 60, 111, 115, 116, 118
Atera 57, 177, 178, 192, 193, 194
Atsegin (izan), egin, eman 199, 200, 201, 202, 204, 206, 207, 210, 211, 213
Atsegindu 201, 206
Atxiki 42, 45, 46, 47, 48, 77, 117, 169
Aurre egin 180, 182, 183, 194
Ausartu 63, 67
Axola (izan) 79, 80, 102-104, 105, 212
Azaldu 177
Babestu 131, 147, 190
Balio (izan) 53, 180
Banandu 190
Barkatu 132, 156, 157, 158, 159, 161, 170
Begira 213, 214, 215, 216, 217, 218, 220
Begiratu 17, 71, 73, 131, 132, 144, 145, 146, 147, 148, 149, 155, 156, 159, 162, 170, 214, 215
Begitandu 76, 80, 86, 88, 93, 94, 96, 99, 106
Beha 213, 217-219
Beharrezko 205
Beheiti 213, 219
Behera 123, 213, 215
Berdin (izan) 105, 208, 209
Bermatu 60-66
Bultzatu 157, 159, 162, 163
Bururatu 16, 41, 76, 78, 79, 85, 86, 88, 93, 96, 106
Buruz 213, 214, 219, 220, 221
Damu (izan) 76, 97, 99, 106, 212
Damutu 24, 76-78, 83-86, 88, 95, 97, 99, 100, 106, 208
Dei egin 28, 182, 183
Deitu 22, 55, 128, 130, 133-136, 144, 156, 159, 170, 178
Dibortziatu 190
Dolu (izan) 99, 106, 212
Dolutu 76-78, 85-88, 99, 100-101, 106
Egon 36, 54, 63, 92, 182, 202, 204, 213-218, 219, 220
Ekarri 174, 177, 193-194
Ekin 17, 18, 28, 110-117, 120, 121, 124, 128, 129, 137, 167
Eman 27, 28, 60-62, 110-111, 113, 117-119, 124, 128, 129, 160, 174-177, 182, 183, 201, 210-213, 219
Entzun 129, 130, 132, 136-138, 139, 144, 156, 159, 170
Erabili 174
Eragin 110, 111, 113, 115, 118, 119, 128
Erakutsi 56, 174, 175, 177, 184
Eragon 111, 113, 119-120, 128, 174
Eraman 174, 193, 194
Erantzun 177
Erasan 110, 113, 115, 118, 174
Eraso 111, 113, 115, 124, 150, 153, 174
Erauntsi 173, 174

Erausi 173
 Erion 48-52
 Erne (egon) 63, 182, 213-215, 218
 Erosi 21, 24, 177, 178, 189, 190, 193
 Erregutu 132, 156, 157, 159-161
 Erreparatu 126, 131, 132, 144, 148-149, 155, 159, 170
 Esan 116, 177
 Esetsi 131, 132, 144, 150-151, 155, 159, 170
 Eskaini 21, 177
 Esker 213, 214, 219
 Eskertu 130, 132, 133, 138, 139, 144, 156, 159, 170
 Espero (izan) 189, 190
 Erruki 207-208
 Etorri 15, 17, 18, 21, 29, 38, 39, 54, 56, 79, 193
 Etsi 17, 18
 Eutsi 33, 34, 47, 48, 110, 113, 121-123, 128
 Falta (izan) 38, 53
 Fidatu 21, 62, 63, 65, 88, 92
 Fidel (izan, egon) 204, 205, 206
 Gaitzi izan 206
 Gaitzitu 85, 206
 Galdetu 177
 Garbai 106
 Garbatu 76, 85, 86, 99, 106
 Goiti 213
 Gora 213, 215
 Gorde 178, 190
 Gogoratu 41, 47, 54, 86, 88, 89, 90, 101-102, 104, 107
 Gorrotatu 104
 Gustatu 15, 18, 29, 76, 77, 79, 85, 86, 90, 92, 101, 107
 Haizu (izan) 208, 209
 Harritu 100,
 Hartu 177, 178, 187, 189, 190, 191
 Hasi 60
 Heldu 38, 39, 56, 110, 111, 113, 115, 120, 121, 123, 124, 128, 168
 Higuin (izan) 201, 202, 204, 206, 207, 210, 211
 Higuindu 206
 Hitz eman 182
 Hondatu 181, 191
 Hurbil 213
 Hurbildu 23, 31, 38, 39, 41, 56, 213
 Hurran 213
 Ibili 54, 116
 Iguriki 132, 156, 157, 159, 163-164, 170
 Ihes egin 26, 58, 183, 197, 198, 212
 Ikasi 189-191
 Inporta (izan), 79, 80, 102-105
 Interesatu 76, 77, 79, 82, 85, 86, 88, 90-92, 100, 107
 Ireki 17, 18, 100
 Iritzi 110, 111, 113, 121, 125-127, 128, 147, 173
 Irudi 82, 127
 Iruditu 76, 79-82, 86, 88, 93, 96, 97, 107, 209, 210
 Itxaron 132, 156, 157, 159, 164-165, 170, 173
 Itzuli 38, 39, 213, 220
 Jaiki 18
 Jariatu 48, 52, 53
 Jario 42, 48, 49, 52, 53
 Jarraiki 34, 42-44, 60, 62, 71, 73, 130, 132, 159, 165, 166, 167, 171
 Jarraitu 36, 43, 71, 73, 130, 144, 165-167, 171
 Jarri 177, 178, 180
 Jaso 178, 190-192
 Jazarri 71, 131, 132, 144, 151-152, 155, 159, 171
 Jo 55-56, 60, 115, 178
 Joan 22, 24, 25, 38, 39, 54-56, 193, 213
 Kantatu 54, 180
 Kalte egin 182, 183
 Kasu egin 63, 182, 183
 Kendu 177, 191, 192, 194
 Kontatu 177
 Kontra 33, 39, 64, 99, 126, 213, 214
 Kontseilatu 132, 157, 159-161
 Laga 131, 132, 144, 152-153, 155, 159, 171
 Lagundu 34, 124, 130, 132, 133, 139-143, 159, 171
 Laket (izan) 76, 81, 92, 97-99, 107, 212
 Laketu 85-86, 92, 93, 95-99
 Leial (izan, egon) 28, 37, 204-206
 Leporatu 177
 Libratu 190
 Lotu 29, 41, 43, 59, 60, 61, 216
 Manatu 132, 157, 159, 161
 Men egin 182
 Min egin/eman 182, 183
 Musu eman 182
 Muzin egin 182, 183
 Obeditu 132, 156, 157, 159, 161-162, 171, 185
 Ohartu 62, 63, 67-69, 92
 Oratu 34, 132, 156, 157, 159, 168-169
 Oroitu 86, 88, 90, 101, 102, 107
 Otu 76, 85, 86, 88, 93-94, 96, 107
 Pentsatu 63, 70
 Plazer (izan), egin, eman 211, 212
 Segitu 71-73, 130, 132, 133, 159
 Sinestu 70
 So egin 182, 183
 Solastatu 117
 Sortu 189
 Su eman 182
 Ukitu 131, 144, 154-155, 159, 171
 Uko egin 182, 183
 Urrikaldu 62, 63, 67, 69-70
 Urriki (izan) 99, 107, 212
 Urrikitu 76, 85-88, 95, 97, 99, 107
 Utzi 132, 157, 159, 169, 171, 177
 Zaindu 190
 Zale 207
 Zelatan 213, 214, 218
 Zilegi (izan) 208-209
 Zor (izan) 182

Egileen aurkibidea

- Aikhenvald, Alexandra Y. 75
Albizu, Pablo 110, 126
Aldezabal, Izaskun, M. 19, 122
Aranzabe, M. 19
Arregi, Eurídice 26, 178, 187, 188, 189, 190, 193
Artiagoitia, Xabier 186
Atutxa, A. 19
Baker, Mark 185, 187
Barshi, Immanuel 25
Belletti, Adriana 75
Bhaskararao, Peri 75, 97
Bobaljic, Jonathan D. 77
Branigan, Phil 77
Camino, Iñaki 213
Chomsky, Noam 19, 91, 126
Cuervo, María Cristina 75
De Rijk, Rudolf P.G. 42, 45-47, 53, 102
Deustuko Hizkuntzalaritza Mintegia 59
Dixon, Robert M.W. 75
Elordieta, Arantzazu 186
Etxepare, Ricardo 20, 25, 55, 59, 61, 85, 86, 110, 116, 140, 142, 150, 157, 179, 213, 219
Euskaltzaindia 12, 15, 16, 110
Ezeizabarrena, Marijose 127
Fernández, Beatriz 20, 22, 31, 43, 59, 61, 63, 64, 67, 70, 71, 72, 91, 92, 99, 102, 116, 127, 145, 156, 183, 186, 191, 203, 204, 206, 208, 213
Hale, Kenneth 77, 109
Hale, Morris 77
Harris, Alice 75
Hirschbühler, Paul 186
Hopper, Paul 47
Hualde, José Ignacio 16, 60, 116
Keyser, Samuel Jay 109
Lafitte, Pierre 49, 60, 213, 220
Lafon, René 48, 112, 173, 174
Laka, Itziar 16, 91, 115, 126, 183
Landa, Josu 12, 20, 22, 43, 59, 61, 62, 64, 67, 70, 71, 72, 91, 92, 99, 116, 141, 183, 203, 204, 206, 208, 213
Lardizabal, Francisco I. de 49, 68, 113, 117, 133, 151, 152, 154, 165, 167, 203
Lersundi, Mikel 19
Levin, Beth 11, 19, 24, 78, 176, 184
McFadden, Thomas 31, 187
Mchombo, Sam 186
Mixelena, Luís 12, 165, 191
Moore, John 75
Mounole, Celine 34, 130
Onishi, Masayuki 75
Ormazabal, Javier 110, 178, 187, 193
Ortiz de Urbina, Jon 20, 31, 59, 60, 62, 67, 70, 71, 91, 92, 99, 102, 116, 203, 204, 206, 208, 213
Oyharçabal, Bernat 20, 27, 116, 117, 178, 181, 213
Payne, Doris L. 25
Perlmutter, David M. 17, 75, 92
Pylkkänen, Liina 27, 32, 56, 179, 181, 186, 187
Pikabea, Josu 62, 63, 65, 66, 67, 70, 213, 220
Rappaport Hovav, Malka 11, 176, 184
Rezac, Milan 110, 127, 145, 156
Rizzi, Luigi 19, 75, 78, 106
Romero, Juan 110
Rosen, Carol G. 92
Sarasola, Ibon 11, 12, 33, 37, 52, 63, 89, 91, 101, 119, 121, 122, 123, 124, 134, 140, 142, 144, 147, 148, 150, 154, 155, 157, 162, 165, 167, 169, 195, 221
Sigurdhsson, Halldór Á. 75
Subbarao, Karumuri V. 75, 97
Thompson, Sandra 47
Trask, Robert L. 16
Uribe-Etxebarria, Myriam 183
Villasante, Luis 19, 68, 165, 213, 214, 215, 217, 218, 219, 220, 221
Zulaika, Esther 52, 58

